# SEXU ERASOAK

*Nola bizitzen diren, nola ulertzen diren, eta nolako arreta ematen zaien*



EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA · DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ISBN 978-84-457-3185-7

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

# SEXU ERASOAK

## *Nola bizitzen diren, nola ulertzen diren, eta nolako arreta ematen zaien*

Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako esplorazio-ikerlan kualitatiboa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Atención a las Victimas de
la Violencia de Género

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2011

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

**http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka**


| | |
|---|---|
| Argitalpena: | 1.a, 2011ko abendua |
| Ale-kopurua: | 500 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Herrizaingo Saila |
| Internet: | www.euskadi.net |
| Argitaletxea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Egileak: | Sortzen Consultoria, S.L. |
| Azala: | Obraren izenburua: *Destruida*<br>Egilea: Blanca Pérez de Unzueta Arrieta<br>Egileak dohainik lagatzen ditu azaleko irudia, liburua hau argitaratzeko bakar-bakarrik |
| Fotokonposizioa: | RGM, S.A.<br>Pol. Igeltzera Pab A 1 bis • 48610 Urduliz-Bizkaia |
| Inprimatzea: | RGM, S.A.<br>Pol. Igeltzera Pab A 1 bis • 48610 Urduliz-Bizkaia |
| ISBN: | 978-84-457-3185-7 |
| Lege-gordailua: | BI 3263-2011 |

## AURKIBIDEA

1. SARRERA . . . . . 11

2. METODOLOGIA . . . . . 15

2.1. Fenomenoaren mugak . . . . . 18

2.2. Biztanleen mugak . . . . . 19

2.3. Erakunde-politikak . . . . . 20

2.4. Elkarte-mugimenduaren ekarpenak. . . . . . 21

2.5. Informazio-bilketa . . . . . 21

2.5.1. Eztabaida-taldeak. . . . . . 21

2.5.2. Elkarrizketa sakonak profesionalekin eta elkarteetako kideekin . . . . . 22

2.6. Praktika Onen Bankua . . . . . 22

3. XEDEA ETA HELBURUAK . . . . . 23

3.1. Xedea . . . . . 25

3.2. Helburuak . . . . . 25

4. SEXU ERASOEN SALAKETEI BURUZKO DATUAK . . . . . 27

4.1. EAEko 2009ko sexu-erasoen ezaugarriak . . . . . 29

5. BORONDATE BATEK BESTEA ERABAT MENDERATZEA, EDO ZERGATIK DIRA EMAKUMEAK EZETZ ESATERA BEHARTUTA DAUDENAK? . . . . . 33

5.1. Giltzarria ez da sexualitatea, baizik eta boterea . . . . . 35

5.2. Sexu- eta genero-ereduaren eginkizuna sexu-erasoetan . . . . . . . . . . . . . . . 37
5.2.1. Beldurra=bortxaketa=beldurra=bortxaketa . . . . . . . . . . . . . . . . 39
5.3. Sexu-erasoei buruzko ikuspegi feministak. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40
5.3.1. Berrikuspen historiko laburra. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40
5.3.2. «Sexu-erasoa da emakume bati gerta dakiokeen okerrena» . . . . . . . . . 42
5.3.3. «Indarkeria matxistaren aurka, autodefentsa feminista» . . . . . . . . . . . 43
5.3.4. «Sadiko zerri bat naiz, putakumea eta bortxatzailea» Gora Lisbeth Salander! . 45
5.3.5. Emakumeen bortxaketa, gizonen arteko hizkuntza gisa . . . . . . . . . . . 46
5.4. Indarkeria-modu berriak, eztabaida berriak, lehengo ahultasunak . . . . . . . . . . 48
5.4.1. Indarkeria-modu berriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 48
5.4.2. Eztabaida feminista berriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 49
5.4.3. Elkarteetako aspaldiko arazoak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 50
6. EMAITZAK.SEXU ERASOAK, HAINBAT IKUSPEGI AINTZAT HARTUTA . . . . . . . . . . . 53
6.1. Lehen inpresioetatik begiratzea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 55
6.1.1. Beldurra lehen-lehenik . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 55
6.1.2. Eta, bigarrenik, kausei buruzko galderak (eta erantzunak) . . . . . . . . . . 56
6.1.3. Neskengan eragindako ondorioak ezagutzen dira, eta mutilengan eragindakoak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 58
6.1.4. Kaleak, gauak… oraindik ez dira gureak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 60
6.1.5. Esaten ez dena ere… bizitzen da . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 62
6.1.6. Labur esanda . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 62
6.2. Neska gazteen bizipenetatik begira . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 63
6.2.1. Non galdetzen dute: zer dira sexu-erasoak? . . . . . . . . . . . . . . . . . 63
6.2.2. Aisialdiko giroa: askatasunaren edo sexu-erasoen eremu? . . . . . . . . . . 66
6.2.3. Beldurra: aldez aurretik idatzitako gidoiaren protagonista, emakumeak biktima gisa izanik . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 67
6.2.4. «Zerbait egingo nuen nik». «Zerbait egin ote nuen nik?». . . . . . . . . . . 69
6.2.5. Ezetz esaten dudanean… errudun sentitzen al naiz?. . . . . . . . . . . . . 70
6.2.6. Zer esango du nire aitak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 71
6.2.7. Orain arte ez naiz konturatu, baina orain esan duzunean… . . . . . . . . . 72
6.2.8. Sexu-erasoari erantzun edo ez erantzun; horra hor dilema . . . . . . . . . . 73

6.3. Gurasoen begirada larria . . . . . 76
6.3.1. Bortxaketa: nire alabari gerta dakiokeen gauzarik latzena . . . . . 76
6.3.2. Gaua, kalea eta Internet: kontrolik gabeko gertalekuak . . . . . 77
6.3.3. Alabei «transmitititutako» erantzukizuna . . . . . 78
6.3.4. Zer gertatzen da semeekin? Ez al dute zerikusirik? . . . . . 78
6.4. Irakasleen kezketatik begira . . . . . 80
6.4.1. Non daude mugak? Non jarriko ditugu? . . . . . 80
6.4.2. Prebenitzea edo beldurraraztea? . . . . . 81
6.4.3. Lehengo eskemak beste gertaleku batzuetan . . . . . 82
6.5. Emakume etorkinen bizipenetatik begira . . . . . 83
6.5.1. Pertzepzioa: emakume bati gerta dakiokeen okerrena . . . . . 84
6.5.2. Batzuetan hobe da ez entzutea, ez pentsatzea, ez egitea… . . . . . 85
6.5.3. Biktima gara, baina errudun sentitzen gara… errudun sentiarazten gaituzte . . 87
6.5.4. «Ez zarete lanera etortzen… prostituzioan aritzera baizik, edota gure gogoak asetzera» . . . . . 89
6.5.5. Ez dugu ez ahotsik, ezta eskubiderik ere . . . . . 93
6.6. Gizonen ikuspegitik begira . . . . . 93
6.6.1. Isiltasuna, harridura, hausnarketa gutxi: gizonen erantzunak . . . . . 93
6.6.2. Gazteak eta erasoaren mitologia . . . . . 94
6.6.3. Hain gazteak ez direnek mugekin dituzten zailtasunak . . . . . 96
6.6.4. Kontzientziatutako gizonek dakarten konplexutasuna . . . . . 98
7. ERAKUNDEEN ERANTZUNA SEXU ERASOEN AURREAN . . . . . 103
7.1. Sexu-erasoak: genero-indarkeriaren barnean «zokoratuak» . . . . . 105
7.2. Sexu-erasoen biktima diren emakumeak eta haien laguntza-eskaerak . . . . . 107
7.3. Arreta-ibilbideak sexu-erasoen kasuetan . . . . . 109
7.3.1. Identifikatzea . . . . . 110
7.3.2. Esku-hartzea . . . . . 111
7.3.3. Koordinatzea . . . . . 113
7.3.4. Arreta ona emateko oztopoak . . . . . 113

7.4. Sentsibilizatzea eta prebenitzea: ezinbesteko zereginak . . . 114
7.4.1. Sentsibilizazioa eta informazioa . . . 114
7.4.2. Emakumeen segurtasuna, prebentzioaren ardatz . . . 115
8. ONDORIOAK . . . 119
8.1. Beldurraren diskurtso tradizionala . . . 121
8.2. Ezintasunaren diskurtsoa, muga argirik ez baitago . . . 124
8.3. Diskurtso erreboltaria: zure erasoa ez dadila izan nire lotsa . . . 126
9. PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBAIT LAN ILDOTARAKO . . . 129
9.1. Sexu-erasoei begiratzeko moduari buruz . . . 131
9.2. Prebentzio-politikei buruz . . . 133
9.3. Arreta-politikei buruz . . . 135
10. BIBLIOGRAFIA . . . 137
ERANSKINAK . . . 141
I. Eztabaida-taldeen zerrenda: parte-hartzaileak eta datak . . . 143
II. Elkarrizketatutako erakundeen zerrenda . . . 145
III. Elkarrizketatutako elkarteen zerrenda . . . 147
IV. Praktika Onen Bankua: fitxak . . . 149

Lan hau gauzatu da
eztabaida-taldeetan parte hartu zuten emakumeei esker.
Gehientsuenek estreinakoz jarri zioten izena
bizi izandako esperientzia bati.
Zaila izan zen… baina garrantzi handikoa.
Zeregin honetan dihardugunontzat, garrantzitsuena izan da
emakume horiei ahotsa ematea eta
ahots hori entzungo den konfiantza izatea

Eskerrik asko

# 1. SARRERA

Zergatik dira emakumeak EZ! esan behar dutenak eta zergatik gerta daiteke gizonek ezezko hori ez entzutea? Badirudi galdera horren erantzuna bistakoa dela. Izan ere, ikerketa hau egiteko prozesuan, harridura-adierazpenak eta erantzun automatiko batzuk entzun ditugu: «gizon-emakumeok sistema patriarkalaren biktima gara», «hezkuntza desberdinagatik», «gizonek eta emakumeek behar sexual desberdinak dituztelako, gizonek gehiago», «hedabideek erantzukizun handia dute», «ez dugu ezer aurreratu…», «erasorik ez da izaten hemen; neskak dira, asko nahasten dira eta ez dakite kontrolatzen»…

Sexu-erasoak delitu dira, eta indarrean dagoen Zigor Kodean hala sailkatuta daude. Baina, legearen arabera sexu-askatasuna urratzen badute ere, gizon-emakumeen kultura-imaginarioan sexu-erasoek interpretazio anitz eta ñabardura ugari dituzte.

Indarkeria sexistak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna adierazten du, eta berdintasuna lortzeko oztopo handia da; indarkeria hori ondo ulertzea funtsezkoa da, desagerrarazi nahi badugu. Fenomeno horri izen asko jarri bazaizkio ere, orain dela belaunaldi bat arte normalizatuta zegoen gizarte-arazo hori —ez baita arazo pertsonala— ulertzeko erabiltzen den paradigma berriak azaltzen du aldebakarreko jokabidea dela (gizonen jokaera, emakumeen aurka) eta egiturazko desberdintasun-egoera dela jokabide horren sorburu.

Gaur egun, gizarteak kontzientzia eta sentsibilitate handiagoa du emakume bati bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako erasoei buruz, eraso fisikoak, psikologikoak, sexualak, ekonomikoak eta abar aintzat hartuta. Hala ere, bikotetik kanpo, laneko edo familiako harremanetan, aldi bateko harreman afektibo eta sexualetan, edota aldez aurretiko harremanik gabeko egoeratan, eraso-jokabideak gertatzen dira, emakumeen askatasuna, segurtasuna eta mugikortasuna mugatzen dutenak. Jokabide horiek sexu-ñabardura izan ohi dute; bortxak, jazarpenak, larderiak, mehatxuak eta abar izan daitezke, edota emakumeen borondatea makurtzea eta haien baimena hertsatzea.

Eraso horien adierazpen larriena, bortxaketa alegia, izua eta berehalako sumindura eragiten dituen delitua bada ere, askotariko hainbat eraso inor ohartu gabe gertatzen dira, emakumeentzat mehatxu iraunkorrak izan arren, arlo publikoan zein pribatuan. Eraso horien prebentziorako eta biktimei arreta emateko estrategia egokiak diseinatzearren, indarkeria sexistaren adierazpen berezi horien osagaiak aztertu, erasoez ohartzeko egon daitezkeen zailtasunak ulertu, testuingurua eta eragiten duten gizarte-erantzuna aintzat hartu, eta ulertzeko moduak eraldatu behar dira.

Lehen hurrenkera egin dugu, zenbait biztanle-taldek sexu-erasoak nola hautematen, bizitzen eta azaltzen dituzten aztertzeko, eta nolako arreta ematen zaien jakiteko. Arazo korapilatsu

horri begira, hainbat ikuspegi jaso nahi izan ditugu, emakume gazte eta helduei gizon ezagun zein ezezagunek eragindako erasoak aztergai hartuta. Bistakoa da ikerlan honek ez dituela agortzen sexu-erasoekin lotutako arazo guztiak, eta zenbait gai ez ditugu aztertu (ez adingabeen aurkako sexu-abusuak; ez familiakoek, bikotekideek edo bikotekide ohiek eragindako sexu-erasoak; ezta lanaren eta hezkuntzaren alorrekoak ere), eremu guztiak ezin baitziren kontuan hartu, ikerlana gauzatzeko genuen denbora mugatuan.

Halaber, gure gain hartzen dugu ikerlan honen alderdikoitasuna; izan ere, alderdikoia da, biktima zuzenen alde egiten dugulako, erasoen beldur izateko heziak izan arren, hezkuntza horri eta norberaren mugei eta beldurrei aurre egiten dieten emakumeen alde, alegia. Uste dugu, emakumeen antzera, erasoa identitate maskulinoaren zatitzat hartzeko hezitako gizonek ere egunero berrets dezaketela identitatearen alderdi horri uko egiteko borondatea; eta hala egiten dute gizon askok, hain zuzen. Baina, oraingo honetan, gure asmoa ez da jokaera horiek ulertzea, horretarako beste ikerlan bat egin beharko baikenuke.

Lan honen xedea da emakumeen aurkako erasoei buruzko diskurtsoen analisia egitea, eta eraso horien prebentziorako eta pairatzen dituztenei arreta emateko EAEn dauden sistemak aztertzea. Zer ikertu ugari geratzen den arren, indarkeria sexista horiek agerian jartzeko ahalegina egin dugu, helburu argi bat aintzat hartuta: indarkeria hori desegituratzen laguntzea, gure bizitzatik ahalik eta azkarren desager dadin. Helburu horri begira jokatu dugu, eta gaur egun ere helburu bera dugu.

# 2. METODOLOGIA

Lehen begiratu batean, definizioa argia da: erasoa da kaltea eragiten duen jokaera, gehienetan gizon batek egindakoa, emakume baten aurka; emakumeak ez du jokaera hori onartzen, eta gizonak larderiatzen du edo/eta indarkeria fisikoa erabiltzen du, emakumearen borondatea makurtzeko. «Sexu» kalifikatzaileak esplizituki adierazten du erasoa zer esparruri dagokion.

Hala ere, itxurazko argitasun hori oso korapilatuta ageri da kontzeptua azterketarako eraginkor bihurtzen ahalegintzen garenean. Legeak sexu-erasoak mugatzen baditu ere, haien definizio soziologikoa anbiguoagoa da. Zer da eta zer ez da erasoa? Nork jartzen du muga? Eta, muga hori ulertzean desberdintasunak egonez gero? Zenbateraino da muga hori norbanakoaren borondatearen mendekoa? Zerk adierazten du baimenik ez dagoela? Eta hasieran baimena baldin badago, baina gero jarraitu nahi ez bada…? Definizioaren zer alderditan ageri da eragindako kaltea? Zeren mende dago erasoak emakume bakoitzari eragiten dion inpaktu desberdina? Gaur egungo arreta-sistemak ba al du erantzun egokia emateko gaitasuna? Eraso horiek bizi dituzten emakumeek salatzeko aukera al dute?… Galdera horiek eta beste batzuk planteatu genituen hasieran, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eskatu zigunean sexu-erasoen prebentzioari eta arretari buruzko ikerlana egitea.

Gai horri buruzko ikerketa urrien eta azterketa kuantitatiboa —emakumeek gutxitan salatzen duten arazo bati heltzeko mugatuegia— egiteko baliabide nahikoak ez izatearen ondorioz, *esplorazio-ikerketa kualitatibo* baten aldeko aukera egin genuen. Izan ere, lehen aipatutako argitasun hori gorabehera, EAEn hausnarketa sistematizatu gutxi egin dira sexu-erasoak hautematen, azaltzen eta bizitzen diren moduei buruz.

Gai horiei buruzko ezagutza urria dela eta, aldez aurretik zehaztutako hipotesirik gabe hasi ginen aztertzen, baina ideia garbi batzuekin. Jakin bagenekien, emakume batzuen eta zenbait gizonen artean gaiari buruzko adierazpenak egiteko eta eztabaidatzeko espazio bat sortzeak eta bai instituzioen bai elkarteen jarduerak ezagutzeak bideratuko zutela arazoaren alderdi garrantzitsuenei buruzko ondorioak ateratzea.

Zeregin horri ekiteko bigarren mailako iturri gisa, taldeak aurretiaz indarkeria sexistaren alorrean gauzatutako lana genuen, bereziki ikerketa hauetan garatua: *Emakume gazteen kontrako indarkeria: ezkongai-harremanen indarkeria psikologikoa* (Vázquez, Estébanez eta Cantera, 2009), *¿Proposamena ala inposatzea? Ondarroa eta Markina-Xemeingo udalerrietako gazteek indarkeria sexista nola ulertzen duten eta horri buruzko iritzien diagnosia* (Sortzen, 2010), eta *Hara, horren harira… Arrigorriagako neska gazteen beharrei buruzko diagnosia* (Sortzen, 2010).

Bai azterlan horietan ateratako ondorioak, bai EAEko zenbait udalerritako ikastetxetan indarkeriazko ezkongai-harremanen prebentzioaren alorrean egindako lanen emaitzak, baita gazteentzako hezkuntza-materialen prestaketan izandako esperientziak ere baliagarriak izan ziren ikerketan parte hartutako kolektiboentzat sexu-erasoek zuten esanahia argitzeko.

Ikerlanaren erabilgarritasuna kontuan izan genuen beti. Ez dadila geratu armairu batean jasota. Gure helburua da lan honen bidez lortutako ezagutza erabilgarria izatea, bai erasoen prebentziorako estrategiak prestatzeko, bai arretaz ibili arren delitu horien biktima direnei laguntza hobea emateko proposamenak egiteko.

## 2.1. FENOMENOAREN MUGAK

Baina, zer da sexu-erasoa? Hasteko, kontzeptu horrek ez dauka indarkeria sexistaren beste adierazpen batzuek duten hedapen bera. Esate baterako, interneteko bilatzaile batean «agresiones sexuales» (sexu-erasoak) idazten badugu, 235.000 emaitza ateratzen dira, eta «abusos sexuales» (sexu-abusuak) idatziz gero, 895.000 emaitza. «Violación» (bortxaketa) hitza sartzen badugu, miloi bat emaitzatik gora. Eta, amaitzeko, «violencia de género» (genero-indarkeria) hitzak 2.340.000 emaitza ematen dizkigu.

Emaitza horiek balio zientifiko handirik ez badute ere, adierazten digute *sexu-erasoa* kontzeptuak ez duela funtsezko lekurik biztanleen hiztegian (ez behintzat interneten ibili eta gai horietan interesa duten pertsonen hiztegian), ezta arlo horretan diharduten profesional guztien hiztegian ere. Gainera, *genero-indarkeria* kontzeptua, esanahi eztabaidatua eta polisemikoa izan arren, tresna baliagarri bihurtu da munduko beste leku batzuetako eragileekin ulertzeko; aitzitik, *sexu-erasoa* kategoria ez dute herrialde guztietan erabiltzen, eta sarritan bortxaketen, sexu-abusuen edota sexu-jazarpenaren sinonimotzat hartzen dute.

Kontzeptua ulertzeko lehen zailtasun hori adierazi ostean, aurkitzen dugu, halaber, *sexu-erasoa* kontzeptuan hainbat jokaera sartzen direla: bortxaketa (berez argi eta garbi identifikatzen den kontzeptua, ez sexu-erasoen beste adierazpen bat bezala), begirada lizuna, eta beste edozein sexu-jokaera, emakumea deseroso sentitzea eragiten duena.

Horrenbestez, ikerlanaren izaera esploratorioari jarraiki, aldez aurretiko definizio batetik abiatu ordez, sexu-erasoen definizioa bera ikerketaren ardatz nagusietako bat izatea erabaki genuen. Hala ere, landa-azterketaren fasea hobeto gauzatzeko, lantaldeak aintzat hartu zituen honako definizio operatibo hauek, gaiari buruzko datu ofizialak hobeto ulertzea ere bideratzen zutenak:

a) *Sexu-erasoa:*

*Beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurkako indarkeriazko edo larderiazko* jokaera oro, *indarkeriatzat* hartuta indar fisikoaren erabilpena, eta *larderiatzat* hartu-

ta izaera psikologikoa duen jokaera, biktima beldurraraztea edo mehatxatzea helburu duena, hari edo haren hurrekoei berehalako kalte larriren bat eragitearekin.

b) *Bortxaketa:*

Sexu-erasoen era ohikoenetako bat bortxaketa da; hau da, bagina, uzki edo aho bidezko kopulazio behartua, edota lehenengo bi bideetakoren batetik gorputz-atalak edo objektuak sartzea.

c) *Bestelako sexu-erasoak:*

Bestelako sexu-erasoak dira sexu-izaera duten eskukak, *biktimaren baimenik gabe* eta erasotzaileak eragindako *indarkeriaz edo larderiaz* gertatuak.

## 2.2. BIZTANLEEN MUGAK

Mugatu beharreko bigarren elementua zen zer eraso-mota eta noren aurkakoak aztertuko genituen. Lantaldearen erabakia izan zen gizonek (gazteek edo helduek) emakumeen aurka (nerabeen, gazteen edo helduen aurka) eragindako erasoak aztertzea. Horrenbestez, azterketan ez genituen kontuan hartu haurrek pairatzen dituzten sexu-erasoak.

Ikerlanaren bidez aztertuko genuen populazioa mugatzeko, irizpide hauetaz baliatu ginen:

— Batez ere neska gazteekin arituko ginen; 18-32 urtekoekin, hain zuzen (adina betekizun zurruntzat hartu gabe). Parte-hartzaileen artean bazegoen 17 urteko neskaren bat, eta 35 urteko emakume batzuk ere bai. Irizpide horren arrazoia zen 2009an egindako salaketa gehienak (% 68) 18 urtetik beherako neskek eta 18-30 urtekoek jarriak izan zirela.

— Zailtasun bereziak zituzten emakume gazte eta helduekin arituko ginen (etorkinekin, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan zeudenekin, edota gutxitasun fisiko edo sentsorialen bat zutenekin) kolektibo horien aurkako sexu-erasoen bizipenen berariazko izaera ere aintzat hartzeko.

— Gizon-emakume helduekin arituko ginen: bai seme-alaba nerabe eta gazteen gurasoekin, baita nerabeekin eta gazteekin lanean diharduten irakasleekin ere.

— Amaitzeko, mutil gazteen ikuspegia ere ezagutu nahi genuen.

Bestalde, lantaldeak lehenago egindako ikerketa guztiek adierazten zuten bai emakume gazteek bai gizon gazteek zailtasunak zituztela bikote heterosexual batean kontrolaren,

larderiaren eta erasoaren alorreko jokaerak antzemateko, eta, horrenbestez, jokaera horiei buruzko analisia egiteko gaitasun mugatua zutela. Horregatik, erabaki genuen gaia zertxobait ezagutzen zuten neska-mutilen laguntza bilatzea (Sortzenek zenbait udalerritan ematen dituen ikastaroren edo tailerren batean parte hartu dutelako edo berezko interesa dutelako), baita gaiarekin zerikusia duten elkarteetako kideena, eta sexu-erasoei edo/eta indarkeria sexistari buruzko nolabaiteko hausnarketa egin eta jarrera agertu zutenena ere.

Sortzenek lehenagoko lanetan hainbat berdintasun-teknikaririrekin lan egin zuen, eta berriz ere haiengana jo genuen; horrenbestez, haien interesari eta lankidetzari esker, hiru Lurralde Historikoetako emakumeen eta gizonen iritziak eta esperientziak bildu genituen. Eztabaida-talde eta elkarrizketa gehienak gaztelaniaz egin baziren ere, taldeei eta elkarrizketatuei euskaraz egiteko aukera eman zitzaien, hala nahi izanez gero.

## 2.3. ERAKUNDE-POLITIKAK

Erakunde publikoek arlo horretan gauzatzen dituzten politikak eta jarduerak ezagutzeko, eta zeregin horretan aurkitzen dituzten zailtasunen berri izateko, hiru foru-aldundiak eta 13 udal[1] aukeratu genituen, irizpide hauek aintzat hartuta:

*a)* EAEko hiru probintzien hiriburuak.

*b)* Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2009ko txostenaren arabera, biktimizazio gehien izandako udalerriak.

*c)* Beste udalerri batzuk, berdintasun-teknikariek gauzatutako praktika onen bat izan dutenak, sarean jardun dutenak, edo indarkeria sexistari aurre egiteko prebentzio-politikak eta biktimei laguntzeko ekimenak sustatzean sentsibilitate berezia adierazi dutenak.

Halaber, osasunaren eta hezkuntzaren alorreko langileak ere elkarrizketatu genituen, zehazki Gurutzetako Ospitalean, Santurtziko Osasun Etxean, Bizkaiko Osasun Lurralde Ordezkaritzan, Hezkuntza Sailean eta Berritzegune Nagusian.

Gainera, bost elkarrizketa egin genizkien sexu-erasoen biktimei laguntzen esperientzia handia duten erakunde pribatuei (Auzolan, Zutitu, Bikoarloak eta IRSE) eta indarkeria horren prebentzioan diharduen erakunde bati (Sestaoko Gazte Informazio Gunea). Amaitzeko, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako 24 orduko Telefono Bidezko Arreta Zerbitzua eta Kataluniako Generalitateko Barne Saileko Genero-indarkeriaren aurkako Segurtasun Programaren Zuzendaritzaren laguntza izan genituen.

[1] Bilbo, Donostia-San Sebastian, Vitoria-Gasteiz, Muskiz, Sestao, Berriz, Abadiño, Durango, Azpeitia, Hernani, Arrasate, Eibar eta Tolosa.

Guztira, 23 elkarrizketa egin genizkien, 28 erakundetako 42 pertsonei (ikus erakundeen eta elkarrizketatuen zerrenda II. eranskinean).

## 2.4. ELKARTE-MUGIMENDUAREN EKARPENAK

Elkarteen diskurtsoak eta proposamenak, haiek egindako lana eta aurkitutako zailtasunak ezagutzearren, EAEko elkarteak aintzat hartu genituen, eta errebindikazioaren alorrean, zerbitzuak ematen edo/eta berariazko kolektiboen alde dihardutn elkarteen ordezkaritza zabal bat biltzeko ahalegina egin genuen.

14 elkarrizketa egin genizkien, emakumeen 15 elkartetako 25 pertsonei, aintzat hartuta emakume-elkarteak, elkarte feministak, emakume etorkinen elkarteak, eta eraso-mota jakin baten aurka dihardutn berariazko kolektiboak eta erakunde mistoak (elkarteen eta elkarrizketatuen zerrenda III. eranskinean ageri da).

## 2.5. INFORMAZIO-BILKETA

Sexu-erasoei buruzko argudioak eta iritziak sakon aztertzeko, eztabaida-taldeen metodologiak informazio zehatzagoa eta kualifikatuagoa ematen du, inkesta soziologiko hutsak baino. Gainera, zenbait taldek sexu-erasoei buruz adierazitako iritziak, irudipenak eta sentipenak jasotzeko aukera ematen du.

### 2.5.1. Eztabaida-taldeak

16 eztabaida-talde antolatu genituen (ikus banaketa 1. eranskinean ageri den talde-zerrendan): lau talde neskekin, bi talde mutilekin, bi talde gurasoekin, bi talde irakasleekin eta bi talde emakume heldu etorkinekin. Beste lau taldeak sortzeko, bi irizpide hauek kontuan hartu genituen:

— Gaiarekin zerikusia duten elkarteetako kide izan eta hausnarketa-ibilbide bat (sexu-erasoei buruzkoa ez bada, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunari eta indarkeriari buruzkoa) egin duten gizon-emakumeen iritzi kualifikatua jasotzea. Horrenbestez, Medeak talde feministarekin antolatu genuen talde bat, beste bat Bizkaian sarean dihardutn berdintasun-teknikariekin —haietako batzuen ibilbide feminista luzea eta udalerrietan bultzatzen dituzten jabekuntza-eskolen jarduerak aintzat hartuta—, eta beste bat hausnarketa-talde maskulinistetan parte hartzen duten mutilekin. Gaiarekin zerikusia duten elkarteetako emakumeekin beste talde bat egiten ahalegindu ginen, baina ezin izan genuen taldea osatu; horrenbestez, kasu batzuetan, banakako edo binakako elkarrizketak egin genizkien emakume-elkarteetako eta elkarte feministetako kide batzuei.

— Laugarren taldea osatzeko irizpidea izan zen gizartean baztertuta dauden emakumeak eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenak kontuan hartzea. Ikusmen urria edo mugikortasun urria duten emakumeen elkarteei eta emakume ijitoen elkarteei egindako proposamenetatik ez zen talderik atera, baina espetxean zeuden emakumeekin osatu genuen laugarren talde hori. Emakume ijitoei dagokienez, Secretariado Gitano fundazioko kide batzuk elkarrizketatu genituen.

Guztira, 122 pertsonek parte hartu zuten eztabaida-taldeetan (91 emakumek eta 31 gizonek).

### 2.5.2. Elkarrizketa sakonak profesionalekin eta elkarteetako kideekin

Informazioa biltzeko beste teknika bat izan zen udaletako eta aldundietako teknikariekin elkarrizketak egitea, sexu-erasoen prebentzioan eta kasu horiei arreta ematean izandako esperientziak ezagutzeko. Halaber, emakume-elkarteetako edo/eta alorrean esperientzia duten zerbitzu publiko eta pribatuetako kideei elkarrizketak egin genizkien. Elkarrizketa horiek erdiegituratuak ziren, erakunde bakoitzari egokitutako gida bat oinarri hartuta.

Kasu guztietan elkarrizketa grabatzeko baimena eskatu genuen, eta talde eta elkarrizketatu guztiek baiezkoa eman ziguten. Gero, grabatutako material guztia txantiloi komun batean transkribatu zen, informazioa sistematizatzeko, analisia egiteko eta txostena idazteko baliagarria izan zedin.

## 2.6. PRAKTIKA ONEN BANKUA

Ikerketaren azken atala izan zen sexu-erasoei arreta emateko, prebenitzeko eta sentsibilizatzeko Praktika Onak biltzea.

Praktika Onen definizio operatibo hau egin genuen: «sortutako arreta-sistemen aurrerabidea, prebentzio- eta sentsibilizazio-ereduen berrikuntza, edota berariazko kolektiboei zuzendutako arreta edo/eta prebentzioa dakarren ekintza oro».

Bilaketaren eremua izan zen interneten gaztelaniaz edo ingelesez jarritako materiala, hizkuntzaren eta eskuragarritasunaren araberako mugak direla eta. 28 Praktika On hautatu genituen, eta 4. eranskinean daude jasota.

# 3. XEDEA ETA HELBURUAK

## 3.1. XEDEA

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren (aurrerantzean GIBLZ) funtzioetako bat da «genero-indarkeriaren prebentziorako eta biktimei arreta emateko programa integralen prestaketa bultzatzea, genero-indarkeriatzat hartuta sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira, halaber, emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan».

Ildo horretan, GIBLZ lehen interesatua da genero-indarkeriaren prebentzioa eta biktimentzako laguntza bultzatzeko lanetan, eta emakumeen sexu-askatasunaren aurkako eraso larri horien kausak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak ikertzeko jardueran; hori guztia, betiere, hartu beharreko neurrien eraginkortasuna eta egokitasuna ebaluatzea helburu hartuta.

Horrenbestez, ikerlan honen xedea GIBLZren konpetentzia-eremuan dago, eta ezinbestekoa da ikerketak egitea, horretarako datu-bilketa, kuantifikazioa, balioespena eta analisia aintzat hartuta. Hartara, sexu-erasoen arazo larriari buruzko ikuspegi argia eta fidagarria izango du GIBLZk, gizartearen orban hori desagerrarazten lagunduko duten neurriak ezartzeko.

## 3.2. HELBURUAK

1. Sexu-erasoei buruzko pertzepzioak eta argudioak zehatzago ezagutzea, honako elementu hauek aztertuz:

   — Emakume gazteek sexu-erasoei buruz dituzten iritziak eta argudioak: arriskuaren pertzepzioa, arriskua sentiarazten dieten egoerak, biktimei eta erasotzaileei egozten dizkieten erantzukizunak, sexu-erasoak genero-indarkeriaren adierazpen direla jakitea, etab.

   — Familiek eta irakasleek sexu-erasoei buruz dituzten iritziak eta argudioak.

— Emakume etorkinen bizipenak eta pertzepzioak.

— Mutilek sexu-erasoei buruz dituzten iritziak eta argudioak.

2. Sexu-erasoei buruzko prebentzio- eta sentsibilizazio-neurriak bultzatzea:

— Sexu-erasoei eta eraso horiek dakarten indarkeriari buruz herritarrak sentsibilizatzeko jarduera-ildoak proposatzea.

— Emakume gazteen artean sexu-erasoak prebenitzeko jarduera-ildoak proposatzea, horrelako delituen biktima izateko arrisku handiagoa baitute.

3. Sexu-erasoen biktimei arreta hobea emateko neurriak ezartzen laguntzea.

— Espainiar estatuan, Europako beste herrialdetan eta Latinoamerikan sexu-erasoen aurka gauzatu dituzten «praktika onak» aztertzea.

— Entitateek eta parte hartzaileek neurriak eta iradokizunak proposatuko dituzte sexu-erasoen biktimei arreta hobea ematen laguntzeko.

# 4. SEXU ERASOEN SALAKETEI BURUZKO DATUAK

## 4.1. EAEKO 2009KO SEXU ERASOEN EZAUGARRIAK[2]

Gaur egun, oraindik ere ezinezkoa da sexu-erasoen hedapena kuantifikatzea; batez ere, biktimei zail egiten zaielako salaketa jartzea. Horrenbestez, salatutako sexu-erasoen ezaugarriak azaltzen dizkigute datuek, eta ez gertatutako sexu-erasoenak.

2009ko urteko txostenean, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak adierazten du sexu-askatasunaren aurkako delituen hamar salaketetatik zortzi sexu-erasoen edo sexu-abusuen salaketak direla[3].

Taula honetan ikus daitezke bortxaketaren eta bestelako sexu-erasoen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak[4]:

Taula horretako datuei erreparatuta, esan dezakegu eraso horiei buruzko mito batzuk bertan behera erortzen direla, errealitatearekin alderatzean. Esate baterako, bortxaketa gehienak emakume gazteek salatzen dituzte, baina 25 urtetik gorakoak dira gehienak (agian salaketaren ondorengo prozesuari aurre egiteko gaitasun handiagoa dutelako); salatutako erasotzaileak, berriz, oso gazteak dira, eta hamarretik bat adingabea da. Halaber, deigarria da indarkeria fisikoaren, larderiaren baita arma zurien erabilera handiagoa ere, eta litekeena da horregatik salatzea eraso horiek, erabilitako indarkeria gehiegizkoa baita biktimak gertaera isilpean gordetzeko.

Bestalde, ikusten da salatutako sexu-eraso gehienak gauez gertatu direla; baina, aldi berean, *eremu batean gertatzen den bortxaketaren* mitoa ere desegiten da, salatutako bortxaketen erdia etxean gertatzen baitira (ez dakigu biktimaren etxean edo erasotzailearen etxean gertatzen diren). Bestelako sexu-erasoak, aldiz, eremu irekietan gertatu ohi dira, edo etxetik kanpo behintzat.

---

[2] Datu guztiak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2009ko urteko txostenetik hartu dira. www.interior.ejgv.euskadi.net

[3] «Sexu-askatasunaren aurkako delituen baitan, familiaz kanpo eta/edo eremu afektibotik kanpo, gizon batek emakume baten aurka egiten duen indarkeriazko edozein ekintza sexualekin lotzen diren delituak sartzen dira. Horien artean honako indarkeria mota hauek daude sartuta: sexu-erasoa, sexu-gehiegikeria, sexu-jazarpena, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeak galbideratzea». Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2009ko urteko txostena. www.interior.ejgv.euskadi.net, 16. orrialdea.

[4] Ikus definizioak 18. eta 19. orrialdeetan.

**1. taula: 2009an salatutako bortxaketen eta sexu-erasoen ezaugarriak**

| | Bortxaketak | Bestelako sexu-erasoak |
|---|---|---|
| Salaketa guztien ehunekoa | % 44 | % 56 |
| Non gertatzen dira? | % 50 etxeetan | % 13 etxeetan, portaletan eta igogailuetan |
| Zer ordutan? | 00:00etatik 09:00etara bitartean | 00:00etatik 09:00etara bitartean |
| Indarkeria fisikoz | Kasuen % 58 | Kasuen % 63 |
| Larderiaz | % 26 | % 35 |
| Arma zuriz | - | % 9 |
| Biktimak adingabeak ziren | % 29 | % 29 |
| Salatzaile adindunen adin-tarte nagusia | 26-35 urte | 18-25 urte |
| Erasotzaileen adin-tarte nagusia | 26-35 urte | % 10 adingabeak<br>18-25 urte<br>26-35 urte |
| Biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana | Ikus 2. taula, honen segidan | % 76k ez zuten erasotzailea ezagutzen |
| Ebatzitako kasuen indizea | % 65 | % 53 |

Iturria: *2009ko urteko txostena*. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Herrizaingo Saila, Eusko Jaurlaritza

2. eta 3. tauletan, bortxaketen eta bestelako sexu-erasoen ezaugarri batzuk ageri dira, erasoak zer lurralde historikotan gertatu diren kontuan hartuta.

Datu horietatik atera dezakegun ondorioa da Arabako salaketen ezaugarriak Bizkaiko eta Gipuzkoako salaketenak ez bezalakoak direla. Kontzentrazio geografikoa, erasotzailea ez ezagutzea, eta lanegunetan gertatzea ez dira datu nahikoa Arabako erasotzaileen jokaera-ereduari buruzko ondorioak ateratzeko. Hala ere, datuek adierazten digute Araban asteburuko aisialdia ez dela salatutako bortxaketen testuinguru nagusia, Bizkaian bai ordea. Gainera, Bizkaian, deigarria da hamarretik zortzitan baino gehiagotan erasotzailearekin harremana zutela biktimek. Alabaina, Gipuzkoan jarritako salaketen erdia ia eta Araban jarritako salaketa guztiak ezezagunek egindako bortxaketei dagozkie.

**2. taula: salatutako bortxaketen ezaugarriak, lurralde historikoen arabera**

| Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|
| – Kasu guztiak Gasteizen gertatu dira | – Kasuen %47 Bilbon gertatu dira<br>– Biktimizazio gehien gertatutako beste udalerriak Barakaldo eta Getxo dira | – Kasuen %50 Donostian gertatu dira<br>– Biktimizazio gehien gertatutako beste udalerriak Irun eta Errenteria dira |
| – Biktimaren eta erasotzailearen arteko harremanik ez | – Kasuen %86an bazegoen biktimaren eta erasotzailearen arteko aldez aurreko harremana. | – Kasuen %53an bazegoen biktimaren eta erasotzailearen arteko aldez aurreko harremana. |
| – Kasu gehienak lanegunetan gertatu dira | – Kasuen %62 asteburuan gertatu dira (ostiraletik igandera bitartean) | – Kasuen %58 asteburuan gertatu dira (ostiraletik igandera bitartean) |
| – Vitoria-Gasteizeko eraso-tasa, 1.000 biztanleko:<br>0,05 | – Bilboko eraso-tasa, 1.000 biztanleko:<br>0,08 | – Donostia-San Sebastiango eraso-tasa, 1.000 biztanleko:<br>0,08 |

Iturria: *2009ko urteko txostena.* Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Herrizaingo Saila, Eusko Jaurlaritza

Bestelako sexu-erasoen salaketetan ere antzeko joera ikusten da (3. taula), baina eraso gehien gertatutako Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerriak beste batzuk dira.

**3. taula: salatutako beste sexu-erasoen ezaugarriak, lurralde historikoen arabera**

| Araba | Bizkaia | Gipuzkoa |
|---|---|---|
| – Kasuen %100 Gasteizen gertatu dira | – Bilbo, Sestao eta Muskiz dira udalerri aipagarrienak, kasuen kopuruari erreparatuta | – Donostia, Tolosa, Errenteria eta Irun dira kasu gehien gertatutako udalerriak |
| – Kasu gehienak lanegunetan gertatu dira | – Kasuen %64 asteburuan gertatu dira (ostiraletik igandera bitartean) | – Kasuen %63 asteburuan gertatu dira (ostiraletik igandera bitartean) |
| – Vitoria-Gasteizeko eraso-tasa, 1.000 biztanleko:<br>0,06 | – Bilboko eraso-tasa, 1.000 biztanleko:<br>0,10 | – Donostia-San Sebastiango eraso-tasa, 1.000 biztanleko:<br>0,07 |

Iturria: *2009ko urteko txostena.* Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Herrizaingo Saila, Eusko Jaurlaritza

4. taulak azaltzen digu familiakoek, bikotekideek edo bikotekide ohiek egindako sexu-erasoen salaketen ehunekoa txikia dela (2009an horrelako salaketak Gipuzkoan soilik iritsi ziren salaketa guztien % 20 baino gehiago izatera). Datu horrek pentsarazten digu litekeena dela emakume askok norberaren logelan indarkeria pairatzen jarraitzea, normala iruditzen zaielako, edota jendaurrean esatera ausartzen ez direlako.

Bestalde, ebatzitako kasuen indizea erdia baino gehiagokoa bada ere, eta bortxaketen % 65era iristen bada ere, badirudi badaudela zeregin batzuk, delitu horien prebentzioari egoki aurre egiteko. Zeregin horietako bat da erasotzaileak sentitu daitezela seinalatuak eta baztertuak, eta ez biktimak; izan ere, erasotzaileen jokaera onartezina da, justifikaziorik eta aringarririk gabea.

**4. taula: 2009ko biktimizazioak. Sexu-erasoei dagozkien delituak**

| | Lurralde historikoa | | | | | | | | | GUZT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Araba | | | Bizkaia | | | Gipuzkoa | | | |
| | 26 | | | 83 | | | 40 | | | |
| Biktima/erasotzailearen arteko harremana | Bikotekidea, bikotekide ohia | Senidea | Ezaguna, ezezaguna | Bikotekidea, bikotekide ohia | Senidea | Ezaguna, ezezaguna | Bikotekidea, bikotekide ohia | Senidea | Ezaguna, ezezaguna | 149 |
| Sexu-erasoa | 2 | 1 | 23 | 6 | 7 | 70 | 4 | 4 | 32 | |
| % (lurraldeko) | % 8 | % 4 | % 88 | % 7,5 | % 8,5 | % 84 | % 10 | % 10 | % 80 | |

Iturria: *2009ko urteko txostena*. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Herrizaingo Saila, Eusko Jaurlaritza

2010eko estatistikak ez daude delitu-motaren arabera banatuta, baina salaketen joera ikusteko baliagarri zaizkigu.

**2010eko biktimizazioak (urtarrila-urria). Sexu-askatasunaren aurkako delituak**

| Lurralde historikoa | | | GUZT. |
|---|---|---|---|
| Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | 118 |
| 31 | 96 | 53 | |

Iturria: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren estatistikak, Herrizaingo Saila, Eusko Jaurlaritza

# 5. BORONDATE BATEK BESTEA ERABAT MENDERATZEA, EDO ZERGATIK DIRA EMAKUMEAK EZETZ ESATERA BEHARTUTA DAUDENAK?

## 5.1. GILTZARRIA EZ DA SEXUALITATEA, BAIZIK ETA BOTEREA

Ospe handiko filosofo marxista batek 1975ean esan zuen: «Heterodoxoa izatea ez da dogma bat bortxatzea, azken finean; dogma bat bortxatzea dontzeila bat bortxatzea bezala da: kexak daude, baina gozamena ere bai»[5]. Asmotsua dirudien ateraldi horretan laburbildu zuen garai hartan nagusi zen ideia bat, gaur egun oraindik ere indar handia duena, eta bortxaketari buruzko kultura-imaginarioa eratu duena.

Irudiak *sexu-harreman* batekin parekatzen du bortxaketa: indar *pixka* bat jarri behar zaio (indarkeriarik ez ordea), *dontzeila* izateaz harro dagoen emakumeak bere *ohorea* defendatu behar baitu; horrenbestez, gizonari aurre egin behar dio, *pixka* bat (neurria hartu behar dio, harremanari zirrara nahikoa emateko), hartara adieraziko du *bertuteari* eusteko gai dela, baina, era berean, gizonaren nahiaren aurrean *eror* daitekeela. Noizean behin, burua galdu duen norbaitek eredu hori apurtu eta indarkeria erabiltzen du (ez indarra) eta kasu horiek delitutzat har daitezke.

Bortxaketari buruz egindako historian, Vigarellok (1998) adierazten du historia horrek azaltzen duela subjektu baten irudiaren eta intimitatearen sortzea; hau da, gizarte batek nola interpretatzen, ezagutzen eta legitimatzen duen emakumeen autonomia, ezin kenduzko eskubide gisa. Izan ere, eskubideak aitortzen zaizkion subjektu batek soilik izan dezake borondatea, eta, horren ondorioz, baimena emateko gaitasuna. Horrenbestez, bortxaketaren historia da emakumeek beren sexualitateari buruz erabakitzeko gaitasunaren gizarte-eraikuntzaren historia.

Azken lau hamarkadetan, aurrez aurre ikusi ditugu *emakume* subjektua definitzeko hainbat modu, baita emakumeen aurka eragindako *indarkeriaren* interpretazio desberdinak ere. Egiturazko indarkeria sinbolikoa, pertsonen artekoaz gain.

Interpretazio batek bortxaketa sexu-harremantzat hartzen du. Izan daiteke kontrolik gabekoa, indarkeriazkoa, ilundutako buru baten/batzuen emaitza, ezin eutsizko desioaren edo alkohol gehiegi edatearen ondorio; baina, hala ere, sexu-harremantzat hartzen du, eta batzuetan «perbertsio» bezala definitzen du. Paraleloki beste interpretazio bat agertzen da, batzuetan biak bat egiten badute ere, eta haren arabera, emakumeen jokaerek gizonen ezin eutsizko «sexu-sena» bere onetik aterarazten dute. Are gehiago: sexu-jokaera ez da «probokazio» hori pitz dezakeen eragile bakarra; izan ere, emakumeei tradizioz esleitu-

[5] Ludovico Silva. *Anti-manual para uso de marxistas, marxólogos y marxianos.* 1975ean argitaratua, eta 2009an berrargitaratua, Biblioteca Básica de Autores Venezolanos bilduman.

tako eremu pribatura eta rol estereotipatuetara (mendekotasuna, etsipena, gizonen autoritatea onartzea…) egokitzen ez diren portaerak ere probokaziotzat hartzen dira.

Sexu-indarkeria azaltzeko beste modu bat da feministek planteatu zutena[6]. Feminismo modernoan, Susan Brownmiller (1981) aitzindari izan zen bortxaketa ulertzeko modu berri bat azaltzen. Kazetari bezala bizi izandako esperientziak oinarri hartuta, adierazi zuen, garaiko iritzi nagusien aurka —berak ere noizbait partekatu zituen iritzien aurka—, bortxaketak ez zirela gizabanako moldakaitz batzuen jokaera bakanak, baizik eta sistema baten zati (lege-sistemaren, sistema juridikoaren, gizarte-sistemaren, kultura-sistemaren zati, alegia). Ikuspegi horren tesi berrietako bat izan zen beldurra nabarmentzea eta «emakume guztien eguneroko portaera baldintzatzen duen» elementutzat hartzea, «horren haritik, emakume guztiak bortxaketaren biktima dira» (De Miguel, 2008, 134. orr.).

Brownmillerren ekarpenetatik abiatuta, feministen zeregin funtsezkoak izan ziren bortxaketaren azterketa eta biktimei laguntzeko jarduerak, garai hartako sistemak gehienetan babesik gabe uzten baitzituen biktimak. Feministek gaiari buruz idatzi eta jakinarazi zuten, eta, batez ere, emakumeen bizipenei ahotsa eman zieten, ordura arte isiltasun lotsagarrian ezkutatuta baitzeuden, eta bizipen horiek oinarri hartuta, diskurtso alternatiboak eraiki zituzten, interpretazio nagusiei aurre egiteko.

Ikuspegi edo/eta ñabardura desberdinak izan arren, diskurtso feministaren ahots desberdinak bat etorri dira genero-desberdintasunaren eta indarkeria sexistaren arteko loturari buruz: emakumeen eta gizonen arteko botere-banaketa desberdina hartu da indarkeria horren azken kausatzat, nahiz eta ez izan berehalako edo ageriko kausa; izan ere, gizonek emakumeen gaineko kontrol sinbolikoa eta funtzionala izatea bideratzen eta legitimatzen du (Vázquez, 2010).

Horrenbestez, feminismoak lagundu du beste diskurtso bat sortzen, gero eta hedatuagoa dagoena. Hala ere, hedapena izateak ez du ezinbestean esan nahi diskurtso hori onartzen denik. Dena dela, instituzioetan indar handiagoa hartu eta lege-aldaketak eragitea lortu du: delitu hori «ohorearen» aurkako erasotzat hartzea dakarren kontzeptua atzera utzi eta azpimarratzen da bortxaketa dela borondate batek bestea menderatzea, sexualitatearen bitartez. Hortaz, *sexu-askatasunaren* edo *osotasun pertsonalaren* aurkako delitutzat hartzen da bortxaketa[7].

Ikerketaren emaitzen analisia egiteko, aintzat hartuko dugun ikuspegia da, hain zuzen, bortxaketak eta emakumeen sexu-askatasunaren eremuko gainerako indarkeria-ekintzak gizonen boterearen adierazpentzat hartzen dituen ikuspegia. Banaka eta kolektiboki gauzatzen den boterea da, *ahal* delako gauzatzen dena. Izan ere, genero-harremanen sistema desorekatuaren eraikuntzan, indarkeria sexista funtsezkoa da genero-ereduei eusteko. Eredu horiei jarraiki, gizonak eta emakumeak sozializatzen dira harremanetan rol desberdinak izateko: gizonek erasoa eta indarkeria erabiltzeko aukera dute, kontrola eragitearren, eta emakumeak beldurrean sozializatzen dira.

[6] Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko diskurtso feministaren bilakaera aztertzeko, ikus De Miguel, 2008.

[7] Elkarteei egindako elkarrizketetan emandako definizioak.

Emakumeek bizitzen duten sexu-indarkeria isilpean gordetzearen tabua apurtu eta indarkeria horri zilegitasuna kentzen dioten heinean, autoritatea hartzen dute, baimena emateko eta ukatzeko eskubidea gauzatzen duten subjektu gisa, haiek esandako Bai/Ez eztabaidarik gabe ulertua eta onartua izan dadin.

## 5.2. SEXU ETA GENERO EREDUAREN EGINKIZUNA SEXU ERASOETAN

Lehen aipatutako argudioak baliagarriak izan daitezke indarkeria sexistaren edozein adierazpen aztertzeko. Hala ere, bortxaketa eta gainerako sexu-erasoak emakumearen gorputzaren *gain* gauzatutako botere-harremanaren adierazpen dira. Horren ondorioz, esanahi sinbolikoa dute eta, beraz, barne-barneko menderatze sakona, identitate modernoaren funtsezko osagaia bortxatuz: sexualitatea.

Sexualitatea, eta berariaz emakumeen sexualitatea, eredu androzentriko baten araberakoa da, eta ezaugarri nagusi hauek ditu: gizonaren gozamena du ardatz, koitoari gehiegizko garrantzia ematen zaio, harremanen kopuruari erreparatzen zaio eta ez kalitateari, eta gizonen sexualitate neurrigabea adierazten du, emakumeen gozamen ukatuaren edo mendekoaren aurrean (Osborne, 2009).

Eredu horretan, emakumeen sexualitateak arazo-iturri izaten jarraitzen du, gozamen-iturri baino gehiago. Gizonen kasua oso bestelako da: gozamenaren bilaketarako eremu zabala dute, eta emakume batek haien sexu-autonomia mugatzeko arriskua txikiagoa da. Haientzat, emakumeen sexualitatea konkistatu daitekeen elementua da, edo bestela indar fisikoaz edo larderiaz lor daitekeena.

Baina, sexu-eredu desorekatu horretan, kultura patriarkalak baliabide bat ematen die emakumeei: sedukzioa. Eredu horren naturaltasuna, baita ontasuna ere, defendatzen duten interpretazioek inolako zalantzarik gabe ukatzen dute emakumeen mendekotasuna, eta emakumeei sedukzio-ahalmen handia egozten diete gainera, maskulinitatea suntsitzeko gaitasuna ere izan dezakeena. Gezurrezko ustea da, Bordieuk (2000) adierazitakoari jarraiki «emakume gaitz-egileen irudia berresten du; haien identitatea erabat ezkorra da, funtsean debekuez osatua, oso egokiak urraketarako beste hainbeste aukera jartzeko» (47. orr.).

Emakumeen sedukzioak errepertorio konplexua du; portaera ez-hitzezkoak, gorputzaren bidezkoak eta sinbolikoak erabiltzen ditu, hainbat bitartekoz baliatuta (abanikoak, musuzapiak, koloreak, korapiloak gonan, begiratuak…). Jokaera horiek ez dira esplizituak, eta gizonak deskodetu behar ditu… eta zeregin hori «zuzen» egiten ez badu, erantzukizuna, zalantzarik gabe, mezua «argi eta garbi» bidali ez zuen emakumearena izango da.

Sexu-komunikazioaren eskema konplexu horretan ohikoa da emakumeak nahastea, eta ohikoa da, halaber, gizonek seinaleak oker interpretatzea. Emakumeek Bai! esan nahi dutenean, baiezko hori ezkutatu behar dute (alegia, pixka bat kontra egin behar dute, irudi txarra ez sortzeko edota seduzitu nahi duten gizonaren interesa ez galtzeko) eta Ez! esan nahi dutenean, errudun sentitzen dira eta beldurrak mugatuta daude. Gizonak berriz, sexuaren alorrean inolako mugarik ez balute bezala jokatzera behartuta daude beti. Ba-

dinterrek (2003) adierazi du, sexuen arteko egungo harreman konplexuen azterketa eta gizonen indarkeriari buruz mugimendu feministan dauden eztabaiden analisia egitean, sexuaren alorrean baimenaren esanahiari buruzko nahastetik ateratzea bideratuko duten azalpen egokiagoak bilatzeko parametroak ezarri nahi badira, emakumeek sedukziorako eta harremanetarako erabiltzen duten hizkuntzari buruz hitz egiteko garaia dela: Bai esan nahi duen baiezko horretaz, eta Ez esan nahi duen ezezko horretaz; baina baita ere Bai esan arren EZ adierazi nahi duen erantzunaz, eta Ez esan arren Bai adierazi nahi duen erantzunaz.

Erabat ados gaude Badinterrekin: gizon-emakumeok ez baditugu eztabaidan jartzen sedukzioaren eta sexu-rol tradizionalen ikasketak sortu dizkigun gaizki ulertuak, baimena (subjektu izatearen funtsezko elementua) izango da guztiok, emakume zein gizon, gaizki erabiliko dugun tresna.

Eztabaida horretan zalantzan jarri behar da gizonen sexu-autoritatea, baita emakumeen sexu-desioari zentzua emateko duten ahalmena ere. Izan ere, Dio Bleichmarrek adierazi bezala (2000) «emakume bati gizon batek desioz begiratzen badio, eta emakumeak gizonaren begiradan desioa ikusten badu, konturatze hori baimentzat hartzen da» (195. orr.). Emakumeen sexu-identitate mendekoak behar-beharrezkoa du gizonaren onartze-begiradaren mende dagoen sexu-identitatea. Eta, onarpen horren bilaketan, arrisku asko daude.

Azken urteotan, emakume gazte batzuk uko egiten diote gizonen aginte horri jarraitzeari, mendeko sexualitate bat izatearekin ez daude ados, eta norberaren desioa ardatz hartuta eraikitzen dute sexualitate-eredu berria. *Queer* korronteko kideek, esate baterako Preciadok (2008), Zigak (2009) eta Despentesek (2009), hausnarketa teorikoak eta indarkeriari eta emakumeei buruzko argudio iradokitzaileak publikoaren esku jartzeaz gain, norberaren bizipenak ere jakitera eman dituzte; izan ere, finkatuta dauden genero-eskemen aurka altxatu dira, «baldarkeriatik» idazten dute, eta gozamenaren eraikuntza feministari buruzko ikerketan dihardute[8].

Baina, emakume guztiek ez dute beren identitatea eraikitzen errebindikazio hori oinarri hartuta, eta ohikoa da sexu-hezkuntza tradizionalaren elementuak oso barneratuta izatea. Horrenbestez, hainbat eta hainbat «identitate sinkretiko»[9] aurkitzen ditugu, eta identitate horietan nahastuta daude «sexu-erakargarritasuna gehiegi balioestea, gorputz-osotasunarentzako arriskuak ukatzea, eta besteak kontrolatzen duela uste izatea» (Dio Bleichmar, 2000).

Sexu-erasoen esperientzien aurrean emakumeen eragin-gaitasuna[10] aztertzeko, ikus dezagun arretaz zer funtzio betetzen duten eraso horiek genero-harremanetan.

---

[8] Itziar Zigak (2009) Devenir Perra testuaren lehenengo orrialdeetan argi eta garbi azaldu du bere argudioaren ildoa. Izan ere, Les Vulpess euskal taldeak polemika eragin zuen 1985ean, eta talde horren abestiaren hitzak jaso ditu Zigak: «Si tú me vienes hablando de amor, qué dura es la vida… permíteme que te dé mi opinión, mira imbécil, que te den por culo. Me gusta ser una zorra…» (21. orr.).

[9] Marcela Lagardek erabili zuen kontzeptua, 2010eko maiatzaren 27an Bilbon emandako hitzaldian.

[10] «Eragin-gaitasuna» kontzeptuak adierazten du pertsona batek edo talde batek bere helburuak definitzeko eta helburu horiek lortzearren jarduteko duen gaitasuna.

### 5.2.1. Beldurra=bortxaketa=beldurra=bortxaketa

Sexu-eraso batek gizonek ikasitako gidoia adierazten du, emakumeen gorputzari eta sexualitateari buruzkoa. Emakumeek sexu-erasoak bizitzen dituzten moduak eta eraso horien aurrean dituzten erreakzioak[11], halaber, gorputzari eta sexualitateari buruzko diskurtso horren adierazpen dira. Eredu androzentrikoak gozamena ukatzen die emakumeei, eta sexualitate pasiboaren inguruan eratutako identitatea sustatzen du; horrenbestez, ikuspegi dual eta baztertzaile batek mugatzen ditu emakumeen esperientziak: eredu hori nahita urratuz gero, emakumea *puta* bihurtzen da, izaki erdeinagarria eta gizartetik baztertua; baina, emakumearen sexualitatea indarrez hartua izan bada, *biktima* soilik izan daiteke.

Mari Luz Estebanek (2004) hausnarketa-ildo interesgarria ireki du gorputzari eta feminismoak gorputzaz egindako irakurketari buruz, funtsean erreprodukzioa eta sexualitatea aintzat hartuta. Haren ikuspegitik, feminismoak erantzuna eman behar die emakumeen gorputz-esperientziaren beste dimentsio batzuei, eta, batez ere, gaitasuna izan behar du «analisi alternatiboak proposatzeko, emakumeak eragiletzat hartuta, ez biktimatzat, eta emakumeen esperientzien irakurketa biktimizatzaileak alde batera utzita» (31. orr.). Eta, sexu-erasoen bizipenari eta interpretazioari buruzko hausnarketa ez bada ere, haiei aplikatzeko modukoa da.

Marcusek (2002) dio bortxaketak beldurra sortzen duela, baina askotan bortxaketa gauzatzen dela, hain zuzen, emakumeak beldur direlako; eta beldurra sentitzen dute erasoa gertatu baino *lehen*, oso gaztetatik ikasi dutelako emakume izateagatik arriskuan daudela, eta erasoa gertatuz gero ezingo dutela haien burua defendatu.

Babesgabetasun-mezu horrek beldurra sortzen du, eta emakumea paralizatuta geratzen da, erasotzaileari ezin diolako minik egin. Despentesek (2009) bere aurkako bortxaketa kontatzean hau dio: «ezin nion gizon bati minik egin nire larrua salbatzeko» (41. orr.).

Emakumeen beraien oldarkortasunak harritzen ditu eta horrengana hurbiltzeak eta haren ahalmenak ezagutzeak estutasuna sorrarazten die (indar hori asertibitate bihur daiteke, emakumeen eragin-gaitasuna sendotzen duen komunikazio-modua) eta beldurrari gehiegizko garrantzia ematea direla eta, bortxaketarik bizi izan gabe ere, arrisku hori dagoela jakite hutsak bideratzen du adierazpenaren, askatasunaren eta harremanaren errepresio-elementu izatea. Eta, beti hala ez bada ere, eta emakumeak askatasunez adierazi eta harremanak izaten badituzte ere, litekeena da zigor-mehatxuagatik norberaren portaerari mugak jartzea edota taldeak kide baten jokaera urratzailea kontrolatzea.

Bortxaketaren funtzio hori hedatzen da gainerako sexu-erasoetara, penetraziorik gabeko erasoetara, alegia. Horrenbestez, ideologia patriarkalak aukera gutxi uzten dizkie emakumeei: hil arte defendatzea (Eliza Katolikoko santa asko hala dira bortxatzaileen eskuetan hiltzea na-

[11] Sarreran esandakoa errepikatzen dugu. Sexu-eraso guztiak ez dira gizonek eginak emakumeen aurka, baina ikerlan honetan adierazpen hori soilik hartuko dugu kontuan, lehen azaldutako arrazoiengatik.

hiago izan zutelako[12]) edota erasotzaileak hiltzea, argi eta garbi azaltzeko ez zutela erasorik nahi. Badirudi bestelako erantzunak erreprimituta daudela, indarkeria-mota horren izaeragatik.

Irudi horiek itogarriak badira ere, benetako emakumeek erakutsi dute beren burua defenda dezaketela erail gabe, eta norbera hil gabe. Arazoa da tarteko beste erantzun horiek —gehientsuenak, alegia— ez direla ikusten, eta neskei ez zaiela bidaltzen haien burua eta emakumeen kolektiboa defendatzeko eskubidea dutela adierazten duen mezurik. Mugimendu feministek soilik jakinarazten dute mezu hori, eta estrategia gisa erabiltzen dute.

## 5.3. SEXU-ERASOEI BURUZKO IKUSPEGI FEMINISTAK

### 5.3.1. Berrikuspen historiko laburra

Mugimendu feministek indarkeria sexista ulertzeko egindako analisi eta errebindikazioetan, adierazpen guztiek ez dute garrantzi berbera izan. Hasieran, emakumeen gorputzaren eta sexualitatearen gaineko gizonen nagusitasunean oinarritutako eskema teorikoaren zati gisa ageri zen bortxaketa, eta «eguneroko sexu-zapalkuntzaren adierazpen larriena» zela irizten zitzaion (martxoaren 8ko manifestu feminista, Marugán eta Vega, dg. idazkian aipatua).

Indarkeria sexistaren aurkako diskurtso eta ekintza feministak imaginario kolektiboaren aurka egituratzen ziren. Izan ere, imaginario horren arabera, bortxaketak kasu bakanak ziren, kale ilun eta bakartietan gertatzen zirenak, eta biktimak ez zuen erasotzailea ezagutzen. Horregatik, neurri handi batean, mugimendu feministak azpimarratu zuen bortxaketak sarritan etxeetan gertatzen zirela, erasotzaileak emakumeen ezagunak, familiakoak edo bikotekideak zirela, eta erasoak egun argiz gertatzea litekeena zela. Bortxaketak «buru gaixoek» gauzatutako gertaera bakantzat hartzeko gizarte-joeraren ondorioz, 70eko hamarkadan eta 80ko hamarkadako lehen urteetan mugimendu feministek bultzatutako kontsignek zioten «gizon guztiak bortxatzaile izan daitezke» eta eraso bakar bat ere ez zela utzi behar erantzunik gabe; gainera, Zigor Kodea berritzea eskatzen zuten[13]. Gero, korronte feminista batzuek kontsigna haiek ñabartu dituzte.

Erasoen aurkako ekintza feministak arrakasta izan zuen: Zigor Kodea aldatu zen, harrera-etxeak sortu ziren, eta, batez ere, Estatua hasi zen politikak gauzatzen eta horretarako erakundeak sortzen. Emaitza horien ondorioz, sexu-erasoei buruzko azterketetarako, mobilizazioetarako eta errebindikazioetarako indar feministek, 80ko hamarkadako azken urteetan puntu gorena iritsi ostean, bizitasuna galdu zuten hurrengo hamarkadan. Horrenbestez, 1993ko Estatuko Jardunaldi Feministetan ez da ageri gai horri buruzko komunikaziorik (Marugán eta Vega, dg.).

[12] Ageda Cataniakoa, Euskal Herrian sendatzaile-funtzioak egozten zaizkiona, III. mendean Italian ankerki torturatu eta erail zuten, Quintianus senatariaren sexu-proposamenei uko egiteagatik.

[13] Erakunde feministek emandako hainbat materialetatik ateratako kontsignak.

90eko hamarkadan, mugimendu feministak indarra galtzen du indarkeria sexistaren gaian, baina beste sektore batzuek heltzen diote arazoari, eta, horrenbestez, ikuspegi berriak sortzen dira. Hedabideek gogor heltzen diote gaiari, biktimen testigantzak eta adituen adierazpenak aurkeztuz; eta, horren ondorioz, publikoa hasten da indarkeria sexistaren arazoa beste modu batera ulertzen. 1997an, bikotekideek eragindako indarkeriari buruzko gizarte-alarma sortu zen, Ana Orantes eraila izan zenean, senarrak eragindako indarkeriazko bizi-esperientzia telebista-programa batean salatu ondoren. Gero ikusiko da salaketa jartzea eta banantzea ez dela «soluzio» nahikoa indarkeria desagerrarazteko, litekeena baita bikotekide ohiek ere erasotzea, jazartzea eta erailtzea.

Horrenbestez, erakundetan eta hedabidetan emakumeen aurkako indarkeria ulertzeko beste modu bat eratzen ari zen bitartean —erailketen zenbaketan interes handia jarrita— eta diskurtso feministaren elementu batzuk ofizialki onartzen ziren bitartean (batez ere, desberdintasunaren eta indarkeria sexistaren arteko lotura), delitu berri bat agertu zen: «genero--indarkeria», hain zuzen; eta biktimentzako laguntza instituzionalizatu zen, programa sozial, juridiko eta psikologikoen bidez.

Erakunde feminista askok ardatz hartu zuten bikote barruko indarkeria sexistaren azterketa; haien diskurtsoan sexu-erasoek garrantzia galdu zuten, eta eraso horiei buruzko garapen teorikoak ez zuen aurrera egin. Horrenbestez, indarkeria-modu horien azterketa beste ikuspegi batzuetatik egin zen, batez ere ikuspegi psikologikotik. Ikuspegi horretatik, traumaren eraginak arreta guztia bereganatzen du, batez ere bortxaketaren kasuan: gertaera traumatikoa da, eta biktimaren psikean sartzen da. Bortxaketei eta beste sexu erasoei buruzko 90eko hamarkadako literaturaren zati handi batek biktimei ematen zaien arreta aztertzen du. Eskuliburu askok ematen duten mezua beldurgarria da: sexu-erasoa da emakume bati gerta dakiokeen okerrik handiena, haren sexualitatea baliogabetuta geratuko da, beldurrak paralizatuko du, inguruarekin eta gizonekin duen harremana hondatuko da, tratamendu luzea eta oso espezializatua izan beharko du, eta inoiz ez du lortuko eraso horren aztarna erabat desagertzea.

Psikologiaren korronte batek, besteak beste ILAS[14] barne hartzen duenak, irizten dio trauma soziala (eta bortxaketa hala da, generoaren gizarte-eraikuntzan duen zeregin definitzailea aintzat hartzen badugu) pairatutako pertsonen oneratzea ez dela inoiz erabatekoa izango espazio terapeutikoan, kaltearen jatorriagatik ezinbestekoak baitira gizarteak onartzea eta balioztatzea. Horren haritik, gizarte-diskurtso zuzentzaile bat eraikitzen ez bada, justizia oinarri duena, eta ez biktimizazioa, ziur asko indarkeria hori emakume baten bizitzako esperientziarik okerrena *bihurtuko da.*

Gaur egun, sexu-erasoei buruzko analisi feministak ez dira oso berariazkoak: indarkeria sexista aztertzen dute, oro har; eta indarkeria horren barruan kontuan hartzen dituzte bortxaketa eta beste sexu-erasoak, oso esperientzia desberdinak, emakumeentzat duten esanahiari erreparatuta. Azterketa orokor horretan, ñabardurak galtzen dira eta korronte guztiak ados daudela dirudi; hala ere, azpimarratzen dituzten puntu batzuk aintzat hartuta, hiru korronte bereiz ditzakegu, gutxienez.

[14] Instituto Latinoamericano de Salud Mental y Derechos Humanos, elkarte txiletarra, esperientzia handia duena Pinocheten diktadura garaian giza eskubideen urraketa (tortura, gartzelaratzea, familiakoen desagerpena…) pairatu zuten pertsonekin lanean. www.ilas.cl

### 5.3.2. «Sexu-erasoa da emakume bati gerta dakiokeen okerrena»

Lehen ikusi dugun bezala, arau heterosexistak sexualitatea gauzatzeko eredu bat inposatu die emakumeei, portaera «zintzoa» izanik haiei egiten zaien aldebakarreko eskaera. Sexu-portaerarako arau hori zalantzan jartzea eta ukatzea izan da feminismoaren ardatzetako bat. Hala ere, gai horri buruz hainbat eztabaida egin dira, eta ideia guztiak ez doaz ildo beretik; horrenbestez, korronte desberdinak sortu dira sexualitateen analisia egitean, eta feminitatearekin, maskulinitatearekin eta indarkeria sexistarekin duten lotura aztertzean[15].

Zehazki, Garaizabalek (2009) laburbiltzen dituen bi ideia azpimarratu nahi ditugu, feminismo kulturala deritzonari dagozkionak: batetik, gizonen sexu-nagusitasuna hartzea emakumeen zapalkuntzaren funtsezko muintzat; bestetik, emakumeen eta gizonen sexualitateak aztertzea bi sexualitate antagoniko eta menderaezin gisa. Victoria Sendón (2000), desberdintasunaren feminismoaren Espainiako ordezkari ospetsua, ideia horrekin bat dator honako hau dioenean: «Inoiz ez dugu nahi izan gizonen antzeko sexualitatea izaterik (*hemen harrapatu eta hemen gauzatu*) ezta haiek erreklamatzen duten promiskuitaterik ere, berdinak izateko soilik; izan ere, sexu-askatasunean, nola gauzatu gehiago interesatzen zaigu, gauza bera baino».

Eskema horretan, gizonen sexualitateak emakumeentzako arriskutsua izaten jarraitzen du. Pornografia emakumeen sexu-alorreko mendekotasunaren adierazpentzat hartzen da, eta prostituzioa emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen nagusia dela jotzen da. Generoaren eta sexualitatearen alorreko aniztasuna, eta emakumeek gozamena bilatzean izaten dituzten sexu-esperientzien modu desberdinak zalantzan jartzen dira, edota gaitzesten dira, emakumeek erabakitzeko gaitasunik izango ez balute bezala, gure gizarteak ematen dituen aukeren eremuan (aukera horiek estu samarrak dira oraindik ere, baina borroka feministari esker zabaldu dira, hain zuzen).

Hasierako kontsigna feministak, gizon guztiak bortxatzaile izan daitezkeela adierazten zuenak, bizirik dirau mugimendu feministaren korronte batean. Jarrera hori du Euskadiko Lanbroa erakundeak, adierazten baitu «… gizon guztiak bortxatzaile izan daitezke. Datu esangarri bat da Euskadi dela gizonek prostituzio gehien kontsumitzen duten autonomia-erkidegoetako bat. Datu horrek argi eta garbi adierazten du dena: emakume baten gorputza erosteko gai baldin banaiz, nola ez dut bada hartuko hor nonbait aurkitzen dudan edozein gorputz?» (Lanbroa).

Bestalde, desberdintasunaren feminismoak feminitateari eta emakumeei buruzko diskurtsoa gorputzaren inguruan eratu du, gorputza hartuta «emakumeen existentzia sozial, historiko eta psikologikoa ulertzeko giltzarritzat; hau da, desioaren, esanahiaren, sinboloen eta boterearen alorrean eratutako gorputza» (Esteban, 2009, 4. orr.). Ikuspegi horretatik, gorputz sinboliko hori emakume-identitatearen oinarri da, eta sexu-desberdintasuna, berriz, patriarkatuaren eduki egituratzailea. Emakumearen gorputzaren eta sexualitatearen aurkako erasoa da gizonen boterearen adierazpen nagusia, eta haren ondorioa da emakume-identitatearen suntsipena; hau da, emakume bati gerta dakiokeen okerrik handiena da.

[15] Sexualitateari buruzko eztabaida feministari buruzko analisia aurkitu daiteke Granadan 2009an egindako Jardunaldi Feministen «Gorputzak, sexualitateak eta politika feministak» mahaiko ponentzietan. Zehazki, Cristina Garaizabalen ponentzian lotura horri buruzko ideien bilakaeraren sintesia ageri da.

Feminismoaren ikuspegia alde batera utzita, ijito-kulturak sexualitateaz duen ikuspegia bat dator bortxaketa hartzearekin emakume batek bizitzan izan dezakeen esperientzia okerrena bezala. «Ijito-komunitatean ez da sexu-erasorik izaten. Emakume ijitoaren sexualitatea oso errespetatzen da. Neskato ijitoak ez dituzte bortxatzen, haien birjintasunari eutsi behar zaiolako. Izan ere, oso ezaugarri baliotsua da birjintasuna, balio sakratua duena. Sexu-erasoaren ondoren, litekeena da gizon ijitoek ez nahi izatea neska horrekin ezkontzea, birjintasuna galdu duelako» (Secretariado Gitano fundazioa).

Bortxaketak ondorio subjektibo ukaezinak ditu. Intimitatearen aurkako erasoa da, borondatea makurtzea eta umiliatzea helburu duena, eta mehatxuen, indarkeriaren edo/eta bortxaren bidez, baita herio-mehatxuaren bidez ere, emakumearen erresistentzia ahuldu nahi duena. Gertaera traumatikoa da; eta horregatik, hain zuzen, emakume batek izan dezakeen esperientziarik okerrena bezala tratatzearen ondorioz, erasoa pairatu duen emakumeak eragin-gaitasun txikiagoa du lehengoratzeko eta bizipen hori berrinterpretatzeko. Ikuspegi horrek dakarren biktimizazioak berebiziko arriskua sortzen du: ziur asko, emakumea trauma horri lotuta geratuko da, eta biktimari zail egingo zaio gertatutakoa lantzea. Sufrimendua ez da konpontzen errua egozten duen isiltasunaren bidez, eta bortxaketa pairatu duten emakumeak isilik egoten dira, biktimizazio berri bat saihesteko: susmoa eta estigma, alegia[16].

### 5.3.3. «Indarkeria matxistaren aurka, autodefentsa feminista»

*Erantzunik gabeko eraso bakar bat ere ez!* kontsignaren bidez adierazi zuten feministek beren erabakia: ordu arte ahalik eta azkarren ahazten ahalegindu beharreko ezbeharra zena ez zen jada isilik gorde behar. Aitzitik, funtsezkoa zen emakumeei ahotsa ematea, haiekiko enpatia sendotzea, eta behin eta berriz eztabaidan jardutea, bortxaketari buruzko mitoak eraisteko[17]. Jarduera horiek izan dira, hain zuzen, feminismoaren ekintza nagusiak, emakumeen aurkako sexu-erasoak ulertzeko beste modu bat eraikitzea helburu hartuta.

Euskadiko mugimendu feministak, 70eko hamarkadaren azken urteetan Bizkaiko eta Arabako asanblada feministetan antolatu zenak, sexu-erasoak aztertu eta «indarkeria sexistaren egiturazko ikuspegia» deituko diogun eremuan kokatu zituen[18]. Egiturazkoa da, genero-sisteman eta sexu-desberdintasunaren kulturaren eraikuntzan kokatzen duelako indarkeria horren jatorria. Genero desberdinen eraikuntzaren ondorioetako bat da emakumeek zaurgarritasun handiagoa eta norberaren bizi-espazioa defendatzeko muga handiagoak dituz-

[16] Zinemak beti islatu du gizarteak nola ulertzen dituen arazoak. 1988an, AEBetako *The Accused* filmak bortxaketaren biktimaren irudi berri bat proposatu zuen. Film horretan emakume bat tabernara joaten da; han edan eta ezezagun batekin ligatu ostean, bortxaketa masiboa pairatzen du, eta bera da susmagarria. Erasotzaileen aurkako epaiketa, egiatan, emakumearen jokaerari buruzko epaiketa da, eta inork ez dio errukirik. Filmaren amaierak tradizioa apurtu zuen, bortzatzaileei egotzi baitzien errua. Pelikula lagungarria izan zen ulertarazteko delituzko jokaeren erantzukizunak ez duela zerikusirik biktimaren izaerarekin; begikoa ez izateak ez du esan nahi justizia merezi ez duenik. Azken mezua aurrerabide handia izan zen garai hartan: emakume batek ez esaten duenean EZ esan nahi du.

[17] Bortxaketari buruzko mitoak eraistea izan da, hain zuzen, indarkeria mota horri buruzko eztabaidan arreta jartzeko erabilitako bide ohikoenetako bat. Agian, ezeztatzen zituzten argudioak oso errotuta zeudelako (edo daudelako?) herritarren artean.

[18] 20 urte eta gehiago igaro ondoren, Bilgune Feminista sortu zen, sexu-erasoei buruzko antzeko ikuspegia aintzat hartuta.

tela. Horren ondorioz, eraso sexistei aurre egitean, korronte horren estrategia nagusi bat autodefentsa izan da.

Autodefentsa ezinbestekotzat jo da, indarkeriaren arazoa agerian jartzeko, emakumeengan duen eragina aztertzeko, eta egoera zailetarako jarraibideak emateko, sexu-erasoek eta bortxaketek eragiten duten beldur sinbolikoa murriztearren. Helburua da emakumeak eragile aktiboak izatea norberaren espazio fisikoaren eta sinbolikoaren defentsan, eta ezintasun sentsazioa murriztea, sentsazio horrek biktima bihurtzen baititu. Halaber, helburu du emakumeak errugabetzea rol tradizionalak hautsi eta gainditzetik, eta espazio publikoa betetzeko eskubidea aldarrikatzea. Kontua da, defentsa-teknikak ikasteaz gain, batez ere, jarrera berri bat sortzea emakumeengan, hausnarketaren bidez beldurrari aurre egiteko, eta, defentsa fisikoarekin batera, gizonekin bestelako harremanak izaten ikastea.

Autodefentsarako eta ekintzarako eskubideak emakumeen eragin-gaitasuna handitzen du. EZ! esateko aukera emateaz gain, beste aukera bat ere ematen die: norberaren gorputzaren eta desioen jabe izatea, eraso bat geldiarazteko gaitasuna, eta kontuan hartzea erasoa gertatzen bada ez dela emakumearen errua, baizik eta hura menderatuko zuela uste izan zuen subjektuaren erabakiaren emaitza.

Hainbat esku-hartzeen orientazioari erreparatuta, emakumeekin egiten duten lan-estrategiaren helburua da haien autoritatea sustatzea. Autoritate horrek dimentsio pertsonala du, baina kolektiboki eraikitzen da, gizarte-autoritatea sortuz, emakumeen irudi publikoa sustatuko eta aintzat hartuko duena, eskubide osoko subjektu aktibotzat onartuak eta aintzat hartuak izan daitezen. Emakumeek norberaren burua babesteko jarraibideak sortzea da xedea, eta ez uztea Estatuaren eskuetan soilik. «Erasoa-babesa bikotea apurtu behar da. Bi kasuetan emakumeak biktima bezala agertzen gara, boterearik gabe. Benetako errespetuak autoritatea du iturburu, ez babesa» (Bizkaiko Emakume Asanblada).

Autodefinitzeko eta norberaren desioak eta gaitasunak definitzeko autoritatea oso gutxi sustatzen da emakumeen artean, baina gizonek azkar asko ikasten dute. Gazteekin oraindik orain egindako ikerketa batek azaldutakoari jarraiki (Sortzen, 2010), Bizkaiko bi udalerritako (Ondarroa eta Markina) 15-18 urteko neskek zalantza egiten dute beren pertzepzio eta argudioei buruz, eta beren jokabideen ontasunari buruzko azken hitza mutilei ematen diete. «Zure hobe beharrez egiten du», edota mutilen bertsioan «zure hobe beharrez egiten dut», neska-mutilen diskurtso normalizatuan ageri dira.

Azken urteotan, lan-eremu horri «jabekuntza» esan ohi zaio. Asanbladek egindako edota erakunde publikoekin koordinatutako zenbait esperientziatan «jabekuntza-eskolak» sustatu dira, analisi feminista emakume gehiagori helarazteko. Indarkeriaren gaia eskola horien ardatz izan ez bada ere, autodefentsa-tailerrak eta gaiari buruzko eztabaidak egin dituzte.

Autoritatea edo/eta jabekuntza lortzeko proposamenaren ikuspegitik, korronte horrek aitortzen du sexu-eraso batek dakarren sufrimendua, eta aldi berean, emakumeen eragin-gaitasuna sustatzen du, haien ahalmenak eta indar pertsonal zein kolektiboa garatuz, erasoaren esperientzia eta emakumeen mendekotasunaren ondorioz sortutako beste bizipen batzuk integratzeko.

### 5.3.4. «Sadiko zerri bat naiz, putakumea eta bortxatzailea»[19] Gora Lisbeth Salander!

Genero-indarkeriaren *queer* analisian (Arisó eta Mérida, 2010) funtsezkoa da diskurtso hegemonikoen ordez beste diskurtso alternatibo batzuk egitea, pertsonak gizon/emakume ezaugarrien dikotomian sailkatu gabe. Genero-indarkeria justifikatzen eta betikotzen duten ikus-entzunezko irudikapenen azterketa kritikoaren ondorioz, *perfomance* batzuk sortzea proposatzen dute, indarkeria beste modu batean bizitzea bideratzeko, baita feminitatea eta maskulinitatea ere, gorputz-esperientzia oinarri hartuta.

Ikuspegi horrek azpimarratzen ditu mendekotasunaren alderdi sinbolikoak, eta emakumeen sortze subjektiboan alderdi sinboliko horiek duten eragina; gainera, irizten dio emakumeek, sexu-eraso bat gainditzeko gai izateaz gain, esperientzia horretatik ikas dezaketela, eta litekeena dela sendotuta ateratzea. Indarkeria sinbolikoa eraisteko, erasotzaileen diskurtsoa ezagutu behar da, haiek identifikatzeko eta etorkizuneko erasoak prebenitzeko. «Emakumea konturatu zen bere inguruan, honelako gauzak esaten zituen gizon bat aurkitzen zuenean "Ezetz esaten zuen neskak, baina…" bazekien ziur bortxatzaile bat zela» (Despentes, 2009).

Ikuspegi horretatik, emakumeen autodefentsa, aurre egitearen dimentsioaz gain, beldurra eraisteko osagai sinboliko sendoa da, eta, horrenbestez, erronka jotzen dio patriarkatuari eta pertsonak eratzeko sistema binarioari. «Autodefentsa-ikastaroek irakasten digute gu erasotzera etortzen badira ere baditugula estrategiak: arkatz bat, sakelako telefono bat, gure burua defendatzeko. Eta ikasitakoa oso lagungarria da "erasotzailearen irudi erraldoia" desmitifikatzeko» (Medeak).

Diskurtso-estrategian eta eguneroko bizitzan aplikatzeko, ikuspegi horren aldekoek proposatzen dute maskulinitatea antzerki bihurtzea, generoekin eta sexuekin jolastuz. Horrek sarritan indarkeriazko erreakzioak sortzen ditu gizonen artean. Erasotzaileak barregarri uztea estrategiatzat erabiltzen dute, gizonen arteko anaitasuna hausteko eta sexu-erasoen aurrean emakumeak garaile ateratzeko: «Neskak ausarta eta argia izan behar du, egoera hori, hasieran aurkakoa dena, aldekoa bihurtzeko eta lagunek ere mutilaren lepotik barre egin dezatela lortzeko» (Medeak).

*Queer* diskurtsoa autodefentsa feministatik haratago doa, indarkeria berriz banatu behar dela adierazteko (indarkeria aktiboki erabiltzen duten emakumezko pertsonaiak errebindikatzen dituzte, esate baterako, lehen aipatutako Lisbeth Salander, Emaztegaia —Kill Bill pelikulako protagonista— eta Xena, printzesa gerlaria) beldurraren sozializazioaren eskutik. Hartara lortuko da «bestelako emakumeak irudikatzen hastea. Gizon batek eta nik beldurtzeko posibilitate berdinak izan ditzagula. Gizon horri norbait atzetik doakionean, nik sentitzen dudan beldurra sentitu dezala. Gizonek sentitu dezatela ni bezalakoak

[19] Lisbeth Salanderrek, Stieg Larssonen *Millennium* trilogiako protagonistak, ankerki bortxatu zuen gizonaren bularrean tatuatutako esaldia. Nobelen argumentuaren ardatza da gizonen konplizitate-sarea indarkeria sexistaren alorrean, eta neska batek, biktima izan nahi ez duenak, beste emakume batzuen eta zenbait gizonen laguntzarekin, estutasunean jartzen duela Estatu demokratiko bat. Gogoan hartzekoa da 2009ko irailean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak saria eman ziola Stieg Larssoni, hil ondoren, genero-indarkeriaren aurkako eginkizun gailenagatik.

direla: sargarriak, zaurgarriak, hauskorrak… Irudikapen guztietan ez dadila desorekarik egon» (Medeak).

Indarkeria sexista ulertzeko modu horrek dakar emakumeengan duen eragina aztertzeko eta sexu-erasoen aurrean erantzuteko era berri bat. Oso diskurtso iradokitzailea da, baina egileak ere ohartzen dira haren ahultasunaz. «Nire praktika pertsonalean, beste masaila jartzearen aurka nago. Indarkeria geuretu behar dugula uste dut. Batzuetan kontraesanak sortzen dizkit, amorrua eragiten didalako arretarik handiena indarkeriaz elikatzeari ematea. Baina indarkeria hor dagoenez, gure inguruan… Indarkeria gizonek erabiltzen duten moduan kudeatzea ez dut atsegin, prestakuntza bakezalerik ezta erlijiosorik ere ez izan arren. Ez litzaidake gustatuko helburu hori azken helburua izatea. Hala ere, egungo egoeran, argi eta garbi dago indarkeria berriz banatu behar dugula. Baina, barru-barruan, izorratzen nau» (Medeak).

Diskurtso horren erradikaltasunak eta jardunbideak (adibidez, «King» tailerrak), baita emakume-prototipoak (urdanga, talo-pala, mari-mutila…) eraitsi eta haiekin jolas egiten duen estetikak, gizarteari politikoki batere zuzenak ez diren adierazpenen bidez interpelatzen dionak, eragiten du korronte hori berrikuntza nabarmena izatea feminismoaren ikuspegian. Estreinakoz, feministak ez dira mintzo sufrimendutik edo defendatzeko eskubidetik soilik; emakumeen erasotzeko gaitasunaz dihardute, landu beharreko alderdi gisa. Horrenbestez, emakume-identitatea kolokan jartzen dute (eta gizon-identitatea ere bai) *performance* bihurtzen baitute, hainbat modutan darion emanaldi, aldez aurretiko definiziorik onartu gabe.

Zalantzarik gabe, gaur egungo gizartean, gazteen bizimoduan teknologiak duen funtsezko betekizuna eta lehenengo feministek emakumeentzat eskuratutako lorpen garrantzitsuak kontuan hartuta, korronte horren diskurtso begirune-gabea erakargarritasun handiko ekarpena da sexu-erasoak ulertzeko bidean: indarkeria sinbolikoaren garrantzia azpimarratzen du, eta ez soilik egiturazko indarkeriarena edo sexu batek bestea menderatzearena.

### 5.3.5. Emakumeen bortxaketa, gizonen arteko hizkuntza gisa

Latinoamerikako zenbait hiritako bortxaketak eta hilketak aztertzean (Mexikoko Ciudad Juárez da erreferente ezagunena), hainbat egilek[20] ekarpen garrantzitsuak egin dituzte *feminizidioak*[21] esaten zaien gertaerak ulertzeko. Ekarpen horietako batek adierazten du indarkeria sexistak alderdi *instrumentala* baduela (berehalako erreakzioa lortzen du —erasotako emakumeak zerbait egiteari uzten dio edota erasotzaileak nahi duen zerbait egiten du—, erantzun-eredu bat sortzeaz gain) baita *adierazpena* helburu duen alderdia ere (boterea nork duen, eta, horrenbestez, nork adieraz *dezakeen* azaltzen du).

[20] Atal honetan Rita Segatoren eta Celia Amorosen ekarpenei erreparatuko diegu, batez ere.

[21] Feminizidio kontzeptuari buruz eztabaida handiak dituzte Latinoamerikako feministek. Batzuek *feminizidio* esaten diote emakumeen aurkako indarkeria-continuumari, heriotza emaitza duenari; beste batzuek homizidio hitzaren ordez erabiltzen dute feminizidio, erraildakoa emakumea denean. Beste batzuek, berriz, feminizidio esaten diote indarkeria sexistari, estatuak babestutako zigorgabetasuna tartean ageri denean. Atal honetan kontzeptu hori erabiliko dugu indarkeria sexistaren adierazpena izendatzeko, Ciudad Juarezen azken urteotan gertatzen ari dena adibide nagusitzat hartuta.

Halaber, sexu-erasoek funtzio instrumentala (emakumeen espazio fisikoa, psikikoa eta sinbolikoa mugatzea) eta adierazpen-funtzioa dute (indarkeria sexista sostengatzen eta birsortzen dute, mehatxuaren eta beldurraren bidez). Adierazpen-funtzio horrek emakumeak ditu helburu, baina gizonak ere bai, mezuak bidaltzen baitizkie, gizartean onartzen diren arauak hausten dituen emakume baten aurrean nolako jokaera izan behar duten adierazteko.

Ciudad Juárez hiriko bortxaketei eta erailketei buruzko analisian, Rita Segatok ekintza horiek guztiak erasotzaileak solaskide bati edo batzuei bidalitako mezutzat hartzen ditu. Solaskide horiek bertan egon daitezke fisikoki, edota subjektuaren irudikapen mentalean. Diskurtso horretan erasotzailearen bi elkarrizketa-ardatz bereizten ditu: haietako bat —ardatz bertikala— biktimari bidalitako mezua da, eta indarkeriazko ekintzaren bidez menderatzen du, «baina ardatz horizontala berdinei bidalitako mezua da; izan ere, haiekin lehian ari da, eta oldarkortasunaren bidez... gizon-anaiartean leku bat merezi duela adierazten du, eta agian ohorezko tokia eskuratuko du, hizkuntza hierarkikoa eta antolaketa piramidala soilik aintzat hartzen dituen anaiarte horretan» (Segato, 2008)[22].

Bestalde, Celia Amorosek (2008) aztertu ditu Ciudad Juarezko krimenen eta bikotekideek zein bikotekide ohiek egindako hilketa sexisten artean (Espainiako legedian «genero-indarkeria» esaten zaiona[23]) dauden desberdintasunak, eta bakoitzaren mezu desberdinak nabarmendu ditu: Amorosek adierazten du genero-indarkeriazko delitu baten egilearen mezua dela «nirea zelako hil nuen», *nire* emaztea izanik, gizarteak eta legeak hala aitortuta, eta jabetzan emana, haren gain eta haren aurka jarduteko eskubidea nuen, behar izanez gero. Aitzitik, Ciudad Juarezko krimen batzuek bestelako mezua dute[24]: «nirea ez zelako hil nuen».

Amorosek nabarmentzen du lehenengo kasuan mezua biktimari bidaltzen zaiola eta eredu tradizionala hausten duten emakumeei, eskarmentua izan dezaten. Bigarren kasua konplexuagoa da; Ciudad Juarezko hilketen funtzioa ez da soilik murriztailea, eta emakumeen kolektiboa kontrolatzeaz gain, gizon-talde batek beste gizon-taldeari bidaltzen dion mezua da, botere-eremuak eskuratzea helburu hartuta, suntsitzeko gaitasuna adieraziz, biztanle zaurgarrien aurkako erasoaren bidez: emakumeen aurkako erasoaren bidez, alegia.

Dena dela, bortxaketen eta sexu-erasoen funtzioa da, argi eta gabi, genero-antolamenduei eustea: emakumeen kasuan, feminitateari buruzko mezu tradizionalei lotuta jarrai dezatela, autonomiak eta sexu-askatasunak dakartzaten arriskuez oharturik; eta, gizonen kasuan, gogoan izan dezatela «gizon izatea dohaina dela, baina dohain hori merezi eta legitimatu egin behar dela, jokaera jakin batzuen bidez» (Amorós, 250. orr.).

[22] Ardatz horizontalari dagokion ekarpenaren iturburua da Brasilian kartzela-zigorra duten bortxatzaileekin egindako ikerketa.

[23] Espainiar estatuan nabarmen behera egin du delitu horien egileen zigorgabetasunak, 2004an legea aldatu zenetik, hain zuzen. Gainera, bitxia da hiltzaileen ehuneko handi batek bere buruaz beste egiten duela, horretan ahalegintzen dela, edota poliziara entregatzen dela.

[24] Ciudad Juarezko feminizidioei buruzko kopuru oso desberdinak daudenez, iturri fidagarrienetako bat hartuko dugu erreferentziatzat: Nazioarteko Amnistia. Erakunde horren 2003ko txostenak adierazten du 1993-2003 hamarkadan 370 emakume baino gehiagoren erailketa egiaztatu zutela, eta gutxienez 137 kasutan sexu-indarkeriaren aztarnak aurkitu zituztela.

## 5.4. INDARKERIA MODU BERRIAK, EZTABAIDA BERRIAK, LEHENGO AHULTASUNAK

### 5.4.1. Indarkeria-modu berriak

Zalantzarik gabe, 2010ean oso urrun gaude 1975 hartatik, marxista ospetsu batek bortxaketa hutsaldu zezakeela pentsatu zuenetik. Orain hainbat diskurtso daude, eta feministen hiru belaunaldien esperientziak ditugu, indarkeria sexista desagerrarazteko ahaleginean. Halaber, egia da gaur egungo neskek bizi duten errealitatea eta haien amonek bizi izan zutena, feministak izan edo ez izan, nahiko desberdinak direla.

Egungo gizartearen ezaugarria da teknologia berrien erabilera masiboa, eta horren haritik eraso-modu berriak sortu dira. Internet ziber-jazarpenerako eta oldarkorrak izan daitezkeen harreman birtualetarako leku aproposa bihurtu da. Gazteek, gizarte-sareen erabiltzaile nagusiek, ziber-harreman mordoa dute, eta intimitatea berehala eta mugarik gabe partekatzen dute.

Informazio guztia eskura dagoela ere errealitate berri bat da. Ia ezer ez da saretik kanpo geratzen, eta foroak eztabaidarako, ezagutzarako… eta eraso birtualetarako gune bihurtu dira: mezu oldarkorrak, deskalifikatzaileak eta iraingarriak bidaltzen dira, eta haur-pornografia kontsumitzen da. Mota guztietako aholkuak ematen dituzten orriak ere saguaren eskura daude. Webgune horietan, neskek taldeak aurkitzen dituzte eta talde horiekin identifikatzen dira; gainera, helduak engainatzeko aholkuak ere aurkitzen dituzte, haiek ez baitute gaitasunik espazio birtualean lehiatzeko.

Telebistetako programazio berriek, neska lotsakorren ordez, neska erakargarriak eta sexualki aktiboak jartzen dituzte, baina sexu-erasoen irudiak moduzkotasunik gabe azaltzen dituzte (esate baterako *Generación Nini* programan, 2010eko martxoan) eta, gero kentzen badituzte ere, sarera iristen dira eta han ikusgai daude. Halaber, programa-mota berria sortu da, parte-hartzaileei eskatzen diena barru-barruko bizipenak publiko guztiaren aurrean azaltzea. Gainera, hedabideetan epaitegi modukoak antolatzen dituzte, beste pertsonen bizitza epaitzeko eta iritziak emateko. Intimitatea kontsumorako produktu bihurtu da; emakumeek bizi izandako erasoak ere bai.

Oso kezkagarria da ikustea sexu-erasoak salatzen dituzten emakumeen ehuneko handia neska gazteak direla eta erasotzaileen artean ere gazte asko daudela. Belaunaldi berriek desberdintasunean oinarritutako indarkeriarik ez zutela bizi beharko pentsatzen zutenak bihozgabetuta daude, genero-berdintasuna ia lortu dugun unean.

Sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketa ere garai hauetako beste errealitate kezkagarria da; ez lehen existitzen ez zelako, baizik eta gaur egun proportzio handiagoa hartu duelako. EAEn hasi berri diren ekintzek erakusten dute gai horrekin kezkati agertzen direla, ikusi 14. zk.ko praktika egokia. Eta —aho betean adierazi nahi ez bada ere, Europako gizarteetan estalian dagoen arrazakeria ez sustatzeko— kalean esaten direnak entzunda, argi dago biztanle askok uste dutela erasotzaileak etorkinak direla.

Indarkeria-modu horiek guztiak, hain zuzen, orain arte eraikitako bagaje teoriko feminista gainditzen dute; eta, erantzunak bilatzeko premiarekin batera, antzinako arazoak eta eztabaida berriak biltzen dira.

### 5.4.2. Eztabaida feminista berriak

Mugimendu feministak, 80ko hamarkadako urte kementsuen ostean, nekaldia bizi du. Garai bateko eztabaida-jardunaldiak noizbehinkako ekitaldi bihurtu dira, neurri handi batean antolaketak dakartzan zailtasunengatik. Indarkeriari buruzko azterketen eta teorien eraikuntza arlo akademikora lekualdatu da, eta gradu-ondoko ikasketek erantzuna ematen diete belaunaldi berrien kezkei. Hala ere, emakume horiek ez dute beti parte hartzen aktibismo feministan, eta, bestalde, eztabaidetan sakontzeko lekuak ez dira nonahi aurkitzen.

Gainera, zaila da sakon-sakonean ezagutzea sexu-erasoen aurrean dauden jarrerak, erakundeen memoria historiko dokumentatua urria delako eta ñabardurak lausotzen direlako. Planteamendu batzuen berri eman dute zenbait egunkarik, baina jarraitasunik gabe. Raquel Osbornek, esate baterako, gogor kritikatzen ditu bigarren biktimizazioa eragiten duten lege-ikuspegiak, baita emakumeei autonomia kendu eta biktimak sortzen dituen lege-sistema ere (Osborne, 2009). Osborneren jarrera gertu dago Marcusek (2002) bortxaketari buruz egindako hausnarketetatik: bortxaketa pairatutako emakumeak ez ziren aldez aurretik biktima, bortxatutako unean sortzen baitira biktimak; izan ere, «ez botere maskulinorik ez babesgabetasun femeninorik ez dago bortxaketaren aurretik, eta ez dira bortxaketaren eragile; alderantziz, emakumeak feminizatzearren kulturak erabiltzen duen bitartekoa da bortxaketa».

Badinterrek (2004) proposatu du emakumeen eta gizonen arteko harremanei buruzko diskurtso feministaren berrikuspen sakona egitea. Emakumeak erasoen gune izaten jarraitzen dutela onartu arren, adierazi du ez dela nahikoa hausnartu indarkeria femeninoaren esanahiari buruz eta haren aurrean ez dagoela erantzun feministarik, horrenbestez sortzen dela emakumeak biktima bihurtzen dituen diskurtsoa, eta diskurtso horrek ez duela desarmatzen genero-desberdintasunean oinarritutako harremanen injustizia.

«Beste ahots feminista batzuk» korronteak zalantzan jartzen du genero-desberdintasuna indarkeria sexistaren sostengua denik, eta beste faktore batzuetan bilatzen ditu kausak. Genero-indarkeriaren aurkako lege integrala ere kritikatzen du: ikuspuntua zabaltzeko premia ikusten du, indarkeria-modu guztiak barne hartzeko, baita emakumeek adingabeen aurka edo gizonen aurka eragiten dituztenak ere. Planteamendu polemiko horiekin, korronte horrek jakinarazi nahi du ez dagoela jarrera feminista bakar bat gai honi eta beste gai batzuei buruz, eta erronka bat botatzen du: analisiaren eredu tradizionalak berrikustea. Aldi berean, gazteen artean «tratu onak» oinarri dituzten harremanak ereitea garrantzitsuagoa dela irizten diote, tratu txarrei buruz hitz egitea baino.

Salaketa ere eztabaidagai da. Elkarte guztiak bat datoz emakumeei pairatzen duten eraso bakoitza legearen aurrean eta publikoki salatzeko adorea ematea funtsezkoa dela adieraztean (hartara bideratzen delako emakumeak beren eskubideen defentsan protagonista izatea, erasotzailea gizartean bakartzea, sexu-indarkeriaren aurkako iritzia sortzea, epaitegien eremuan presioa eragitea, erasotako emakumeen errudun-sentimendua eta bakar-

tzea alde batera uztea, eta erasoak prebenitzea), baina salatzeko zailtasunak ere aintzat hartzekoak dira, batez ere sexu-erasoen kasuan: salaketak ez dira ondo burutzen, eraginkortasun ezagatik eta izapideak oso mantso egiten direlako; erasotako emakumeek tratu hotza eta ezkorra izaten dute erakundeetan; emakumeen aldekoak ez diren epaien kopuru handiak kolokan jartzen du haien sinesgarritasuna, edota erruduntzat hartzen dira okasioa eman dutelako; familiako gizonek har ditzaketen errepresaliek (bai erasotako emakumeen aurka, bai erasotzaileen aurka) beldurra eragiten dute. Bestalde, «intentsitate txikiko» sexu-erasoen aurrean tolerantzia handia dago, naturaltzat hartzen dira eta emakumeen bizitzan daude, kulturari eta emakume izateari atxikita.

Eztabaida horiek guztiak feminismoaren baitan gertatzen diren bitartean, gizonen artean (eta emakumeen artean ere bai) erreakzioak sortu dira, emakumeen botere berritzat hartzen dutenaren aurka.

Lehen inoiz gertatu ez bezala, Lege batek (ezinbestean hobetu behar den Lege batek) indarkeria sexistaren sinbologia kulunkarazi du. Eztabaidak beharrezkoak dira, eta hemendik aurrera ere beharrezkoak izango dira; baina, zalantzarik gabe, gaur inoiz baino gehiago, indarkeria ez da inolaz ere gai pribatua, benetako kezka publiko bihurtzeko zer egin behar dugun oraindik ere jakin ez arren.

### 5.4.3. Elkarteetako aspaldiko arazoak

Erakundeek, mugimendu feministen presiopean, emakumeei arreta eta babesa emateko baliabideak eta zerbitzuak jarri dituzten heinean, erasotako emakumeei laguntzeko zeregin hori ez dute jada betetzen talde feministek. Aitzitik, eskatzen dute zerbitzuen funtzionamendu hobea, eta zerbitzu horien premia duten emakume guztien eskura jartzea baliabideak, haien bizilekua, arazo administratiboak, jatorria, klasea, arraza eta egoera edozein izanda ere.

Indarkeriaren biktimentzat erakundeek jarritako politika eta zerbitzuen babesean, emakume-elkarte askok erakundeei eskatu diete prebentzioaren eta arretaren alorreko ardurak bete ditzatela, eta, aldi berean, arazo horri buruzko jarduerak ugaritu dituzte: hausnarketa, presioa, hedapena, prestakuntza, prebentzioa eta sentsibilizazioa.

Hala ere, elkarteek aitortzen dute zailtasunak dituztela sexu-erasoak agerian jartzeko, emakumeek eraso horiek ikustea, ezagutzea, haien jakitun izatea, erasotzat hartzea eta ez onartzea, eraso horiei izena ematea, haien aurka jarduteko gaitasuna izatea eta abar lortzeko. Adierazten dute zailtasun handiena dela, ahaleginak egin arren, sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainek ez dutela jarraitasun nahikoa pentsamendu-aldaketa sakonak eragiteko. Irizten diote kanpainak ez direla prozesuaren zati, baizik eta unean uneko jarduera esporadikoak; gainera, kanpaina batzuek kontrako eragina dute, gizarte-alarma sortzen dutelako, edota salatzera bultzatzen dutelako, egin daitekeen gauza bakarra dela pentsaraziz.

Elkarteek arazo hori agerian jartzeko ekarpen ugari egin badituzte ere, gaur egun hainbat zailtasun dituztela aitortzen dute. Arazo garrantzitsu bat ekonomikoa da. Elkarte batzuen

iritziz, instituzioek emandako dirulaguntzek mendekotasuna sortzen dute, eta askatasunez jardutea eragozten dute. Gainera, arreta ematearren instituzioekin hitzarmenak sinatu dituzten elkarteek salatzen dute politika publikoen egonkortasunik eza, eta, horrenbestez, lana epe luzera proiektatzeko ezintasuna.

Bestalde, ia elkarte guztiek aitortzen dute militantzia urritu dela, edo/eta bestelakoa dela, 80ko hamarkadan sortutako erakundeen egiturek ez dutela jada balio, eta belaunaldien arteko errelebua bermatzeko bide eraginkorrik ez dagoela, batez ere boluntarioekin soilik funtzionatzen duten elkarteetan.

Hala ere, sexu-erasoen gaiari aurre egiteko, elkarteek antzematen duten zailtasunik handiena da gai horri buruzko desinformazioa: batetik, sexu-erasoaren kontzeptua anbiguoa da, eta benetan duen eraginari buruzko datu fidagarririk eta osorik ez dago; bestetik, baliabideen, zerbitzuen eta protokoloen falta ez da batere lagungarria herritarrek jakiteko zer egin eta nola lagundu sexu-erasoa pairatu duen emakume bati.

Sexu-erasoen aurkako militantziari eusteko eztabaida, beldur eta arazo horien guztien artean, deigarria da Millennium fenomenoa: *Män som hatar kvinnor* (*Emakumeak maite ez zituzten gizonak* jatorrizkoaren bertsio leundua:*Emakumeak gorrotatzen zituzten gizonak*) Stieg Larssonen lehenengo nobela da eta 30 milioi ale saldu dira mundu guztian. Datu horrek adierazten digu indarkeria sexistari buruzko gai literarioak publiko handiaren interesa bereganatu duela. Nobela horren protagonista ikono berria da emakume gazteentzat, eta bizi duen indarkeriari bere baliabideekin aurre egiteko erabakiak —Estatuko estamentuek erasotzailea estaltzen duten bitartean, goragoko interesak aitzaki— gaiari buruz pentsaraztea eragiten du.

Literaturak, batez ere hedapen handia lortzen duenean, egilearen irudimena gainditzen du, eta gizarte-imaginarioaren zati bihurtzen da. Millenniumen kasuan, istorioarekin batera ikasbidea ematen digu egileak: emakumeen aurkako indarkeriaren gaizkide diren botereak kolokan jartzen dituena ez da erasoa eta bakartzea pairatutako emakumearen indarkeriazko banakako erantzuna, baizik eta zigorgabetasuna desegitea, zenbait eragileren ekintza koordinatuen bidez: biktima bat, rol horri uko egin eta bere burua defendatzen duena; laguntza ematen dioten emakume solidario, indartsu eta konprometituak; botere-gehiegikeriak salatzen dituzten komunikabideak; erasoa pairatu duen emakumeari justizia ematen dion sistema judiziala; gizon batzuk, generokide erasotzaileak aktiboki arbuiatzen dituztenak; eta gizon-emakume horien guztien asmo sendoa: emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, tolerantzia zero.

Millennium fenomenoa, berebiziko irakurle-kopuruarekin, benetan aintzat hartzekoa da, geure egiten badugu Marcusek (2002) esandakoa; alegia, benetako edo alegiazko narrazio eta istorioek eragin handia dutela emakumeei ezartzen zaizkien jokaera-jarraibideen egituraketan.

Ikerketa honetan parte hartu duten ia 200 pertsonen diskurtsoak aztertuko ditugu, sexu-erasoak ulertuta pertsona horiek bizi izandako esperientziak bezala, baina, baita ere, ikuspegi zehatz batetik kontatzen diren gertaerak bezala. Diskurtso horietako batzuk argiak eta

sendoak dira; beste batzuk ez hain argiak eta ez hain sendoak. Baina guztiak baliagarriak zaizkigu, sexu-erasoek XXI. mendean Euskadin jarraitzen duten eredua agerian jartzeko.

Diskurtso horiek arakatzen ahaleginduko gara, emakumeen eragin-gaitasuna non dagoen jakiteko, eta emakume horien identitatea aztertzeko; hartara jakingo dugu sexu-harreman bat eskatzeko edo onartzeko —edota ez onartzeko— gai ote diren, aurre egiteko moduko eraso bat noiz bizi duten argi ikusten ote duten, biktimizazio-prozesua eten eta feminista batzuek aldarrikatutako mezu hau bere egiten ote duten: «batzuetan nahikoa izaten da erreakzionatu dezakezula jakitea, gure kultura patriarkalak emakumeok infantilizatzeko bidaltzen dizkigun mezu guztiak gorabehera» (Ziga, 2009).

# 6. EMAITZAK.
# SEXU ERASOAK, HAINBAT IKUSPEGI AINTZAT HARTUTA

## 6.1. LEHEN INPRESIOETATIK BEGIRATZEA

Hamasei eztabaida-taldeetan jasotako iritziekin osatu dugu atal hau. 122 pertsonek parte hartu dute eztabaida-talde horietan: 91 emakumek eta 31 gizonek. «Ideia-erauntsia» teknikaz baliatuta ekin diogu lanari talde bakoitzean, eta parte-hartzaileek adierazitakoa jaso dugu.

### 6.1.1. Beldurra lehen-lehenik

Hala da, teoriak adierazten duen bezala, errealitateak azaltzen digu sexu-erasoen kontzeptuari heltzean taldeetan ageri den elementu nagusia *beldurra* dela. Salbuespenik gabe, beldurra aipatu dute lehenbizi talde guztietan. Emakume-taldeetan beste hitz batzuk erantsi dituzte, beldurrari lotuta (larderia, ezintasuna, mehatxua, zaurgarritasuna, koldarkeria, laztura, arriskua, segurtasunik eza), eta beldurrak eragindako ondorioa aipatu dute: norberaren jokabidea mugatzea.

Talde gehienetan beldur hori emozio bezala ageri da, hau da, inpresio subjektibo gisa, eta partaide askok hau adierazi dute: «sexu-erasoa da gerta dakizukeen okerrena». Ideia hori indar handiagoz ageri da emakume etorkinen taldeetan eta helduen taldeetan (gurasoak, irakasleak).

Hausnarketa feminista nabarmenagoa den taldeetan, beldurra emozio bizitzat hartu ordez —batzuetan paralizatu egiten duen emoziotzat hartu ordez— kulturaren elementutzat jo dute, eta azaldu dute beldur horrek eragiten duela «beldurraren eta autokontrolaren imaginarioa, sozialki eraikia; izan ere, nola liteke amek kotxez ibiltzen uztea, festara joatea baino arriskutsuagoa da eta? Bataren aurrean gizartea beldur da, eta bestearen aurrean ez» (Berdintasun-teknikarien taldea).

Parte hartu duten beste feminista batzuentzat, beldur hori emozio eta kultura-imaginario izateaz gain, emakumeen sozializazio-prozesuaren ardatz da. Hau da, beldurra hor dago eraso bat gertatu baino askoz ere lehenago; izan ere, «tipo batek eraso aurretik, gauza asko gertatu behar dira… sozializazio-prozesu guztiak (harena, gurea, historian oro har gertatu dena) direla-eta, egoera zehatz batean gaude eta partida aldez aurretik galdua dugu. Beldurra ez dago berdin banatuta… Nerabezaroan, feminista izaten hasi nintzenean, konturatu nintzen erasoak jasateko programatuta nengoela; erasoez ez nintzen ohartu ere egiten, eta horixe da arriskutsuena: burua programatuta edukitzea eta erasoak jasan behar ditudala pentsatzea» (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

Emakumeek beldur handiagoa dute, eta beldurraren transmititzaile nagusi dira. Gurasoen taldeetan, semeei eta alabei buruzko beldur desberdinak adierazi dituzte, eta aita batek hau esan du: «Nire semeari labana sar diezaioke norbaitek, eta bai, horrelako erasoek beldurtzen naute; baina, nire alabei dagokienez, bortxatuko ote dituzten beldur naiz» (gurasoen taldea).

Nabarmentzekoa da bai amei bai aitei beldur handiagoa ematen diela ezezagun batek alabei egin diezaiekeenak, nahiz eta errealitateak adierazi ezagunek egindako erasoak ohikoagoak direla. Ama batzuek aitortu dute alaben harremanak kontrolatzeko ezintasunak eragiten diela beldurrik handiena, batez ere festara joaten hasten direnean. Larritasun hori adierazten dute esna egonez, alabak etxera itzuli arte (nesken ama gehienen jokaera), eta alabei zaurgarritasuna transmititzen diete, mutilen berdinak izateko eskubidea aitortzen eta azpimarratzen duen diskurtsoarekin bat ez datorrena.

Sexu-eraso guztiek eragiten dute beldurra, baina batez ere *bortxaketek*. Hamasei taldeetatik bederatzitan agertu zen hitz hori. Baina, taldeek nahiago dute bortxaketaz gehiegi ez hitz egitea, eta elkarteren bateko kide diren nesken taldean eta kontzientziatutako gizonen taldean soilik aipatzen dituzte parte-hartzaileek bizi izandako esperientziak. Gainerakoei ezinezkoa edo oso zaila iruditzen zaie esperientzia horri espazio zehatz horretan eustea. Neskak bestelako sexu-erasoei buruzko iruzkinak egiteko gai dira, baita inpaktu handia eragin dieten erasoei buruzkoak ere, baina bortxaketa oso ideia ikaragarria da, agian Despentesek (2009) adierazi bezala «mutil batek buelta eman eta “barreak bukatu dira” esaten didanean, lehenengo masailekoa ematearekin batera, izugarrizko beldurra eragiten didana ez da penetrazioa, baizik eta pentsatzea hil egingo gaituela, gero ez dezagun ezer esan, salaketarik jar ez dezagun eta deklaraziorik egin ez dezagun».

### 6.1.2. Eta, bigarrenik, kausei buruzko galderak (eta erantzunak)

Eraso horien kausari buruzko galderak planteatzen dituzte taldeek, eta analisian bat datoz, azalpenen ardatza izanik gizonek mendean dituztela emakumeak, eta emakumeek men egiten dietela.

> Emakume gazteak gezurrezko berdintasunean bizi gara, eta nahi duguna egiteko askatasuna dugula uste dugu. Hori guztia gezurra da, ez dago berdintasunik. Gure benetako egoera ikusi behar dugu, eta maila pertsonaletik kolektibora jo. Eta guk, emakumeok, egin beharreko gauza da, erakundeek ez baitute asko laguntzen, desberdintasunaren gaiari ez diotelako ganoraz heltzen (nesken 4. taldea).

Nesken, amen eta irakasleen talde batzuetan matxismoa aipatu bada ere, gizon batzuen edo gizon guztien banakako ezaugarri gisa, hausnarketan gehiago aritu diren taldeetan ez dituzte erasoen kausak lotu norbanakoen jokaerekin baizik eta «patriarkatua» edo «heteropatriarkatua» esaten zaion gizarte-sistemarekin. Neska-talde guztiek identifikatu dute emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna, baina mutilek ez dute ia aipatu (elkarteren bateko kide direnek salbu) eta betiere gizabanakoen mailan.

*Boterea* ere gehienbat neska-taldeetan ageri den kontzeptua da, baita «gizon» hitza ere, erasotzailea izendatzeko. Kontzientziatutako nesken taldeetan, singularraren ordez plurala

erabili dute («gizonak») eta bereizi dituzte, alde batetik, norbanako batek izan ditzakeen jokaerak, eta bestetik, norbanakoek taldean jardutean sor daitezkeen portaerak.

Eraso baten erantzukizun indibidualari buruz desadostasunak ageri dira talde bakoitzaren baitan, bai neska-taldeetan, bai mutil-taldeetan, eta nesken eta mutilen ikuspegien artean ere desberdintasunak daude. Neska gazteenek, baita gizonen hausnarketa-taldeetako partaideek ere, erantzukizun kolektiboa gehiago azpimarratu dute.

> Erasoak ez dira maila pertsonalean hartu behar, erasotzailea ere biktima delako: sistema patriarkalak erabiltzen duen txotxongiloa, emakumeak kontrolpean egon daitezen. Kartzelan sartuta ez da ezer lortzen; sozializazio-prozesu bat behar du, eraso gehiago ez egiteko (nesken 4. taldea).

> Sozializazio-giro horretatik irtetea zenbat kosta zaidan ikusita, ezintasuna sentitzen dut, arbuioa; arreta galtzen badut berriz ere eror naitekeela iruditzen zait. Bai arriskutsua! Erasotzaileari ere erruki diot. Ulertzen dut, rol biak bete baititut; erasotzaile izan naiz eta erasoak pairatu ditut. Nola bermatu erasoari ez diodala berriz ekingo, inguru guztiak horretara bultzatzen nau eta? (elkarteren bateko kide diren mutilen taldea).

Banakako erantzukizunari buruzko eztabaidak gehiago iraun du elkarteren bateko edo/eta gizonen izaerari buruzko hausnarketa-talderen bateko kide diren gizonen taldean, eta ez da harritzekoa. Neskek esan dute, besterik gabe, gizon guztiei ez zaiela errua berdin egotzi behar. Mutilek berriz amorruari buruz eztabaidatu dute: amorrua ematen die emakumeek (emakume ezagunek, baita lagunek ere) kale jakin batean haiekin joan nahi ez izatea, erasotzeko gai direla pentsatuko balute bezala.

> — Amorrua ematen dit, min ematen dit, gizon izateagatik epaitzen bainaute. Ulertzen dut, baina ez zait bidezkoa iruditzen.
>
> — Guri zail egiten zaigu ikustea, alde zapaltzailea garelako, baina emakumeek etengabe egin behar dute lan hori: gizon batekin topo egitean, gizon guztiak dauden zakuan besterik gabe ez sartzeko ahalegina egin behar dute… Nekeagatik, ulertzekoa da azkenean errezera jo eta gizon guztiak zuzenean zaku horretan sartzea. Ez zait iraingarria iruditzen; nik ere hala egingo nuke, emakumea banintz.
>
> — Hainbeste emakumeri gertatu bazaie (sexu-erasoak pairatzea, maila batean edo bestean) nik ez dut ukatuko. Ulertzen dut nolabaiteko aurreiritziak izatea, gure beldur izatea. Gero horrek nola sentiarazten zaituen, zure kontua da.
>
> (Elkarteren bateko kide diren mutilen taldea)

Azpimarratzekoa da talde horrek aho batez adierazi duela gerra-egoera batean oso zail egingo litzaiekeela emakumeen aurkako jokaera oldarkorrak adierazteko gizarte-presioari eustea (bortxaketa barne hartuta). Haietako batzuk, lehendik alderdi horri buruzko hausnarketarik egin gabeak, ikaratu egin dira posibilitate hori aintzat hartzean: «nola eutsi eta bortxaketarik ez egin gerra-egoeran? oso zail egingo litzaiguke». Taldea bat etorri da, maskulinitate hegemonikoaren aginduak alde batera uztea oso zeregin gogorra dela adieraztean; izan ere, oldarkortasuna eta indarkeria identitate horren funtsezko alderdi dira, eta presioa eragiten dute egunero… «are gehiago Euskal Herrian, indarra gurtzen baita. Txikitatik, lagun-taldean mutil ausarta izan behar duzu, oso ondo moldatzen dena, ostiak ematen dakiena, eta ez galtza-jarioa edo adarduna» (mutilen 3. taldea).

S. feminista da, eta mutil nerabe baten ama; adierazi du txikitatik hitz egin diola semeari pertsona guztiei zor zaien errespetuaz, baina «batzuetan iruditzen zait ez didala jaramonik egin; izugarri harritzen naiz neska bati urdanga deitzen entzuten diodanean, eta galdetzen badiot ea gustatuko al litzaioken amari (niri) edo arrebari beste norbaitek horrela esatea, erantzuten dit hitz egiteko modua soilik dela» (gurasoen taldea).

Talde hori oso kezkatua ageri da semeen elkarrizketetan —eta alaben elkarrizketetan ere— barra-barra entzuten dituztelako iruzkin matxistak. Hala ere aitortu dute alabekin hitz egitea errazagoa dela, «gehiago entzuten dutelako», diote ama batzuek, edo «bizkorragoak, zentzudunagoak, zuhurragoak» direlako, beste ama batzuen esanetan… Eta, eztabaidaren burrunban, guraso guztiak bat datoz: mutilak (norberaren semeak barne hartuta) «astakirtenagoak eta zikinagoak dira, eta hormonak aztoratuta dauzkate».

Guraso guztien buruan dago seme-alabak berdintasunean hezteko egindako ahaleginen emaitza zein ote den, eta seme-alaba horien portaeragatik benetan kezkatuta daude. Aita baten esanetan, gaur egungo gazteek «ez dakite borrokatzen, besteen gehiegizko eragina dute, eta lehen baino errespetu gutxiago dago». Ideia horiek taldekideen gustukoak dira; arrazoi eman diote eta guztiak batera hitz egiten hasi dira… azkenean, beste aita batek esan du ez dagoela ados, «gaur egungo neska-mutilak ez dira ergelak; badakite pentsatzen, elkar babesten dira eta elkarri laguntzen diote». Taldekideak isilik geratu dira, eta isilunearen ostean arrazoi eman diote. Norbanakoaren erantzukizuna vs sistemaren presioa gai eztabaidagarria da, eta gizonak eta mutilen gurasoak askoz ere kezkatuago daude.

Amaitzeko, sei emakume-taldetan eta talde misto batean *gaixotasuna* aipatu dute, sexu-erasoen kausa gisa. Etorkinen, amen eta irakasleen taldeetako parte-hartzaile batzuek ezin dute ulertu bere senean dagoen mutil batek sexu-erasoa gauzatzea, horren ondorioz pentsatzen dute bortxatzaileak «buruko gaixotasuna» izan behar duela, edo «sexu-konplexuren bat duela eta bere onean ez dagoela».

Ideia hori gehienen iritzia ez bada ere, taldeetan adieraztean ez du eztabaida handirik sortu. Emakume parte-hartzaile batek adierazi du aspergarria gertatzen zitzaiola sexu-erasoen kausa gaixotasuna denaren mitoa gezurtatzen ibili behar izatea; talde batzuetan gaixotasun hitza lotu dute sexu bidez kutsatutako eritasunen bat izateko arriskuekin, sexu-eraso baten ondorioz.

### 6.1.3. Neskengan eragindako ondorioak ezagutzen dira, eta mutilengan eragindakoak?

Sexu-eraso baten ondorioak aintzat hartu dituzte talde guztietan. Aipatuena da erasotako emakumeen *lotsa* (elkarteren bateko kide diren nesken taldean izan ezik). Lotsaren atzetik dator *oinazea*, emakume-talde guztietan aipatua, neska gazteen taldean izan ezik. Elkarteren bateko kide diren mutilek aipatu dute erasotako emakumearen oinazea, baina erasotzailearen oinazeaz ere aritu dira, eta oinaze hori ulertzen dute, erasotzailearen ekintza justifikatzera iritsi gabe.

*Ezintasuna* talde gehienetan aipatu dute, gurasoen eta elkarteren bateko kide diren nesken taldeetan salbu. *Iraina* eta *amorrua* hitzak zazpi taldetan ageri dira. Hala ere, bigarren

hitz hori (amorrua) talde guztietan aipatu dute, baina ez saioaren hasieran, baizik eta ondorengo hausnarketa-aldian.

Amorruari buruzko hausnarketa egitean, emakume etorkinen talde bateko zenbait kidek hau adierazi dute: «amorrua sentitzen dugu, baina zerbait egin behar dugu egun guztian haserre ez egoteko». Taldekide batek esan du: «Bai, hobe da ez pentsatzea, beloak jartzea, belarriak ixtea; eta jarrera hori ere erasoaren ondorio da, horrela erantzungo ez bagenu *oso* haserre egongo ginatekeelako, munduan haserre-haserre ibiliko ginateke». «Belarriak pixka bat gortu behar ditugu, gehiago ez sufritzeko» erantsi du hirugarrenak.

Elkarrizketatzaileak galdetu dienean zer gertatuko litzatekeen amorrua erreprimituko ez balitz, barre urduriak eta adierazpen etenak egin dituzte: «Kaosa sortuko genuke…», «Hasieran bai, gero ohitu egingo lirateke ez…», «Ez dut pentsatu ere egin nahi…», «Imaginatzen al duzu…». Eta, hain zuzen, talde gehienetan amorru horri buruzko hausnarketarik ez da egiten, bai ordea beste sentimendu batzuei buruzkoa: lotsa, oinazea, iraina.

Elkarteren bateko kide diren neskak salbuespen dira. Haietako batek kontatu zuen eraso bati aurre egin eta erantzun ziolako salaketa jarri ziola *erasotzaile kolpatuak*, eta epaitu egingo zutela.

> Nik beti sentitzen dut nire gain erantzun bat eman beharraren zama, egun ona edo txarra izan. Eta gero nire jokaera zalantzan jartzen dut, egokitasun nahikoa duen erantzuna ez dudalako eman, ikuspegi feminista aintzat hartuta… Gainera, neska zakartzat naukate, mutilek indarkeria galanki erabili arren, eraso egiten dutenean. Gu oso neurritsuak gara erasoan. Nire iritziz, mutil hura edalontzi batez jo nuenean, ez nuen erantzun egokia eman. Oso gaizki pasa dut. Kontua da mutil hori irainduta sentitu dela neska batek ebakia egin diolako, eta horregatik jarri dit salaketa. Nik, azken finean, egoera bat moztu nuen, behin baino gehiagotan aska nazala esan ostean, ni astintzen ari baitzen… Erasoaren ondorioak puzten hasi zen mutila. Gorabehera hura amaitu zen, eta tabernakoek mutila kalera bota zuten (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

Neska guztiak bat datoz amorrua erreprimitzeak edo adierazteak antzeko ondorioak dituela iriztean: osasuna (fisikoa eta emozionala) hondatzea eta askatasunez adierazteko aukerarik ez izatea, «adierazten ez dugunez, haserre guztia jaten dugu eta gaixotzen gara» (emakume etorkinen 1. taldea). «Gu ez gaituzte indarkerian sozializatu, eta horrela erantzuteak berebiziko ondorioak ditu nire gogo-aldartean» (elkarteren batekoak diren nesken taldea).

Aipatutako beste bi ondorio *nazka* eta *errua* dira, eta haietako bakoitza sei taldetan ageri da. Lehenengoa lau emakume-taldetan eta bi gizon-taldetan aipatu dute; bigarrena, berriz, emakume-taldetan eta talde mistotan soilik. Aurrerabide garrantzitsua iruditzen zaigu errua taldeen erdia baino gutxiagotan agertzea. Dena dela, agertzen denean, erruari buruzko hausnarketa nahaspilatsu samarra da eta *beste* emakumeei errua egozten dien diskurtsoa errepikatzen da, batez ere emakume etorkinak hizpide hartuta. Parte-hartzaile batzuek aurreiritziak adierazi dituzte: «emakume horiek gehiago irensten dute», «salaketa faltsuak egiten dituzte», etab. Diskurtsoan aipatu da, halaber, emakume batzuk nerabezaroan sentitutakoa, edo haien ustez neska gazteei gerta dakiekeena: errudun sentitzea, maite-jolasetan mezu argiak ez bidaltzeagatik, edo mutil bati garaiz aurre ez egiteagatik.

> Nik batzuetan pentsatzen dut pairatzen ditudan erasoak ez ote ditudan nolabait eragin. Agian, sentimendu hori ez dut atsegin, baina, beharbada, nik ere jokatu dut… Ez dakit, gauzak aztertzen hasi eta pentsatzen duzu bidea eman diozula… Gauzak ez dituzula zuzen egin… (nesken 1. taldea).

Ikusi dugun bezala, erasoek neskengan eragiten dituzten ondorioak aztertu dituzte partehartzaileek, baina emakumeen aurkako sexu-erasoek gizonengan eragin ditzaketen ondorioei buruzko analisia egiteko ekarpenik ez dute egin mutilek. Elkarteren bateko kide diren mutilek soilik egin dute gai horri buruzko hausnarketaren bat, baina sozializazio-prozesuaren emaitzari buruzkoa izan da, sozializazio horrek galarazten baitie adieraztea erasoari eta indarkeriaren erabilpen behartuari dioten beldurra.

Helduek, gurasoek eta irakasleek ere ez dute ekarpen handirik egin. Oro har, mutilen jokaeran oker dagoenaz hitz egin dute, baina berehala adierazi dute nesken portaerak ez dituztela atsegin. Horrenbestez, erasotzailea bigarren mailan geratu da, hari buruzko hausnarketa eta adierazpen gutxi egin dute, norbanako gisa ez diote erru handirik egotzi, egoera horretara bideratzen duen harreman-sisteman kokatu dute… eta asko gehiago ez.

Diskurtsoaren ardatza da gertatutako erasoak edota erasoa gerta daitekeen mehatxuak emakumeengan eragiten dituen ondorioak. Erasotzaileak ezkutuan geratzen dira. Horretaz ohartuta, elkarteren bateko kide den neska batek amorruz esan du: «Ez dut uste indarkeria berezkoa denik gizakiengan, ezta gizonengan ere, baina mutilak sozializatzen dira indarkeria erabiltzeko, eta guri aukera hori kentzen digute. Horrenbestez, gertatzen denean, ez dugu haiei buruz hitz egiten… Ez da haien erasoa, gure lotsa da» (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

### 6.1.4. Kaleak, gauak… oraindik ez dira gureak

Bi hitzak —kalea eta gaua— hurrenez hurren, bizpahiru neska-taldetan soilik aipatzen badira ere, neska-talde guztien hausnarketetan ageri dira, baina *aisialdiko espazio eta denbora* gisa birdefinitu dituzte, eta eraso gehien gertatzen diren inguruak direla nabarmendu dute.

> Ez da sinestekoa aisialdiko gunea beldurrari eta erasoari lotuta egotea, eta, aldi berean, lotura hori naturaltzat hartzea. Ez da hitzez adierazten eraso gisa. Gurekin lanean diharduten neskek aipatzen dituzte babesteko erabiltzen dituzten estrategiak: taxiak hartzea, leku batzuetan korrika pasatzea, etab. baina beldurrik ez dutela diote (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

Emakumeen mugikortasunaren alorreko lorpen guztiak gorabehera, neskak (elkarteren batekoak izan edo ez izan, 17 urtekoak zein 35ekoak, feministak izan edo ez izan…) aitortzen dute kalea, gaua eta festak ez direla oraindik ere haienak, irteten diren bakoitzean espazio horiek eskuratzeko borroka neketsua egin behar dutela, kontrakoa duten eremua —hitzei eta, batez ere, keinuei erreparatuta— bereganatzeko. Begiratuak, «halabeharrezko» igurtziak, eskatu gabeko piropoak, nesken gorputzari buruzko balioespenak (mutilen

ustez neskek eskertu behar lituzketenak), tabernetako espazio mugatuak, eta azken finean, mutilen etengabeko «lerde-jarioa» aisialdirako gune horien ezaugarri dira.

> Nik esan arren patriarkatuak jarri didan leku horretatik alde egin dudala, ez dut esan nahi indarkeriarik eta beldurrik ez dudala jada hautematen. Eta uste dut, gainera, beldur naizen neurrian, partida irabazi didatela. Parrandan zabiltzanean, indarkeria nabari da etengabe, bortxaketaren beldur gara. Espazioak ez dira mistoak, festak ez dira gureak, eta gauza horiek argi utzi behar dira. Gure gozatzeko moduan eragiten dute. Ni gai horretan ez naiz batere malgua. Gauetan libre sentitu nahi dudanean antzematen dudan beldurraz oso ondo jabetzen naiz. Kaka zaharra da. Gure sexualitatea eta gure gorputzak kanpotik kudeatzen dituzte (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

Mutilek ere aitortu dute «*lerde-jario*» hori, batzuk horretan jardun dira gainera, eta normala iruditzen zaie, ez diote neskek adinako garrantzirik ematen. Mutil batzuek uste dute festetako liskar-giroa neurri handi batean neskek sortzen dutela, sexu-askatasuna kudeatzeko gai ez direlako, eta horren ondorioz arrisku-egoeratan jartzen direlako. Beste batzuek, batez ere adinean aurrera egiteaz gain hainbat hausnarketa ere egin dituztenek, adierazi dute nekatuta daudela, haiek ere, lagun-taldeko txiste sexistez, emakumeei buruzko balioespen-iruzkinez, eta aisialdiko espazioetan «*lerde-jarioan*» aritzeaz. Hala ere, bakarren batek errebindikatu du neska bat gustukoa izanez gero zilegi dela estrategia guzti-guztiak erabiltzea: poesia, drogak, behin eta berriz ekitea…

Esperientzia zehatza jaso dugu ikerketa-lan honetarako, aisialdiko ohiko espazioarekin zerikusirik ez duena, batzuetan emakumeentzat sortzen den liskar-giroarekin baizik, Alardea ospatzen denetik zehazki. Hala deskribatu baitute Alarde mistoaren parte-hartzaileek. Eta hori gertatzen ari da 1996tik, emakumeek tradiziozko festa horretan berdintasunean parte hartzeko nahia adierazi zutenetik, giro latza sortu baita.

Denboran egindako jauzia izango balitz bezala, esperientzia hori bizi izan dutenek kontatu dute egunero gertatzen direla purrustadak, eraso fisikoak, irainak, laidoak, eta presioak.

> Eraso fisiko larrienak entseguetan bizi izan ditugu. Behin batean bahitu gintuzten, eskola batean entseatzen ari ginela; ez ziguten irteten utzi goizeko laurak arte. Hurrengo egunean, Ertzaintzak irteerarik gabeko kale batean sartu gintuen, eta automobiletaraino lagundu ziguten, motoz eta bizikletaz atzetik genuelako jendea, batez ere mutil gazteak, helduek laineza emanda (Irungo Alardea).

Hamalau urteotan, ez da lortu ospakizun tradizional horretan emakumeen partaidetza normaltzerik eta egoera bizi dutenek adierazi dute indarkeria hutsaldu egin dela.

Alarde mistoak eta bertan parte hartzen dutenek erakundeen laguntza handia lortu badute ere, aipatu behar da Alarde tradizionalak laguntza moral eta logistiko izugarria izaten jarraitzen duela. Dena dela, emakumeen berdintasunezko parte-hartzea galarazten zuen espazio sinboliko hori eraldatzea erabaki zutenek berebiziko kalteak pairatu dituztela diote: lagunak galtzea, bukatzen ez diren eztabaidak, laidoak… eta beldurra. Hala ere, emakumeak berdintasuna bereganatzen saiatzen ari dira eta horretan dihardute.

### 6.1.5. Esaten ez dena ere... bizitzen da

*Sexu-erasoak* kontzeptua, taldeak akuilatzeko erabilia, eztabaida aberasgarrien sorburu izan da; dena dela, oso deigarria da eztabaida guztietan agertzea zaila dela kontzeptu hori argi eta garbi definitzea. Batez ere, izugarri zaila da sexu-erasoa zer den eta zer ez den zehatz-mehatz mugatzea. Adibidetzat hartuko dugu nesken taldean gai horri buruz sortutako eztabaida:

— Oso zaila da esatea hemendik aurrera erasoa da; izan ere, litekeena da ipurdia ukitzea erasotzat hartzea zuk, eta nik ez.

— Nik uste dut argi dagoela, erasoa hasten da zu deseroso sentitzen zaren unean.

— Bai, baina gizarteak ez du erasotzat hartzen.

— Praktikan, ez dakigu noiz lapurtzen diguten gure borondatea.

— Nik uste dut badakizula, nola sentitzen zaren ikusita, baina ez dakizu zer eragin izango duen ingurukoengan. Garrantzitsua irudituko zaien edo ez. Agian, eragin hori neurtzea gehiago kostatzen zaigu, jakitea baino... Norbaitek likiski begiratzen dizunean, ez da inguratu, ez zaitu ukitu, ez dizu ezer egin, baina mutil horren keinuak herabetu zaitu.

— Nik, eta lagunek ere bai, mutilei segituan eteten diegu. Baina, egia da, unibertsitateko neskekin joan naiz inoiz festara, eta otzanagoak dira. Niri mutil batek ukitzen banau, segituan sutzen naiz eta aurre egiten diot. Eta begiratzen dizute, zera esanez bezala: «Baina, neska, ez zizun ezer egin nahi eta ...». Eta nik esaten diet: «Zu uki zaitzala, uzten badiozu!». Badirudi zure ingurukoek esaten dizutela: «Ez zaitez horrelakoa izan, bai zakarra zarela»...

— Nik uste dut mailak daudela; badaude intentsitate txikiko erasoak, esate baterako ipurdia ukitzea. Eta betiko lagun batek ere egiten dizu hori. Trago batzuk jo dituela eta, txorakeriarekin, ipurdia ukitzen dizu...

— Nik ez dakit oso ondo non dagoen nire neurria. Nik, festara joatean, guztiekin hitz egiten dut, ondo etortzen badira. Niri izugarri molestatzen dit norbaitek ukitzea. Hemendik heltzeko ohitura txar hori (gerria seinalatuz). Nik zirkulua ixteko joera dut. Ez badizut baimenik ematen, ez nauzu zertan ukiturik. Orduan, nik ez dakit non dagoen neurria. Izan ere, batzuek esaten didate: «Bai zakarra zarela!». Eta nik esaten diet: «Nik errespetua eskatzen dizut, nik heldu al dizut? Ba, ez ukitu».

(nesken 1. taldea)

Eraso bat zer den definitzeko eta adosteko zailtasun handiena mugei eta baimenari lotuta dago: jartzen dituztenei (emakumeei) aitortzen al die gizarteak horretarako gaitasuna? Zalantzarik gabe, izendatzeko eta arautzeko autoritatea emakumeen gaitasun kolektibotik urrun dago, oraindik ere, patriarkatuaren eskuetan baitago. Neskek ez dute oraindik ere barneratu izendatzeko eta arautzeko gaitasuna (eskubide osoko subjektu izatea) mutilekiko harreman ez-arautuen alorrean, hau da, jai-giroan, gizarte-kontrol laxoagoko inguruan.

### 6.1.6. Labur esanda

Ikusi dugun bezala, sexu-erasoen kontzeptuaren azterketari ekitean, egoera konplexu eta interesgarria ageri da. Emozionaltasun handiko gaia da; horren ondorioz, batzuetan,

diskurtso feministak oihartzun nabarmenagoa lortu duenean, erasoen kausei buruzko ikerketa hasten da, baina beste batzuetan erasotzailea gaixotzat hartzen duten argumentuak aintzat hartzen dira.

Ikuspegi feminista guztiek adierazitakoari jarraiki, genero-estereotipo dikotomikoen ondorioz gertatzen dira sexu-erasoak, eta ikusi dugu oso zaila dela mugatzea genero-estereotipo horiek berregiten dituen gizartearen erantzukizun kolektiboaren eta sexu-indarkeriaz jokatzea erabakitzen duen gizonaren banakako erantzukizunaren artean dagoen erlazioa.

Errua erasotzaileari soilik ez egozteko asmoa eta soluzio penalak soilik jartzearen aurka agertzea alde batera utzita, elkarrizketatutako kolektibo bakar batek ere ez du aipatu erasotzailearen banakako erantzukizuna, nahiz eta erasotako emakumearengan duen eraginari buruz hitz egin . Eta *gizon* hitza bederatzi taldek aipatzen badute ere, ondorengo eztabaidan gizonak ia desagertu dira hausnarketa orokorretik, ez ordea adibide zehatzetatik.

Diskurtso desberdin horiek sexu-erasoen gizarte-irudikapen berezi bat adierazten dute: emakumeak erasoaren biktima bezala ikusten dira, eta haiei arreta emateko esku-hartzeei buruzko hainbat kezka eta eztabaida sortzen dira; aitzitik, erasotzailearen irudia lausotuta geratzen da, eta, aipatzen denean ere, ez da jakiten nola esku hartu.

## 6.2. NESKA GAZTEEN BIZIPENETATIK BEGIRA

Atal hau osatu dugu sei eztabaida-taldetan emandako iritziekin. Talde horietan 17 urtetik 35era bitarteko 51 emakumek parte hartu dute, guztira.

### 6.2.1. Non galdetzen dute: zer dira sexu-erasoak?

Neska-talde guztiek *bortxaketa* hartu dute sexu-eraso larriena bezala. Hain zuzen, sexu-erasoak salatzeaz aritu direnean, erreferentziatzat hartu duten erasoa da ezezagun batek egindako bortxaketa, indarkeria fisikoa eta guzti.

Bortxaketa izan arren sexu-erasoen lehenengo erreferentzia esplizitua, talde guztietako neskek azaldu eta kontatu dituzte beste esperientzia batzuk, sexu-erasotzat bizi izan dituztenak. Horrenbestez, kontzeptuari eta legeari erreparatuta, sexu-erasoa eta bortxaketa parekatzen badituzte ere, eta bortxaketa izateko berebiziko indarkeria fisikoaz gertatu behar dela iruditzen bazaie ere, norberaren sentimendu eta bizipenak hizpide izan dituztenean, neska guztiek deskribatu dute «sentitutako» eraso-egoeraren bat, erasoen kategorian sartu edo ez sartu.

> Emakumeok sexu-eraso mordoa pairatzen dugu egunean zehar, bai zuzenak, bai sotilagoak, baina gehienak normalizatuta dauzkagu, onartuta (nesken 4. taldea).

Hala ere, sexu-erasoa denaren eta ez denaren arteko mugei buruzko nahasteak ageri ohi dira: deserosotasuna, erasoa edo errua sentiarazten dieten egoerez ohartzen dira, bai-

na, askotan, ez dakite ziur benetako sexu-erasoak diren ala ez (edo ez dakite gizarteak sexu-erasotzat hartzen dituen ala ez). Neska gehienek aitortu dute ez dakitela non dauden «sexu-erasotzat» hartzen diren ekintzen mugak; baina, hala ere hainbat «intentsitate txikiko eraso» identifikatu dituzte, esate baterako: begirada lizunak, iruzkinak, eskukak eta kalean segika ibiltzea.

> Begirada batzuk ere sexu-erasoak dira, errudun-sentimenduak eragiten badituzte eta behin eta berriz errepikatzen badira (nesken 4. taldea).

> Gero, adarra jotzeko modua ere hor dago… Beti neskei egiten zaizkie horrelako adar jotzeak, eta azkenean kontu hori normala dela onartzen ari gara (nesken 1. taldea).

> Niri eraso sotila iruditzen zait mutil bat atzetik segika ibiltzea. Gauza sotila da. Gure joera da «Ez da ezer, nire paranoia da» esatea, baina bitartean izututa zaude (erakunderen bateko kide diren nesken taldea).

Halaber, aipatu dute jokaera baten testuinguruak eragina duela, haren arabera litekeena delako portaera bera gogoz hartzea edo arbuiatzea. Badirudi jokaera jakin batzuk gertatzen diren espazioa ebaluatu behar dela, jokaera horiek erasoen kategorian sartzeko.

> Ezin dut esan piropoak sexu-eraso direnik, noiz edo noiz arte handiz borobildutako piropoak esan dizkidate eta. Gizarte-harremanetan sinesten dut, eta harreman horietan gatazkak, desberdintasunak, hutsegiteak eta gaizkiulertuak izaten dira. Baina, zerri batek laudorioak esaten dizkidanean, nik ulertzen dut ez direla laudoriorik, baizik eta eraso (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

Neska gazteek sexu-erasoak «lausoturik» ikusten dituzten bitartean, edota esperientziaren eta sentsazioaren parametro zehatzen bidez ulertzeko ahalegina egiten duten bitartean, elkarteren bateko kide diren nesken taldeak eta berdintasun-teknikarien taldeak adierazi dute funtsezkoa dela indarkeria-motak izendatzea eta sailkatzea, bizipen pertsonal horiek kategoriatan jartzea eta ulertzea bideratzeko. Eraso-mota horiei garrantzia ematea bideratuko duten irizpideak edo mugak bilatzearen alde azaldu dira emakume horiek:

> — Bi faktore hauek kontuan hartu behar dira: gertaera guztiek ez dituzte ondorio berdinak, eta ez zaie ikuspegi berdinetik begiratzen, zure historiaren arabera ikusten baitira. Zaila da alderdi horiek guztiak bateratzea, baina, zaila izan arren, kontuan hartu behar dira.
>
> — Piropoak eta begiradak bereizi behar dira egoera bortitzagoetatik. Normala da aldamio baten azpitik pasatzean kikilduta sentitzea, baina eraso larri batek bestelako ondorioak ditu. Mugak jartzea garrantzitsua da.
>
> — Hizkuntza lagungarria izan daiteke… Garrantzitsua da gauza bakoitzari nola esan jakitea: presioa, erasoa, jazarpena…
>
> — Larritasuna ematen duen egoera saihestea (ez pasatzea obretan ari direlako, etab.) eta lanera joateko edo gauean etxera itzultzeko ibilbidea aldatu behar izatea ere indarkeria gogorra da. Horrek ez du esan nahi piropoak eraso direnik, baina… Zure lankide den mutilak zuk baino gehiago kobratzea bezala.
>
> (berdintasun-teknikarien taldea)

— Nik uste dut intentsitate txikiko sexu-erasoak arriskutsuak direla, zure psikologia, subjektibotasuna, izaera, pentsamoldea… aldatzen duten heinean, gauza batzuk onar ditzazun. Baina gero, jakina, indarkeria gordina dago.

— «Ranking» bat egitea bai da arriskutsua.

— Ez da «ranking» bat egitea, baina bereizi behar dira… Ulertzeko mekanismo kultural, sinboliko, zehatz eta programatzaile gisa funtzionatzen duela eta jipoia bera beste gauza bat dela. Jipoia eta lerde-jarioa hobeto identifikatzeko, hain zuzen.

(elkarteren bateko kide diren nesken taldea)

Sexu-erasoen maila bat elkarteren bateko kide diren nesken taldean eta berdintasun--teknikarien taldean soilik identifikatu dute: *eraso sinbolikoa*, hain zuzen. Egiturazkoa da, eta gizon-emakumeen sozializazioa du oinarri:

> Indarkeria guztia ez dago agerian; haren zati bat estalita dago. Indarkeria sinbolikoa ere garrantzitsua da, hitzezko indarkeriaz eta indarkeria fisikoaz gain. Indarkeriaren gaia lantzean sexu-indarkeria fisikoari erreparatzen zaio, baina egiturazko sexu-indarkeria ere aintzat hartu behar da. Desberdintasuna ez da kontuan hartzen. Publizitateak sexu-izaera hutsa du eta etengabe eragiten du emakumeen aurkako indarkeria naturaltzat hartzea, sexu-objektu bezala erabiltzen baititu emakumeak, eta horren ondorioak larriak dira. Azken finean, inguruak erasorako bidea jartzen du (berdintasun-teknikarien taldea).

> Iruditzen zait kontua dela nola eragiten duten indarkeria guztiek batera, mekanismo integral eta zeharkakoa eratuz. Adibidez, zineman agertzen dena. Saileko hiltzaileak aurkezten dizkigute, betiere gizonak, eta emakumeak erailtzen dituzte. Garrantzi handikoa da hori; izan ere, zure aurkako indarkeriatzat hartzen ez dituzun ekintzak dira, baina prestatzen zaituzte… (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

Sexu-erasoen izaerari buruzko hausnarketa egitean, neska gehienek kontatu dituzten esperientziak dira gizon ezezagunen ekintzen ondorioz sentitutako erasoa. Estatistikek adierazten badute ere salatutako sexu-erasoak, neurri handi batean, ezagunen edota emakumearekin harremana duten gizonen ekintzak direla, litekeena da esperientzia horiek iraingarriagotzat hartzea eta taldean azaltzeko zailtasun handiagoak izatea. Honela kontatu zuen neska batek bikote-harreman batean bizi izandako esperientzia zehatza:

> Bat izan zen bikotekide ohi batekin, harekin harremanik ez nuelako nahi. Ez zen ezer larririk gertatu, baina kotxe baten kontra bultza egin zidan, eta, tira, ez dut esango eraso fisikoa pairatu nuenik, baina, bai, harekin harremanik ez nuelako nahi izan zen. Nik berebiziko iraina bizi izan nuen, eta frustrazio handia. Gertatutakoaren ondorioz oso denbora luzez egon nintzen inorekin ezer jakin nahi gabe, eta ez nuen nahi… Lagunak izatea eta bai, baina dezente markatu zidan (nesken 3. taldea).

Gehienek adierazi dute familiaren eremuan ere sexu-erasoak gertatzen direla, baina badirudi egoera horiek aztertzea zailago egiten zaiela. Familia barruko erasoei perbertsio-maila handiagoa irizten zaie, eta horren ondorioz, kasu batzuetan emakumeek gaixotzat hartzen dute erasotzailea.

— Familian ere izaten dira erasotzaileak, eta horixe da munduko gauzarik ikaragarriena.

— Bai, haiengandik ezin duzulako ihes egin, eta ezezagun batengandik, azken finean, korrika alde egiteko aukera duzu, baina… nola ihes egin zure aitarengandik, anai batengandik edo osaba batengandik? Eta askotan amek, zuzenean ez bada ere, nolabait onartzen dute, erasotzailearen jokaera estaltzen dutelako eta ez dutelako ikusi nahi; izan ere, bizitza guztia eta familia guztia kolokan jartzea da.

— Aitek eta horrelakoek, nire ustez, buruko gaitza dute, benetan.

— Maila batean, patologiaren bat izan behar dute, pederastek bezala; nik ezin dut ulertu alaba bortxatzeko ahalegina egiten duen aita burutik sano egon daitekeenik.

(nesken 3. taldea)

Dena dela, gehienek ulertzen dute ezagun batek egindako erasoa «larriagoa» dela, eta beste erreakzio batzuk eragiten dituela, erasotzailea ezezaguna denean sortzen ez direnak.

> Erasotzailea ezezaguna denean zalantza gutxiago dago, azkarrago erantzuten da, objektibotasun handiagoa izan ohi da. Zalantzak hasten dira erasotzailea ezaguna denean «zerbait egingo zuela, okasioa emango ziola». Desberdin jokatzen dugu, eta errudun-sentimendua handiagoa da (nesken 4. taldea).

### 6.2.2. Aisialdiko giroa: askatasunaren edo sexu-erasoen eremu?

Neska eta mutil gazteek harremanak dituzten espazioa, gaueko aisia edo festa-giroa, sexu-askatasunaren eremutzat hartzen da, nahi duten neska-mutilen gozamenerako. Alabaina, giro horrek ez die emakumeei eskaintzen ustekizunek pentsarazten duten adinako berdintasuna eta sexu-askatasuna.

Aisialdiko giroan oso maiz gertatzen da neskek nahi ez dituzten harremanak izatea, presiopean, «inguratze-jolasetan sartu zirelako» edota «okasioa eman zutelako», eta «intentsitate txikiko» sexu-erasotzat har daitezkeen jokaerak normalizatuta daude. Gazteen imaginarioan, jokaera horiek «neska+festa» elementuak nahastean ezinbestean sortzen den emaitzaren zati dira: mutil «lerdetsuen» behin eta berriz ekiteak, begirada likitsak, hitzezko erasoak, eskukak, jolasean sartuz gero «ez» esateko aukerarik ez izatea, etxera norbaitek lagunduta itzuli behar izatea, etab. Elementu horiek guztiak oso maiz edo etengabe agertzen direnez, neskak ohitzen dira mutilen presio-portaerak aisialdi-giroaren berezko ezaugarritzat onartzera. Jokaera horiek ohikoak diren heinean, neskek ez dituzte jada portaera negatibotzat hartzen, eta «festara joatearekin zerikusia duten» ohiko elementu bezala ikusten dituzte.

> Askotan, festan izan dezakezun egoerarik deserosoena da lagunen baten edo inguruko norbaiten ezagun batek nazkatua ematea; azkenean, festa-gogoa kentzen dizu eta etxera joaten zara. Ezezaguna bada, haizea hartzera bidal dezakete emakumeek, baina ezaguna edo ingurukoa bada, oso egoera deserosoa da. Gainera, irentsi behar duzu lagunak haren jokaera justifikatzea, mozkorra dagoelako. Horrelakoetan emakumeok muskerrak eta sugeak irentsi behar ditugu (berdintasun-teknikarien taldea).

Aisialdiko giroko desberdintasun-egoerak dakar sexu-erasoak ezkutuan geratzea. Nahasmenduaren eraginez, neska batzuk ez dute beren nahiak bereizteko gaitasunik, eta horren ondorioz, ezin dituzte nahi horiek defendatu. Mugak jartzeko, ezetz esateko eta norberaren sexualitatearen subjektu sentitzeko gai den *ni* sexualaren jabetzari uko egiten diote.

Ihes egitea eta gau-festa baten ondoren etxera itzultzean norbait atzetik izatea nesken artean maiz gertatzen diren esperientziak dira, eta eskukak eta harremanak izateko presioak pairatzeaz aspertuta daude; gainera, sarritan alkoholaren eta drogen kontsumoak horrelako jokaerak sustatzen ditu. Horrenbestez, giro horretan gertatzen diren erasoen maiztasuna dela eta, neskek aitortzen dute, erasoak asko eta askotarikoak izanik, gertaera oso larrien aurrean soilik asaldatzen direla. Presioa eta etengabeko «lerde-jarioa» direla eta aspertuta daude, eta nahiago dute garrantzirik ez ematea; etsita daude eta jokaera horiek normaltzat hartzen dituzte.

> Hezi gaituzten moduagatik, eraso eta egoera guztiak normalizatu ditugu, eta ez gara haietaz ohartzen berandu arte (nesken 4. taldea).

Berdinen taldeak, gainera, horrelako erasoen normalizazioa sendotzen du. Neska gehienek adierazi dute, deseroso gertatzen zaien jokaera batengatik kexatzen direnean, gehienetan lagunen edo ezagunen aurrean, haien erantzuna arbuioa eta ez ulertzea dela.

> Erasoak normalizatuta daude, eta ezin dira salatu, garrantzirik ez baitzaie ematen. «Ez da ezer izan eta, ahoberoak zarete gero, jendea pixka bat alaitzeko zen, ez zaitez horrela jarri»… egunero entzuten dira horrelakoak (nesken 4. taldea).

Hortaz, badirudi festa-giroa arrisku-espazioa dela, eta neskak, babes eta kontrol gehiagorekin edo gutxiagorekin, sexu-erasoak pairatzeko arriskuan jartzen direla. Horren haritik, jokaera horiei dagokien izena emateak duen garrantziaz sentsibilizatzea behar-beharrezkoa da; izan ere, sexu-erasoak dira, eta astebururo neska-mutilek harremanak izaten dituzten aisialdi-giroetan «desnormalizatu» egin behar dira.

> Konplizitatearen gaiak ere garrantzi handia duela iruditzen zait. Erasoak ez ikustea oso pribatua den kontua bezala, zeuk bakar-bakarrik jasan beharreko gauza bezala. Esate baterako, tabernariek ere erantzukizuna izan behar dute. Ez dakit nola lor daitekeen haien konpromisoa eta ardura, baina zerbait egiteko erantzukizuna dute, eta ez badute egiten, zigorra merezi dute. Taberna batean, gauean, hainbat eraso gerta daitezke gau bakar batean, eta tabernariak ez du ezer egiten. Konplizitate hori apurtu eta herritar guztiak konprometitu behar dira (erakunderen bateko kide diren nesken taldea).

### 6.2.3. Beldurra: aldez aurretik idatzitako gidoiaren protagonista, emakumeak biktima gisa izanik

Neska gazteek beren esperientziak kontatzen dituztenean, «aldez aurretik idatzitako gidoia» azaltzen dute: sexu-eraso baten biktima izateko beldur dira, egoera jakin batzuetan. Gauean bakarrik irtetea edo gau-festa baten ondoren etxera itzultzea bizipen beldurgarri

bihurtzen dira, eta neska gazteek sarriegi dituzte horrelako beldur-esperientziak. Kontakizunetan, beldur-sentsazio horiekin batera beste sentipen batzuk ere ageri dira: paralizatuta geratzea, egoerari nola aurre egin ez jakitea, edota ihes egiteko eta alde egiteko erreakzioak.

> Ni bakarrik joaten naiz oinez etxera, inoiz ez dut lagunik behar izan, onartu dudalako: besteak baino urrutiago bizi naiz eta bakarrik itzultzen naiz etxera. Egun batean, udaletxeko arrapaletan gora nindoala, mutil batekin topo egin nuen, aurrez aurre, hura behera eta ni gora. Eta, bat-batean, arrapaletan gora nindoala, nire atzetik zetorrela antzeman nion, segika zetorkidala. Eta gora eta gora, eta ez nekien zer egin. Ba, esan duzuna, paralizatuta geratzen zara… Esaten baituzu: zer egingo dut? garrasi egin? Txirrinak jotzen hasi? Txirrinak jotzen hasten banaiz, norbaitek pentsa dezake paranoiak jo nauela… Etxera iritsiko ote naiz? Horixe zen nire galdera. Etxera iritsiko ote naiz? (…) Handik hilabetera, gauza bera gertatu zitzaidan, eta mutil berbera zen. Orduan korrika alde egin nuen… Etxera joan nintzen korrika (nesken 1. taldea).

Badirudi sexu-erasoaren beldurra gidoi finkoa dela, neska gazte guztiei helarazten zaiena, eta neska horiek, jakinaren gainean edo konturatu gabe, babes-mekanismoak erabiltzen dituzte aldez aurretik programatutako beldur horri aurre egiteko: etxera itzultzeko taxi bat hartzea, norbaitekin itzultzea, etxera iristean telefono-dei bat egitea onik daudela egiaztatzeko, leku jakin batzuetatik korrika pasatzea… Neskak etengabe baliatzen dira mekanismo horietaz, modu normalizatuan eta naturaltzat hartuta, baina haien askatasuna nabarmen mugatzen dute. Gainera, mekanismo eta mezu horiek partekatzen eta transmititzen dituzte emakumeek.

> Badirudi beldur gehiago ematen digutela bestei gerta dakizkienak, guri gerta dakizkigukeenak baino. Bilboko festetan Nerek hor aparkatu zuen, eta esaten zuen, «bakarrik joango naizela». Eta Chus eta ni joan ginen autoraino laguntzera «Nola joango zara bakarrik, zerbait gerta dakizuke! (…) Nik lagunduko dizut, autoan sartzen ikusten bazaitut lasaiago geratuko naiz eta» esan nion (nesken 1. taldea).

Horrenbestez, beldurra ez da soilik norberari gerta dakiokeenagatik; izan ere, handiagotu egiten da beste emakumeei gerta dakiekeenagatik, beste beldur-kontakizunek elikatzen dute, eta belaunez belaun transmititzen da.

> Bortxaketa baten istorioak, azkenean, guztiongan ditu ondoriok, zuregan ere nolabait eragiten du eta. Etxetik irtetetan beti esaten dizute kontuz ibiltzeko. Beldurrak airean irteten zara kalera (…) Mutil-lagunik ez baduzu, «norbait bila ezazu, etxera bakarrik ez itzultzeko, mutil-lagun bat bila ezazu behingoz!» esaten dizute. (berdintasun-teknikarien taldea).

Halaber, eraso bat pairatu ostean, beldurrak eragin dezake neskek beren bizitza aldatzea, mugimenduak mugatzea, eta jokabidea aldatzea:

> Nik irteteari utzi nion! Beldurrak galarazi zidan hainbat gauza egitea. Hain zuzen, orain ere… Orain, irteten naizenean, ez dut jokatzen askatasun berdinarekin. Batez ere oso mutil normala zelako, ezezko bat onartu ez zuena. Ez zela ba… estatistikaren arabera, beste soslai hori zuena, zakartuko edo harrotuko zena… Ez, ez, inolaz ere ez. Denbora asko pasatu nuen baka-

> rrik irten gabe. Eta gero, lagun batek etxeko atariraino laguntzen zidan beti. Konfiantza galdu nuen… pentsatzen duzu, arraioa, edozein unetan zerbait gerta daiteke! (nesken 1. taldea).

«Eraso aurreko» beldurra, neska guztiek dutena, areagotzen da benetako erasoa bizi izan ostean, eta ezezagun guztiak hartzen ditu helburu. Neskek beldur horretatik ihes egiteko erabiltzen dituzten mekanismo guztiak kodigo modukoa osatzen dute, eta gauez irteten diren bakoitzean alarma eta babes guztiak abian jartzen dira. Badirudi «beldurraren gidoiak» emakumeen eskuetan jartzen duela sexu-erasoen prebentzioaren erantzukizun guztia; emakumeen esku geratzen dira eraso horiek kontrolatzeko, detektatzeko eta prebenitzeko mekanismo guztiak, eta horretarako, norberaren askatasuna, ekintzak eta mugimenduak mugatu behar dituzte: «Ezintasuna da. Guk pairatzen dugu arazoa eta guk bilatu behar konponbideak» (nesken 2. taldea).

### 6.2.4. «Zerbait egingo nuen nik». «Zerbait egin ote nuen nik?»

Sexu-erasoak delitutzat hartzea ez da ebasketa edo lapurreta delitutzat identifikatzea bezain erraza. Sexu-eraso baten aurrean, inkontzienteki abian jartzen dira emakumeen portaeraren erantzukizuna azpimarratzen duten mekanismoak: nola jantzita zeuden, kalean bakarrik ote zebiltzan, zergatik pasatu ziren leku hartatik, aurretik erasotzailearekin maitejolasetan ibili ote ziren, sarritan flirtean ibiltzen diren emakumeak ote diren… Galderak horiek guztiak berehala sortzen dira bai gizartean, bai emakumeen barne-barnean, eraso hori «justifika daitekeena» den edo ez ebaluatzeko.

Aurreko atalean azaldu dugun bezala, erasoen prebentziorako mekanismo gehienak emakumeen eskuetan jartzen badira, eta emakumeek beren burua babestu eta mugatu behar badute erasorik ez izateko, erasoa gertatu ostean lehenengo hausnarketa ez da erasotzaileari buruzkoa (zergatik eraso dio?) baizik eta emakumeari buruzkoa (zergatik sartu zen egoera horretan?).

Arrazoibide hori nesken talde guztietan agertu zen, eta, emakumeen erantzukizunari buruzko ikuspegi bakarra ez badago ere, arrazoibide hori ezaguna da, eta eztabaida eta nahasmendua sortzen ditu.

> — Ez dakit, gauzak aztertzen hasi eta pentsatzen duzu bidea eman diozula, gauzak ez dituzula ondo egin… Uste dut (emakumeek) ez dutela salaketa jartzen gauzak nola gertatu diren ez azaltzeagatik, litekeena baita nolabait errudun sentitzea…
>
> — Kuleroak erakutsi badizkiozu ere, titiburuaren erdia erakutsi badiozu ere, ezetz esaten badiozu ezetz da.
>
> — Zuk orain horrela esaten didazu eta oso argi ikusten dut, baina gero iruditzen zait egoera horretan dagoen pertsonak pentsatzen duela: agian nire janzkera… Seguru pentsatzen duela. Nire ustez, salaketa ez jartzearen arrazoietako bat da.
>
> (nesken 1. taldea)

Talde gehienetan ateratzen duten ondorioa da sexu-erasoak pairatzeko arriskuan eragiten duela janzkerak, baina norberaren jarrerak ere baduela eragina. Nahi duten beza-

la jantzita ere, jabeturik sentitzen diren emakumeek jarrera aktiboa dute, eta harremanei buruz askatasunez erabakitzen dute; zaurgarritasun txikiagoa eta sexu-eraso baten aurrean erantzuteko gaitasun handiagoa dutela uste ohi da. Aitzitik, zaurgarrienak dira janzkera probokatzailea dutenak, baina «gizonak erakartzeko» helburu hutsez, norberaren sexualitatearen subjektu sentitu ordez sexu-objektu sentitzen direnak, azken finean, irudi probokatzailea ematen ahalegindu arren «irudia saldu» soilik egiten dutenak.

> — Nik uste dut haiei (jabetutako emakumeei) beldur dietela gizonek; neska horiek argiago dauzkate gauzak, badakite zer nahi duten.
>
> — Nik uste dut esperientziarekin ikasten duzula praktika askori ezetz esaten, eta bestela agian ez zinakeela ausartuko; hobeto identifikatzen dituzu.
>
> — Nik uste dut «nahi dut» esaten baldin badakizu, «ez dut nahi» esaten ere badakizula (neska batzuek baietz diote).
>
> — Kontua da neska horiek «gerra bila» baldin badabiltza, norberaren hutsune emozionalak estaltzeko egiten dutela, egiatan kaka zaharra direla uste dutela, eta arreta erakartzeko bide bakarra gorputza eskaintzea dela; hori beste kontu bat da, pertsona hori ez dago bere buruaz ziur.
>
> (nesken 3. taldea)

Erabakiak hartzeko eta sexu-askatasuna gauzatzeko gai diren emakume jabetuen aldeko jarrera agertu arren, pentsatzen dute, halaber, sexu-erasoa pairatuz gero, gizartearen eta justiziaren babes gutxiago izango dutela emakume horiek, aldez aurreko «sexu-historialik» gabe sexu-erasoa pairatutako emakumeek baino.

### 6.2.5. Ezetz esaten dudanean... errudun sentitzen al naiz?

Neskek kontatutako sexu-eraso asko gertatzen dira elkarrizketa baten edo/eta hartu-eman fisiko baten ostean, hartu-emanarekin edo/eta sexu-harremanarekin hasieran ados zegoen pertsonak (neskak, alegia) hartu-eman hori bertan behera uztea erabakitzen duenean, gogoz kontra sentitzen delako edo egoerak hartu duen bidearekin ados ez dagoelako. Neskek erraz esaten ote dute «ez» egoera baten aurrean, aldez aurretik parte hartu baldin badute hartu-eman horren hasieran?

Kontu horiek aztertzeko, egoera zehatz bati buruzko galdera egin genien neskei: neska bat eta mutil bat maite-jolasetan hasi dira, baina, sexu-harremanaren unean, mutilak ez du kondoirik erabili nahi. Kasu horren aurrean, neska batzuek adierazi zuten «seguru neska asko ez direla ezetz esateko gai izango, eta kondoirik gabeko harremana jasango dutela. Askori ez zaie axolako, agian, eta beste batzuk ez dira ezetz esatera ausartuko» (nesken 1. taldea).

> Egoera horretan, aldez aurretik maite-jolasean ibili direnean, azkenean erantzukizuna erru bihurtzen da, pentsatzen delako: «zergatik joan nintzen harekin? zergatik ez nuen hau edo bestea egin?»… edo gaitzespenak entzuten dituzu: «nolatan joan zinen harekin?» eta horren antzekoak (nesken 2. taldea).

Hala ere, argudio horrek ez du neska guztien adostasunik, askok ez baitute onartu lotsa edo errua sentitu behar dutenik, edo adierazi baitute ez luketela zailtasunik izango kondoia erabiltzeko erabakiari eusteko garaian.

— Niri gertatu zait, baina ez dut sexu-erasotzat hartu, kontua zen «edo erabiltzen duzu edo ezer ez», eta bai, azkenean, gogor egiten badiozu, jartzen du.
— Niri ere gertatu zait, eta nik ere ez dut sexu-erasotzat hartu, sokatira modukoa da: baietz ba, ezetz ba…
— Ni ez nintzen errudun sentitu… «Sentitzen dut ba, gogoari eutsi eta kito».

(nesken 3. taldea)

Talde guztietan hitz egin bada ere erasotako emakumeek sentitzen duten erruaz, neska gehienei ez zaie iruditzen errudun sentitu direnik. Aitortu dute, lehen azaldu dugun bezala, litekeena dela zenbait garaitan sentitu izana «zerbait egin zutela» edo «bidea eman zutela», eta nolabaiteko erantzukizun-sentsazioa izatea; hala ere, erasoen aurrean isilik geratzearen arrazoia azaltzean, lotsa edo beldurra aipatu dituzte, ez errudun sentitzea.

Dena dela, badakite gizarteak eta justiziak emakumeei egozten dietela errua; horrek pentsarazten die, pairatutako sexu-eraso bat salatzea erabaki eta ingurukoek edo laguntzeko ardura dutenek seinalatzen dituztela nabarituz gero, gertatutakoaren errudun sentituko liratekeela, ziur asko.

> Bortxaketa-salaketa bat jartzean, bestelako salaketa gehientsuenetan ez bezala, emakumeari buruzko ikerketa egiten dute (aurrekariak, gizarte-bizitza…), emakumearen subjektibotasunean sartzen dira (nesken 2. taldea).

> Nik uste dut barne-barnean erruduntzat hartzen zaituztela; sexu-erasoa salatzera joaten zarenean lehenengo begiratua da ea nola zoazen… «zer egiten zenuen ordu horietan, zer egiten du neska batek bakarrik goizeko bostetan»… eta horrelako kontuak ez dizkiote mutil bati galdetzen (nesken 3. taldea).

### 6.2.6. Zer esango du nire aitak?

Bortxaketak zigorrik gabe geratzea eragiten duten arrazoien artean, sarritan aipatu ohi da emakumeak isilik geratzen direla beste gizon baten (aitaren, anaiaren) indarkeriazko erreakzioaren beldur direlako. Talde batzuetan adierazi dute isiltasun hori sexu-erasoetan soilik gertatzen dela (eta ez lapurretetan, esate baterako) pentsatzen delako sexu-erasoek, eta batez ere bortxaketak, bortxatutako emakumearen familiaren ohoreari kalte egiten diola, eta emakumearen sexualitateak irudikatzen duenari ere eragiten diola. Gehienei, ordea, ez zaie iruditzen norberaren familiakoek ohorea kalteturik sentitu dezaketela pentsatzea izan daitekeenik erasoa pairatu ostean isilik geratzeko arrazoia.

> Emakumeak isilean gordetzen du, da eta istorioa bere gain hartzen du «besteek ez sufritzeko» edo indarkeria bikoitza ez pairatzeko (lehenik gizon batek eta gero beste batek era-

gindakoa), eta horrenbestez kalte handiagoak saihesten ditu. Emakumeak isilik geratzen dira istorio guztia andeatu daitekeelako, mendekua edota bi gizonen arteko borroka dela eta —erasotako emakumea defendatzeagatik—, eta ez entzuteko «hara zer istilua sortu duzun, neska»… (nesken 2. taldea).

Ohorea baino askoz ere gehiago (aitortzen dut kontzeptu hori handiki samarra iruditzen zaidala), kontua da, bortxatutako emakumearen ondorio fisikoez gain, gizarteak emakume hori baztertzen duela, eta jakitea edozein unetan gerta dakizukeela, gizartearen babesik ez baituzu (nesken 2. taldea).

Nik uste dut iraganeko gauzak direla! Beharbada oraindik ere gertatuko dira… agian izango da ez naizelako herri txiki batekoa, baina nire familiaren ohorea eta… aspaldiko gauzak iruditzen zaizkit. Nik uste dut, niri erasoz gero, nire aitaren eta amaren kezka izango litzatekeela niri eragindako oinazea (nesken 3. taldea).

### 6.2.7. Orain arte ez naiz konturatu, baina orain esan duzunean…

Eztabaida-taldeen dinamikari esker, sexu-erasoei buruzko sentimenduak, ideiak, estrategiak, bizipenak eta erantzunak trukatu ostean, parte-hartzaileek esanahi berria eman diete esperientzia batzuei. Taldeko harremanean, norberaren bizipenak kontatzeko eta besteenak entzuteko aukeraz baliatuta, neska batzuk konturatu dira antzeko bizipenak izan dituztela, esperientzia horiek erasoen kategorian sartu dituzte, eta, zenbait kasutan, estreinakoz pentsatu dute egoera arraro bezala bizi izan zuten esperientzia hura egiatan sexu-erasoa izan zela.

— Eta nire irudipena izan zen mutil hark nirekin nahi zuena sexua zela. Benetan, sentsazio hori nuen (…) Eta lehenengo aldiz kontatzen dut, baina denbora luzez irudipen hori izan nuen.
— Eta orain, erasoaz hitz egitean, identifikatu duzu, ezta?
— Bai; izan ere, mutil hark egin zidana niri iruditzen zitzaidan sexuala zela, eta gogoan dut gero «ondorioak» izan nituela, gizonen nirekiko jarrerei buruzko pertzepzioan.

(nesken 3. taldea)

Halaber, neska batzuek kontatu dituzte beren baimenarekin izandako sexu-esperientziak. Denbora pasatu ostean, ez daukate argi benetan nahitako esperientziak izan ote ziren, baina, garai hartan, ez zituzten saihestu, edota ez zituzten bizi izan nahi gabeko esperientzia bezala. Kontaketa horietatik atera daitekeen ondorioa da sexu-harremanean erabakitzeko gaitasunari buruz dituzten zalantzek nahasmena sortzen dietela, bai harreman horri mugak jartzeko edo hartu-emana eteteko garaian, baita nahi gabeko egoera bezala identifikatzeko garaian ere.

— Ez dakit kontatu zidaten edo irakurri nuen… Estatistika batean ageri zen emakumeen harremanen ez dakit zenbateko portzentajea sexu-erasoak zirela… Eta gainera ez zituztela sexu-erasotzat hartzen. Baina gero, pentsatu nuen nire lehen sexu-harremana izan zela gau bateko kontua, eta pentsatzen dut… Bai, nahi

nuen, baina ez nuen nahi; «bai, tira, zatoz, tira, zatoz» eta ibilian-ibilian… Eta azkenean pentsatzen dut estatistika hori benetakoa dela. Esaten duzu ezinezkoa dela, harreman hori nola izango da ba sexu-erasoa? Baina, azkenean, ekinaren ekinez izan zen, estrategiak erabiltzearen ondorioz: «tira, horrela utzi behar al nauzu? zuk ere horrela joan behar al duzu?»…

— Bai, agian ez zen erasoa izan, baizik eta hertsatzea; baina agian zuk bertan behera utziko zenuke…

— Bai, bai. Eta nik, harrezkero, ez du horrelako sexu-harremanik izan. Eta oso bidezkoak iruditzen zaizkit. Ez dut uste berriro gertatuko litzaidakeenik, nire lehenengo aldia izan baitzen; baina pentsatzen dut litekeena dela beste neska batzuek ere antzeko sentipena izatea…

— Nahi duguna baino gehiago emate hori, niri iruditzen zait gazte-gaztetako kontua dela. Hasten ari zarenean, ziurtasunik ez duzunean. Lehenengo alditan ez dakizu oso ondo, baina aurrera goazen heinean, hobeto dakigu zer nahi dugun eta zer ez dugun nahi, eta nahi duguna lortzeko gaitasun eta askatasun handiagoa dugu, mutilen parekoa. «Ez» hori balioarazteko gaitasun handiagoa dugu. Agian badaude 18 urteko neskak, oso garbi dutenak, baina, nire adinekoen artean behintzat, hasieran gehiago zen mutilaren joerari jarraitzea.

(nesken 1. taldea)

Dena dela, talde gehientsuenetan hausnarketarako espazio bat sortu da, eta askotariko emakumeek bizi izandako egoerak sexu-eraso bezala adierazi eta identifikatu dituzte. Kasu askotan, inoiz kontatu gabeko gertaerak dira, edo eraso bezala identifikatu gabeak. Lanean jarduteko eredu horren bidez ateratako ondorio nagusia da neskei partekatzeko, esperientziari hitzak jartzeko eta bizipenei buruz eztabaidatzeko aukera emanez gero, ia guztiek kontatzen dutela sexu-erasoren bat sentitu dutela noizbait.

## 6.2.8. Sexu-erasoari erantzun edo ez erantzun; horra hor dilema

Ezagutu, aztertu, partekatu… ondoren, funtsezko puntu batera iritsi gara: gertatzen zaigun horrekin guztiarekin zer egin? Sexu-eraso gehienetan erantzuna ihes egitea bada ere, neska batzuek bestelako erantzunak dituzte sexu-erasoaren aurrean.

### 6.2.8.1. Berehalako erreakzioa

Neska batzuek, erasoari eta beldurrari berehalako erantzun zuzena ematen diote, eta batzuetan beraiek ere harrituta geratzen dira izandako erreakzioarekin.

> Gogora etorri zait beste bat. Mutil bat atzetik etorri zitzaidan gauez, eta, egia esan, inoiz ez nuen pentsatu halako erreakziorik izan nezakeenik: lepotik heldu nion eta gero korrika alde egin nuen, eta konturatu nintzenean goitik behera dardarka nengoen, baina heldu eta gogor eman nion, nerbioa atera zitzaidan (nesken 3. taldea).

> Nire ahizpa lagun batzuekin zegoen Deustuko festetan, eta ipurdia ukitu zioten. Nor izan zen ez zekienez, ba ezer ez. Bigarren eskuka ipurdira; berriz ere atzera jiratu, eta atzeko mutilek

> ezjakinarena egiten. Hirugarrena; atzera jiratu eta hankartea ukitu zien mutilei: pa, pa, pa… Eta haietako bat, oso mindurik, esan eta esan hasi zitzaion: «Baina zuk zer uste duzu, baina ez dakit zer… ni ez naizela izan». Eta erantzun zion: «zu ez zara izan, baina izan denari eman dion grazia berbera eman dizu zuri ere; hortaz, nor izan den ez dakidanez, sari berbera hiruront zat». Azkenean, mutil hura asko zakartu zen, liskarra areagotu zitekeen… Baina erreakzio hori izan zuen, ez zezatela kikildu, ezta? (nesken 1. taldea).

Egoera horietan, beldurra ez da desagertzen, baina nesken erantzuna da zuzenean aurre egiten ahalegintzea:

> Nire beldurraz ohar ez dadin ahalegintzen naiz. Egoerari buelta ematen saiatzen naiz, iruditzen zaidalako une horretan beldurra erakutsiz gero pentsatuko duela zaurgarria naizela, eta erakargarriagoa izan naitekeela harentzat. Inoiz ez dut izan aurrez aurreko konfrontazioaren premiarik, baina begiratuez, keinuez eta jokabideez baliatu naiz, eta ez dut benetako egoera… agian horrexegatik ez da gertatu… Nik, oraingoz, ez dut nire taktika aldatuko (nesken 1. taldea).

### 6.2.8.2. Nahita egindako erantzun jakituna

Erasoei erantzuteko beste modu bat da aldez aurretik pentsatuta, eztabaidatuta, prestatuta eta baliabidez lagunduta ematen den erantzuna. Erasoei aurre egiteko jokabide kontzientea da; norbanakoaren jarrera izan daiteke, edota kolektiboki sustatutako erantzuna, autodefentsa-ikastaroen bidez.

> Nik pentsatzen dut, guztiok biktimak izan gaitezkeen arren, norberak adierazten duenak ere eragina duela… Esate baterako, xantu-xantu bezala jokatzen baduzu, beldurrez aurre egiten baduzu, ipurdia ukitu edo beste zerbait egiten dizute; baina oihu batzuk egin eta jenio txarra ateratzen baduzu… Agian horrek ez du kasu guztietan balioko, bistakoa da; baina garrantzia du bakoitzak duen ziurtasunak, «hemen nago ni» esateak, ez beldurtzeak, ez makurtzeak… bestela, zu baino gehiago direla iruditzen zaie, ezta? (nesken 3. taldea).

> Nik, adibidez, beldur gutxiago dut orain, autodefentsa-ikastaroa egin ondoren. Nik horixe behar nuen, gai hori, beldur horiek eta abar lantzea… (nesken 1. taldea).

> Ikastaroari esker baliabideak eskuratzen dituzu. Eta baliabideak dituzunean askoz ere ziurrago sentitzen zara; zerbait gertatzen bazaizu badakizu nola jokatu. Agian gero blokeatu egingo zara, baina, ikasitakoa praktikan jartzeko gai ez bazara ere, baliabide horiek dituzula jakiteak… Eta ez da beharrezkoa teknika fisikoak izatea… (nesken 1. taldea).

> Autodefentsa ikastaroetan joera berri bat sortzen ari da: emakumeek kontatzen dituzte beraiek erabilitako estrategiak, erasoei aurre egiteko baliagarri izan zaizkienak. Eta iruditzen zait praktika hori oso eraginkorra izan daitekeela. Ondo legoke gauzak sortzea, esperientzia zehatzetan oinarrituta, indarkeriari erantzuteko premiaren kontzientzia hartzeko lagungarriak izan daitezen. Kontzientzia hartzeak, berez, baliabideak ematen dizkizu (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

### 6.2.8.3. Salaketa, bai? ez? zertarako?

Sexu-erasoen salaketaren gaiak eztabaida handiak eragin ditu talde guztietan. Batetik, emakume batzuek azaldu dute ez dutela salaketarik jarri lotsagatik, sinetsiko ez dieten beldur direlako, edota salaketaren ostean erasotzaileak izan dezakeen erreakzioaren beldur direlako…

> Nire kasuan, ez nintzen lotsatzen niri buruz pentsa zezaketenagatik, baina sinetsiko ez zidaten beldur nintzen. Zuri pasatu dakizukeena baino gehiago, esaten duzulako «arraioa, egindakoaren erantzule izan behar du, eta zerbait egin badu, zigor dezatela!». Argi eta garbi dago zerbait egin badizute astebetez edo hamabost egunez zuri begira geratuko dela jendea. Baina, zure autoa erretzen badute ere bai. Baina kontu horiek ahaztu egiten dira gero. Baina «ez didate sinetsiko» pentsatzeak beldurra ematen du (nesken 1. taldea).

> Salatzeko moduko gertaera asko daude; baina, emakumeek izan duten hezkuntzaren ondorioz, pentsatu ohi dute hobe dela isilik pasatzea eta ahalik eta gutxien nabarmentzea. Erakusten dizute hobe dela isiltzea (nesken 2. taldea).

> Nik uste dut, neurri batean pentsatzen duzula salaketa horren emaitzak ez direla nahikoak izango, gero pertsona horrekin berriz ere topo egitean izan dezakezun beldurra kontuan hartuta. Eta salaketa jartzeak ekar ditzakeen ondorioak (nesken 3. taldea).

Bestalde, badirudi aldez aurretik justiziaren eta legeen eremuan izandako esperientzia gehientsuenen emaitza porrota izan dela, eta horrek pentsarazten du salaketa jartzeak ez duela ezertarako balio.

> Izan ere, Nagore Laffage kasua bezalakoak ikusten dituzu gero, herri-epaimahai batek ere gaizki epaitzen zaituela. Harekin joan naiz nahi nuelako, baina halako batean ez dut jarraitu nahi… Eta ez zen ezezagun bat, praktikak elkarrekin egiten zituzten (nesken 1. taldea).

Salaketa jarri arren zigorrik ez izatea da neska gehienek kontuan hartutako alderdietako bat. Haien egoera babestuko duen erantzun egokirik ez izateak, babes-mekanismoen eraginkortasun ezak, salaketa jartzeko arreta ematen duten agenteen ulertezintasunak edo emakumeei errua egozteak eragiten dute, hain zuzen, emakume gehientsuenek iriztea ez dela eraginkorra sexu-eraso baten aurrean salaketa jartzea.

> Zigorrik gabe geratzen diren sexu-erasoen proportzioa hain handia izanik, erasoa pairatu ostean emakume askok ez dute pentsatu ere egiten salaketa jartzerik (nesken 2. taldea).

> Babesgabetasuna itzelekoa baita, Legeari erreparatuta. Alkohola aringarria da; epaileek erabakietan kontuan hartzen dute mutiletan erraz egiten duen neska ote den edota nolako jokabidea duen; genero-indarkeriaren legea bikotekideen erasoetan soilik aplika daiteke… (berdintasun-teknikarien taldea).

Horrenbestez, epailearen aurreko salaketen eraginkortasun eza dela-eta, muga horiek gainditzeko eta sexu-erasoak beste modu batean salatzeko alternatibak edo iradokizunak sortu dira.

Emakumeok pairatzen ditugun sexu-erasoak sozializatzen hasi behar dugu. Funtsezkoa da. Nire kasuan, inguruko emakumeei sexu-erasoa pairatu dudala kontatzen hasten naizenean soilik kontatzen didate haiek ere sexu-erasoak pairatu dituztela. Horra hor biktimizazio bikoitza. Gauza bat da erasoa, eta beste bat da nola irensten dugun eraso hori. Berdin da zenbateraino jabetuta edo kontzientziatuta zauden. Lotsa beste emakumeekin batera sozializatzen dugun arte —betiere solidaritatea oinarri hartuta, eta ez biktimismoa—, balio terapeutikoaz gain, oso baliagarria izango zaigu jabekuntza-prozesurako eta erantzuna emateko (erakunderen bateko kide diren nesken taldea).

Nik uste dut funtsezko gai bat dagoela: non jartzen diren salaketak, hain zuzen. Elkarteen bidez jartzeko aukera izan beharko genuke, eta ez poliziaren bidez. Baliabideei eta zerbitzuei dagokienez, erakundeek banan-banan ematen dituzte baliabide eta zerbitzu horiek, oso indibidualizatuta daude. Nire ustez kolektibizatu egin behar dira. Gizarte-arazo bati buruz hitz egiten ari bagara, baliabideek ere dimentsio hori izan behar dute. Salaketa jartzen duten emakumeek prozesu bati ekiten diote, eta ibilbide horretan bakar-bakarrik sentitzen dira… Jarduera kolektiboa da kontzientzia eragiten duena. Banakako prozesuetan ez da horrelakorik sortzen… Jakina, kontua ez da salaketa jartzea, baizik eta baliabideetan pentsatzen hastea, jarduera kolektiboa, eraldaketa, kontzientzia sortzea eta abar oinarri hartuta. Nola lor dezakegu? (elkarteren bateko kide diren nesken taldea).

## 6.3. GURASOEN BEGIRADA LARRIA

Bi eztabaida-taldetan jasotako iritziekin osatu dugu atal hau. Eztabaida-talde horietan guztira 15 pertsonek parte hartu dute: seme-alaba nerabeen 11 ama eta 4 aita, hain zuzen.

### 6.3.1. Bortxaketa: nire alabari gerta dakiokeen gauzarik latzena

Neska-mutil gazteen gurasoen taldeetan sexu-erasoei buruz jardutean, lehenengo ondorioa da sexu-eraso bati buruz hitz egiten eta pentsatzen dutenean bortxaketa-arriskua dela haien diskurtsoaren ardatza. Horren ondorioz, zail egiten zaie asaldatu gabe gaiari heltzea, batez ere aitei. Bai amek, bai aitek, adierazi dute badakitela askotariko sexu-erasoak daudela, hau da, intentsitate txikiko sexu erasoak badaudela… baina berehala hartzen dute ardatz bortxaketaren kasua, berriz ere: «Ileak lazten zaizkit gai horri buruz hitz egite hutsarekin; mesedez, gure alabez ari garela, pu!» (gurasoen taldea).

Ama batzuk aitortu dute aisialdiko giroko laudorio zakarrak, eskukak, begiradak, presioak eta jazarpen-egoerak haien bizitzaren parte izan direla, eta badakite eraso gehienak familia barruan gertatzen direla. Hala ere, ezezagun batek eragindako bortxaketa hartzen dute ardatz: iruditzen zaie alabek bizi dezaketen esperientziarik traumatikoena dela eta oso zaila izango litzatekeela oneratzea.

Aiten partaidetza lortzea zailagoa izan da. Amen kezka bera dute, baina isilago ageri dira: ez daude hain larrituak, edota gutxiago adierazi dute larritasun hori. Bai amak, bai aitak, bat datoz iriztean alabek bizi dituzten arriskurik handienak gaua eta kalea direla.

### 6.3.2. Gaua, kalea eta Internet: kontrolik gabeko gertalekuak

Neska gazteen gurasoentzat lazgarria da alaben adiskidetasun-harreman guztiak ez kontrolatzea, irakurri baitute sexu-eraso gehienak ezagunek egiten dituztela. Halaber, ez dute atsegin internet bidez alabek harremanak izatea ezagutzen ez dituzten mutilekin, eta beldur dira alabek sareko lagunei mugak jarriko ote ez dizkieten, lagun horiek galtzeko beldurragatik. Ziber-jazarpenari beldur diote; batez ere, beldur ematen die seme-alabek (batez ere, alabek) argazki iradokitzaileak jartzea sarean, eta horren ondorioz ziber--jazarpenaren helburu izatea. Aisialdiko giroari dagokionez, beldur diote alkoholaren kontsumoari, «neurrigabekeria handiagotzea eta ez hain adi egotea» eragin baitezake.

Alaben harremanak kontrolatu ezin dituztenez, alaba horiek gauez irteten direnean ezin dutela lorik egin adierazi dute ama batzuek, esna geratzen omen dira neskak etxera itzuli arte. Horrelako kezkarik ez duela adierazteko adorea izan duen ama batek, alaba gauez irteten denean «lo seko» egiten duela esan duenak, berehala adierazi du lasai egoteko gaitasun horrek «ama gaiztoa» dela sentiarazten diola.

Azpimarratzekoa da eztabaidan kritika ugari egin dituztela gurasoek, gaur egungo gazteen erlazionatzeko moduari buruz. Hainbat alderdi aipatu dituzte —gazteen arteko errespetu falta, hizkera, janzkera, portaera eta abar— , asko aldatu direnak (hala iruditzen zaiela diote behintzat), gurasoak gazte ziren garaia eta orduko harremanak erreferentziatzat hartuta.

Horrenbestez, adierazi dute oso kezkatuta daudela, gaurko neskak «mundua jan beharrean» ibili arren, azkenean emakume helduen belaunaldiei zegozkien rolak errepikatzen jarraitzen dutelako, eta kontrol-harremanak jasaten dituztelako. Nabarmentzen dute mutilek «gorputzarekin» zerikusia duten irainak botatzen dizkietela neskei, eta batzuei eta besteei esleitutako rolak errepikatzen dituztela, telebista lagun: «mutil harroxkoa eta neska polita». «Gehiegi jasaten dute; lehen, nire garaian, emakumeei tratu hobea ematen zitzaien, errespetu handiagoa zegoen» (gurasoen taldea).

Bestalde, gazteen «hipersexualitatea», batez ere neskena, kezkagarria iruditzen zaie. Nesken jokaera limurtzailea omen da, eta jarrerak eta janzkerak oso sexualak omen dira, haien esanetan «gaur egun den-dena da sexia, baita ilea ere».

Guraso diren aldetik, belaunaldien arteko harremanetarako zailtasun handiak daudela aitortzen dute; gainera, gurasoak (norbera tartean sartu gabe) hezteaz ahaztu egiten omen dira, ez omen dute sexuaz hitz egin nahi, eta seme-alaba nerabeen arazoak ez omen dituzte ikusi nahi.

Labur esanda, adierazi dute gazteak zirenean gauzak «*orain baino hobeto*» zeudela, neska-mutilen arteko harreman pertsonalen alorrean, eta errespetu falta sexu-erasoekin lotu dute.

Hedabideek kezka eragiten diete —batez ere amei— sexismoan, desberdintasunean eta indarkerian oinarritutako ereduak azaltzen dituztelako, eta gazteen artean horrelako porta-

erak hedatzea bultza dezaketelako. Ama batzuen ikuspegitik, telebistak «*erasotzeko etengabeko gonbidapena*» egiten die gazteei, eta neska-mutilentzako telesailetan dependentzia handiko harreman-ereduek irauten dute.

### 6.3.3. Alabei «transmititutako» erantzukizuna

Neska gazteen pertzepzioei buruzko atalean sexu-erasoei buruzko «beldurraren gidoia» belaunez belaun transmititzea (amengandik alabengana) litekeena dela aipatu badugu, amen taldeetan ikusi dugu rol hori betetzen dutela aitortu dutela amek. Amak sexu-erasoen beldur ziren gaztetan, alabek paira ditzaketen erasoen beldur dira, eta alabei beldur-mezuak transmititzen dizkiete, alabei soilik. Gainera, semeei dagokienez, beldur berdina ez dutela aitortu dute, eta mutilei askatasun handiagoa ematen zaiela adierazi dute: «Nire semeari ez diot inoiz ezer esan, inoiz ez dut pentsatu zerbait gertatuko zaionik; aitzitik, alabei "kontuz ibili, iristen zaretenean deitu" esaten nien beti» (amen taldea).

Hala ere, ama batzuek galdetzen dute zer egin dezaketen «aholku emateko, beldurrik eragin gabe», ohartzen baitira erasoen erantzukizuna alaben jokaerarekin (edota aholkatutako defentsa-mekanismoak abian ez jartzearekin) lotzen ari direla: «Beti elkarrekin ibiltzeko esaten diegu behin eta berriz, ez edateko, ez fidatzeko, dei dezatela kotxez haien bila joateko, minigona horrekin kontuz ibiltzeko, gero ondorioak ekartzen dituela eta...» (gurasoen taldea).

Dena dela, guraso batzuek aitortzen dute gehiegizko kontrola kaltegarria dela neskentzat, eta bestelako zeregina izan beharko luketela gurasoek:

> Funtsezkoena da konfiantza izatea; alabak gehiegi beldurrarazten ditugu, eta garrantzitsuena da gaiari buruz lasaitasunez hitz egitea, eta kalean gozatzeko aukera izan dezatela (gurasoen taldea).
>
> Bizitzera atera behar dute, baina defendatzeko baliabide nahikoa eskuratuta, horixe da gure zeregina (amen taldea).

### 6.3.4. Zer gertatzen da semeekin? Ez al dute zerikusirik?

Gurasoen eztabaida-taldeetan, inork ez du adierazi semeei erantzukizun-mezuak transmititzeko ohitura duenik («Ea neskekin zer egiten duzun, ez pasatu» eta antzekoak, alegia). Adierazi dute mutilak ez direla mugatuta sentitzen, irteteko askatasunari dagokionez; nahi duten lekura joaten dira eta nahi dutenekin, irteten direnean «egiten dutena» ez du inork zaintzen ezta kontrolatzen ere.

Azpimarratzekoa da, taldeetan mutil gazteen gurasoak egon arren, inork ez duela adierazi semeek paira ditzaketen erasoak kezkabide direnik, edo sexu-erasoren bat egin dezaketen kezketan daudenik. Badirudi aisialdiko giroan neskei eraso egiten dieten mutilek «ez dutela ez aitarik ez amarik», zentzugabeko ustea, jakina. Mutil horiek familia normalak dituzte, eta haien gurasoek ezin dute inolaz ere pentsatu beren semeak «erasotzaile» direnik. Ama

batek dion bezala, ohikoena da aukera hori ukatzea: «Guztiok pentsatzen dugu gure alabak biktima izan daitezkeela, baina inork ez du pentsatzen semeak erasotzaile izan daitezkeenik, latza baita hala pentsatzea» (gurasoen taldea).

Semeak erasotzaile izan daitezkeenik onartzen ez badute ere, guraso batzuek adierazi dute erasotzaileen gizarte-legitimitatean datzala sexu-erasoen arazoaren iturria: gizonek indarkeriaz baliatzeko legitimitatea dutela sentitzen dute, gizarte matxistaren babesean.

> Hain zuzen, erasotzaile kolektiboak laineza ematen die banakako erasotzaileei, eta haiek sentitzen dute erasotzeko eskubidea dutela, legitimitate kolektibo horren babesean (gurasoen taldea).

> Garaia da gero, moral bikoitza alde batera utzi eta pentsatzen hasteko, ea zer gertatzen den gure senarrek neska gazteren bati pasaeran begiratzen diotenean edo zerbait esaten diotenean, eta gu isilik geratzen garenean (amen taldea).

Semeak sexu-erasoetan nahasturik egotea pentsaezina gertatzen bazaie ere, amek beren burua erraz ikusten dute indarkeriazko erreakzioaz erantzuten, alaben aurkako sexu-erasoa gauzatzekotan dabilen erasotzailearen aurka. Amorrua eta suminaldiak dira, hain zuzen, erantzun hipotetiko horren protagonista nagusiak: «Nik, ahal izanez gero, hilko nuke», «Ziur asko aitak hartuko lidake aurrea, eta hark hilko luke», «Ikusiz gero, hilko nuke», «Hiltzerainoko gorrotoa sentituko nuke, barruan daramadan okerrena aterako nuke» (gurasoen taldea).

Lasai jokatu behar luketela jakin arren, aita eta ama guztiei ez zaie iruditzen horretarako gai izango liratekeenik. Badakite alaba lasaitzea eta ospitalera joatea izango litzakeela egokiena, baina aitortzen dute amorruaren eta gorrotoaren eraginez ezingo luketela lasai jokatu. Guraso bakar batzuek iritzi diote garrantzitsua dela «sistemak funtziona dezan» ahalegintzea, eta ahalik eta erreakzio lasaiena izatea; izan ere, azken finean, «gertaera horrekin bizi behar da». Hala ere, gehienek zalantzan jartzen dute justizia eraginkorra denik arazo horiek bideratzeko.

> Justiziak oso gaizki funtzionatzen du, lau egun igaro orduko kalean dabil erasotzailea (…) Epaiketan galderak egiten dira, diskreziorik gabe, gertatutako guztia gogora ekartzen da… (amen taldea).

> Epaileek bortxaketa justifikatzen dute biktima minigonaz zihoalako, eta erasotzailearen jokaera zuritzen dute (amen taldea).

Labur esanda, gazteen eta nerabeen gurasoen joera da alabek paira edota semeek gauzatu ditzaketen sexu-erasoak zeharo asaldatzeko modukoak direla iriztea, eta, horren ondorioz, horrelako egoeren aurrean pentsatzeko eta erreakzionatzeko gaitasunik ez izatea, beldurrak eta amorruak menderatutako erantzun emozional bizitik haratago.

Gurasoentzat sexu-erasoa «mamu» handiegia da, «hobe da hari buruz ez ezer jakitea, edo horretan ez pentsatzea» sufrimendua saihesteko. Baina, ezer ikusi nahi ez badute ere,

haien jokabidea hor dago: alabei beldurra transmititzen diete gurasoek, eta semeei alor horretako hezkuntza emateaz ahazten dira.

## 6.4. IRAKASLEEN KEZKETATIK BEGIRA

Bi eztabaida-taldetan jasotako iritziekin osatu dugu atal hau. Guztira, 9 irakaslek parte hartu dute eztabaida-talde horietan: 5 emakume eta eta 4 gizon.

### 6.4.1. Non daude mugak? Non jarriko ditugu?

Gurasoak larritzen badira alabek bizi dituzten arriskuekin eta sexu-erasoetan pentsatzea ere zail egiten bazaie, irakasleak kezkatuta eta ezer egiteko ahalmenik gabe ageri dira. Arazoa handiegia dela ikusten dute, eta ikasgelan ezer gutxi egin daitekeela iruditzen zaie. Behin eta berriz galdetzen dute *non dauden sexu-erasoaren mugak*.

Hezteko zereginean, galdera horri erantzun argia ematea funtsezkoa iruditzen zaie. Izan ere, ikasgelako esku-hartzea, neurri handi batean, irakaslearen sentsibilitatearen araberakoa da, eta ikusten dute ez dagoela adostasunik gaiari heltzeko ikuspegiei eta metodologiei buruz.

Irakasle guztiak kezkatuta badaude ere, emakumeek argiago azaldu dute egonezin hori, eta norberaren kezkak, esperientziak eta proposamenak planteatu dituzte. Lehenik eta behin, irakasle horiek *intentsitate txikiko* eta *intentsitate handiko* erasoak bereizi dituzte.

- Begirada soil bat oso nahigabetsua izan daiteke, bene-benetako erasoa.
- Begirada bat oldarkorragoa izan daiteke, ipurdiko bat baino. Uste dut inguruak eragina duela, eta pertsonen arteko botere-harremanek ere bai. Muga dago besteari min egiteko asmoan, amorru ankerrean, egiteko nahian: «Nik nahi dut, nik ahal dut».
- Txistuak eta irainak ere eraso dira, baina intentsitate txikikoak, beharbada. Nire aburuz, intentsitate handiko erasoaren adibidea izan daiteke alaba sotoan giltzaperatzea eta harekin nahi duzuna egitea.

(irakasleen 1. taldea)

Irakasleek hainbat oztopo identifikatu dituzte, *intentsitate txikiko* erasoetan esku-hartzea eragozten dutenak: lehenik, ez neskek, ez mutilek, ez dakite ziur non dauden mugak; horren ondorioz, zailtasunak dituzte sexu-erasoak identifikatzeko, izendatzeko eta agerian jartzeko, eta, azkenean, erasoak normalizatu egiten dira.

Guk hitz egin genuen DBHko 3. mailako mutil batekin; neska bati zirri egiten zion, eta ez zuen ulertzen zergatik ez zion egin behar, neska ogitartekoa jatera gonbidatzen bazuen, beste mutil batek hala egiten zuen eta (irakasleen 1. taldea).

Normalizazio horrek ondorio batzuk dakartza: neskak isilik geratzea, ez baitakite nola erantzun; erantzun guztia nesken eskuetan jartzeko arriskua, eta horrenbestez haien jokaerak mugatzea; mutilen nagusitasuna berregitea, eta horren ondorioz ikastetxeetan liskar-giroa eta gatazka ezkutuak sortzea.

— 16-17 urteko neskek ez dakite ondo non hasten diren sexu-erasoak. Jokaera arraroak ikusten dituzte, baina ez dituzte sexu-eraso bezala identifikatzen. Eta, gainera, sexuaren alorreko delituen sailkapena oso zaila da. Gona altxa dizutela salatuko al duzu? Ipurdia ukitu dizutela? Zure eskoteari begiratu diotela?

— Askotariko iritziak daude… Azken batean, arazoa saihesteko bide bakarra da ez eskoterik ekartzea, egoera gogaikarri hori sor ez dadin. Azkenean, emakumeak mugatzen du bere jokaera. Neskak nahi duen bezala janzteko aukera izan behar luke. Nola jokatu horrelakoetan? Ez dut argi ikusten. Uste dut neskek ez dutela sexu-erasotzat hartzen.

(irakasleen 1. taldea)

Labur esanda, irakasleek ezintasun-sentsazioa transmititzen dute, jarduteko baliabide egokirik ez daukate, eta, kasu gehienetan, ez dute ezer egiten, iruditzen baitzaie egoera horiei hezkuntza-eremuan aurre egiteko gaitasun nahikorik ez dutela.

> Inorena ez den lurrean gaude. Hezteko prozesuan dauden pertsonekin lanean dihardugu. Eta, gainera, gure kontuetan ari gara, eskola ematen… Ez diogu horrenbeste erreparatzen (irakasleen 1. taldea).

### 6.4.2. Prebenitzea edo beldurraraztea?

Gainerako taldeetan bezala, mugei buruzko nahastea amaitzen da bortxaketaz hitz egitean. Irizten diote, hala ere, esperientzia hori bizi izan duten neskentzat estigma izaten jarraitzen duela, eta bat datoz «emakume bati gerta dakiokeen okerrena» dela eta oneratzea oso zaila dela adierazten duen irizpenarekin.

Irakasleek garbi adierazi dute bortxatzailearen soslairik ez dagoela, baina uste dute neska-mutilen artean bortxaketei buruzko mito asko daudela oraindik ere. Kontu horien eraginez, kaltetuenak neskak dira; izan ere, bortxaketa gerta daitekeen beldurrak, prebentzioa eragin baino gehiago, mugikortasuna mugatzen die neskei eta, oro har, hartu-eman urriagoak dituzte mutilekin.

> Neska-mutilei sexu-erasoei buruz galdetuz gero, gehienetan erantzuten dute etxean gurasoek beldurrarazi dituztela, batez ere neskak. Mutilei ez diete ezer esaten. Eta neskei kontuz ibili mezua soilik helarazten diete behin eta berriz (irakasleen 1. taldea).

Irakasleen iritziz, neskei sartzen zaien beldur horren oinarrian sexualitateari buruzko ikuspegi jakin bat ezkutatzen da. Sexualitatearen gaiari heltzea, bai etxean, bai eskolan, zail samarra dela irizten diote.

> Uste dut, sexualitatearen gaiari dagokionez, familia eta eskola elkarri pilota botatzen ari direla; eta niri iruditzen zait afektuetan hezteari heldu behar diogula, bai eskolan, bai etxean (irakasleen 1. taldea).

Kezkatuta daude, batez ere, emakumeen sexualitateari buruzko mezuengatik. Izan ere, mezu horien arabera neskek «seduzitzaileak» izan behar dute, eta ez daude rol horretarako prestatuak; horrenbestez, nahasmenduak sortzen dira, eta neskentzat izan ohi da kalterik handiena. Hala ere, kontu horretan esku hartzeko gaitasunik ez dutela iruditzen zaie irakasleei.

> Irakasleon artean, sexualitateari buruzko gaiak lantzeko oztopo handiak daude, gai horiek, oro har, ez baititugu atsegin. Nire ustez, afektuetan hezi beharko litzateke, eta ez hainbeste erreprodukzio-kontuetan, gaur egun egiten den bezala. Neskei, zerbait egiteaz gain, itxura ederra eta janzkera sexia eskatzen zaizkie; dena oso merkantilista, neskak gauza bihurtzen dituena (irakasleen 1. taldea).

Aitortu dute oraindik ere zail egiten zaiela gaiari heltzea, eta hedabideen eta teknologia berrien eragin itzela kontra dutela, erasoen garrantzia txikiagotzen duten eskema matxistak sustatzen baitituzte. Kezkatuta daude internet eta sakelako telefonoa zenbait sexu-erasoetarako bitarteko nagusi bihurtu direlako, baliabide horiek ematen duten anonimotasunaren babesean.

Ikusi dugu irakasleek arazoak eta mugak ikusten dituztela, batez ere, sexu-erasoen gaiari eraginkortasunez heltzeko; aldi berean, indarkeriaren prebentzioan duten rola gutxiesten dute, ez baitzaie iruditzen gai horri egoki heltzeko prestakuntza nahikoa dutenik.

### 6.4.3. Lehengo eskemak beste gertaleku batzuetan

Sexu-erasoen gaia jorratzean irakasleek adierazi duten etsipen hori indarkeria sexistaren arlo guztietara hedatzen da. Irakasleen iritziz, eremu horretan dagoen arazo nagusia da maskulinitateari eta feminitateari buruzko estereotipoen iraupena, eredu horiek ikasleen arteko berdintasun-harremanak eragozten baitituzte.

Irakasleek egin duten analisia da estereotipo horiek genero-indarkeria eragiten dutela, genero-indarkeriatzat hartuta mutilek erabiltzen duten baliabidea, beren nagusitasuna mehatxatuta ikusten dutenean edo bikote-harremanetako zenbait eskakizunen aurrean neskek aurre egiten dietenean. Irakasleak —batez ere emakumeak— kezkatuta daude, ikusten baitute eredu tradizional horiek oraindik ere berregiten direla, neska-mutilek berdintasuna jada lortu dela irizten dioten garai honetan eta indarkeria sexistak beren esperientziekin zerikusirik ez dutela uste dutenean. «Uste dute desberdintasunaren kontu guztia gaindituta dagoela, eta, horrenbestez, neskek ez dutela jada inolako arazorik; eta mutilei iruditzen zaie ez dela haiei dagokien kontua».

Genero-estereotipoez gain, beste arazo bat ere ikusten dute: desberdintasunean oinarritutako bikote-harremanak, oraindik ere irauten dutenak.

— Erasoen eragile nagusietako bat da saltzen diguten harreman-eredua, «nork negar eragin, hark maite» eredua, kontrola maitasunaren sinonimotzat hartzen duen eredua, azkenean «zartako bat ematea dakarrena».

— Hasieratik gizonaren eta emakumearen rolen arteko desberdintasuna egiten bada, eta sexualitate bat eta bestea bizi dutenek estatus desberdina badute, azkenean, sexu-erasoak botere-harremanen ondorio dira (estatus altuagoa duenak estatus baxuagoa duenari eraso egiten dio). Gainera, inguruak eraso horiek zuritzen ditu.

— Gizonak uste du bere espazioa eta bere ingurua emakumearenak baino askoz ere zabalagoak direla. Emakumeak uste du berea mugatuagoa dela, amore eman behar duela… agian neska-mutilek ez dute horrela pentsatzen, baina horixe pentsatuko balute bezala jokatzen dute.

(irakasleen 2. taldea)

Irakasleek argi ikusten dute, teorian, sexu-erasoen kausak non dauden: «Nire ustez, matxismoa eremu-kategoriatzat har daiteke, sexu-erasoen kausa nagusitzat», baina iritzi nagusia da eskola ez dela lehentasunezko lekua sexu-erasoen prebentzioa lantzeko. Izan ere, alde batetik, ez dute uste irakasleen zeregina denik, eta bestetik, familiak eta hedabideek neska-mutilen jokaeran eragin handiagoa dutela irizten diote.

Horrenbestez, sexu-erasoen inguruko zirkulua ixten da: neskak eta haien arazoak, gurasoak eta haien larritasunak, irakasleak eta haien kezkak eta ezintasunak. Neskek identifikatzen dituzten erasoak dira, hain zuzen, helduei beldur handiena eragiten dietenak; baina, beldurraren ondorioz, gaiari buruz etxean eta eskolan argi eta garbi hitz egin beharrean, tabu bihurtzen da azkenean. Badirudi «kontuz ibili» kontsigna dela neskei ematen zaien baliabide bakarra, berdintasuna lortu dutela uste arren, oraindik ere haiena ez den giroari aurre egin diezaioten. Amek gauero astintzen dute kontsigna hori; irakasleek, berriz, ez dute uste baliabide egokia denik, baina ez dute besterik.

Honako ondorio hau atera dugu: sexu-erasoen alorrean, neskek ahal dutena egiten dute, gurasoek nahiago lukete gai horri buruz ez pentsatu behar izatea, eta irakasleei iruditzen zaie arazo konplexuegia dela gaiari eskolan heltzeko. Guzti-guztiak bat datoz, ordea, irizpen honekin: bortxaketa da esperientziarik txarrena; horrenbestez, neurri batean, beste eraso batzuekiko tolerantzia sustatzen da. Halaber, heldu guztiek joera berdina dute alderdi honetan: ez dute agerian jartzen mutilak arlo horretako berariazko hezkuntzaren helburu izan behar dutenik.

## 6.5. EMAKUME ETORKINEN BIZIPENETATIK BEGIRA

Hiru eztabaida-taldetan jasotako iritziekin osatu dugu atal hau. Guztira, 26 emakumek parte hartu dute eztabaida-taldeetan; haietatik 20 bi talde hauetako batean elkartu dira: Getxoko Udaleko Berdintasun eta Immigrazio arloen bitartez antolatutako taldean edota La Posada de los Abrazos–Besarkatuz elkartearekin antolatutakoan. Beste taldea osatu dugu Gasteizko tutoretzapeko pisu baten bidez, askatasunik gabe eta hirugarren graduan zeuden sei emakumerekin. Haien iritziak atal honetan sartzea erabaki dugu, lau parte-hartzaile etorki-

nak direlako, eta guztiak ere indarkeriazko esperientzia gogorrak izan dituztelako bikotekideekin. Kasuren batean, askatasunik gabe egotearen arrazoia da erasotzailea hil izana.

### 6.5.1. Pertzepzioa: emakume bati gerta dakiokeen okerrena

Talde horietan azpimarratu dituzte sexu-erasoen ondorioak, guztiak askotarikoak eta negatiboak. Sexu-erasoa sentitzen dute indar suntsitzaile gisa, emakumeak ahalmenik gabe, zikinduta eta emozionalki ezereztuta uzten dituena.

Erasoa, eta ez soilik bortxaketa, aho batez definitzen dute «emakume bati gerta dakiokeen okerrena» dela adieraziz. Kolektibo horren imaginarioan egiten den interpretazioa da erasoa pixkanakako degradazioaren hasiera dela. Adierazi dute oso zaila dela degradazio hori geldiaraztea, eta, batzuetan, ondorio latzak dituela biktimentzat: deserrotzea, delituzko jokaerei ekitea, eta, azken finean, gizarte-bazterketa, espetxea edo heriotza. Ikuspegi latz hori izatea ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu talde horietan parte hartu duten emakume askok horrelako esperientziak izan dituztela, hain zuzen.

Sexu-erasoen ondorio hauek aipatu dituzte: «bakartzea, drogak/alkohola (ihes egiteko bidetzat hartuta, ahazteko aukera ematen duen babesleku gisa), prostituzioa, arbuioa (familiarena, bikotekidearena, gizartearena) sexu-erasoak pairatu dituzula esateagatik, zure burua zauritzea, gaixotasuna, heriotza edo/eta suizidioa, gorputza zikintzea, duintasuna galtzea, estresa, depresioa, gizartetik urruntzea, oinazea, beldurra, nahi gabeko haurdunaldiak, sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunak, trauma ondorengo estresaren sindromea, baztertzea, segurtasunik eza, ezintasuna, ezkutatzea, men egitea, ukatzea, malkoak, lotsa, baliogabetuta sentitzea, tristura, herabetasuna, sumindura, laidoa, errudun-sentimendua…».

Guztien iritziz, erasoaren indarkeriazko izaera dela eta, lehenagoko eta ondorengo bizimoduak bereizten ditu pairatutako erasoak. Horregatik, hain zuzen, erasoen ondorioak azpimarratzen dituzte diskurtsoaren ardatz nagusian.

Sexu-erasoen kausei buruz galdetu diegunean, askotariko azalpenak eman dizkigute; haietako batzuk oso politizatuak, parte-hartzaile batzuen jatorrizko herrialdetako esperientziekin lotura dutenak (Giza Eskubideen urratzea, gerra), beste batzuk pertsonalagoak eta moralari dagozkionak: errespeturik eza, men egitea, menderatzea, matxismoa, gizonen gezurrak eta koldarkeria, emakumeen mendekotasuna, erasotzailearen bakardadea…

Interesgarria da adieraztea eztabaiden hasieran taldeetako parte-hartzaile guztiak bat etorri direla haien jatorrizko herrialdetan indarkeria handiagoa dagoela iriztean. Eztabaidek aurrera egin duten heinean, ordea, Euskadin bizi izandako esperientziak partekatu dituzten eta iritzia aldatu dute pixkanaka.

— Begira, hemen dagoen indarkeriaz ohartu gabe nengoen.

— Zenbateko indarkeria bizi dugu emakume etorkinok.

> — Bai perbertituak direla gizon espainiarrak, nork esango!
>
> — Eta ez gara konturatzen.
>
> (emakume etorkinen 1. taldea)

Taldeko hausnarketak aurrera egin duen heinean indarkeriaren pertzepzioak nolako bilakaera izan duen ikusteaz gain, aipatzekoak dira emakumeen adierazpen hauek:

— Parte-hartzaile guztiek bizi izan dituzte sexu-erasoak, eta zail egiten zaie haien intentsitatea neurtzea.

— Esperientzia horren ondorioz, amorru bizia sentitzen dute; ez dute amorru hori adierazten, baina erasoak bakar-bakarrik bizitzeak eta isilik gordetzeak amorrua handiagotzea dakar.

— Bikotekideak eragindako erasoak eramangaitzagoak dira.

— Kasu batzuetan, jatorrizko herrialdean pairatutako erasoaren ondorioz sortu zen migrazio-proiektua.

— Migrazio-egoeraren ondorioz, erasoak pairatzeko arrisku handiagoa dute, eta salatzeko arazo gehiago dauzkate.

— Ez dute konfiantza handirik erakundeek eman diezaieketen laguntzan.

### 6.5.2. Batzuetan hobe da ez entzutea, ez pentsatzea, ez egitea...

Emakume etorkinen eta askatasunik gabeko emakumeen taldeetan egindako eztabaidak intentsitate emozional handikoak izan dira. Parte-hartzaile askok estreinakoz hitz egin dute haurtzaroan, jatorrizko herrialdean, euskal hirietako kaleetan, edota lantoki dituzten etxeetan bizi izandako erasoez. Konturatu dira norberak pairatutako esperientziak ez direla bakarrak, parte-hartzaile guztiek bizi izan dituztela askotariko erasoak, eta bakoitzak ahalik eta erantzun hoberena eman diela: oro har, isilik geratzea, eta, defentsa-mekanismo gisa, ez entzutea, eta saihestezinak jotako erasoei entzungor egitea (esate baterako, hitzezko erasoen kasuan).

> Agian izango da sexu-erasoa diogunean bortxaketa datorkigulako burura. Baina, beharbada, piropoak ez ditugu kategoria horretan sartu, eta oso deserosoak diren begiradak ere badaude; eta, erasotzat hartu ez baditugu ere, erasoak dira, guztiok bizi izan ditugun erasoak, gainera (etorkinen 1. taldea).

Nola neurtu eraso baten intentsitatea? Emakume etorkin guztiek zailtasunak izan dituzte kalkulu hori egiteko, haurtzaroan askok bizi izan baitzituzten *intentsitate txikiko* erasoak,

eta batzuek intentsitate handikoak ere bai. Oroitzapenek irazki-funtzioa bete dute gaur egungo erreakzioei erreparatzean. Emakume guztiek adierazi dute haur-buruan eragindako inpaktua hain handia izanik, garai hartan ezin izan zutela gertaera landu. Orain, helduak direnean, eraso txikitzat hartu arren, isilik gorde zutelako eta emozionalki ez zutelako landu, garrantzi handiagoa ematen diote eta atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen dute. Gizon helduek egindako abusuek hondatu zuten neskatxa horien konfiantza inguruaren babesteko gaitasunean, eta zaurgarritasun-sentsazioa eragin zieten. Aitortu dute ahalegin handiak egin behar izan zituztela, *marka* horrek haien bizitzak honda ez zitzan.

— Niri zerbait egin zidaten txikia nintzenean, baina, oso markatuta geratu naiz eta ez dut imajinatu ere egin nahi zer izango litzatekeen gauza larriagoren bat gertatuz gero. Gogoan dut haur-talde batean nengoela; gizon bat etorri zitzaigun eta zakila erakutsi zigun. Airean egotea bezala izan zen, eta «ni ez naiz, zer gertatzen ari da» esatea bezala, egoera horrek burua nahastu zidan, ez nekien zer egin, korrika alde egin edo… baina, jakina, taldea ginen, eta horrelako gauzak taldean gertatzen direnean desberdinak dira. Niri gauza guztiak (begiradak, oihuak, eskukak, erakuskeriak, igurtziak…) izugarriak iruditzen zaizkit.

— Lau urte nituen, jolasean ari ginen lekuan gizon bat agertu zen eta gona altxatzeko agindu zidan, eta nik agindutakoa egin nuen, umea nintzen eta ez zitzaidan burutik pasatzen ez obeditzea… Oraindik ere oroitzen naiz kulero berde batzuk jantzita nituela… harrezkero ez naiz leku hartara itzuli.

— Obra baten ondotik pasa behar dudanean, bestaldeko espaloitik joaten naiz beti; izan ere, 11-12 urte nituela, obra baten ondoan pasatzean, igeltsero batek eskua sartu zidan. Oso gogoan daukat. Intentsitate txikiko erasoa izan zen, baina niretzat ikaragarria; amari ere ez nion kontatu. Eta, oinez aurrera jarraitzean, gertatutakoari buruz pentsatzen jarri eta dardarka hasi nintzen, nire espazioa bortxatu zuelako, nire gorputza ere bai; nik ez nion inori eman ukitzeko baimenik.

— Nik maila altuko erasoei erreparatuko nieke. Metroan begira jartzen naiz, eta ikusten dut latinoamerikar bat igotzen denean begiratzen dizula biluztuko bazintu bezala, jan nahiko bazintu bezala; eta beldur handia ematen didate begirada horiek, oldarkorrak baitira. Hemengoek, berriz, erradiografia azkarra egiten dizute.

(emakume etorkinen 1. taldea)

Horrenbestez, teorikoki onartu arren eraso guztiek ez dutela esanahi berdina eta eragin berdina, ezinezkoa egiten zaie planteamendu teoriko hori norberaren bizitzari aplikatzea. Emakume batzuek jatorrizko herrialdeetan beren burua defendatzeko aukera hobeak bazituzten ere, migrazioaren ondoren sexu-erasoei erantzuteko gaitasun gutxiago izan dute, ez zekitelako nola aurre egin eta nola defendatu eraginkorki. Gogora ekarri dute iritsi zirenean, ingurua ez ezagutzeagatik eta jatorrizko herrialdeko lagunekin izandako eztabaidengatik, zail egin zitzaiela argi eta garbi jakitea nolako erreakzioa izan behar zuten erasoen aurrean.

— Hemengo mutil bat bi aldiz etorri zait kalean, kafe bat hartzera joateko esatera, eta nik ezetz esan diot. Beharbada, hemengo neska batek bi masaileko emango zizkion, baina nik ez dakit… hemen eta han, norbaitek zerbait esaten didanean nik aurrera jarraitzen dut, kasurik egin gabe eta ezer esan gabe.

— Hemengoak guztiz desberdinak dira. Nire herrikide bat obra batean lanean ari zen, eta neska bati piropo bat bota zion, jatorrizko herrialdean egin ohi den bezala: «ai amatxo, bai ederra zarela, bai goxoa» eta musu bat bota zion. Neska poliziara joan zen, eta 600 euroko isuna ordaindu behar izan zuen gizonak. Neskarekiko jokaera jazarpena omen zen, gure herrialdean berriz piropoa da. Herrikide hori zeharo harrituta zegoen gertatutakoa kontatu zidanean; nik barre-algarak egin nituen eta esan nion: «Zer uste duzu, hemen nahi duzuna egingo duzula? Hemengo neskek ez dute etsitzen».

— Ni eztabaidan ari nintzen, lau emakumek eta lau gizonek osatutako taldean, eta gizonek zioten, behin eta berriz, neskek atsegin dituztela piropoak «bestela, zergatik janzten dira horrela eta zergatik pasatzen dira hemendik» esaten zuten. Nik esan nien jokaera hori jazarpena zela, «ez zaigula gustatzen, eta askotan ezin dugu minigona jantzi, ezta eskotea ere, zuek bezalako gizon nazkagarriak daudelako», eta zirrara gaiztoa sentitu zuten, nazkagarriak zirela esateagatik, haiek irizten baitzioten normala zela, polita zela. Ez genuen adostasunik lortu, nik soilik agertu nintzen ideia horren alde, eta beste emakume batek adierazi zuen kontu hori erlijioa bezala zela, ez zegoela iritzia eman beharrik, bakoitzak bere ideia zuelako. Azkenean erabaki nuen hobe zela isilik egotea.

(emakume etorkinen 1. taldea)

### 6.5.3. Biktima gara, baina errudun sentitzen gara... errudun sentiarazten gaituzte

Emakume guztiak bat etorri dira adieraztean zenbait eraso-mota pairatu arren isilik pasa dituztela, lotsagatik. Estigmaren beldur ziren, «neska bortxatua» izatearen beldur. Hasieran ados ez egon arren, azkenean, gehienek adierazi dute familiako batek egindako erasoa dela gainditzeko zailtasun handienak eragiten dituena: bikotekidearen erasoa gainditzea oso zaila da, aitarena, berriz, ia ezinezkoa.

Askatasunik gabe dauden emakumeak adibide dira: egoera batzuen eta trebetasun nahikoa ez izatearen ondorioz, emakume horien gaitasunak murriztu ziren, eta, azkenean, ez ziren erreakzionatzeko gai.

> Gizon zahar batek klitoria ukitu zidan, eta bitartean esaten zidan horrelako gauzak normalak zirela. Ez nion inori esan, aitari ezkutatu nion, eta oso gaizki sentitzen nintzen. Ez dut beste sexu-erasorik pairatu, baina 17 urterekin izan nuen bikote-harreman batek jota utzi ninduen, genero-indarkeria pairatu nuen, isilik egoteko aginduak eta masailekoak ematen zizkidan etengabe. Ni maiteminduta nengoen, mutil hura besterik ez neukan; umezurtza nintzen eta hura zen nire mundua. 22 urterekin utzi nuen arte (askatasunik gabeko emakumeen taldea).

Esperientzia larrienetan, emakumeek adierazi dute haurtzaroan pairatutako sexu-abusuen ondorioz beren burua defendatzeko baliabiderik gabe geratu zirela. Hainbeste irentsi ondoren, amorruak gainezka egiten die:

«A» 16 urterekin ama izan zen, eta semea jaiotzearekin batera bikotekidearen erasoak hasi ziren. Kalean ezin zion inori begiratu, jo egiten baitzion eta inori ez esateko agindu. Bigarren bikotekidea ere matxista zen, baina ez zien ezer kontatu familiakoei, ez baitzituen kezkatu nahi. Gero banandu egin zen, jatorrizko herrialdetik alde egin eta hona etorri zen; baina hemengo bikotekideak ere erasoei ekin zion, eta egun batean, neskak esandakoari jarraiki, «mozkortu egin nintzen, barruan nituen guztiak esan eta orduko bikotekideari eraso egin nion. Horregatik nago preso, eraso egiteagatik».

«N» Kubakoa da eta han ezagutu zuen senartzat hartuko zuen gizon euskalduna; ezkondu eta hona etorri zen. Laster agertu zen senarraren jelosia eta kontrolatzeko nahia. Egun batean gizonak jipoitu egin zuen; emakumeak ez zuen salaketarik jarri, baina esan zion bakoitzak bere bizitza egingo zuela. Gizonak ez zuen onartu, eta behin baino gehiagotan bortxatu zuen; azkenean, emakumea labana batez defendatu zen, eta senarra hil zuen. «Harrezkero kartzelan nago, eraso egiteagatik; nik aurretik ez nuenez salaketarik jarri, ez zen agerian geratu nire buruaren defentsan egin nuela erasoa».

Emakume etorkinek erasoei asertiboki erantzuteko dituzten arazoez gain, kontuan hartu behar da estereotipo arrazistaren ondorioz seinalatuta eta markatuta sentitu direla, batez ere jatorri latinoamerikarra dutenak, eta are gehiago emakume mulatoen kasuan, eta horren ondorioz eraso gehiago pairatzen dituztela.

> Askotan gizon espainiarrak joaten dira emakume hegoamerikarrak dauden diskoteketara, «erraz-errazak» garela uste dutelako, paperen bila gabiltzala pentsatzen dutelako edo espainiarren azentua atsegin dugula iruditzen zaielako, eta ar latinoamerikarrez leporaino gaudela uste dutelako, eta, azkenik, txorakeria guztiak hobeto irensten ditugula pentsatzen dutelako (emakume etorkinen 2. taldea).

Kalean ere aurkako giroa dute. Itxura fisiko «exotikoa» edo desberdina dela eta, emakume etorkinek erasoak pairatzen dituzte kalean, beharbada bertako emakumeek jada bizitzen ez dituztenak: «Ni zutik nengoen, zain, eta gizon bat etorri zitzaidan: 'txortan egiteagatik zenbat' esan zidan. Nik ez nekien zertaz ari zen, iritsi berria nintzen, ez nekien… oso beldur nintzen» (emakume etorkinen 2. taldea).

«C» kalean zihoan eta gizon zahartxo batek esan zion betea zegoela eta 1.000 euro emango zizkiola harekin egoteagatik; emakumeak erantzun zion 2.000 euro emango zizkiola isiltzeagatik. «Aitzitik, grazia eman zidan zahartxoak», esan zuen.

«B.k» umore gutxiagorekin erantzun dio anekdotari, ez dio graziarik ikusi «gizon horiek baitira okerrenak, gehiegikeria handienak egiten dituztenak».

Hainbeste eraso bizi izateak eta haiei buruz hitz egiteko hain aukera gutxi izateak emakume etorkinen beldurrak sendotzen ditu: migrazioan lagun izan zuten beldurra, lana aldatzeko beldurra (segurtasunik gabeko lan-baldintzak pairatu arren), kalearen beldur dira, herrikideen beldur, hemengo gizonen beldur, gauaren beldur, eta poliziaren beldur, agian deportatuko baitituzte… Eta, zer egin beldur horiekin guztiekin? Erabiltzen dituzten estrategiak dira azkarrago joatea («ez duzu pentsatzen, berez ateratzen da») berriketa gutxiko aurpegiarekin, ezikusiarena egitea, ez begiratzea, ez irtetea… edota ohikoena: jasatea.

### 6.5.4. «Ez zarete lanera etortzen… prostituzioan aritzera baizik, edota gure gogoak asetzera»

Emakume etorkin batzuek Europako beste hiri batzuetan egonak ziren Bilbora edo Gasteizera etorri aurretik. Hemen, ordea, jazarpen eta eraso bereziak pairatzen dituztela adierazi dute, hiru multzo hauei dagozkienak.

#### 6.5.4.1. Emakume etorkinak prostituzioarekin identifikatzea

«Gizon espainiarrei buruan sartu zaie emakume latinoamerikarrak prostitutak garela eta horretara etortzen garela», adierazi dute emakume batzuek, eta baieztapen horren haritik kalean, diskoteketan eta telefono bidez gertatutako jazarpenen hainbat anekdota kontatu dituzte. Emakume gehienak laidotuta sentitzen dira identifikazio horregatik. Baina berehala esaten dute «ez daukat ezer ere prostituten kontra»; emakume etorkinen sentipena da bizi duten jazarpenak, neurri handi batean, ez duela zerikusirik sexu-zerbitzuak erostearekin, baizik eta laidotzeko asmoarekin, edota aldi berean sexu-zerbitzuak erosteko eta laidotzeko asmoarekin.

Aurkako ingurua antzematea eragiten dieten hainbat erasok begiradekin zerikusia dute («begiratzen dizute, eta zuk badakizu kolpeka ari zaizkizula»), emakumeen eta gizonen begiradekin zerikusia dute, eta zenbat eta bakartiago egon, orduan eta samin handiagoz bizi dituzte. Migrazio-proiektuari jarraiki, emakume asko familiarik gabe etorri dira Euskadira, haietako batzuek herrikideekin harremanen bat edo beste soilik dute; horrenbestez, ia denak bakarrik egoten dira hasieran, afektuaren eta lagunartearen premian, eta bakarrik ikasi behar dituzte bizileku berriaren kodeak. Errealitate horrek egoera nahaspilatsutan jartzen ditu askotan emakume etorkinak, baita arrisku-egoeratan ere.

> Bai, bakarrik sentitzen zara… nik behintzat, lehenengo urtean, denaren falta sumatzen nuen, eta nitaz arduratuko zen norbaiten premia nuen… eta mutil hura hurbiltzen zitzaidan, nire atzetik ibiltzen zen… ni ilusionatu nintzen… baina kolpe galanta hartu nuen, haren asmoez ohartu nintzenean… hark ere pentsatzen zuen prostituta nintzela… eta asmo onak zituelakoan nengoen ni (emakume etorkinen 1. taldea).

Emakume etorkin guztiak bat etorri dira: eraso-esperientzia zuzenak bizi izan ez dituztenek ere gaizki ikusita daudela sentitzen dute, eta telebistan migrazioaz ageri den ikuspegiak ere horretan laguntzen du, «lana kentzera edo senarrak kentzera» datozenak bezala ageri baitira emakume etorkinak. Bestalde, parte-hartzaile latinoamerikar gehienek adierazi dute migratzean estatus sozialean behera egin dutela, eta beherakada horrek eragin latza izan

duela haien auto-estimuan. Puntu horretan, parte-hartzaile guztiek ekin diote jatorrizko herrialdean lortutako prestakuntza eta lan-esperientzia azaltzeari: «nik lanpostu ona neukan», «nire negozioa neukan», «administrazio-lanak egiten nituen ospitale batean»… horrenbestez azaltzeko migrazio-proiektuari ekin ziotela egoera hobearen bila, eta oso gogorra egiten zaiela lan-aukera mugatuez («etxeko lanak egitea, edota zaharrak eta haurrak zaintzea beste aukerarik ez dugu») eta etorkinen asmoei buruzko gizarte-aurreiritziez ohartzea.

Emaitza da, migrazioa gauzatzeko eta harekin batera sortu ohi diren egoera zailei aurre egiteko baliabide pertsonal nahikoak izan arren, iruzkinek eragindako laidoen eta gorputzari egindako etsaitasunezko begiratuen ondorioz paralizatuta geratzen direla eta ez dutela sexu-erasoei erantzuteko gaitasunik; eta horregatik, hain zuzen, okerrago sentitzen dira.

> Hainbeste gauza esaten dizute eta blokeatu egiten zara, daukazun prestakuntza daukazula. Gauza batzuek shock bat eragiten dizute, eta erreakzionatzeko gaitasunik gabe geratzen zara (emakume etorkinen 1. taldea).

Hala ere, beste etorkin batzuek adierazi dute bertakoak ez direla arbuioa transmititzen dieten bakarrak: Magrebeko emakumeek gizon magrebtarren erasoa ere pairatzen dute. Kasu horietan taldean ez datozen emakumeak dituzte helburu: bakarrik eta egoera estu-estuan migratzea erabaki dutenak, hain zuzen. F.ren esperientzia zaurgarritasun handiago horren adibide argigarria da: hizkuntza berdinean mintzo zen gizon baten laguntza izango zuelakoan, gaua pasatzeko lekurik gabe zegoenez, haren eskaintza onartu zuen; gero ikusi zuen eskainitako leku horretan ohe bakarra zegoela, eta gizonak espero zuela ohe hori partekatzea. Denbora luzez, emakumeak ezin izan zuen egoera hori aldatu; batetik, irtenbide bakarra kalean lo egitea zelako; bestetik, gizonak mehatxu egiten ziolako.

Etorkin izateak estresa eragiten du, eta hainbat baliabide emozional abian jarri behar dituzte emakume etorkinek; horretaz gain, bat-batean norberaren ahalmenetatik haratago dauden egoerei aurre egin behar badiote, esperientzia traumatikoa da.

### 6.5.4.2. Telefono bidezko jazarpena

Emakumeek bizi duten aurkako giroaz gain, gertaera zehatzak ere pairatzen dituzte. Zerbitzuak eskaintzeko iragarkiak egunkarietan edota hirietako zutoin eta paretetan jartzen dituzten gehientsuenek pairatzen dute telefono bidezko jazarpena: enplegu-eskaerari erantzuten diotenek eskaera sexualak egiten dizkiete.

> Ez dira nahasten, ez; nik paper batzuk jarri nituen, garbitasun-lanak egiteko eta haurrak zaintzeko zerbitzuak eskainiz, eta gizonen deiak soilik jaso nituen… Ene, Jainkoa! Nik hasieran ezin nuen sinetsi… lehenengoan gizon batek galdetu zidan zenbat kobratzen nuen orduko, eta nik esan nion zenbat… eta erantzun zidan nik esandakoa eta gehiago ordainduko zidala etxea garbitzeagatik eta harekin geratzeagatik. Ni suminduta nengoen, esan nion iragarkia jarri nuela lan egiteko, ez prostituzioan aritzeko, eta gainera esan nion senarra neukala… eta erantzun zidan ez ziola axola, senarrak ez zuela ezer jakingo (emakume etorkinen 2. taldea).

> Ni lan bila ari nintzen Bilbon, eta nire telefonoa argitaratu nuen egunkari batean… tira, zertarako! Ezezagunek deitzen zidaten gauean, zaratak eginez; mezuak bidaltzen zizkidaten, azpiko arropaz jantzita garbitu nahi al nuen esateko, edota sexu-ekintzak eskatzeko. Nire buruari galdetzen nion nolako gaixoak ziren haiek, lan bila dabiltzan neska kanpotarren atzetik horrela ibiltzeko (emakume etorkinen 1. taldea).

Parte-hartzaile guztiak bat etorri dira: telefonoa argitaratuz gero horrelako deiak jaso dituzte. Gainera, taldeetako parte-hartzaileei ez ezik, hainbat herrikideri ere gauza bera gertatu zitzaiela adierazi dute emakume etorkinek. Kontu horrek berebiziko amorrua eragiten die. Telefono-dei lizunez gain, beste dei batzuk lana eskaintzeko dira, baina baldintza sexualak tartean direla.

> Mutil batek deitu eta esan zidan anaia elbarritua zaintzeko norbaiten bila zebilela. Ondo, esan nion, zer egin behar da? Paseo bat egitera atera, zaindu, bainatu eta masturbatu, lasai gera dadin. Ez nekien zer erantzun ere… (emakume etorkinen 1. taldea).

> Ama batek deitu zidan, semea zaintzeko, eta esan zidan mutilarekin oheratuz gero aparteko dirua ordainduko zidala. Azaldu zidan lanerako baldintza zela, eta horregatik zebilela neska kanpotarren bila, premia handiagoa baitute… Ezetz erantzun eta ia telefonoa eskegi nuenean esan zidan interesatuta egon zitekeen lagunen bat izanez gero telefonoa emateko (emakume etorkinen 1 taldea).

Sexu-jazarpen horiek larriagotzen dute emakume etorkin askok euskal gizartean bizi duten egoera zaurgarria. Gainera, askotan ezin dituzte eraso horiek salatu, eta telefono-zenbakia aldatzeko baliabiderik ere ez dute.

#### 6.5.4.3. Etxe-langileek pairatzen dituzten erasoak

Azkenean lan-elkarrizketa edo enplegua lortzen dutenean, emakumeen ehuneko handi batek erasoren bat pairatzen du. Talde batean galdetu diegu zenbatek pairatu duten jazarpenen edo erasoren bat lan egiten duten etxeetan. Zazpi parte-hartzaileetatik bostek adierazi dute erasoren bat pairatu dutela. Gainera, antzeko egoerak kontatzen dituzten lagunak dituzte guztiek.

— Lagun bat, Boliviatik etorri berria, etxe bat garbitzera joan zen, eta ordu batzuk egin zituen han. Bukatu zuenean, etxeko jaunak galdetu zion zenbat kobratzen zuen txortan egiteagatik; neskak ez zuen ulertzen zer zen txortan egitea (kortinak garbitzea edo horrelakoren bat zela uste zuen) eta denbora pixka bat eskatu zion, telefonoz kontsulta bat egiteko. Ezagun bati deitu eta esan zion: «aizu, txortan egiteagatik zenbat kobratzen da eta zer da?». Besteak esan zion etxe hartatik alde egiteko, eta garbiketa-lanaren hiru orduak kobratu gabe alde egin zuen. Gainera, gizonak lapurtzat salatu zuen: erlojua eta eraztuna lapurtu omen zizkion.

— Beste neska batek kontatu zidan lantoki berrira iritsi zela, eta etxeko jaunak esan ziola biluzteko eta logelara joateko. Neskak esan zion lanagatik etorri zela, eta gizonak erantzun horixe zela lana, hain zuzen, neska aurrean zuela masturbatzea besterik ez zuela nahi.

— Niri gertatu zitzaidan andre baten etxean lan egiten nuela, eta haren semea proposamenak egiten eta ni ukitzen hasi zela. «Hotzak zaude, ezta? Zatoz, berotuko zaitut» esaten zidan, eta besarkatzen ninduen, nire kontra igurtziz. Nik ezin nuen ezer esan eta sukaldera joan nintzen negar egitera. Gauza gehiago ere gertatu ziren, eskukak ere bai, eta nik andreari esan nion kontu hori bukatzen ez bazen nik lana utziko nuela. Mutilaren arrebak esan zidan ez nuela gaizki hartu behar, kanpoko neska guztiak horretara datozela, hitz-erdika esanez ni prostituta nintzela.

(emakume etorkinen 1. taldea)

Horrelako erasoei buruzko hainbat istorio kontatu dituzte taldean, eta parte-hartzaile guztiek adierazi dute adin guztietako gizonek eskatzen dizkietela sexu-zerbitzuak, edota presioak, jazarpenak edo erasoak egiten dituztela. Gizon zaharrak zaintzen lan egiten duten emakumeek sarritan bizi duten egoera da laztan egitea, masturbatzea edota sexu-harremanak izatea eskatzen dutela zaharrek: «hura dutxatzen ari zara, eta, zakiltxoa garbitzen diozunean, esaten dizu ukitzeko, atsegin duela, edo eskularrua kentzeko», «harekin oheratzeagatik zerbait promesten dizu, eta pentsatzen duzu: adin horretan? Andre zahar bat zaintzen lan eginez gero, ziur nago ez lidakeela horrelakorik eskatuko».

Egoera horien aurrean, ohikoena da ihes egitea, ezer esan gabe alde egitea, edo beste zerbait aurkitu dutela esatea, eta «gainera, alde egiten baduzu, esaten dizute ez dakizula eskertzen haiek emandako laguntza, hain tratu ona eman eta gero…». Emakume batzuek, gizon zaharrekin gorabeherak dituztenean, egoera horiei aurre egiteko, zaharren semeengana edo alabengana jotzen dute. Gehienek aurkitzen duten erantzuna da ez sinestea, ukatzea edo haserretzea: «pentsatzen dute aita ez dela horrelakoak egiteko gai, edo esaten dizute zahartuta dagoela, ez kasurik egiteko».

Parte-hartzaile guztiek, bai egoera horiek bizi dituztenek, bai gainerakoek, uste dute errealitate horiek bizi dituztela emakumeak eta atzerrikoak direlako. Dena dela, adierazi dute haien jatorrizko herrialdeetako etxe-langileek ere antzeko erasoak pairatzen dituztela, eta ziur asko, garai batean etxeko lanak egiten aritzen ziren hemengo emakumeek ere horrelakoak bizi izan zituztela.

Baina, estutasun handienaren eragilea lehenengo inpresioa da; izan ere, erabat ezustekoa izan zen sexu-jazarpen horiek bizitzea, eta ez zeuden horretarako prestatuta. Iruzkin eta jarrera arrazistak espero zituzten, baina indarkeria-mota hori ez, eta ez zeukaten defentsarako tresna egokirik. Halaber, oso minduta daude bertako emakumeen jarreragatik: familiako gizonen gaizkide dira, etorkinen eskaerei ez diete jaramonik egiten, eta etxean gertatzen diren gauzen aurrean ezikusiarena egiten dute.

Hausnarketa kolektiboaren ondorioz, hasierako iritzia aldatu dute emakume etorkinek. Jatorrizko herrialdeetan indarkeria handiagoa bizi zutela adierazi dute hasieran; baina gero ohartu dira gaur egun Euskadin bizi duten egoera ere indarkeria dela, beste modu batera adierazita.

### 6.5.5. Ez dugu ez ahotsik, ezta eskubiderik ere

Taldeko eztabaidan, parte-hartzaile guztiek norberaren burua erantzuki egiten dute, lehenengo sexu-jazarpenaren edo sexu-erasoaren aurrean ez erreakzionatzeagatik; hala ere, batzuek diote denbora pasatu eta gero, edo/eta ekintza horiek jada ezustekoak ez direnean, lortu dutela erreakzionatzea. Alabaina, bizi izandako esperientziak isilean gordetzen dituzte, neska gazteek aisialdiko guneetan pairatutako erasoak isilean gordetzen dituzten arrazoi berdintsuengatik: sinetsiko ez dieten beldur dira, edota salatu ostean akusatu bihurtuko ote dituzten beldur.

Zenbat eta zaurgarriagoak sentitu, eta zenbat eta laguntza-sare eskasagoa izan, orduan eta handiagoa da emakume horien isiltasuna; batez ere badakitelako lan hori galduz gero nekez aurkituko dutela beste bat. Gainera, deportatuak izango ote diren beldur dira —benetako eta ohiko mehatxua, zerbait salatzera edo errebindikatzera ausartzen direnean— edo lapurtzat salatuko ote dituzten beldur, salaketa hori ere ohikoa baita. Horren guztiaren ondorioa da isilik geratzea, edo isilik alde egitea, baita irabazitako soldatak kobratu gabe ere.

Poliziara jo eta sexu-jazarpena salatzea ez dute aintzat hartzen; ez dute uste ezertarako balioko duenik, eta horrelakoak egiteko beldur dira, egoera administratibo irregularrean baitaude. Erasoa larriagoa izango den mehatxuengatik ere isiltzen dira, «esan zidan zerbait kontatzen banuen aurpegia urratuko zidala», eta mehatxu horien ondorioz beldur dira: joko, bahituko, baita hilko dituzten beldur ere.

Aukera bideragarri bakarra ikusten dute: etorkinei laguntzeko elkarteak, haietan sentitzen baitute aintzat hartzen dituztela eta laguntza ematen dietela. Baina, gune seguru eta babestu horietan ere, ezin dituzte kontatu bizi izandako egoerak, ez baitauzkate erasoak pairatutako bertako emakumeen eskubide berdinak: «ez ginen hemen jaio, horregatik isilik jarraitu behar dugu» esaten dute azkenean.

## 6.6. GIZONEN IKUSPEGITIK BEGIRA

> Hiru eztabaida-taldetan jasotako iritziekin osatu dugu atal hau. Eztabaida-talde horietan 18 urtetik 53era bitarteko 31 gizonek parte hartu dute, guztira.

### 6.6.1. Isiltasuna, harridura, hausnarketa gutxi: gizonen erantzunak

Aipatzekoa da, lehenik eta behin, gizonekin egindako eztabaida-taldeetan elkarrizketari ekitea zailagoa izan dela, gainerako taldeetan baino. Ikertzaile-taldeak parte-hartzaileei iritzia eskatzean, isilik geratu dira gizonak, ikusminez begira, sexu-erasoak zer diren norbaitek azaldu zain, gero iritzia emateko. Erreakzio hori azaltzeko nahiko baliagarria izan daitekeen hipotesia da isiltasun hori lotuta dagoela emakumeen aurkako sexu-erasoei buruz gizonek egin ohi duten hausnarketa urriarekin.

Gizon batzuk harrituta geratu dira «emakumeen kontutzat» hartzen duten gai bati buruzko galderen aurrean; beste batzuek adierazi dute pozik daudela ikerketan gizonen irizpenak aintzat hartu direlako, arazo horri buruzko hausnarketetan gizonen ikuspegia alde batera uzteko joera baitago. Dena dela, aitortu dute ez dutela gai horri buruzko eztabaidarik egin beste gizonekin, eta lehenengo erantzunetan lotsati samar eta ziurtasunik gabe ageri dira. Gero, guztiak bat etorri dira: sexu-erasoaz hitz egitean berehala irudikatzen dute gizon batek emakume baten aurka gauzatutako ekintza. Azkenean, parte-hartzaile batzuek adierazi dute emakume batek egindako jazarpena edo larderia sentitu dutela noizbait, eta beste batzuek esan dute gizonen erasoak sentitu dituztela.

Hiru taldeak baliagarriak izan dira sexu-erasoei buruzko hiru diskurtso zeharo desberdin identifikatzeko. Ikerlanaren helburua diskurtsoen sailkapena egitea ez izan arren, diskurtso desberdin horiek baliagarriak izan zaizkigu gertaera horiei buruz gizonek dituzten ikuspegiak hobeto ulertzeko.

Bi aldagaik eragiten dute ikuspegien sailkapenean: adinak eta elkarteren bateko kide izateak. Talde bakoitzaren diskurtsoa homogeneoa ez izan arren, antzekotasun garrantzitsuak ageri dira 20 bat urteko gazteen hausnarketetan eta 30 urte inguruko gizonen irizpenetan. Bestalde, gizonen izaerari buruzko hausnarketa-taldetan parte hartzen duten gizonek, haien adina edozein izan da ere (dena dela, 30-40 urtekoak dira gehienak) besteek ez bezalako galderak planteatu dituzte eta, batez ere, oso bestelako erantzunak eman dituzte.

### 6.6.2. Gazteak eta erasoaren mitologia

Gizon gazteenen taldeak oso ondo ulertzen du emakumeen aurkako sexu-erasoa zer den, eta eraso horien mota desberdinak primeran bereizten ditu: begirada lizunak, irainak, xantaiak, sexu-harremanetan kontrazepzio-neurriak ez erabili nahi izatea, eskukak. Halaber, argi eta garbi ikusten dute neskak ezetz esan ondoren behin eta berriro saiatzea ere erasotzat har daitekeela; baina ez dute uste eraso direnik mutilen «aurrerabide» fisikoak edo hitzezkoak, neskek eskatu gabeak izan arren. Jokaera horiek, hain zuzen, harreman bat hasteko garaian «maite-jolasen barruan onartuta dauden» jokabideen artean sartzen dituzte: «Neska bati ipurdia ukitzea, besterik gabe, neskak nahi badu eta uzten badizu, ez da erasoa; baina ezezkoa ematen badizu, sexu-erasoa da» (mutilen 2. taldea).

Neskek aipatzen duten «lerde-jarioa» —aisialdiko espazioetako jokaera gogaikarrietako bat bezala identifikatzen dutena— justifikatu egiten dute mutilek, maite-jolasetan aurrera egiteko nahia azaltzeko balio duen jokaeretako bat dela adieraziz.

> Beste gauza bat da gau-festetan ipurdia ukitzea; jokaera horiek eraso direla iruditzen zait. Neskek ere egiten dituzte horrelakoak. Ez dira itxura onekoak, baina, tira… Ez dira eraso, ez direlako intentzio gaiztoz egiten, nire ustez, baizik eta bestearen arreta erakartzeko (mutilen 2. taldea).

Parte-hartzaile guztiak bat datoz gaua eta festa erasorako testuinguru egokienak direla adieraztean. Giro horiek oso ondo ezagutzen dituzte, gazteak diren aldetik sarritan ibiltzen baitira gau-festan. Horregatik, hain zuzen, sexu-erasoak gaitzesten dituztela

azpimarratzen badute ere, eta eraso horiek minimizatzea helburu duten justifikazioekin ados ez badaude ere, ez dituzte norberaren jokaerak erasotzat hartzen, eta jai-giroaren osagai normalak direla iruditzen zaie.

Mutil gazte guztiek adierazi dute emakumeen aurkako askotariko sexu-erasoak ikusi dituztela; eta, teorian zalantzarik gabe arbuiatzen badituzte ere, aitortu dute praktikan ez dutela jarrera sendorik, eta, batez ere, gaitzespen hori isilekoa dela, ez dutela esku hartzen. Aitortu dute batzuetan begira geratzen direla, ezer egin gabe. Alkohola jai-giroaren zati dela onartzen dute, baina ez dute uste erasoen kausa denik; dena dela, herabetasuna kentzen duen elementutzat hartzen dute eta sexu-erasoak justifikatzea bideratzen omen du.

> — Biktimak alkohola edan badu, erasotzaileak errazago erabaki dezake eraso egitea, pentsatzen baitu aprobetxatzeko aukera duela, biktima mozkortuta dagoelako.
>
> — … (mozkortuta) ideia berdinak dituzu, baina agian ausardia duzu gauza batzuk egiteko, normalean egingo ez zenituzkeenak.
>
> — Nire ustez, egin duzuna ezin duzu justifikatu edanagatik edo ez edanagatik. Nik uste dut jokabide horrek adierazten duela buruan arazoa duzula: gutxiagotasuna edo zerbait duzula emakumeekin…
>
> (mutilen 1. taldea)

Talde horretako mutilen iritziz, sexu-erasotzaileak uste omen du emakumeak baino gehiago dela, eta ez omen du buruko arazorik (dena dela, parte-hartzaile batzuek adierazitakoaren arabera, eraso egiten duena «ez dago burutik sano»). Argi eta garbi ikusten dute adinak ez duela sustatzen, ezta eragozten ere, emakume bati eraso egitea, gazteen nahiz helduen artean ageri den jokaera baita. Hala ere, uste dute gazteek eraso egiteko arrisku handiagoa dutela, esperientzia eta hezibidea falta zaielako.

> Erasotzaileen atzean, emakumeak gutxiesten eta diskriminatzen dituen pentsaera dago. Haien gainetik daudela uste dute eta mespretxatzen dituzte (mutilen 2. taldea).

Eztabaidaren hasieran ideia horrekin ados ageri dira parte-hartzaileak, baina gero erasoen kausei buruzko beste iritzi batzuk ere azaldu dituzte, esate baterako: gehiagotasuna ez, baizik eta gutxiagotasuna sentitzen dutela; edo erasotzaileak beldur direla, neskengana hezibide onean hurbilduz gero ezezkoa jasoko ote duten; edota psikopatak direla, biktimak behin eta berriz bortxatzeko eta hiltzeko gai direnak. Azkenean, taldea berriz ere ados dago, kultura matxista erasoen haztegia dela aitortzean. Kultura matxista horrek, mutilen jokabidean eragiteaz gain, nesken jokaeran ere ondorioak ditu: neska askok izan duten hezkuntza matxista antzematen da haien jarreretan eta portaeretan; gainera, gizarteak presio handia eragiten die, janzkera hipersexualizatua eta probokatzailea izan dezaten.

> Gu erosoago goaz, eta neskak deserosoago, itxura ona emateko, harro ibiltzeko eta jendea begira geratzeko (mutilen 2. taldea).

> 14 urteko neskek gona motz-motzak janzten dituzte, gerrikoa baino motzagoak (…) Zu ez zara joango haiei ipurdia ukitzera, baina egia da neska askok horrelako arropak janzten di-

> tuztela mutilak erakartzeko, eta gero, une bat iristen denean, ez dakitela nola jokatu ere. Esku artetik ihes egiten die egoerak. Ipurdia ukitzen hasten bazaizkie, jarraitu nahi dute, baina puntu bateraino soilik, eta gero mutilek ez dakite gelditzen (mutilen 2. taldea).

Janzkera «sexia» duten neskei egotzi ohi zaien zaurgarritasun handiagoa edo arrisku handiagoa dela eta, mutilen artean ez dago adostasunik. Parte-hartzaile batzuek pentsatzen dute ezinezkoa dela jakitea zer dabilen sexu-erasotzaile baten buruan eta biktimaren janzkerak eragiten ote dion edo ez; beste batzuen ustez, emakume bati erasotzeko asmoa dutenei ez zaie axola biktima izan daitekeen neskaren janzkera.

> Nire ustez, janzkera batek edo besteak ez du erasoa eragiten. Probokazioa ezin da izan hainbestekoa… Ez dut uste erasoaren kausa denik (mutilen 2. taldea).

> Janzkera sexiagoa dutenak zaurgarriagoak dira. Erasotzaileak gehiago begiratuko dio janzkera sexia duen neskari (mutilen 2. taldea).

Bestalde, talde horretako mutilek ez dute zalantzan jartzen emakume batek egia esaten duela ingurukoen edo epaitegiaren aurrean salatzen duenean sexu-erasoak pairatu dituela: «Neska batek esaten duenean sexu-erasoa pairatu duela, hala gertatu da. Neska batek ez lituzke horrelako gauzak asmatuko» (mutilen 2. taldea).

Hala ere, uste dute litekeena dela, maite-jolasetan aritzea normaltzat hartzen den inguruan (esate baterako, jai-giroan) gertatuz gero erasoa, emakumeak zailtasun handiagoak izatea erasoa azaltzeko, batez ere aldez aurretik bere gogoz hartu-emanak izan baditu erasotzailearekin.

> Mutil bat eta neska bat maite-jolasetan dabiltzala eta biek nahi dutela ikusi ondoren, biharamunean esaten badizute bortxatu egin duela, agian zaila da sinestea, zuk baimena ikusi duzulako une horretan (mutilen 2. taldea).

Horregatik uste dute, hain zuzen, neskek errazago salatzen dituztela ezezagunek egindako sexu-erasoak edo/eta indarkeria fisikoaz gertatutakoak; izan ere, kasu horietan ingurukoen eta lagunen babes handiagoa sentitzen dute biktimek, eta sinetsiko dietelakoan daude.

Labur esanda, gazteen taldearen diskurtsoa politikoki zuzena da; indarkeria sexista argi eta garbi baztertzen dute, eta sexu-erasotzaileen kolektibo berekoak izatea ukatzen dute. Hala ere, eraso gehienak beraiek mugitzen diren giroan (gauean eta festan) gertatzen direla aitortzen dutenean, indarkeria alde batera uzten duen diskurtso hori ez dator bat giro horretan parte-hartzaile edo ikusle pasibo izanik gertatutako erasoei buruz egiten dituzten iruzkinekin.

### 6.6.3. Hain gazteak ez direnek mugekin dituzten zailtasunak

Lehenik, azpimarratzekoa da mutil-talde horretan, aurrekoan ez bezala, sexu-erasoei buruzko diskurtsoa ez dela hain politikoki zuzena. Desberdintasun hori lotuta dago, agian, emakumeekiko harreman afektibo eta sexualen alorrean esperientzia gehiago izatearekin,

edo beharbada, lehen kolpean detektatzeko zailtasun handiagoa duten sexu-erasoak aipatu izanarekin eztabaida egitean eta adibideak jartzean (esate baterako, begiratu desatsegin bat). Horrenbestez, mutil horiek *intentsitate txikiko* erasotzailetzat dute beren burua.

Taldekide guztiek adierazi dute gertuko emakume baten (arreba, adiskide, neska-lagun…) aurkako sexu-erasoren bat ikusi dutela, eta haietakoren batek bizi izandako eraso (fisiko edo/eta emozional) mingarri baten berri ere badutela esan dute batzuek. Hala ere, irizpide argiak eskatzen dituzte sexu-erasoa identifikatzeko; izan ere, batzuek ez dute uste piropo bat oso zakarra edo iraingarria izan daitekeenik, ezta hitzak eraso izan daitezkeenik ere; aitzitik, beste batzuen aburuz, irain, laido edo hitzezko beste edozein jokaera oldarkor guztiak ere eraso dira.

Erasoen eta maite-jolasen arteko mugak taldeko eztabaidaren ardatz nagusi izan dira. Ia guztiek aitortu dute noizbait egin izan dutela sexu-eraso arintzat har daitekeen ekintzaren bat: emakume bati lizunkeriak esatea, txisteak, emakumeei buruzko iruzkin matxistak, edota bikotekidea «pixka bat» behartzea sexu-harremanak izatera. Baina gizon batzuek egoera horiek normalizatu dituzte «bikotekideen arteko kontuak» direla esanez, eta adierazi dute haiek sexu-harremanak dituztenean neska-lagunaren presioagatik, egoera hori ez dela erasotzat hartzen.

> Erasoaren kontzeptua argi eduki behar da; azkenean, tirabirarik gabeko giroan bazaude, ez duzu etengabe aztertzen erasoa/ez-erasoa. Agian erasoa aztertzeko gaitasuna, berez, ez da garrantzitsua (mutilen 1. taldea).

Mutil gazteen taldekoek bezala, talde horretakoek ere adierazi dute, etxetik kanpo, gaua eta festa direla horrelako erasoetarako leku aproposenak. Parte-hartzaile batzuek bizi izan dituzte edo ikusi dituzte erasoak horrelako inguruetan (neskak ezetz esan arren, mutilak ekin eta ekin, eta azkenean esku hartu behar izan dute); beste batzuek diote eraso horiek detektatzea zaila dela, giro horretan ez dagoelako kontrolik, bakoitzak bereari begiratzen diola eta ez diola erreparatzen jendeak egiten duenari. Alkohola, herabetasuna galtzea, maite-jolasak, jendetza… faktore horiek guztiak eragiten omen dute mutilek kontzientzia galtzea eta egiten dutenaren erabateko erantzule ez izatea.

> Astakiloarena egin dezakezu, baina lasaitu eta kito; baina agian jendea, dantza dela eta… erasotzailearen sexu-desioa handiagotzen da (mutilen 1. taldea).

Mugei buruzko eztabaidak agerian jarri du hain gazteak ez diren gizonen nahasmena. Ez dute uste botere-harreman kontua soilik denik, baizik eta gizon batzuk ezezkoen aurrean sentitzen duten frustrazioa eta desioa kontrolatzeko gaitasunik eza. Taldeko batzuek behin eta berriz esan dute irizpide minimo batzuk jarri behar direla jokaera bat sexu-erasoa dela jakiteko, bestela iruditzen zaie ezingo dutela harremanik izan neskekin. Beste batzuek adierazi dute «benetako» sexu-erasoak etxean gertatzen direla, gehientsuenak horrelakoak direla eta ez dugula haien berririk: «Errazago esaten da ezezagun batek bortxatu nauela, aitak bortxatu nauela baino» (mutilen 1. taldea).

Deigarria da inork ez duela indarkeriari buruzko legedia ezagutzen, eta uste dute bortxaketak soilik dakarrela zigorra; dena dela, ez dute bortxaketa definitzen penetrazio behartua bezala soilik. Mutilen batek esandakoari jarraiki, «sexu-erasoak eta genero-indarkeria ez

dira nahastu behar» bi jokaera desberdin direlako, eta gerta daitekeen okerrena delako gai horiei buruzko nahastea handiagotzea. Laburbilduz, talde horretako mutilak nahastuta daude, eta ezin dituzte irizpideak ezarri sexu-erasoa zer den eta zer ez den bereizteko.

Halaber, erasoen kausei eta ondorioei buruzko hainbat iritzi adierazi dituzte. Esate baterako, erasotzailea gaixotzat edo pertsona normaltzat hartzeari buruz luze eta zabal aritu dira eztabaidan, emaitza argirik gabe: batzuek ez dute onartzen erasotzailea pertsona normala denik, beste batzuek diote familiako aita «normal» bat ere sexu-erasotzaile izan daitekeela. Eztabaidaren une gorenean, mutil batzuek planteatu dute litekeena dela taldeko parte-hartzaileek ere noizbait sexu-erasoak egin izana, hitzez bederen.

Ez dute garbi ikusten nazionalitatea erasotzaileen bereizgarri ote den, baina ados daude adieraztean gertaerari oihartzun handiagoa ematen zaiola erasotzailea etorkina denean, batez ere Marokoko mutil bat denean. Oro har, irizten diote kulturak edota sektore sozialak eragin handiagoa duela erasotzailearen jatorrizko herrialdeak baino. «Hezkuntza akastuna», enpatiarik eza, haurtzaroko frustrazioa eta testuinguru sozio-ekonomiko zaila edo bazterrekoa aipatu dituzte gizon batek eraso egitearen kausa nagusien artean. Baina, parte-hartzaile guztiak ez daude ados ezaugarri horiekin, uste baitute «bortxatzaile asko egoera ekonomiko oso oneko jendea» dela, eta jokaera horren helburua dela, azken batean, emakumea menderatzea.

Galdetu diegunean zer erantzun izango luketen inguruko emakume batek kontatuz gero erasoa pairatu duela, lehenengo erantzuna hau izan da: «Galdetuko nioke ea ziur dagoen; izan ere, agian kontatzen dizu eta kanpotik ikusita ez dirudi erasoa, neska gaizki sentitu arren» (mutilen 1. taldea). Hala ere, beste askok adierazi dute ulertzen eta lasaiarazten ahaleginduko liratekeela, eta norbaitek aipatu du salaketa jartzea proposatuko liokeela. Halaber, erasoa gertatzeko unean han daudela planteatu diegunean (aisialdiko giroan, adibidez), mutilen batek adierazi du: «Eraso bat ikusten duzunean hoberena da neska hartu eta eramatea, erasotzailearengandik babesteko» (mutilen 1. taldea).

Batzuen aburuz, biktima gazteek eraso-arrisku handiagoa dute; gaztetxoak (14-18 urtekoak) «errazago engainatzen» omen dira eta mehatxuekin makurraraztea ere errazagoa omen da. Beste batzuek argudiatu dute adinak ez duela hainbesteko eragina, eta beste faktore batzuk garrantzitsuagoak direla, esate baterako: bikote-harremana zer motatakoa den, kultura, edota nesken gizarte-maila. Dena dela, bortxaketa salatzea orain ere zaila dela uste dute, bortxatua izateak eragindako lotsa sentimendu latza eta sarria delako, gaur egun ere.

### 6.6.4. Kontzientziatutako gizonek dakarten konplexutasuna

Izen horrekin («kontzientziatutako gizonak») identifikatzen ditugu profeminista edo/eta maskulinista gisa sailkatutako elkarteetako kide diren gizonak. Haien adinak ez du hainbesteko garrantzirik sexu-erasoen aurrean duten jarreran, garrantzitsuagoak baitira gizon izateaz, genero-rolez eta beste gai batzuez pilatutako kontzientzia eta hausnarketa.

Gizon horiek errebindikatzen dute maskulinitate berri bat eraikitzeko premia, eredu hegemonikoaren aurka. Maskulinitate-eredu hegemoniko hori definitzean adierazten dute

emakumeen aurkako indarkeriak eta kontrolak garrantzi sinboliko handia duela, sozializazio-sistema patriarkalaren ondorioz, eta emakumeei eraso egiten dieten gizonak eredu horren biktima direla. Talde horretako kideek maskulinitate-eredu hegemonikoari jarraitu nahi ez badiote ere, eredu horretatik ihes egiteko zailtasunak dituztela aitortu dute: «Nola bermatu ez dudala egingo, inguru guztiak horretara bultzatzen nau eta?» (gizonen 3. taldea).

Horrenbestez, gizon horiek sexu-erasoei buruz eraikitzen duten diskurtsoaren analisia konplexuagoa da, beste elementu bat kontuan hartu behar baita, aurreko bi taldeetan ageri ez dena: «erasotzailearen arrazoiak».

### 6.6.4.1. Zaila da gizon izatea eta indarkeriaz ez jokatzea

Parte-hartzaile batzuek adierazi dute, sexu-eraso bat gertatu dela jakitean, amorrua, ezintasuna eta errua sentitzen dutela. Eta lotsa ere bai, emakume baten borondatea bortxatzeko gai den kolektibo batekoak izateagatik. Jokabide oldarkor horren aurka aho batez ageri badira ere, ulertzen dute zergatik gertatzen den, eta harrigarria iruditzen zaie beraiek ere ez berdin jokatzea, barneratutako hezkuntzak eta mezuek sexu-erasoak egitera bultzatzen baitituzte etengabe.

Bestalde, galdetu diegunean ea beraiek ere noizbait erasotzaile izan daitezkeen beldur al diren, gehienek ezetz esan dute; batzuek aitortu dute ez dutela inoiz hausnarketa hori egin, eta egin dutenek adierazi dute noizbait beldurtu direla emakumeen erasotzaile potentzialak izateagatik.

> Harritzekoa iruditzen zait guk erasorik ez egitea… hainbesteko presioa eragiten digute eta (gizonen 3. taldea).

> Pentsatzen ari naiz zer bide hartu behar dugun, beste gizon batzuek edo nik neuk horrelakorik ez egiteko, eta nire burutik zabor hori guztia kentzeko (gizonen 3. taldea).

Sexu-erasoak pairatuko dituzten beldur al diren galdetzean, gehientsuenek ezetz erantzun dute. Hala ere, aitortu dute eraso fisikoaren beldur direla batzuetan, eta esperientzia batzuk partekatu dituzte: gizon homosexual baten hitzezko erasoa eta emakume baten sexu-jazarpena.

Batzuek adierazi dute sexu-erasoen bi protagonisten egoerak ulertzeko gai direla, bai emakumearena, bai erasotzailearena, biak ere gizarte patriarkalak inposatutako rolen biktima baitira. Hausnarketa horien haritik eztabaida sortu da, erasotzaileen jokaera ulertzearen eta justifikatzearen arteko aldeari buruz. Badirudi, lehen begiratu batean, norbanakoaren borondatea eta erantzukizuna desagertzen direla, eta indarkeriaz jardutera «bultzatzen» duten kanpoko baldintzatzaileak soilik geratzen direla. Horren aurrean, parte-hartzaile batzuek adierazi dute beste egoera batean biziko balira (adibidez, gerra batean) zailagoa izango litzatekeela indarkeriaz jokatzeko presioari eustea.

Ia aho batez adierazi dute erasotzen ez duten gizonek kostu handia ordaintzen dutela indarkeriaz ez jokatzeagatik. Sexu-erasoa egitera bultzatzen duten mezu eta mekanismoei

buruz galdetzean, erantzun hauek eman dituzte: gizonen indarra goresten duten mezuak; sexu-harreman asko izateaz harro agertzeak ematen duen gizarte-prestigioa; irudi bidezko hedabideetan oldarkortasun sexuala aurkeztea, gizonak erakargarriago egiten dituen faktore bezala; ingurukoen arbuioa (isekak eta iruzkin deskalifikatzaileak) prototipo maskulinoa betetzen ez badute… Labur esanda, mezu indartsu bat, bizitzaren alor guztietan errepikatzen dena: «Gizon izatea da emakume EZ izatea, aurkakoa da, “emakumea baino gehiago” izatea da, eta “emakumearen antzeko” inoiz ez izatea» (gizonen 3. taldea).

Batzuek aitortzen dute, sexu-eraso baten aurrean daudenean, indarkeriaz jokatzeko presioa sentitzen dutela, eraso hori geldiarazteko bide bakar bezala, erasotzaileek gizon guztien konplizitatea espero baitute. Horrela erantzun ezean, beraiei ere eraso egingo dietela sentitzen dute. Adierazi dute suminduta daudela indarkeriaren erabilera saihesten ibili behar dutelako beti, horrelako egoerak ez sortzeko gizarte-mekanismorik ez dagoelako. «Instituzioetara jotzea ez da baliagarria une horretan; zuk egin behar duzu, eta agian kikilduko zaituzte» (gizonen 3. taldea).

Indarkeriaz erantzuteko beldur hori (indarkeriatik ihes egiteko ahaleginean baitabiltza) adibide gisa jarri dute, gizon izan eta indarkeriatik ihes egiteko dituzten zailtasunak adierazteko. Parte-hartzaile batek kontatu du hitzezko eraso bat «kaleko gizon normal batek» egoera «guztiz normal» batean egina:

> Berrogeita hamar urtetik dezente gorako emakume bat lasai-lasai doa Bilboko Arenalean, izozkia jaten. Gizon bat hurbildu zaio, eta esan dio: «Bai ederki miazten duzula, zure telefonoa emango al didazu?». Eraso hori basakeria da, hitzezkoa izanda ere! Kasu horrek min egiten du, atzean duen zapalkuntza-sistemaz eta intentzioaz jabetzen zarelako. Ni emakume hori izan banintz, ziur asko oso haserre erantzungo nion, astakeriaren bat esango nion (gizonen 3. taldea).

Laburbilduz, sexu-erasoek sentimendu eta erreakzio askoz ere konplexuagoak eta askotarikoagoak eragiten dituzte talde horretan, beste bi gizon-taldeetan baino. Talde horretan, emakumeek eragindako probokazioa ez da erasoen kausa gisa ageri. Hala ere, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, parte-hartzaileen aburuz, emakumeak «indarkeriaren eragile aktiboak dira, sistema patriarkalaren subjektu alienatuak diren heinean». Emakumeekiko enpatia adierazten dute, baina erasotzaileekikoa ere bai, baita beren buruarekikoa ere, aztertzen dutenean sistemak harrapatu eta oldarkorrak izatera behartzen dituela (arlo horretan hausnarketarako eta banakako lanerako zentzu garrantzitsua aurkitzen dute, etengabeko presioari eusten laguntzen baitie).

Taldea beldurrarazten duen mamua da oso muturreko egoeran presioei aurre egiteko gai ez izatea, eta maskulinitate hegemonikoaren aginduetako bat bete behar izatea: emakume bat sexualki erasotzea.

### 6.6.4.2. Gizon ez-oldarkorren biktimizazio hirukoitza

Eztabaidatutako beste elementu bat indarkeriaren aldebikotsuna da; hau da, emakumeek gizonen aurka gauzatutako indarkeria, eta ez soilik gizonek emakumeen aurka gauzatutakoa. Gehienek iritzi diote gizonek emakumeen aurkako indarkeria fisikoa gehiagotan erabiltzen badute ere, tratu txar psikologikoez sarritan baliatzen direla emakumeak gizo-

nen aurka. Horren ondorioz, pentsatzen dute indarkeria dela gizakien izaeran dagoen baliabidea. Batzuek ez daude erabat ados ideia horrekin, eta adierazi dute emakumeek erabiltzen duten indarkeria dela, funtsean, indarkeria matxistari emandako erantzuna.

Bikote-harremanak ikerlan honen helburu ez direnez, harreman horiei buruzko hausnarketa sakonik ez da egin; horrenbestez, emakumeek baliatutako indarkeria psikologikoaren adibide gisa, aipatu dira «salaketa faltsuak», eta gizonei eragindako presioa, emakumeak babesteko rola har dezaten.

Kontzientziatutako gizon batzuek «salaketa faltsuak» definitu dituzte emakumeek eskura duten baliabide gisa, egungo legediaren babesean. Adierazi dute emakume askok inolako zalantzarik egin gabe erabiltzen dutela baliabide hori, gizonak bere onetik ateratzeko, eta haiek daukaten guztia kentzeko, izen ona barne hartuta: «Gizon batek pasaeran ukitu zuen emakume bat, eta hark salaketa faltsua jarri dio, titiak ukitzeagatik. Gizona medikua da eta haren emaztea gertu zegoen. Ez dut uste mediku bat ibiliko denik emakumeei titiak ukitzen» (gizonen 3. taldea).

Istorioak zalaparta sortu zuen, esandakoak medio; adibidez, mediku izatea edota bikotekidea bertan egotea erasoaren eragozgarritzat hartzea. Hala ere, parte-hartzaile batzuen aburuz, ez dago salaketa faltsurik, edo oso portzentaje txikia dira, benetako salaketak erreferentziatzat hartuta.

Indarkeriaren aldebikotasunaren adibide hobea izan daiteke «tunelaren kasua» esango dioguna. Egoera hipotetikoa hau da: neska bat eta mutil bat (ez dute zertan izanik harreman afektibo eta sexuala, anai-arrebak izan daitezke, edo lagunak, edo ezezagunak) pasabide ilun eta isil batean doaz, eta atzetik pauso batzuk entzun dituzte. Takoi-hotsa bada (neska baten pausoak, alegia) bikotea arnasa lasai hartzeko moduan da. Baina, hala ez bada, bakoitzak erreakzio desberdinak izango ditu:

— Neskak beldurra senti dezake, beldur hori adieraz dezake, eta mutilak babestea espero du.

— Mutila ere beldur da, baina beldur hori erreprimitu behar du, neska babesteko jarrera azaltzeko, eta gerta daitekeen erasoari aurre egiteko prestatzen da.

Bai neskak eta bai mutilak korrika alde egin eta egoera horri aurre ez egitea nahi badute ere, neskak bakarrik adieraz dezake gogo hori argi eta garbi; mutilak, aitzitik, ezingo du horrelakorik egin, eta gainera, erasoa saihesteko edo hari erantzuteko indarkeria erabili beharko luke, hala behar izanez gero. Mutilak erasotzailearen presioa pairatzen du, babes dezan eskatzen dion emakumearena ere bai, eta bere hezkuntzaren presioa ere pairatzen du, hezkuntza horrek sentimenduak mugatzera eta indarkeriaz baliatzera bultzatzen baitu.

«Tunelaren kasua» aztertzean agerian geratu da, parte-hartzaile batzuen ikuspegitik, emakumeen aurkako indarkeria soilik aintzat hartzen duten analisiak osatu gabe daudela, gizonen aurka hainbeste frontetatik eragindako indarkeria ez dutelako aintzat hartzen.

Halaber, baliagarria izan da indarkeria erabili nahi ez duten gizonek pairatzen duten biktimizazioa adierazteko; izan ere, erasotzailearen azterketa sakonik ez dute egin, eta ez dute planteatu ere egin neskaren ondoan gizon bat ikustean zailagoa egingo zaiola emakumeari erasotzea eta agian ez duela ahaleginik egingo. Gainera, baliagarria izan da nabarmentzeko emakumeek ontzat ematen dituztela eta berregiten dituztela mekanismo patriarkalak, gizonei indarkeriaz baliatzeko presioa eragiten dietenak, eta indarkeria hori emakumeen aurka itzul daiteke.

Horrenbestez, izaera maskulinoari buruzko hausnarketa egin duten gizonen ekarpenak elementu konplexuak ditu, batez ere gizonei buruzkoak eta gizonek indarkeria bizi duten moduari buruzkoak. Erasoak pairatutako emakumeei arreta gutxiago eman diete, beste bi gizon-taldeetan baino: aitortu dute emakumeak ere sistema patriarkalaren biktima direla, gizonen antzera, baina parte-hartzaile batzuek adierazi dute «gizonak bigarren mailako izaki bihurtzen» ari direla gaur egun.

Gehienek pentsatzen badute ere gizartean gizonak, orain ere, nagusi direla, uste dute emakumeek pairatzen duten indarkeria soilik aztertzen duten analisiak osatu gabe geratzen direla, ez baitituzte aintzat hartzen erasotzailea sortzea dakarten mekanismoak. Erasotzailearen jokaera justifikatzen ez badute ere, menderatze patriarkalaren emaitza «arrakastatsua» dela irizten diote.

Parte-hartzaile askok aitortu dute sexu-erasoei buruzko hausnarketa kolektiborik ez dutela egin orain arte. Eztabaida-talde hori egitearen ondorioz, parte-hartzaile batzuk aukera izan dute estreinakoz jarduteko indarkeria sexista horri buruz. Denek aitortu dute hausnarketa luzearen[25] ondorioz zerbait mugitu zaiela, eta ezkutuan zeuden emozioei aurre egin behar izan dietela, gaia korapilatsua eta konplexua baita. Eta, parte-hartzaile guztiek ikertzaile-taldeak egindako galderei buruzko iritzi argiak ez izan arren, haietako askok sexu-erasoei buruzko atariko ideia batzuk ozenki esateko adorea izan dute.

[25] Talde gehienek ordu eta erdiko eztabaida egin dute. Talde horren kasuan, ordea, eztabaida hiru ordukoa izan da, ikerketan egindako luzeenetakoa (elkarteren bateko kide diren nesken taldeko eztabaida soilik izan da luzeagoa, ia lau ordukoa).

# 7. ERAKUNDEEN ERANTZUNA SEXU ERASOEN AURREAN

## 7.1. SEXU ERASOAK: GENERO INDARKERIAREN BARNEAN «ZOKORATUAK»

Espainiako legedian sexu-erasoak delitu gisa agertu ziren 1989an, mugimendu feministak mobilizazio handia egin ostean Zigor Kodea aldatzea lortu zenean. Aldaketa horrek, ondorio juridikoak izateaz gain, babestu behar den ondare juridikoaren adierazpenean funtsezko eraldaketa zekarren: «onestasunaren aurkako delituak» tituluaren ordez «sexu-askatasunaren aurkako delituak» aintzat hartzea (Marugán eta Vega, dg.)[26].

Abenduaren 28ko, 1/2004 Lege Organikoak, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoak, 1. artikuluaren 3. paragrafoan adierazitakoari jarraiki, «genero indarkeriatzat ulertzen da indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita *sexu-askatasunaren aurkako erasoak*, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere».

Lege hori indarrean jarri ostean, baliabide gehiago jarri dituzte, bai genero-indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta emateko, bai arlo horretan prebentzio-ekintzak gauzatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, *Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmena* sinatu zen[27] 2009ko otsailean, zeregin horretan erakunde bakoitzaren prozedurak zehazteko tresna izan zedin. Juntagailua azpimarratzen dugu; izan ere, EAEn sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeei arreta emateko zerbitzuak aztertuz gero, ikusten dugu gehienak *integratuta* daudela —diseinuari dagokionez behintzat— genero-indarkeriazko delituen biktimei ematen zaizkien zerbitzuetan. Arreta psikologikoaren eta mediku-arretaren eremuetan soilik daude berariazko zerbitzuak, taula honetan ikus daitekeenez:

---

[26] Bi egileek analisi luze bat egin dute, emakumeen aurkako indarkeria agerian jartzeko prozesuan mugimendu feministak betetako zereginari buruz.

[27] Arazo horiek izendatzeko erabilitako terminologien ondorioz, kontzeptu desberdinak sinonimotzat hartzen dira. II. Hitzarmenaren kasuan, tituluak bestelakorik badio ere, «genero-indarkeriazko» delituetan (1/2004 Legeak definitutakoaren arabera) eta sexu-erasoei dagozkien delituetan erakunde sinatzaileek jarraituko dituzten prozedurak zehazten ditu soilik, ez ditu aintzat hartzen sexu-indarkeriaren era guztiak.

### TAULA KONPARATIBOA

**Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta emateko programak eta zerbitzuak, eta sexu-erasoei arreta emateko berariazko baliabideak**

| ZERBITZU ETA BALIABIDE ESPEZIALIZATUAK | GENERO-INDARKERIARI ARRETA EMATEKO (eta sexu-erasoei) | BERARIAZ SEXU-ERASOEI ARRETA EMATEKO |
|---|---|---|
| Telefonoa | ⦿ | |
| Arreta psikologikoa | ⦿ | ❍ |
| Aholkularitza juridikoa | ⦿ | |
| Harrera-baliabideak (larrialdikoa edo/eta aldi batekoa) | ⦿ | |
| Larrialdetan gizartean esku hartzeko zerbitzuak | ⦿ | |
| Larrialdetan gabe gizartean esku hartzeko zerbitzuak | ⦿ | |
| Osasun-zerbitzuak | ⦿ | ❍ |
| Hezkuntza-laguntza | ⦿ | |
| Laguntza-ekonomikoak | ⦿ | |
| Gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak | ⦿ | |
| Etxebizitza-baliabideak etxebizitza lortzeko laguntza | ⦿ | |
| Familientzako laguntza | ⦿ | |
| Gizartean eta lanean txertatzea | ⦿ | |

Iturria: lantaldeak egina, elkarrizketetan eskuratutako datuez baliatuta

1/2004 Legean aurreikusitako baliabideak bikotekideen edo bikotekide ohien indarkeria pairatzen duten emakumeentzat diseinatuta daude, eta legearen testuan sexu-erasoak aipatu arren, praktikan ez diote erantzuten sexu-erasoa pairatzen duten emakumeen eskaerei eta premiei. Izan ere, aurreko ataletan ikusi dugunez, bikotekideak edo bikotekide ohiak ez dira erasotzaile bakarrak, ezta erasotzaile nagusiak ere; eta ezagunak, lagunak, ezezagunak, enplegatzaileak eta abar sexu-erasotzaileak izan daitezke.

Baliabide horietako batzuk gertaerak salatu gabe ere abian jar badaitezke ere, kontua da gazteen taldeetako neska gehienek eta gainerako taldeetako emakume ia guztiek uste dutela laguntza horiek eskuratzeko aukera salaketa jartzeari lotuta dagoela. Horrenbestez, erasoa pairatutako emakumeak ez badaude salaketa jartzeko prest, jaso ditzaketen laguntzei buruzko informaziorik ere ez dute eskatzen.

Adibidez, ikerketa hau gauzatzeko bildutako datuak oinarri hartuta, ikus dezagun zer lotura dagoen 2009an Bilbon gertatutako, salatutako eta Udalaren arreta jasotako sexu-erasoen artean.

**Segida konparatiboa: gertaeretatik arretara**




Iturria: Lantaldeak egina, elkarrizketan eskuratutako datuez baliatuta

Lotura horrek adierazten digu sexu-erasoen biktimei arreta emateko politiken lehen eragozpena: biktimak ez dute jotzen laguntza zuzena[28] emateko edo baliabide egokiagoetara bideratzeko ahalmena duten erakundeetara. Horrenbestez, eskaera hori hain urria izanik, erakundeek ez dute ikusten arazoari berariazko arreta emateko premiarik, ez baitute presiorik, kasu puntual batzuei erantzutea besterik ez dute egin behar eta. Hala ere, gertaera horien ezaugarriengatik (gizarte-alarma sortzen dute, hedabideetan oihartzun handia dutelako) erakundeak biziki inplikatzen dira denboraldi labur batean.

Bestalde, sexu-erasoen biktimei laguntzeko eta esku hartzeko ia zerbitzu guztiak erakundeen eskuetan daude, eskumenen arabera banatuta, eta zerbitzuren bat emateaz arduratzen diren elkarte bakar batzuk soilik geratzen dira. Lan-ildo horretan ari diren elkarteak aholkularitzan (legearen edo/eta psikologiaren alorrean) eta laguntzan dihardute, batez ere.

Sentsibilizazioaren eta prebentzioaren eremuan, ikusten dugu sexu-erasoei garrantzi gutxi ematen zaiela edo/eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko helburuz erakunde publikoek eta mugimendu feministek egiten dituzten kanpainen eta jardueren artean lausotuta geratzen direla. Azken urteotan, ordea, neskentzako ohiko autodefentsa-tailerrez gain, beste ekimen batzuk sortu dira, eta haiei buruzko xehetasun gehiago emango ditugu prebentzio-politikei buruzko atalean.

## 7.2. SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ETA HAIEN LAGUNTZA ESKAERAK

Sexu-erasoen biktima diren emakumeekin esku hartzen duten profesionalek adierazten dute arreta-politikak antolatu behar direla bizi izandako erasoaren/erasoen ezaugarriak eta beste aldagai batzuk (erasotzailearekiko harremana, adina, nazionalitatea…) aintzat hartuta.

Ezinezkoa da emakumeen premiak eta eskaerak beti jasotzea eta erantzutea, beharko luketen berariazkotasunaz; horrenbestez, batzuetan, langile teknikoen jarrera eta gaitasun ego-

[28] Baieztapen horren arabera, badakigu duela gutxi edo lehenago sexu-erasoa jasan duten emakume batzuk daudela erabakitzen dutenak zuzenean laguntza eske jaotea beste zerbitzu batzuetara, esaterako Biktimaren Arreta Zerbitzura; eta beste batzuk, berriz, beharrezkotzat jotzen ez dutenak erakunde publiko batera jotzea, bere laguntzako sare naturala nahikoa iruditzen baitzaie.

kiek topo egiten dute zerbitzuen mugekin. Hala ere, esperientzian oinarrituta prestatu duten sailkapena azalduko dugu, sexu-erasoen arazoari erantzun hobea emateko egin beharko diren hobekuntzak eta berrikuntzak zehazteko baliagarri izan dadin.

a) *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, tratu txar fisikoak edo/eta psikologikoak pairatu/pairatzen dituztenak, sexu-erasoa berariaz aitortu gabe*

Emakume horiei eskaintzen zaie bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren bizipenari erantzuteko aukera, baina ez sexu-erasoari erantzuteko aukerarik, langile teknikoek susmoa izan arren, emakumeek ez baitute horrelakorik adierazi. Kasu horietan, langileek berariazko prestakuntza behar dute, sexu-erasoak gertatu direla egiaztatzeko adierazleen erabilpena barne hartuta.

b) *Genero-indarkeriaren edo etxeko tratu txarren alorreko zenbait kalte pairatu/pairatzen dituzten emakumeak, sexu-erasoak barne hartuta, eta hala aitortu dutenak*

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren sexu-erasoak bizi izana adierazi duten emakumeei erantzuteko aukera dago, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako programen eta baliabideen bitartez, arreta psikologiko espezializatuagoa eskainiz, bizipen hori eta gertaeraren berariazko ondorio traumatikoak lantzeko.

Emakume horiekin lan egin dutenek adierazitakoari jarraiki, azpimarratzekoa da kasu gehienetan lotura sendoak behar direla biktimek sexu-erasoak aitortu aurretik; salaketa jarri badute ere, litekeena da sexu-erasorik ez aipatzea.

Esku-hartze psikologikoaren alorrean ikusten da zail egiten zaiela norberaren buruari aitortzea eta onartzea bikotekidearen sexu-erasoa pairatu dutela, eta horixe dela, hain zuzen, arazoa agerian jartzea eragozten duen faktore nagusia. Gainera, aitortze horrek desegituratze psikiko garrantzitsua dakar, sexu-intimitatean indarrez sartzea baita.

c) *Sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak, oraindik orain edo lehenago*

106. orrialdeko eskeman ikusi dugunez, eraso horiek bikote-harremanetatik kanpo (ezagunek edo ezezagunek eraginda) pairatu dituzten emakumeei arreta emateko berariazko zerbitzu gutxi daude. Deigarria da erasotzailea ezaguna denean denbora gehiago behar izaten dutela emakumeek, bai laguntza-zerbitzuetara jotzeko, bai salaketa jartzeko.

Aldagai batzuen arabera (emakumeen nazionalitatea, adina) berariazko taldeen eskaerei erakundeek emandako erantzunak ikusten dira.

d) *Sexu-erasoak pairatu dituzten emakume etorkinak*

Talde horretan berariazko zenbait eskaera detektatu dira. Batetik, prostituta gisa lanean diharduten etorkinak daude, bezero baten sexu-erasoa pairatu ostean berehala laguntza-zerbitzuetara jotzen dutenak. Kasu horietan, arreta emateko oztopo eta

muga handia da hizkuntza; beste arazo bat da emakume horietako asko egoera administratibo irregularrean daudela, eta irregulartasun hori oztopo da, batez ere, salaketa jartzeko eta ondorengo epaiketa-prozesua egiteko.

Bestalde, arazoak dituzten emakume etorkinak daude, haurtzaroan sexu-erasoak pairatu zituztelako edo/eta familian etengabeko abusuak pairatzen dituztelako. Kasu horietan esku-hartzea zaila izaten da, beste arazo asko tartean daudelako (lan-arazoak, arazo ekonomikoak, familiako arazoak, egoera administratibo irregularra…) eta, arazo horien ondorioz, zailagoa da benetako oneratzea lortzeko egin behar den prozesu luzea jarraitzea.

e) *Oraindik orain sexu-erasoen biktima izan diren neska gazteak*

Eskuarki dira familiakoen laguntza duten biktimak (gehientsuenetan amarena), eta ezezagun baten erasoa pairatu dutenak. Horrelako kasuak sarritan izaten dira telefono bidezko arreta-zerbitzuan eta osasun-alorrean. Azpimarratzekoa da sarritan laguntza-eskaera ez dutela egiten erasoa gertatu bezain laster, baizik eta geroago, eta horren ondorioz zailagoa dela osasun-alorreko esku-hartzea.

Aurkitutako beste arazo bat da mutilen jokaera jakin batzuk normalizatuta daudela, eta neskei zail egiten zaiela jakitea zer den eta zer ez den sexu-eraso; gainera, sinetsiko ez ote dieten edo/eta epaituko dituzten beldur dira, edo lotsatuta daude erasoa «probokatu» edo «onartu» dutela sentitzen dutelako, edo eraginkortasunez defendatzea lortu ez dutelako, «teoria ikasia izan arren». Horrek guztiak pentsarazten du neska gazteek pairatutako eraso asko ez direla iristen, ez osasun-zerbitzuetara, ez bestelako zerbitzuetara.

## 7.3. ARRETA IBILBIDEAK SEXU ERASOEN KASUETAN

Elkarrizketatutako erakundeek behin eta berriz adierazi dute, sexu-erasoei arreta emateko eskaera gutxi izan arren, laguntza eskatutako biktimei arreta emateko eta esku hartzeko baliabideak abian jartzen direla, zenbait zerbitzuk osatutako ibilbidea eginez, denboraldi batean edota jarduera puntualen bidez, faktore batzuen arabera: langile teknikoen trebetasuna emakumeen eskaera inplizituak entzuteko eta lantzeko, eta lotura sendo bat sortzeko gaitasuna, eskainitako baliabideen egokitasuna, eta emakumeen prestasuna erasoa bizi ondorengo oneratze-prozesuan parte hartzeko.

Esan behar da baliabide horiek gaitasun handiagoa dutela gertatu berri diren sexu-erasoei edo duela gutxi gertatutakoei arreta emateko; aitzitik, emakume heldu batek laguntza eskatzen badu haurtzaroan edo nerabezaroan gertatutako sexu-abusuei arreta emateko, ziur asko beste ibilbide batzuk erabiliko dira, esate baterako sexu- eta erreprodukzio-osasunaren alorrean ematen diren zerbitzuen bidez eskaintzen direnak[29].

[29] Arlo horretako esperientzia da Auzolan Modulu Psikosozialak Bilbon garatu duena, ginekologia-kontsultan sexu-erasoak detektatzeko screening-programa bat sartuz, baita ospitaletan egindako ginekologia-miaketetan ere.

Eskema honetan ageri dira sexu-erasoen biktimei arreta emateko prozedura ohiko batzuk, hiru fasetan banatuta: identifikatzea, esku-hartzea eta koordinatzea.

### 7.3.1. Identifikatzea

Laguntza-baliabideek sexu-eraso bat identifika dezakete hainbat bide erabiliz, eta hainbat zerbitzuen bitartez. Eskeman ikusten denez —lehenengo zutabean— sexu-eraso batek berehalako arreta izan dezake krisialdiko esku-hartzearen bidez, eskuarki Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuen bidez (hiru hiriburuetan, Gipuzkoan eta Araban funtzionatzen dute); horretarako, beharrezkoa da Ertzaintzarekin edo osasun-zerbitzuekin koordinatzea.

**Sexu-erasoei arreta emateko prozedurak**




Iturria: lantaldeak egina, elkarrizketetan eskuratutako datuez baliatuta

Identifikazio-fasean arreta emateko prozedura aitzindaria prestatu zuen Bilboko Basurto Ospitaleak[30] 2008an, emakumeen aurkako etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren aurrean osasun-protokoloa hobetzea helburu hartuta (ikus estatuan gauzatutako Praktika Onen eranskina, 4. fitxa). Prozedura horren helburua da erasoaren ondorengo laguntza

[30] Praktika Onen eranskinean Estatuko eta nazioarteko 28 esperientzia jaso dira, bai arretaren eremuan zein prebentzio, sentsibilizazio eta ikerketaren eremuetan.

ematean bigarren biktimizazioa minimizatzea; hau da, erasoaren ostean emakumeak pairatuko duen inpaktu psikikoa ahalik eta txikiena izan dadila.

Identifikatzeko beste bide bat gizarte-, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak dira, erasoa pairatu duen emakumeak zuzenean haietara jo duelako laguntza eske, edo beste tratamenduak edo zerbitzuak ematean sexu-erasoa identifikatu dutelako, edo genero-indarkeria pairatzeagatik arreta eman diotelako, edota hiru eremu horietako programaren edo zerbitzuren batean dagoelako.

Azkeneko bidea, berriz, salaketa jartzean hasten da; eta, langile teknikoek adierazi dute bide hori dela, hain zuzen, erantzun hobea ematea bideratzen duena.

Telefono bidez sexu-erasoa detekta badaiteke ere, praktikan Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko Telefono Bidezko Arreta Zerbitzuak (SATEVI) ez ditu horrelako dei asko jasotzen; izan ere, bikote barruko tratu txarren biktimekin erlazionatu ohi da zerbitzu hori. Dena dela, aipatu behar da zerbitzu hori prest dagoela, sexu-erasoen kasuetan,laguntzeko eskaerari azkar erantzuteko. Ikusi 15. zk.ko praktika ona.

Eskaera horiek jasotzen dituzten erakundeetako langile askok antzemandakoaren arabera, sexu-erasoak direla-eta laguntza eskatzeko dauden bideak ez dira nahikoa, egungo zerbitzu guztiak genero-indarkeriazko delituen biktimei laguntzeko baliabidetzat hartzen baitira, eta litekeena baita bestelako indarkeria pairatzen duten emakumeak ez jotzea zerbitzu horietara.

Estatuko eta nazioarteko bestelako arreta-ereduen esperientziek erakutsitakoari erreparatuta, aipatzekoa da garrantzi handikoa dela emakumeek argi eta garbi identifikatzea —izenaren bidez— zer indarkeria-motari arreta ematen dion zerbitzu jakin batek. Horrela azaldu dute ibilbide luzea egin duten erakundeek, esate baterako Madrilgo CAVASek (Sexu-erasoen biktimei Laguntzeko Zentroa), 1984an sortuak, eta AMUVIk (Bortxatutako emakume-elkartea), Andaluziako Autonomia Erkidegoan 1994az geroztik diharduenak. Biek ere garatu dituzte bizipen bereziak izan dituzten sexu-erasoen biktimei laguntzeko programak. Erresuma Batuan ere sexu-erasoetan espezializatutako zentroak daude: Sexual Assault Referral Centres (ikus Praktika Onen eranskina, estatuko 1. eta 2. fitxak eta nazioarteko 18. fitxa).

EAEn ahalegin askoz ere handiagoa egin da genero-indarkeriazko delituak agerian jartzeko; horrenbestez, arreta ematen duten zerbitzu gehienak delitu horiekin identifikatu ohi dira. Bestalde, ez dago beste zerbitzurik edo elkarterik, CASVAS edo AMUVI bezalakorik, bortxaketa-delituekin edo bestelako sexu-erasoekin erraz erlazionatzen den erreferente denik. Agian sexu-erasoei buruzko eztabaida kaleratuz gero gizarte-alarma sortuko ote den beldurragatik, edo sexu-askatasunaren aurkako delituen «kopuru beltza» argitara ateratzeko biderik aurkitzen ez delako… baina harrigarria da hain baliabide gutxi izatea eraso horiei arreta emateko, kontuan hartuta emakumeen aurkako bestelako indarkeria-moten aurrean esku hartzeko baliabide ugari dituen autonomia-erkidegoan gaudela.

### 7.3.2. Esku-hartzea

Sexu-eraso bat gertatu dela identifikatu ondoren, esku-hartzearen faseak barne hartzen ditu bai informazioa, bai kudeaketa edo/eta beste baliabide batzuetara bideratzea, baita esku-hartzeko prozesuan lagun egitea ere.

Sexu-erasoei arreta emateko dauden baliabideei buruzko informazioa aurkeztu ohi da genero-indarkeriari arreta emateko zerbitzuei buruzko informazioa ematen den material berdinetan. Berariaz egindako material bakarra aurkitu dugu: festetarako egiten dena. Baina, edukiak desberdinak izan arren, eskainitako zerbitzuak berdinak dira.

Aipatzekoak dira EAEko udalerri batzuetan egiten ari diren ahaleginak, neska gazteek gehien baliatzen dituzten komunikabideak erabiltzeko (esate baterako internet), informazioa eta lehenengo arreta emateko erreferentziazko gune izan daitezen. Esparru horretan Amerikako Estatu Batuetan abian jarritako praktika on bat ikus daiteke Praktika Onen eranskineko nazioarteko atalean, 16. fitxan.

Sexu-erasoen ostean ematen den laguntzaren ardatza larrialdiko edo krisialdiko arreta izan ohi da edo/eta osasun-laguntzaren garaia eta salaketa jartzeko unea. Bestalde, baliabideen kudeaketa eta bideratzea egiten da emakumeen eskaeren arabera. Esku hartzeko prozesuan jar daitekeen salaketaz gain, bi baliabide daude (arreta juridikoa eta psikologikoa). Bi baliabide horiek genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko programetan sartuta badaude ere, egokitzeko ahalegina egiten ari dira, sexu-erasoen biktimei erantzun eraginkorragoa emateko.

a) *Aholkularitza juridikoa*

Abokatu-elkargoek sinatutako hitzarmenek arautzen dute sexu-askatasunaren aurkako delituentzako abokatu-laguntzaren baliabidea, baina baliabide hori ez dute asko ezagutzen, ez langile teknikoek, ez sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeek; horrenbestez, oso gutxi erabilitako baliabidea da.

b) *Arreta psikologikoa*

Kasu horiei laguntza terapeutikoa ematen zaie, bai banakakoa, bai taldekoa, biak ere lanerako tresna baliagarritzat hartuta, emakume bakoitzaren premien arabera. Laguntza terapeutiko horrek berariazko ezaugarri batzuk ditu:

— Luzea izan ohi da, erasoa pairatutako emakumeen bizitzako beste egoera batzuei ere heltzen dielako. Egoera horietan beldurra nagusitu ohi da, eta biktimizazioa arazo kroniko bihur daiteke. Dena dela, ikusten da sarritan lotura dagoela lagundutako emakumeek pairatutako tratu txarren eta haurtzaroko edo/eta nerabezaroko abusuen artean, abusu horiek sexualak edo bestelakoak izanda ere. Ibilbide horretan, hain zuzen, sarritan agertzen eta lantzen dira sexu-erasoak.

— Sexu-eraso puntual bat pairatu eta tratu txarren historiarik ez duten biktimen tratamenduan emaitza onak azkarrago lortzen dira, aurreko atalean aipatutako kasuetan baino.

— Talde-lana tresna baliagarria da, tratu txarrak edo/eta sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeekin lan egiteko. Sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeen artean oso latza den sentimendua lotsa da, eta taldeko tratamenduan beste emakume batzuek antzeko bizipenak kontatzen dituzte, sexu-erasoak azkarrago lantzea bideratuz.

### 7.3.3. Koordinatzea

Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko zerbitzuek abian jartzen dituzte, halaber, beste zerbitzu edo baliabide batzuk; horrenbestez, ezinbestekoa den erakunde arteko koordinazioa gauzatzen da. Koordinazio horrek eraginkortasun eta efizientzia handia izan dezan, protokoloak behar dira, ahal bezain espezifikoak. Azken bi urteotan, Berdinsareak (Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sareak) bultzaturik, udalerrietan protokoloak prestatzeko prozesua gauzatu da. Protokolo horietan guztietan jasota daude genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen kasuetan esku hartzeko eta koordinatzeko prozedurak, arreta hobea ematea helburu hartuta.

Azpimarratzekoa da Bilboko Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren eta Osakidetzaren arteko koordinazio-esperientzia, sexu-erasoetan ager daitezkeen egoera guztiei erantzuteko: bai salaketa jartzen duten emakumeei, bai salaketarik jarri gabe ere gizarte-laguntza eskatzen dutenei, bai salaketarik jarri ez eta gizarte-zerbitzuen laguntzarik ere nahi ez dutenei. Protokolo horren helburua da salaketa jarri nahi ez duten emakumeak ez uztea babesik gabe, eta osasun-arretaren bidez —kasu askoren sarbidea baita— gizarte-baliabideen berri ematea (ikus Praktika Onen eranskina, estatuko atala, 5. fitxa).

### 7.3.4. Arreta ona emateko oztopoak

Atal honetan, elkarrizketatutako erakundeetako langile teknikoek aurkitutako zailtasunak aipatuko ditugu labur-labur, eskema honen bidez antolatuta:

**Aurkitutako arazoak**




Iturria: lantaldeak egina, elkarrizketetan eskuratutako datuez baliatuta

Kezkagarria da, batez ere, emakume-kolektibo batzuetan hautemandako zaurgarritasuna: hizkuntza-oztopoak, komunikazio-arazoak, arkitektura-oztopoak, irregulartasun administratiboa, kultura-oztopoak eta abar eragozpen dira, sexu-erasoaren bizipenaz gain beste arazo batzuk dituzten emakumeei arreta emateko. Prostitutek eta legez kanpoko drogak edo/eta alkohola kontsumitu ohi duten emakumeek babes gutxiago dute, gizartetik baztertuta daudelako, eta horregatik zaurgarriagoak direlako eta erakundeen laguntzarik nahi ez dutelako.

Bestalde, langile tekniko gehienek arazo korapilatsuei aurre egin behar diete, eta baliabide gutxi dituzte detekzio eta esku-hartze egokia egiteko. Gainera, lan-kargak direla eta, zaila da zeregin guztiak betetzea eta zerbitzuen arteko beharrezko koordinazioa gauzatzea.

Hala ere, Ertzaintzaren ahalegina nabarmendu behar dugu, hain zuzen sexu-delituak ikertzerakoan erantzun eraginkorragoa emateko, baita biktimei arreta hobea emateko ere. Ikusi 13. zk.ko praktika ona.

## 7.4. SENTSIBILIZATZEA ETA PREBENITZEA: EZINBESTEKO ZEREGINAK

Sexu-erasoen alorreko sentsibilizaziorako eta prebentziorako politikak ere gauzatzen dira, arretaren kasuan bezala, genero-indarkeriari buruzko kanpaina eta jarduera orokorren babesean. Emakumeei oro har zuzendutakoak izan ohi dira, baina gazteentzako zenbait jarduera daude, eta mutilei zuzendutako esperientzia bakar batzuk ere bai.

### 7.4.1. Sentsibilizazioa eta informazioa

Erakunde publikoek gauzatutako sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak dira hedabideetan eragin handiena dutenak (iragarkiak telebistan, irratian, prentsan); elkarteek, berriz, proposamen berritzaileagoak egiten dituzte eta eduki ideologikoak hartzen dituzte kanpainen ardatz gisa, eduki horiek baitira elkarteen indargune.

Gero eta ohikoagoak dira batera egindako kanpainak, hau da, zenbait elkartek batera antolatzen dituztenak egun jakin batzuetarako (azaroak 25, martxoak 8) edo/eta kasu zehatz batzuen aurrean. Halaber, baterako kanpainetan parte hartu dute Berdinsarean bildutako hainbat udalerrik; izan ere, 2008az geroztik gazteei begira, batez ere, ari dira lanean Berdinsareakoek. «Beldur Barik» kanpainak (EUDELek, Emakundek eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak sustatuta, baita hiru foru aldundiek ere, 2010etik) adierazpide artistikoak bultzatu ditu —abestiak, bideoklipak, bideoak— indarkeria sexistaren aurka sentsibilizatzeko (ikus Praktika Onen eranskina, estatuko atala, 12. fitxa). Beste kasu batzuetan, baterako kanpainak egin dituzte udaletako berdintasun, gazteria eta droga-mendekotasunen prebentziorako arloek edo/eta elkarte feministek.

Sentsibilizazioaren alorrean hainbat kanpaina egin dituzte, eta aipagarriak dira, batez ere, neskek herriko festez gozatzea bideratzeko neurriak hedatzea helburu dutenak. Kasu

batzuetan, sentsibilizazioarekin batera, prebentzio-neurriak ere hartu dira; esate baterako, txosna bat jartzea, informazio- eta erreferentzia-gune izan dadin, erasoak gertatuz gero salatzeko. Ekimen horren helburua da gertatutako kasuei arreta ematea, leku horretan bertan, eta gertaeraren eta arretaren arteko denbora-tartea ahalik eta laburrena izatea. Ekimen horietako batzuk jasota daude Praktika Onen eranskinean, Estatuaren eremuko 8. fitxan, hain zuzen.

Horrelako sentsibilizazioen helburua da sexu-erasoen desnormalizazioa sustatzea eta nesken beldurraren aurkako erasoaldia egitea, deseroso sentitzea eragiten duten «kontu txar» horiek detektatzeko eta izendatzeko pistak emanez. Norberaren burua babesteko neurriak eta segurtasun-neurriak ere jakinarazten dira, neskek aisialdiko denboran eta espazioetan argi eta garbi adieraz dezaten «maite-jolasak» onartzen edo errefusatzen dituztela.

Halaber, aipatzekoak dira azken urteotan abian jarritako webguneak edo blogak (ikus Praktika Onen eranskina, Estatuaren eremuko 9. fitxa). Gune horietan informazio-baliabideak eta linkak ageri dira, neska-mutilek beren arazoei buruzko kontsultak egin ditzaten.

## 7.4.2. Emakumeen segurtasuna, prebentzioaren ardatz

Sexu-erasoak prebenitzeko zereginean, jarduerak gauzatu dira hiru ardatz hauen inguruan: hirigintzaren aldetik hiriak eta herriak hobetzea, emakumeen segurtasuna bermatzeko; hezkuntza formalean eta ez-formalean programak edo/eta tailerrak sartzea; eta neskentzako autodefentsa-tailerrak egitea, ikuspegi feminista aintzat hartuta.

### 7.4.2.1. Hiri seguruetan emakumeak ere seguru

Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten hirigintza-azterketak erabili dira emakumeentzat arriskutsuak izan daitezkeen lekuak detektatzeko (bakartuta daudelako, gaizki argiztatuta daudelako, edo beste ezaugarri batzuk dituztelako). Azterketa horien dimentsioak eta helburuak askotarikoak dira. Kasu batzuetan, segurtasunik gabeko lekuak detektatzeaz gain, hiriko edo herriko emakume askorentzat oso irisgarriak ez diren lekuak ere identifikatzen dira; beste batzuetan herritarren partaidetza eta emakumeen antolaketa sustatzen dute, segurtasunik gabeko lekuen detekzioa oinarri hartuta; beste batzuen emaitzak graffitietan eta bestelako arte-adierazpenetan ageri dira, herritarren interesa erakartzeko.

EAEn egindako esperientzia batzuk eta azterketa horiek egiteko metodologia ageri dira Praktika Onen eranskinean, estatuari dagokion atalaren 11. fitxan.

Baina ikerketa batzuk tiraderan jasota geratu dira, eta ez dute benetako eragina izan emakumeen segurtasunean; izan ere, zeregin hori betetzeko, borondate politikoaz gain, baliabide ekonomikoak ezinbestekoak dira, eta herritarrei ulertarazi behar zaie, emakumeen aldeko ekintza positiborako politikak beharrezkoak direla. Latinoamerikako *Mujer y Hábitat* sareak zeregin garrantzitsua gauzatu du arlo horretan, eta berariazko kanpainak egin ditu agerian jartzeko hirietan emakumeak ez daudela seguru (ikus nazioarteko Praktika Onen eranskina, 25. fitxa).

Emakumeen segurtasun-sentsazioa hobetzeko, beste hiri batzuetan garraio publikoaren alorreko ekintzak gauzatu dituzte. Ekimen horien adibide dira berariazko autobusak edo taxiak, metro-geltoki jendetsuetan jarritako arreta-guneak, edota autobusen gaueko geltokiak malgutzea (ikus nazioarteko Praktika Onen eranskina, 17., 18. eta 28. fitxak).

Ekintza horiek guztiek helburu bertsua dute: emakumeen beldurrari aurre egitea eta haien konfiantza sustatzea; sentitu behar dute hiriaren jabe direla, kalean seguru daudela, eta gauak ez direla arrisku-iturri emakumeentzat.

### 7.4.2.2. Prebentzioa, hezkuntzaren barnean

Prebentzio-jarduerek, bai ikastetxean (eskola-orduetan edo eskola-orduetatik kanpo), bai neska-mutilak biltzen diren beste lekuetan, bi ezaugarri garrantzitsu dituzte, oso kontuan hartu beharrekoak. Batetik, ez dituzte sexu-erasoak espezifikoki lantzen (batzuek sexu-erasoak aurkezten dituzte emakumeen aurkako indarkeriak har dezaken forma bezala, beste batzuek hezkuntza afektiborako eta sexualerako programen edukietan sartzen dituzte). Bestetik, jarduera partzialak dira, tokiko administrazioen ekimenez sortuak; jardueren edukiak, metodologiak eta iraupenak desberdinak dira; bakoitzak bere materialak sortzen ditu eta ikastetxeekin adostutako berariazko hitzarmenen bidez abian jartzen dituzte jarduerak.

Hezkuntza Sailean sortu da 2007-2010 hirurtekorako ekintza-plana, baterako hezkuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa barne hartzen dituena, baita irakasleentzako prestakuntza ere. Berritzegune Nagusia abian jartzeak, «eskola inklusiboa, aniztasuna eta generoa barne hartzen duena» lantzeko arduradun eta guzti, etorkizunerako zeregin berriak dakartza:

— Bizikidetzarako kanpainak eta moduluak prestatzea, eta tresna egokiak sortzea, ikastetxe bakoitzak genero-indarkeriaren prebentziorako eta esku hartzeko planak egin ditzan, ikasleen adina aintzat hartuta.

— Inpaktuaren azterketak egitea, irakasleen eguneroko esku-hartzea gidatzeko, indarkeria sexistari buruz oraindik ere bizirik dirauten mitoak eta estereotipoak apurtzeko bidean aurrera egiteko.

Azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2010eko ekainaz geroztik berdintasun-teknikaria duela.

Horrenbestez, orain arte ikastetxeetan gazteentzat egindako prebentzio-esperientziak partzialak eta lokalizatuak izan badira ere, lan jarraitua egiteko apustu politiko sendoa eginez gero, etorkizunean joera hori aldatzea espero dezakegu. Oraindik ere ez dakigu, ordea, programa horietan zer leku eta zer garrantzi izango duen sexu-erasoen kausen, adierazpideen eta ondorioen azterketak.

Tokiko esperientziak askotarikoak dira, baina gutxik lortu dute programa iraunkor izatea. Ohikoena da ikastetxeren batean jardueraren bat egitea azaroaren 25aren inguruan, edo-ta hitzaldi edo tailer batzuk ematea irakasleek interesa dutelako.

### 7.4.2.3. Autodefentsa feminista

Lehen ere aipatu dugun bezala, autodefentsa-tailerrak, ikuspegi feministatik eginak, elkarte feministen estrategia izan dira, sexu-erasoen kausak aztertzeko, eta ondorioei erreparatzeko. Izan ere, emakumeen mugikortasuna eta askatasuna mugatzen dute sexu-erasoek. Emakumeei defendatzeko indarra duten sentsazio subjektibo eta objektibo handiagoa ematen dieten baliabideak eskaintzea da autonomian aurrera egiteko bidea.

Autodefentsa-tailerrak ezinbesteko jarduerak dira jada tokiko prebentzio-programa gehienetan. Hala ere, behin eta berriz esan behar dugu tailer horien izaera urratzailearen muina ez dela emakumeak defentsa pertsonaleko teknikak ikastea, edozein kirol-zentrotan egiten den antzera, baizik eta emakume bakoitza bere indarrarekin harremanetan jartzea, eta indar hori bideratzea, bere burua defendatzeko gaitasunaz jabetzeko edo gaitasun hori handiagotzeko.

Autodefentsaren ikuspegi feministak ez dakar beldurra galtzea, baizik eta beldur hori nahikoa menderatzea, erasotzaileari aurre egiteko, eta, batez ere, «beldurraren gidoia» hausten ahalegintzeko. Horrenbestez, iraganeko, egungo eta etorkizuneko erasoek biktima soilik izatea dakarten arren, biktimaren papera alde batera uzteko gai izango dira emakumeak.

Kontua da, azken finean, emakumeak subjektu direla adieraztea, harreman bat onartzeko eta aldi berean eraso bat errefusatzeko gai direla erakustea, bai besteei, bai beren buruari.

# 8. ONDORIOAK

Hainbat populazio-sektoreren sexu-erasoei buruzko esperientziak eta kontakizunak aztertu ostean, hiru diskurtso bereizi ditugu, hirurak ere gaur egungo gizartean bizirik daudenak:

— *Diskurtso tradizionala*, emakumeei errurik egozten ez dien jarrera moderno eta politikoki zuzena bereganatu nahi duena, baina gizonen nagusitasunari eta emakumeen autonomiari nola heldu ez dakiena.

— *Ezintasunaren diskurtsoa*, berdintasunezko eremutzat jotzen diren inguruetan jarrera nabarmen sexistak sortzen eta berregiten direla ikusita, nolako erantzuna eman ez dakiena.

— *Diskurtso erreboltaria*, gizonen erasoa prebenitzeko ardura guztia emakumeen eskuetan uztea eta haien askatasuna mugatzea onartzen ez duena.

## 8.1. BELDURRAREN DISKURTSO TRADIZIONALA

Sexu-erasoak gaur egungo arazo dira. Salaketen estatistikek adierazten dute egoera larria dela; baina, agian, kezkagarriena da gizon-emakumeek normalizatu egin dituztela erasoak. Horregatik, hain zuzen, sexu-eraso gehienak ez dira salatzen, eta zigortu gabe geratzen dira.

Egungo legediaren arabera, sexu-askatasunaren aurkako delitu dira sexu-erasoak, erakundeek baliabideak jarri dituzte biktimei laguntzeko… baina, hala eta guztiz, emakumeek pairatutako hainbat sexu-eraso isilik gordetzen dira orain ere.

Ikerketak ondorioztatzen duenez, eraso horietako asko aisialdiko espazioetan gertatzen dira, eta ekuazioa honako hau da: festa + alkohola + nesketan egiteko aukera = kontrola galtzea, mutilak lerde-jarioan, neskak erne eta leporaino, eta erantzun desegokiak, bai mutilen aldetik, bai nesken aldetik.

Aisialdirako eskubidea garrantzi handiko balio bihurtu da premia ekonomiko larrienetatik atera den gizartearentzat. Gazteen ikuspegitik kontsumitzeko produktua da —zenbat eta gehiago, hobeto—; gizartearen ikuspegitik, ordea, konpondu beharreko arazoa da, kontrolatzeko neurriak hartu behar baititu (adingabeei alkohola saltzea debekatzea, botiloiak kaleetan, zarata eta ke gehiegi), hainbeste nekez lortutako eskubide hori errespetatzearekin batera.

Gizarte-errealitate berri hori egokia da emakumeen eta gizonen arteko harreman berriak eraikitzeko; eta, teorian, askatasuna eta batak besteari emandako baimena oinarri hartuta garatu beharko lirateke harreman berri horiek. Hala eta guztiz, batetik dugu emakumeak benetako herritartzat ez jotzea, eta bestetik, berriz, gazteen artean sendotuta dagoen diskurtsoa, berdintasuna jada lortu dela dioena. Bi faktore horiek emakumeen aurkako giroa sortzen dute, eta gizonak nagusi dira estimu handitan dugun aisialdiko espazio eta denbora horretan.

Bestalde, berdintasuna lortu dela pentsatzen bada ere, gure inguruko kolektibo batek ez ditu eskuratu berdintasun horren onurak: emakume etorkinen kolektiboak, hain zuzen. Munduko beste leku batzuetan jaioak direlako, eskubiderik ez dute edo eskubide gutxiago dituzte. Bizi-baldintza hobeen bila planteatutako migrazio-proiektuek tarte bakarra aurkitzen dute hemen, bertako biztanleen erreprodukzio-zereginen erantzunkidetasunari irtenbide okerra ematean sortutako pitzaduren artean. Eta gainera, lantokian jazarpenak eta erasoak pairatu behar dituzte, XIX. mendekoak diruditen egoerak, jatorrizko herrialdea uztean imajinatzen ez zituztenak, eta *gauza horiek* gertatzen direla onartu nahi ez duten guztien (bertako emakumeak barne) isiltasun gaizkidearen ondorioz ezkutuan geratzen direnak.

Espazio horietan —aisialdiko espazioetan neska gazteen kasuan, eta laneko espazioan *emakume etorkinen* kasuan— sexu-erasoen mehatxuak eta errealitateak beldurra sortzen du gaur egun ere. Ikusi dugu erasoen ondorio nagusia *beldurra* dela: neskak beldur dira, emakume etorkinak beldur dira, eta gurasoak beldur dira alabengatik.

Beldur horrek askotariko ondorioak ditu. Gertatutako erasoek eta *gertatu ez direnek* emakumeen askatasuna mugatzen dute; lehenik eta behin emakumeen sexu-askatasuna mugatzen dute, baina mugitzeko, gozatzeko eta beste sexuarekiko harremanak baldintza berdinetan izateko askatasuna ere mugatzen dute. Lan-egonkortasuna ere mehatxatzen dute, eta, oro har, herritartasuna oso-osorik gauzatzea mugatzen dute. *Ikerlan honetan parte hartu duten emakume guztiak beldur direla aitortu dute, baina desberdintasun handiak daude beldur hori interpretatzeko eta aurre egiteko moduan.*

Interpretazioei erreparatuta ikusten den desberdintasuna da erruarekin zerikusia duena. Emakume guztiak ez dira errudun sentitzen pairatutako erasoengatik, eta pertzepzio hori aurrerabide garrantzitsua da. Adierazten digu neska gazte eta atzerriko emakume askok oso garbi dutela erasoaren erantzukizuna erasotzailearena dela, ez dutela uste bizitzan gerta dakiekeen okerrena erasoa denik, eta oneratzeari modu asertiboagoetan heltzeko moduan daudela. Halaber, oso argi dute inguruak zeresan handia duela errudun sentiarazten baititu.

Sexu-erasoen bizipenari lotutako beste sentipen batek ere behera egin du emakumeen artean, lotsak alegia. Hala ere, neska gazteek oraindik ere erabakitzen dute salaketarik ez jartzea eta norberaren jokabideen eta harremanen berri ez ematea, ez dutelako nahi inork epaitzerik… eta ez soilik auzitegietan. Gainera, emakume etorkinek, lotsa izateaz gain, argi dute eskubideen falta dela oztopo nagusia, lantokietan gertatutako sexu-erasoak edota telefonoz egindako sexu-jazarpena salatzeko.

*Emakumeek ez bezala, gizonek ez dute beldurrik adierazten.* Gurasoak *ez dira beldur* seme nerabeen sexu-segurtasunagatik. Gizon-talderen batean beldurra aipatzen dutenean, ez dira ari emakume batek gauzatutako sexu-eraso bat pairatzeko arriskuaz.

Emakumeen eta gizonen bizipen desberdin horiek baieztatzen dute diskurtso feministaren korronte guztiek beti esan dutena: sexu-erasoen beldurra *emakumeen* jokabidea kontrolatzeko mekanismoa da. Mekanismo hori aldebakarrekoa da, emakumeek soilik bizi baitute horrela. Horrenbestez, sexu-erasoek funtzio bikoitza betetzen dute: funtzio *instrumentala* (emakume bakoitza berariaz kontrolatzea, eta emakumeak berak bere burua kontrola dezala) eta funtzio *sinbolikoa* (emakume guztiak biktima potentzial bihurtzea).

Sexu-erasoek gizonen jokabidean duten zeregina definitzea korapilatsuagoa da. Ikerlanean parte hartu duten gizonak ez dira emakumeek bezala aho batez identifikatzen. Bizipen desberdinak dituzte: batzuek errefusatzen dute indarkeriaz balia daitezkeenik; beste batzuek, berriz, onartzen dute, eta adierazi dute zaitasunak dituztela beren genero-rolaren inposizio horretatik alde egiteko; eta badaude «intentsitate txikiko» erasotzaile izan direla aitortu dutenak ere, beren ekintzen ondorioez jabetu gabe. Aspaldiko kontsigna feminista batek adierazitakoari jarraiki, «gizon guztiak bortxatzaile izan daitezke». Gaur egun korronte batzuek gaitzesten dute kontsigna hori, eta beste korronte batzuek errebindikatzen dute. Parte-hartzaileen artean, ondoeza eta eztabaida eragin du kontsigna horrek, bai gizonen artean, bai emakumeen artean ere.

Gizonen izaerari buruzko hausnarketa- eta ekintza-taldetan parte hartzen dutenek kontsigna horri buruzko hausnarketa onartzeko eta sakontzeko prestasun hobea dute. Diskurtso bakar bat ez badago ere, aitortu dute sozializazio-prozesuetan indarkeriaz baliatzeko pribilegioa izan dutela, eta uste dute kontzientziazio-prozesuaren ibilbidea dela indarkeria horretaz ohartzea, eta erabiltzeari uko egitea.

Gizonen indarkeriari buruzko eztabaidan sakondu gabeko alderdi batzuk geratu dira, adibidez: erasotzailearen banakako erantzukizunari buruzko irudi lausotua; gizonen indarkeriaren pribilegioaren onarpen-mailak; gizonen biktimizazio hirukoitzari buruzko argumentuak, haiek ere sistema patriarkalak inposatutako gidoiaren biktima direla azaltzeko erabiliak; eta gizon izateagatik erasotzaile potentzialtzat hartzea errefusatzea, besteak beste.

Eztabaidarik sortzen ez duen puntua da, gaur egun, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-maila altua lortu izanaz harro dagoen gizartean, emakumeen beldurra zentzugabea, lotsagarria eta *kontraesan* nabarmena dela.

Sexu-erasoei buruzko diskurtso tradizionalean askotariko interpretazioak aurkitu ditugu (adibidez, lortutako berdintasuna *ukatzea*, eta, sarriagotan, indarkeria sexistaren larritasuna ukatzea); erasoei *garrantzia kentzen* zaie, jai-giroko «berezko» jokabidetzat hartuta, ondorio handirik ez omen dute, identifikatzeko baliagarriak diren zapien antzera; *ezin dute sinetsi beren* gazteak edo *beren* zaharrak (familiako pertsonak, alegia) erasotzaile izan daitezkeenik; eta *susmatzen* dute emakumeek puztu egiten dituztela gauzak, gezurretan ibiltzen direla, ez dutela ulertzen, okerreko mezuak bidaltzen dituztela edo jasotako mezuak gaizki interpretatzen dituztela; eta, azken finean, ez direla bereizteko eta baimena emateko gaitasuna duten subjektuak.

Agertoki korapilatsu horretan, neskei etengabe bidalitako mezu hauek osatzen dute prebentzioaren diskurtsoaren ardatza: norberaren burua zaintzeko, gehiegikeriarik ez egiteko, eta gizarteak eman ezin dien segurtasuna beren kabuz lortzeko.

## 8.2. EZINTASUNAREN DISKURTSOA, MUGA ARGIRIK EZ BAITAGO

Mutil bat neska bati hurbiltzen zaionean, noiz hasten da erasoa? Neska bati ipurdia ukitu badiote, salaketa jarri behar al du? Jolastokiaren erdian ikaskide bati gona altxa dion mutilak zigorra merezi al du? Non erreklamatu behar du etxe-langile batek kobratu gabe alde egin behar izan duela, enplegatzaileak eskatu diolako etxea garbitzea azpiko arropaz soilik jantzita? Eta, kalean doala, txortan egiteagatik zenbat kobratzen duen galdetu dioten emakumea…?

Ikerlanean parte hartu duten pertsona askok eutsi diote ezintasunaren diskurtsoari, eta diskurtso horren oinarrian dago hasierako zailtasun bat: sexu-erasoaren *mugak* zein diren jakitea, argi eta garbi eta zalantzarik gabe.

Mugei buruzko argitasun eza dela-eta, oro har aitortu arren intentsitate ezberdineko hainbat sexu-eraso daudela eta emakume bakoitzean duten eragina desberdina dela, bortxaketa da sexu-eraso bezala argien identifikatzen duten delitua. Berehala salatutako bortxaketa da ezezagun batek egindakoa, eremu batean, gauez, eta indarkeria fisiko izugarriaz (horrela deskribatzen du osasun-zerbitzu bateko teknikariak «benetako» sexu-erasotzat hartzen duen gertaera).

*Neurri handi batean, mugei buruzko adostasun ezak badu zerikusirik emakumeak baimena emateko gaitasun osoa duten subjektutzat ez hartzearekin.* Aztertutako bi emakume--multzoak (neska gazteak eta emakume etorkinak) agerian jarri dute aintzatespen hori murriztuta dagoela. Neska gazteen kasuan, berriki eskuratutako sexu-askatasuna kudeatzeko gaitasun ezari buruzko argumentuak entzuten dira; emakume etorkinen kasuan, ez dira argumentu asko entzuten, haien bizipenak ezkutuan daudelako oraindik, eta eskubiderik gabe eta bazterturik bizi dituztelako beren esperientziak.

Mutilei buruz ez da ia ezer entzuten. Gizonak ez dira inondik ageri sexu-erasoei buruzko imaginarioan. Gizonek ia ez dute gai horri buruzko hausnarketarik egiten, kausei buruzko nahastea dute, batzuek oraindik ere uste dute psikopaten kontua dela, edo desio kontrolaezina duten gaixoena; eta, sexu-erasoak guztiz gaitzesten badituzte ere, eraso-ekintza bat ikusten dutenean, ezintasuna sentitzen dute. Maskulinitate hegemonikoari buruzko hausnarketa egin duten gizonek soilik ikusten dute argi eta garbi zerbait egiteko premia, uste baitute ekintza horiek ezin direla utzi erantzunik gabe. Haien diskurtsoa, ordea, indarkeria ez erabiltzeko aurkitzen dituzten zailtasunen inguruan eratua dago, eta sozializazio patriarkalaren ondorioak pairatzen dituen taldea direla errebindikatzen dute.

Gizonek, irakasleek eta gurasoek planteatutako mugei buruzko zalantza horiekin guztiekin gatazkan, neska gazte eta emakume etorkin gehientsuenek oso ondo dakite non dauden muga horiek: norberaren egonezina da adierazle hoberena, mugak noiz gainditu dituzten jakiteko erabiltzen duten neurria. Mugak non dauden erabakitzean pertzepzio desberdinak daude, baina erantzun desberdinen arrazoia ez datza hor. Emakume batzuk paralizatuta geratzearen arrazoia da subjektu gisa *autoritaterik gabe* sentitzen direla, gizon erasotzaile baten autoritate sinboliko eta errealaren aurka ezin dutela egin; gainera, gehiegitan erasotzaileak gaizkide aktibo edo isilak ditu inguruan.

Autoritate falta hori nabari da emakume batzuk nahiago dutenean isilik geratzea, interpretazio okerrak pairatzea baino; edo beren erantzunari eutsi ezin diotenean, erasotzaileak sexu-erasoa ukatu duelako, biktima are eta gehiago laidotuz; edo gizonari «beharrezkoa ez den» kaltea egiteko beldur direlako; edo mesfidantzaz begiratuko ote dioten… Laburbilduz, gizonen autoritatea zaurituko ote duten beldur dira, autoritate hori errespetatzea oso errotuta baitago subjektibitateetan.

Halaber, norberaren erasoaren beldur dira, amorrua gorde eta ezintasun bihurtzeko ohitura baitute. Emakume oldarkorrak, esate baterako, ez dira zinean ageri, kasu bakar batzuk alde batera utzita. Diskurtso feminista batzuk —emakumeen zaintzeko gaitasuna azpimarratzen dutenak, eta biziarekin eta bakearekin identifikatzea bultzatzen dutenak— ez dute asko lagundu emakumeen defendatzeko gaitasuna sinbolikoki legitimatzeko erreferenteak sortzen.

Beldur horiek indartzen dira garai bateko printzesaren edo gaur egungo neska modernoaren irudiarekin, garrasika eta beldurturik, printzeak edo agente sekretuak noiz salbatuko zain. Amorrua indar bihurtzeko gaitasuna gauzatu behar dute emakumeek. Ikusi dugu autoritatea hartu eta *norberaren* mugak gainditu direla (zenbat eta kontzientzia gehiago, orduan eta baxuago daude mugak) hautematen duten emakumeek soilik garaitu dezaketela paralisia, beren burua defendatzeko eta erasoei erantzuteko.

Halaber, ikusi dugu indarkeriari erantzuteak ia inoiz ez duela gorputzaldi ona uzten, baina defentsaren bidezkotasuna, biktimismoa energia bihurtzea, erantzuteko gaitasunari gehiago erreparatzea pairatutako nekeei baino… faktore horiek guztiak bide ematen dute ezintasunaren diskurtsoa gainditu eta diskurtso erreboltariak eraikitzen hasteko.

Ezintasunaren diskurtsoa hainbat kolektiboren ahotan dago:

— Neska gazte askok eta emakume etorkin guztiek berregiten dute. Ezintasunaren diskurtsoa elikatzen duen susmoa hau da: salaketa jartzea aholkatu arren, «benetako» sexu-erasoa pairatzen badute soilik izango dutela erantzun egokia. Ez zaie burutik pasatzen intentsitate «txikiko» erasoak salatzea, azaldu beharko bailukete «zergatik esan zuen hasieran mutil ezezagun harekin hartu-emana onartzen zuela, baina gero atsegin ez zuen zerbait ikusi edo hobeto pentsatu zuela eta…». Egoera deserosoegia izan daitekeela iruditzen zaie. Baina ezintasun horren emaitza isiltasuna da, ez dutelako sentitzen ondoez horretan laguntza izango dutenik, eta ez dutelako uste polizia denik laguntza eske joateko leku egokiena.

— Gazteekin bizi diren helduek eta gazteekin lan egiten dutenek eraikitako diskurtsoak berriz ezintasun handiagoa adierazten du, neskenak baino. Batzuek defentsa-jarrerak hartzen dituzte, eta beste batzuek epe luzerako konponbideak dituzte hizpide: genero-rol tradizionalak eraldatzeko premia, Lehen Hezkuntzatik hasita… Eta, neurri horiek ezinbestekoak badira ere, epe luzerako konponbideak ez dira tresna egokiak hemen eta orain sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeentzat.

— Ezintasunaren diskurtsoaren beste adibidea da Irungo Alardearen esperientzia. Gatazka hori adibide paradigmatikoa da, errealitate sinbolikoak eguneroko bizitzan

duen eragina azaltzeko, eta egoera hori aldatzeko dauden zailtasunez ohartzeko. Izan ere, polemikaz betetako urteak eta lortutako laguntzak gorabehera, Alarde mistoa gaurko egunean ere erronka da.

— Zerbitzu publikoetako profesionalen artean ere aurkitu ditugu ezintasunaren diskurtsoak. Guztiek dakite zer egin behar duten erasoa pairatutako emakume bat laguntza eske datorrenean, baina jardunbide horiek abian jartzeko bi baldintza behar dira: emakumea haiengana joatea, eta pairatutako erasoa argi eta garbi aitortzea. Bi baldintza horiek direla-eta, gehienak bidean geratzen dira.

Horren ondorioz, *inbutu* fenomenoa sortzen da: gertatutako sexu-erasoak gehiago dira aitortutakoak baino; haien proportzio txiki bat soilik salatzen da, eta salatutakoen proportzio txiki batek jasotzen du laguntza.

Laguntza-sistema eta esku-hartzeko sistema ez daude oraindik prestatuta delitu horien biktimei arreta egokia emateko; elkarrizketatutako langile teknikoek ere hala aitortu dute, eta arazo horri buruzko kezka adierazi dute. Ezintasunaren diskurtsoa are eta nabarmenagoa da kolektibo jakin batzuk hizpide dituztenean, esate baterako ijito-komunitatea edo gutxitasunen bat duten emakumeak. Kasu horietan, ezer egin ezin daitekeen irudipen hori berrelikatzen da «beste» kolektibo horiei jokabide bortitzagoak izatea edo indarkeria gehiago jasatea esleitzen dieten diskurtsoen bidez. Kultura-desberdintasunen ondorioz, emakume ijitoen kolektiboak, esate baterako, nahiago du autoritate tradizionaletara jotzea, eraso bat gertatuz gero; izan ere, emakume horien bizipenek ez dute oihartzunik indarkeria sexistari aurre egiteko propagandan, oro har.

## 8.3. DISKURTSO ERREBOLTARIA: ZURE ERASOA EZ DADILA IZAN NIRE LOTSA

Feminismoak Euskadin hogeita hamar urtetik gora egin baditu ere, urte gutxi dira, indarkeria sexista naturaltzat hartutako mendeetako historia erabat aldatzeko. Hala ere, elkarte feministak gai izan dira sexu-erasoei buruzko diskurtso berriak egiteko. Eta, neurri handi batean, legediak eta gaur egun dauden arreta-zerbitzuek bere egin dituzte diskurtso berri horiek.

Errebeldia abiapuntutzat hartuta sortutako diskurtsoak baliagarriak izan dira patriarkatuak esleitutako biktimaren lekuan jarri nahi ez duten emakumeentzat. Diskurtso horiek adierazten dute emakumeek, emakume guztiek, sexu-erasoren bat paira dezaketela noizbait. Baita emakumeak jabetuta eta kontzientziatuta badaude ere, erasoa ez baita kontzientziaren aurkakoa, emakumearen gorputzaren eta irudiaren aurkakoa baizik.

Baina jabetuta eta kontzientziatuta egotea garrantzi handikoa da erasoari erantzuteko eta gertatutakoa lantzeko. *Diskurtso erreboltariek saihesten dute gizonen erasoa emakumeen lotsa bihurtzea.*

Diskurtso feministak emakumeen amorruari lotuta daude, baina beldurra eta ezintasuna ere aintzat hartzen dituzte. Diskurtso horiek, gainera, hainbat egoeren azterketa egiten dute:

genero-desberdintasuna, emakumeen mendekotasuna, diskriminazioaren eta indarkeriaren arteko lotura, genero-ordena zalantzan jartzea, sexualitateak subjektibitatean duen zeregina ere bai… Elementu horiek guztiak eta beste batzuk ere elkartzean, ikuspegi berriak sortzen dira, V. kapituluan labur-labur azaldu ditugunak.

Lehen esan bezala, indarkeria-modu berrien aurrean erantzun berriak eman behar dira, emakumeen errebeldia orokorrago batetik abiatuta, eta, batez ere, gizarte-kontzientzia berri batetik, duela 30 urte eta gehiago, lehen erakunde feministak sortu zirenean, existitzen ez zen kontzientziatik.

Ikerketa egitean ikusi dugu taldeek aho batez arbuiatzen dituztela sexu-erasoak, agerikoak eta bortitzak direnean bederen; horrenbestez, diskurtso erreboltariak ez dira jada feminismoarenak soilik, beste populazio-sektore batzuek ere bere egin baitituzte. Diskurtso horiek bereganatzean, alderdi batzuk kendu eta beste kezka batzuk sartu dituzte, eta hainbat diskurtso sortu dira: *justiziaren diskurtsoak*, *zalantzan jarritako maskulinitatearen diskurtsoak, suminduraren diskurtsoak* eta *erantzukizunaren diskurtsoak*.

Diskurtso horiek guztiak bizirik daude, batzuetan elkar osatuz, beste batzuetan elkarren aurka, edota bide paraleloak eginez. Guzti-guztiak dira aspaldiko arazo baten gizarte-lantzearen adierazpenak: indarkeria sexistaz ari gara, hain zuzen. Gaiari heltzean gaur egun dauden tentsioak oso nabarmenak dira; eta, gizarte-fenomeno guztietan bezala, adostasunak eraikitzen dira eta erakundeen erantzunak adostasun horietara egokitzen dira.

Ikusi dugu indar feministak behera egin duela 80ko hamarkadaz geroztik. Feministen hausnarketen zati bat politika publiko bihurtu da, elkarteak ados ez egon arren zenbait puntutan: salaketa izatea laguntza-baliabideak eskuratzeko lehenengo atea edo/eta ate bakarra, sistema judizialak protagonismo guztia izatea, hezkuntza-sistemak koherentziarik ez izatea… Ez daude batere ados ekintzarik ez egitearekin, ezta prebentziorako erabiltzen diren baliabide eskasekin ere.

Elkarte feministen, sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeen eta erakundeen arteko erlazioak askotarikoak dira. Elkarte feministek funtsezko giltzarriak ematen dituzte sexu-erasoak aztertzeko; sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeek eraso horiek bizitzen, lantzen, ezkutatzen edo konpartitzen dituzte; eta erakundeen ardura da laguntza ematea, haien ikusmoldeak eta baliabideak kontuan hartuta.

Mugimendu feministaren eta erakundeen arteko tentsio batek zerikusia du emakumeen eragiteari ematen dioten garrantziarekin. Feministen ikuspegitik, emakumeak bere oneratzearen protagonista izan behar du, eta ez soilik erasoaren biktima. Zalantzarik gabe, gai horri buruzko eztabaida gehiago egin beharko da etorkizunean.

Sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko sistemen berrikuspenari dagokionez, ekarpen garrantzitsua da emakume horiekin esku hartzean jabekuntzaren ikuspegia aintzat hartzea. Ez da soilik metodo terapeutiko bat, elkarrizketa-eredu bat, edo jarritako baliabideak kudeatzeko modu bat. Esku hartzeko metodologia bat da: biktimak berriz ere biktimizatzeari uko egiten dio, emakume bakoitzak duen indarra —txikia bada ere— aintzat hartu eta lanerako abiapuntutzat hartzen du, muturreko egoera batean aurrera egiteko

eta norberaren bizitzaren protagonista izateko gaitasuna aitortzen die emakumeei. Ikuspegi horrek alternatibak sortzen ditu, emakumeek funtsezko erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa izan dezaten, bideragarriak diren ildoei ekiteko aukera gehiago izan ditzaten, bizitza bete-betea izateko, berehalakoan indarkeriarik gabe, eta epe laburrean gizonekin berdintasunean.

# 9. PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK ZENBAIT LAN ILDOTARAKO

Ikerketa honek eman dituen proposamen multzoan bilduta daude kontsultatutako pertsonen ekarpenak eta Sortzen lantaldearenak. Proposamen horiek askotarikoak dira, eztabaida-taldeetako parte-hartzaileen, zerbitzuetako teknikarien eta elkarte feministen kezkak jaso baititugu. Praktika Onen Bankuan bildutako esperientzia batzuk ere gogora ekarri ditugu, EAEko errealitatera transferitzeko modukoak direla uste baitugu.

Proposamenak hiru kategoriatan sailkatu ditugu: erasoak ikusteko moduei buruzkoak, arreta-politikekin lotura dutenak, eta prebentzio-politikei buruzkoak.

## 9.1. SEXU ERASOEI BEGIRATZEKO MODUARI BURUZ

Elkarte feministek planteatzen dute urgentziazkoa dela bortxaketak emakumeen bizitzan duen inpaktuaren mitoa apurtzea, oraindik ere bizirik baitago mito hori. Feministek diote bortxaketa ez dela emakume bati gerta dakiokeen okerrena; inpaktu emozional handia duen esperientzia da, eta horrexegatik, estigmatizazioa saihestu behar da.

Orain arte, «emakume bortxatua» izatearen estigma saihesteko modu bakarra zen isilik gordetzea. Isiltasun horrek, ordea, erasoa pairatu duten emakumeak berriz ere biktima izatea dakar. Behar-beharrezkoa da bortxaketa eta sexu-erasoak ez hartzea gertaera sexualtzat, baizik eta gizonen menderatze-ekintzatzat, beldurraren diskurtsoaren laguntzaz.

a) *Erasotzailearen erantzukizuna*

Funtsezkoa da erasotzailea azterketaren gunean jartzea, eta ez hartzea ez gaixotzat, ez sexu-desio menderakaitza duen gizontzat. Gizon bat da, emakume bat menderatzeko gaitasuna muturreraino eramaten duena, *ahal* duelako, hezkuntza-prozesuan emakumeak menderatzeko baimena eman diotelako, eta, bere ustez, berak duelako —eta berak soilik— mugak jartzeko eta muga horiek urratzeko gaitasuna.

Horren haritik, indarkeriak maskulinitate hegemonikoaren eraikuntzan duen eginkizuna aitortzeaz gain, garrantzi handikoa da erasotzaileen *borondatea* azpimarratzen duten diskurtsoak sortzea; hau da, noiz eta nori eraso erabakitzeko gaitasuna eta borondate pertsonala dutela nabarmentzea. Gertaera kontzientea da, ez da eroaldi baten ondorioa, ez da alkoholaren emaitza, ezta une horretan gertatutako ateraldia

ere. Luze hezitako borondatea da, erasotzaileak bizi izan dituen urteetan ez ezik, hainbat gizon-belaunaldiek eraikitako ibilbidean.

b) *Ikuspegi berri bat hedatu*

Urgentziazkoa da aintzat hartzea, emakumeek erasoei aurre egin diezaieketen bezala (eta egiten diete), gizonek ere aukera eta betebehar horixe dutela. Abiapuntu horretatik, gizonei eska diezaiekegu indarkeriaz jarduteari uko egitea, eraso bat geldiaraztea, arbuiatzea… Tolerantzia zeroko kultura sortu behar da, emakumeen jokabideak probokazioa eragiten diela esatea ez dadila inolaz ere justifikaziotzat hartu.

Funtsezkoa da diskurtso hori hedatzea, ikasgeletara irits dadila, aisialdiko espazioetara eta komunikabideetara, sexu-erasoak agerian gera daitezen, populazio-sektore batzuetan ukatu eta erresistentziak egon arren, batez ere gurasoen artean. Izan ere, gaiari buruzko hausnarketak egonkortasuna galarazten die gurasoei, seme-alabak irudikatzen baitituzte egoera horretan.

c) *Aurreiritzi arrazistak errefusatu*

Premiazko da, halaber, berariaz jardutea erasotzaileak gizon etorkinekin identifikatzea dakarren aurreiritziaren aurka. Adierazi behar da etorkinek egindako sexu-erasoak direla gehien saltzen direnak, hain zuzen, aurreiritzi hori dagoelako, eta imaginario kolektiboan bortxaketari lotutako ezaugarri batzuk betetzen dituztelako.

Gai hori taldeetan ia aztertu ez denez eta eztabaida-ardatz izan ez denez, aholkatzen dugu gai horri buruzko berariazko analisia egitea.

Emakume etorkinei buruzko ikuspegia ere aldatu behar da: egiten duten lana eta gizarte hartzaileari egiten dioten ekarpena balioetsi behar dira. Ezinbestekoa da kolektibo horren aurkako sexu-erasoak agerian jartzea, isilik geratzeak bideratzen baitu erasoak behin eta berriz gertatzea; eta gainera, gizartearentzat lotsabide dira.

d) *Genero-berdintasuna oraindik lortu gabe*

Egia da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean aurrerabide garrantzitsuak egin direla, baina berdintasuna lortu eta ezarri dugun ideia gezurtatu egin behar da. Izan ere, ideia horrek irauten badu, ezinezkoa izango da sexu-erasoei buruzko diskurtso koherentea, eta ezingo zaie babes egokirik eman gaurko emakumeei eta ondorengo belaunaldiei.

Halaber, emakumeen defentsa-eskubidea baliozkotu behar da, eta herritarren solidaritatea sustatzea ere beharrezkoa da. Emakumeen jokabideei buruzko irizpenak eta pertsona adinduek onartzen ez dituzten portaera batzuek eragin dezaketen eskandalua ez dira arrazoibide erasoei buruzko isiltasun gaizkideari eusteko. Sexu-erasoak

erabat gaitzesten dituen kultura sortu behar da, inork ez bailituzke bizi behar, egiten duena egiten duela.

e) *Emakumeei ahotsa eman*

Amaitzeko, ahotsa eman behar zaie emakumeei, haien esperientziei eta hausnarketei. Ahots horiek askotarikoak badira, aberasgarriagoa izango da eztabaida, gai horietan beti beharrezkoa dena. Horixe izan da, bederen, lan honen asmoetako bat.

## 9.2. PREBENTZIO POLITIKEI BURUZ

Bai lankidetzan aritu diren erakundeek, bai ikerketarako elkarrizketatu ditugun pertsonek, azpimarratu dute ahalegin guztia egin behar dela prebentzioan. Informazio- eta prebentzio-jarduerak gazteei begira egin behar dira, batez ere; izan ere, gazteen artean jokaera oldarkor normalizatu ugari ageri dira, sexu-erasoak detektatzeko egokia ez den giroa sortzen dutenak.

Prebentzioari erreparatuz, garrantzitsua da hausnarketa-espazioak sortzea, ikerketa hau gauzatzeko sortutako espazioen modukoak, emakumeek esperientziak partekatzeko eta beste ikuspegi batetik lantzeko aukera izan dezaten.

a) *Hezkuntza-esparrua tartean sartu*

Prebentzioaren ildoan, hezkuntza-esparrua giltzarrizkotzat hartzen da. Arlo horri dagokionez, aholkatzen da hezkidetza gaindituta dagoen ideia berrikustea, errealitatean ez baita oraindik benetan txertatu eskola-sisteman. Horretarako, ebaluatu behar da hezkuntza alorrean zenbateraino betetzen diren berdintasunari buruzko arau guztiak. Egiaztatu behar da material didaktikoak benetan aldatu direla, hezkidetzari edo hezkuntza ez-sexistari buruzko prestakuntza-planak egiten ari direla eta irakasle gehienek plan horietan parte hartzen dutela, eta eskola-kontseiluetan badaudela berdintasun-politikak eta indarkeriaren prebentzioa sustatzeko ardura duten erakunde-ordezkariak.

Gizarte-hezkuntzaren alorrean ere sustatu behar da prebentzio-jarduera (hezkuntza ez-formalean, aisialdiko hezkuntzan, gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko taldeetan, ludoteketan, liburutegietan, gazte-guneetan), haurrentzat eta gazteentzat lanean dihardutenbaliabide guztiek —erakundeen babes formalik ez badute ere— eragile aktiboak izan daitezen zeregin horretan.

b) *Kanpaina iraunkorrak*

Proposatzen dugu sexu-erasoen aurkako kanpainek jarraibide hauetatik gehientsuenak betetzea:

— Iraunkorrak izan daitezela, eta ez puntualak.

— Erakunde artean koordinatuta egin daitezela.

— Erasotzailean jar dezatela arreta, ez dezatela emakumea berriro biktimizatu, eta ez dezatela emakumearen gain jarri erasoaren erantzukizuna.

— Gazteen arteko harremanetan eragin dezatela, batez ere, eta aisialdiko espazioetako erasoen normalizazioaren aurka egin dezatela.

— Sexu-erasoak paira ditzaketen kolektiboak agerian jartzeko baliagarriak izan daitezela, berariazko kanpainen bidez (emakume gazteak, emakume ijitoak, emakume etorkinak eta abar helburu hartuta).

— Jarraibideak eman ditzatela: zer egin, nora jo…

— Dauden baliabideak azpimarra ditzatela.

Proposatzen dugu azaroaren 25eko kanpainako Puntu Lilari eustea eta ekimena orokortzea. Ikus-eragina duen baliabidea da, eta emakumeek oraindik ere bizi duten indarkeria-egoera agerian jartzeko lagungarria izan daiteke.

c) *Informazioa eta laguntza interneten*

Gazteen interakzioetan gizarte-sareak funtsezko espazioak direnez, proposatzen dugu sare horiek erabiltzea prebentzio-kanpainetarako, baita sexu-eraso bat bizi izan duten neskei lehen arreta emateko.

d) *Informazio afektibo eta sexualerako zentroak*

Udalerri batzuetan sexualitateari buruzko informazio-guneak daude (aipatzekoa da Basauriko Udalarena), eta gune horiek funtsezkoak dira emakumeen eskubideen, beharren eta desioen baliozkotzean oinarritutako sexualitatea hedatzeko. Horrenbestez, proposatzen dugu baliabide hori ugaltzea.

e) *Unibertsitateko ikasleak*

Sexu-erasoen prebentziorako giltzarrizko kolektibo bat unibertsitateko ikasleak dira. Hortaz, proposatzen dugu UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzarekin koordinatuta jardutea, programa bat abian jartze arren, Amerikako Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko unibertsitateetan sexu-indarkeria prebenitzeko eta arreta emateko gauzatutako Praktika On batzuk hedatzea helburu hartuta.

f) *Hiri eta auzo seguruak*

Interes handiko jarduera da emakumeen segurtasun subjektibo eta objektiboa handiagotzea auzo eta hirietan. Udalerri batzuek, genero-ikuspegia aintzat hartuta, hirigintza-azterketak eginak dituztenez, proposatzen dugu azterketa horietan planteatutako neurrien ebaluazioa egitea, gai horretan hartutako konpromisoen jarraipena egiteko.

g) *Autodefentsa feministarako tailerrak*

Amaitzeko, hainbat esparrutan egiten ari den jarduera bada ere, proposatzen dugu emakumeentzako berariazko autodefentsa- eta autoestima-tailerren jarraipena eta ugaltzea sustatzea.

## 9.3. ARRETA POLITIKEI BURUZ

Sexu-erasoen biktimentzako arretari dagokionez, aholku batzuk emango ditugu, bai epe ertainera begira jarduteko, bai berehalako hobekuntzak egiteko.

a) *Berehalako hobekuntzak*

Proposatzen dugu sexu-eraso kasuetan aholkularitza juridikoa emateko hitzarmena berrikustea; izan ere, elkarteek oso gutxitan eskatu dute aholkularitza hori, eta eskatu dutenean ez dute erantzunik jaso. Harrera-baliabideekin ere beste hainbeste gertatzen da: sexu-erasoak bikote-harremanetik kanpo pairatu dituzten biktima batzuk ez dituzte jaso baliabide horiek.

Bestalde, proposatzen dugu tratamendu psikologikoak luzeagoak izatea, arreta-denbora nahikoa ez dela irizten baitiogu.

Amaitzeko, presazkoa da sexu-erasoen biktimei laguntzeko zerbitzuetako espazioetan emakumeen intimitatea bermatzea.

b) *Erasoen detekzioa osasun-esparruan*

Proposatzen dugu aholkularitza afektiborako eta sexualerako zerbitzuak sortzea osasun-esparruan, lehen mailako arreta-zerbitzuetan, hain zuzen, berriki edo lehenago gertatutako sexu-erasoak, baita haurtzaroan pairatu eta biktimen gaur egungo disfuntzio sexualaren alorreko arazoak eragin dituztenak ere, detektatzeko eta emakume horiei arreta emateko.

c) *Sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta emateko berariazko zentroak*

Hainbat gizarte-eragilek, batez ere feministek, proposatzen dute informazio- eta laguntza-zerbitzuak sortzea, Erresuma Batuan daudenen antzera, sexu-erasoei buruzko informazio-eskaerei erantzuteko eta biktimei arreta emateko. Zentro horiek diseinatzeko, aintzat hartu beharko lirateke askotariko emakume-kolektiboak, eta kolektibo bakoitzaren berariazko ezaugarriak (norbaitek entzuteko premia, hausnarketa egiteko premia, jarduteko gaitasuna).

Proposamen horren osagarri, aholkatzen dugu sexu-erasoen biktimei arreta emateko unitateak sortzea indarkeria sexistaren biktimei laguntzeko inplikatutako erakunde bakoitzean. Ekimen horrek dakar sexu-erasoei arreta emateko politikak bereiztea genero-indarkeriazko delituei dagozkienetatik, haietan lausotuta gera ez daitezen.

Proposatzen dugu gaur egun dauden informazio- eta arreta-zerbitzuak eskuratzeko ez dadila behar-beharrezkoa izan salaketa jartzea, eta emakume bakoitzak prozesua gauzatzeko behar dituen denborak errespeta daitezela.

d) *Protokoloak sortzea eta langileak prestatzea*

Urgentziazko beste zeregin bat da emakumeei transmititzea sexu-erasoak gertatuz gero erakundeak prest daudela arreta-eskaerei erantzuteko, eta, horrenbestez, segurtasun-sentsazioa sortzea. Horretarako, funtsezkoa da inplikatutako zerbitzu guztien berehalako ekintza koordinatua, erreferentziazko irudi batekin, erakunde publikoen laguntza eskatzen duten emakumeak berriz ere biktima izatea saihesteko, ahal den neurrian.

Zeregin hori gauzatzeko, proposatzen dugu Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak jarduera-protokoloak bultza ditzala, sexu-erasoei erantzun koherentea ematea bideratzeko; eta, aldi berean, zenbait esparrutan (gizarte-ekintza, osasuna, Ertzaintza…) kasu horiei arreta ematen dieten langile teknikoak prestatzea, emakumeen jabekuntzan oinarritutako ikuspegitik lan egin dezaten, biktimizazioaren ikuspegia alde batera utzita.

Funtsezkoa iruditzen zaigu langile teknikoek harrera ona ematea emakumeei; jabekuntzaren ikuspegiaz gain, gertutasuna, irisgarritasuna, laguntza, baliabideei buruzko ezagutza, egoki bideratzea eta abar eskaini behar dituzte, emakumeengan eragiteko arreta eta babesa duten sentsazioa.

e) *Jarraipena eta ebaluazioa*

Proposatzen dugu sexu-erasoei arreta emateko erakunde-politikaren esparruan erakunde arteko lantalde teknikoa sortzea, sexu-erasoen biktimei laguntzeko programak eta zerbitzuak aztertzeko, diseinatzeko, sustatzeko, eta baliabide horien jarraipena egiteko. Halaber, lantalde horren egitekoa izango da jarritako zerbitzuen eraginkortasunaren eta inpaktuaren ebaluazioa bultzatzea.

# 10. BIBLIOGRAFIA

AMORÓS, C. (2008): *Mujeres e imaginarios de la globalización. Reflexiones para una agenda teórica global del feminismo*. Rosario/Santa Fe: Homo Sapiens Ediciones.

APARICIO, A. ETA MUÑOZ, T. (2007): *Después del silencio. Cómo sobrevivir a una agresión sexual.* Bartzelona: Paidós.

ARISÓ SINUÉS, O. ETA MÉRIDA JIMÉNEZ R. (2010): *Los géneros de la violencia. Una reflexión queer sobre la violencia de género*. Madril: Egales Editorial.

BADINTER E. (2003): *Por mal camino*. Madril: Alianza Editorial.

BORDIEU, P. (2000): *La dominación masculina*. Bartzelona: Anagrama, *Argumentos* bilduma.

BOURKE, J. (2009): *Los violadores. Historia del estupro de 1860 a nuestros días*. Bartzelona: Crítica.

BROWNMILLER, S. (1975): *Contra nuestra voluntad*. Bartzelona: Planeta.

DE MIGUEL, A. (2008): «La violencia contra las mujeres. Tres momentos en la construcción del marco feminista de interpretación» *in*: Isegoría. Revista de Filosofía Moral y Política. 38. zenbakia, urtarrila-ekaina, 2008, 129-137.

DESPENTES, V. (2007): Teoría King Kong. Espainia: Editorial Melusina.

DIO BLEICHMAR, E. (2000): «Incidencia de la violencia sexual sobre la construcción de la subjetividad femenina» *in*: Hernando, A. (argitaratzailea). *La construcción de la subjetividad femenina*. Madril: Instituto de Investigaciones Feministas, Universidad Complutense de Madrid.

ESTEBAN, M.L. (2004): *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

— (2009): «Cuerpos y políticas feministas». *Jornadas Feministas Estatales. Granada, 30 años después: aquí y ahora* jardunaldietako ponentzia. www.feministas.org

GAITSKILL, M. (1994): «No ser una víctima: el sexo, la violación y el problema de obedecer las normas» *in*: *Sexo y Violencia*. Debate feminista, 13. urtea, 26. liburukia, Mexiko D.F.

GARAIZABAL, C. (2009): «Debates feministas sobre la sexualidad». *Jornadas Feministas Estatales. Granada, 30 años después: aquí y ahora* jardunaldietako ponentzia. www.feministas.org

HERMAN, J. (2004): *Trauma y recuperación. Cómo superar las consecuencias de la violencia*. Madril: Espasa.

LARSSON, S. (2005): *Los hombres que no amaban a las mujeres.* Bartzelona: Ediciones Destino.

— (2006): *La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina*. Bartzelona: Ediciones Destino.

— (2007): *La reina en el palacio de las corrientes de aire*. Bartzelona: Ediciones Destino.

MARCUS (2002): «Cuerpos en lucha, palabras en lucha: una teoría y política sobre prevención de la violación» *in*: *Cuerpo y Política*. Debate feminista, 5. urtea, 10. liburukia, Mexiko D.F.

MARUGÁN B. ETA VEGA, C. (dg): «Acción feminista y gubernamentalidad». La emergencia pública de la violencia contra las mujeres. Eskuragarri dago webgune honetan: http://www.sindominio.net/contrapoder/article.php3?id_article=21

OSBORNE, R. (2009): *Apuntes sobre violencia de género*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

PRECIADO, B. (2008): *Testo yonqui*. Madril: Espasa.

ROMERO, V. (dg.): «La violación como acto discursivo del poder». Portaera-zientzien fakultatea, UAEM. www.uaemex.mx

SÁNCHEZ, C. (2000): *Qué es la agresión sexual*. Madril: Biblioteca Nueva.

SEGATO, R. (2008): «La escritura en el cuerpo de las mujeres asesinadas en Ciudad Juárez: territorio, soberanía y crímenes de segundo estado» *in*: *Cuerpos sufrientes*. Debate feminista, 19. urtea, 37. liburukia, Mexiko hiriburua.

SENDÓN, VICTORIA. (2000): «Qué es el feminismo de la diferencia. Una visión muy personal». Mujeres en red. www.nodo50.org

SORTZEN (2010): *Ahora que lo dices… Diagnóstico de necesidades de las mujeres jóvenes de Arrigorriaga*, mimeo.

SORTZEN (2010): *¿Proposición o imposición? Diagnóstico de la percepción y opiniones sobre la violencia sexista de la juventud de los municipios de Ondarroa y Markina-Xemein*, mimeo.

URRA PORTILLO, J. (2007): *SOS… víctima de abusos sexuales*. Madril: Ediciones Pirámide.

VÁZQUEZ, N. (prentsan): *Intervención con mujeres que han vivido o viven alguna forma de violencia sexista: una perspectiva desde el enfoque de empoderamiento*. Universidad Pontificia de Salamanca.

VÁZQUEZ, N., ESTÉBANEZ, I, CANTERA, I. (2009): *Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo*. Bilbo: Deustu-San Inazioko modulu psikosoziala.

VIGARELLO, G. (1998): *Historia de la violación. Siglos XVI-XX*. Madril: Ediciones Cátedra, Universitat de Valencia, Instituto de la Mujer, *Feminismos* bilduma.

ZIGA, I. (2009). *Devenir perra*. Espainia: Editorial Melusina.

# ERANSKINAK

# I. EZTABAIDA-TALDEEN ZERRENDA: PARTE-HARTZAILEAK ETA DATAK

| Taldea | Parte-hartzaileak | Parte-hartzaileen kopurua | Txostenean adierazitako izena | Data |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 28-34 urteko neskak | 10 | Nesken 1. taldea | Irailak 10 |
| 2 | 30-32 urteko neskak | 10 | Nesken 2. taldea | Irailak 16 |
| 3 | 28-35 urteko neskak | 6 | Nesken 3. taldea | Irailak 16 |
| 4 | 28-32 urteko neskak | 10 | Mutilen 1. taldea | Irailak 22 |
| 5 | Neska-mutilen gurasoak | 9 | Gurasoen taldea | Irailak 23 |
| 6 | Irakasleak | 5 | Irakasleen 1. taldea | Irailak 30 |
| 7 | 17-25 urteko neskak | 4 | Nesken 4. taldea | Urriak 1 |
| 8 | 18-25 urteko mutilak | 8 | Mutilen 2. taldea | Urriak 1 |
| 9 | Emakume etorkinak | 7 | Emakume etorkinen 1. taldea | Urriak 1 |
| 10 | Medeak | 4 | Elkarteren bateko kide diren nesken taldea | Urriak 2 |
| 11 | Ondarroakoa irakasleak | 4 | Irakasleen 2. taldea | Urriak 5 |
| 12 | Neska-mutilen amak | 6 | Amen taldea | Urriak 7 |
| 13 | Bizkaiko Jabekuntza Eskolak | 7 | Berdintasun-teknikarien taldea | Urriak 7 |
| 14 | Askatasunik gabeko emakumeak | 6 | Askatasunik gabeko emakumeen taldea | Urriak 13 |
| 15 | Emakume etorkinak | 13 | Emakume etorkinen 2. taldea | Urriak 23 |
| 16 | Elkarteren bateko kide diren mutilak | 13 | Elkarteren bateko kide diren mutilen taldea | Urriak 26 |
| | **Guztira** | **122** | | |

## II. ELKARRIZKETATUTAKO ERAKUNDEEN ZERRENDA

| ERAKUNDEAK | | | |
|---|---|---|---|
| **Entitatea** | **Saila(k)** | **Data(k)** | **Elkarrizketatutako pertsonak** |
| BILBOKO UDALA | – Berdintasun sailaren zuzendaria<br>– Berdintasuna sustatzeko atalaren burua<br>– Prebentzio-arloko arduraduna | 2010/09/03 | Idoia Uriarte Ercilla<br>Amaya Domingo<br>Irati Fernández |
| | – Berdintasun saileko gizarte-langileak | 2010/09/15 | Soraya Okiley<br>Leire Uriaga<br>Isabel Pablos |
| DONOSTIAKO UDALA | – Berdintasun-teknikaria<br>– Gizarte Ongizateko teknikaria | 2010/09/10 | Ana Txurruka<br>Pilar Ibazeta |
| GASTEIZKO UDALA | – Gizarte-larrialdietarako zentroko arduraduna<br>– Berdintasun-teknikaria | 2010/10/06 | Marisa Becerril<br>Laura Torrealday |
| BIZKAIKO FORU ALDUNDIA | – Emakumea eta Familia Zerbitzuko berdintasun-teknikaria, eta arreta psikologikorako programaren arduraduna | 2010/10/07 | Maitane Ibernia |
| ARABAKO FORU ALDUNDIA | – Gizarte Ongizateko teknikaria | 2010/10/06 | Pilar Sanz |
| GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | – Emakumearen arloko burua<br>– Gizarte-larrialdietarako zerbitzua<br>– Arreta psikologikorako programaren arduraduna | 2010/09/22 | Arantza Zurutuza<br>Maite Uranga<br>Itziar Mayora |
| MUSKIZKO UDALA | – Berdintasun-teknikaria<br>– Gizarte-langilea | 2010/09/22 | Silvia Pazos<br>Gentxane Iza |
| GURUTZETAKO OSPITALEA | – Ginekologiako larrialdi-zerbitzuetako erizaina | 2010/09/16 | Ana García Martínez |
| KABIEZESKO OSASUN-ZENTROA | – Sexologoa | 2010/10/20 | Maribel Fuleros |
| OSASUN SAILA, Bizkaia | – Lurralde zuzendaria | 2010/10/19 | Adela Olascoaga |
| AUZOLAN | – Auzolan programaren zuzendaria<br>– Programako psikologoa | 2010/09/29 | Ana Fernández de Garayalde<br>Paula Oteiza |

…/…

.../...

| ERAKUNDEAK | | | |
|---|---|---|---|
| **Entitatea** | **Saila(k)** | **Data(k)** | **Elkarrizketatutako pertsonak** |
| SATEVI | – Agintzariko indarkeria-arloaren zuzendaria<br>– SATEVI zerbitzuaren koordinatzailea | 2010/10/04 | Josu Gago Palacios<br>Teresa Olabeaguirre |
| SESTAOKO UDALA | – Berdintasun-teknikaria<br>– Neba Neba elkartea<br>– Gazte Informazio Gunea | 2010/09/21<br>2010/10/05 | Miren López<br>Arantza García Andrés<br>Mº Jose Prieto |
| GIPUZKOAKO JABEKUNTZA ESKOLA | – Gipuzkoako Jabekuntza Eskolen Sareko berdintasun-teknikariak | 2010/10/08 | Edurne Arambarrí (Azpeitia)<br>Iranzu Jauregi (Hernani)<br>Maite Blanco (Arrasate-Mondragón)<br>Ma. José laza y Zaida Fernández (Eibar) |
| KATALUNIAKO GENERALITATEA<br>Barne Saila | – Genero-indarkeriaren aurkako segurtasun-programaren zuzendaria | 2010/09/29 | Alba García |
| DURANGALDEA | – Berrizko, Abadiñoko eta Durangoko udaletako berdintasun-teknikariak | 2010/09/28 | Naiara Garate<br>Maite Blanco<br>Kety Arrabal |
| EUSKO JAURLARITZA<br>Hezkuntza Saila | – Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzako berdintasun-teknikaria | 2010/10/06 | Susana Carramiñana |
| ZUTITU | – Psikologoa | 2010/10/04 | Irene Zubizarreta |
| IRSE | – Psikologoa | 2010/09/23 | Idoia Irastorza |
| BIKO ARLOAK | – Psikologoa, sexologoa eta pedagogoa | 2010/10/05 | Joserra Landaarroitajauregi |
| BERRITZEGUNE NAGUSIA | – Aniztasuna eta generoa aintzat hartzen dituen eskola inklusiboaren arduraduna | 2010/10/15 | Luisa Mª Puertas |

## III: ELKARRIZKETATUTAKO ELKARTEEN ZERRENDA

| EMAKUME-ELKARTEAK | | | |
|---|---|---|---|
| **Entitatea** | **Batzordea(k)** | **DATA(k)** | **Elkarrizketatutako pertsonak** |
| BEA (Bizkaiko Emakume Asanblada) | Erasoen aurkako taldea | 2010/10/7 | Irune Etxeberria<br>Cristina García de Andoain |
| BILGUNE IRUN | | 2010/09/22 | Ainara López<br>Oihana Llorente<br>Miren Lanz |
| ALARDE IRUN | | 2010/09/22 | Merche Tranche<br>Xabier Kerexeta |
| AMUVI (Asociación de mujeres violadas) | Lehendakaria | 2010/09/23 | Pilar Sepúlveda |
| MEDEAK | Elkarteko kidea | 2010/09/16 | Josebe Iturrioz |
| SECRETARIADO GITANO FUNDAZIOA | – Lan-orientatzailea<br>– «Acceder» programaren koordinatzailea (Gasteiz) | 2010/09/10 | Olga Borja<br>Nuria de la Cruz |
| BORTXAKETAREN AURKAKO KOLEKTIBO FEMINISTA | Bortxaketaren aurkako kolektibo feministaren lehendakaria | - | Piet Emmanuelle |
| CAVAS (Centro de asistencia a víctimas de agresiones sexuales) | Lehendakaria | Galdera-sorta bidez | Florentina Alarcón |
| ANDREA | | 2010/09/27 | Teresa Sáez |
| GARAIPEN, BILGUNE FEMINISTA eta AMALATZ | Kolektibo horietako zenbait kide | 2010/10/04 | Beatriz Santamaría<br>Fani Herrador<br>Mª Carmen Santos<br>Nati Rufo de Amalatz<br>Txelo Mur<br>Karmele Fernández |
| LANBROA | | 2010/10/27 | Maite Canal<br>Elda Uribelarrea |
| ARGITAN | | 2010/09/27 | Karmele Ozaita |
| ARABAKO EMAKUMEEN ASANBLADA | | 2010/10/29 | Maite Carballo |

# IV. PRAKTIKA ONEN BANKUA: FITXAK

28 Praktika On aurkeztuko ditugu, sexu-indarkeriari dagokion arretaren, prebentzioaren, ikerketaren edo/eta sentsibilizazioaren alorrean gauzatu diren ekimenen artean hautatuak.

Sexu-erasoen gaiari, berariaz, ez zaio garrantzi handirik eman, ez alderdi teorikoetan, ez esku-hartzeetan, ezta berrikuntza edo/eta metodo bikainak aplikatzea helburu duten esperientzia sistematizatu eta dokumentatuetan ere. Hala eta guztiz, bilaketa informatikoak eta lantaldearen gaitasun linguistikoak jarritako mugak kontuan hartuta ere, aurkeztuko ditugun Praktika Onak baliagarriak izango direlakoan gaude.

Estatuan eta nazioartean ikerlanari dagokion esparruan gauzatutako esperientziak aukeratu ditugu. Arretaren, prebentzioaren edo/eta sentsibilizazioaren alorreko esperientziak dira, ikerketaren alorrean adibide gutxiago aurkitu baititugu.

Hautaketa egiteko, irizpide hauek erabili ditugu:

— Arreta- edo/eta prebentzio-sistemak hobetzea dakarten Praktika Onak.

— Esperientzia berritzaileak, ohikoak ez diren gaiei edo jardunbideei heltzen dietenak.

— Berariazko populazio-sektoreak helburu dituzten jarduerak.

## Praktika onak estatuan

1. fitxa: Sexu-erasoei arreta osoa emateko eta ikerketan jarduteko eredua, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

2. fitxa: Sexu-erasoen biktimei laguntza-erantzuna emateko eredua.

3. fitxa: Sexu-erasoetan espezializatutako arreta- eta prebentzio-eredua.

4. fitxa: Sexu-erasoen aurrean Basurtuko Ospitalearen osasun-esparruan jarduteko protokoloa (Bilbo).

5. fitxa: Erakunde arteko koordinazio-protokoloa Bilbon (Osakidetzaren eta Udalaren artean).

6. fitxa: Sexu- eta erreprodukzio-osasunaren alorrean gazteei arreta emateko programa.

7. fitxa: Sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-kanpainak.

8. fitxa: Sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-kanpainak herriko festetan.

9. fitxa: Internet bidezko sentsibilizazioa.

10. fitxa: Autodefentsa feministarako tailerrak.

11. fitxa: Hirigintza-azterketako mapak egiteko gidaliburu metodologikoa, genero-ikuspegia eta herritarren eguneroko bizitza aintzat hartuta.

12. fitxa: Beldur barik kanpaina.

13. fitxa: Polizia-jarduerak kudeatzeko prozesua sexu-askatasunaren kontrako delituetan.

14. fitxa: Jarduteko protokoloa, arreta integrala eta sentsibilizazio-ekintzak sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren arloan EAEn.

15. fitxa: Genero-indarkeriaren biktimentzako telefono bidezko 24 orduko arreta zerbitzua, arreta berezia sexu-erasoen biktimentzat dela.

## Praktika onak nazioartean

16. fitxa: Sexu-erasoen aurkako kanpaina: Join RAINN's 24/7 Campaign.

17. fitxa: Bortxaketen edo sexu-erasoen biktimei laguntzeko telefonoa.

18. fitxa: Sexual Assault Referral Centres (SARC).

19. fitxa: Sexu-erasoen alorreko auzitegiko praktika klinikoaren gidaliburua.

20. fitxa: Banaka edo talde txikitan erabiltzeko garraio-alternatibak emakumeentzat: Pink Ladies (London), Pink Taxi (Puebla), Línea rosa (Bartzelona).

21. fitxa: Erakunde arteko programa: «Bidaia dezagun segurantzaz garraio publikoan».

22. fitxa: «Lagunartean» proiektua. Sexu- eta erreprodukzio-osasunaren eremuan eta indarkeriaren alorreko gaietan sustatzaile nerabeen prestakuntzarako gidaliburua.

23. fitxa: Etorkizun oparoko praktikak unibertsitate-campusetan sexu-erasoak prebenitzeko, eta unibertsitate-esparruan sexu-indarkeria gainditzeko neurriak.

24. fitxa: Handbook of International Centers for Survivors of Sexual Assault and Harassment (nazioarteko zentroen gidaliburua sexu-erasoetatik eta sexu-jazarpenetatik bizirik atera direnentzat).

25. fitxa: Eskualde-kanpaina: «Emakumeak hirian barrena».

26. fitxa: Seigarren zentzumena, telesail feminista.

27. fitxa: Child & Woman Abuse Studies Unit (CWASU), emakumeen eta haurren aurkako abusuen azterketa-unitatea.

28. fitxa: «Bi geltoki artea».

# 1. FITXA: SEXU ERASOEI ARRETA OSOA EMATEKO ETA IKERKETAN JARDUTEKO EREDUA, GENERO IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoei arreta osoa emateko eta ikerketan jarduteko eredua, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | AMUVI (Asociación de mujeres violadas de Andalucía).<br>Andaluziako emakume bortxatuen elkartea. | |
| **Harremanetarako datuak** | (amuvi@amuvi.org)<br>Alberto Durero 1, 2. lokala<br>41018 Sevilla<br>Telefonoa: 95 453 12 61 | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Elkarteak bultzatu du hainbat jarduera gauzatzea, zenbait erakunde, kolektibo eta abarrekin lankidetzan, eta jarduera horietan parte hartzea sustatu du. Ekimena baliabide eraginkorra izan da helburuak lortzeko eta herritar guztien partehartze aktiboa bultzatzeko.<br>Sexu-erasoen biktimei laguntzeko elkarteen federazioa (http://www.violacion.org/)<br>Europako emakumeen lobbyari laguntzeko Andaluziako plataforma (http://www.mujereslobby.org/)<br>Emakume-elkarteen María Laffitte federazioa. Sevillako gizarte-boluntarioen plataforma (http://www.voluntariadosevilla.es/)<br>Beste batzuk: (http://www.amuvi.org/pages/enlaces) | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta, prebentzioa, sentsibilizazioa** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Eredu horrek arreta osoa ematen die sexu-erasoen biktimei, elkarteak abiapuntutzat hartuta. Epe laburrean, bigarren biktimizazioa arintzen du, eta epe luzean jarrerak aldatzen ditu, eraso berriak saihesteko. |

| | |
|---|---|
| **2. Helburuak** | 1. Tratu txarrak edo sexu-abusuak pairatu dituzten emakumeek edo adingabeek bizi duten egoera latza arintzea, horrelako erasoak pairatzen dituztenei erakundeek emandako arreta eskasaz, tratu hotzaz eta koordinazio faltaz ohartuta. |
| | 2. Sexu-erasoen aurrean berariazko programak gauzatzea, genero-ikuspegia aintzat hartuta. |
| | 3. Sexu-erasoei hobeto heltzea, bost ildo estrategiko hauek garatuz: arreta eta esku-hartzea; prebentzioa, sentsibilizazioa eta jendarteratzea; ikerketak eta azterlanak; prestakuntza; eta aholkularitza teknikoa. |
| **3. Xedea** | Egoera zaurgarrian dauden pertsonek edo kolektiboek pairatzen duten indarkeriaren eta diskriminazioaren aurka borrokatzea, eta programak gauzatzea biktimei eta arrisku-taldeei arreta osoa emateko, gizartea sentsibilizatzeko, prestakuntza emateko, eta biktimizazioa prebenitzeko. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Sexu- edo genero-indarkeriaren biktimak, tratu txarrak bizi izan dituzten adingabeak (zuzenean edo zeharka, amek pairatutako indarkeriaren bitartez), gutxitasunen bat duten pertsonak, zaharrak, etorkinak, aukera sexual desberdinak egin dituzten pertsonak, eta egoera zaurgarrian egoteagatik diskriminazioa eta indarkeria pairatzeko arriskuan dauden pertsona oro. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Comunidad Autónoma de Andalucía. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Arreta emateko eta esku hartzeko programak:<br>1.1. Andaluzian sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei laguntza juridikoa eta psikologikoa emateko zerbitzua.<br>Sexu-indarkeriaren biktimei arreta *zuzena*, *doakoa* eta *espezializatua* emateko zerbitzua. Programaren helburu nagusia da Andaluziako edozein probintziatan sexu-abusuen edo erasoen biktima izan diren emakume guztiei laguntza juridikoa eta psikologikoa ematea.<br>1.2. Sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakume etorkinei laguntza osoa emateko zerbitzua.Arreta osoa emateko zerbitzu horrek aholkularitza, laguntza, eta informazio psikologikoa, soziala eta juridikoa eskaintzen die Andaluziako Autonomia Erkidegoan sexu-erasoak pairatu dituzten emakume etorkinei. Aldi berean, beste helburu batzuk ditu: gizarte-ongizateko eta erakunde arteko lankidetzako ekintzak sustatzea eta haietan parte hartzea, eta horrelako indarkeriaren larritasunaz kontzientzia sortzea eta iritzi publikoa sentsibilizatzea.<br>1.3. Andaluzian sexu-jazarpenaren biktima izan diren emakumeei laguntza psikologikoa eta aditu-txostenak emateko zerbitzua.<br>Zerbitzu horrek doako informazioa eta aholkularitza juridikoa eskaintzen dizkie lan-diskriminazioa pairatu duten emakumeei; eta, emakumeen lan-eskubideen defentsarako behar diren epaiketa-prozesuaren jardunbide guztietan parte hartzen du.<br>1.4. Sevillako SAVA (Servicio de Asistencia a la Víctima en Andalucía).<br>Andaluzian biktimei arreta emateko zerbitzua —SAVA— doako zerbitzu publikoa da, delituen biktimek pairatzen dituzten arazoei oso-osoko erantzuna ematea helburu duena. Delituaren ondorengo une bakoitzean, biktimen esku jartzen ditu zenbait baliabide (harrera, aholkularitza, orientazioa eta lagun egitea), biktimen beharrak asetzeko eta haien eskubideei babes juridikoa emateko. |

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Biktimei laguntzeko espezializatutako profesionalen diziplinarteko taldeen bidez ematen dituzte zerbitzu horiek, biktimei esparru juridikoan, psikologikoan eta sozialean laguntzeko. Bulegoak dituzte Andaluziako probintzia-hiriburu guztietan eta Algecirasen.<br>2. Ikerketak eta azterlanak<br>— Urteko buletina: sexu-indarkeriari buruzko txosten estatistikoa.<br>— Gutxitasunen bat duten emakumeak eta sexu-indarkeria: profesionalentzako gidaliburua. (www.juntadeandalucia.es/…Discapacidad/…/Violencia_Sexual/Violencia_sexual.pdf)<br>— «Sexu-indarkeria. Gertu dugun arazoa, lor dezakegun konponbidea» (http://www.librosdepsicologia.com/02ob/libviolensexmujeres.zip)<br>— Adingabeen aurkako sexu-abusuak. (www.fmmeducacion.com.ar/…/abuso-sexual.htm)<br>— Sexu-indarkeriaren biktimak: AMUVIn lagundutako kasuen epai-erabakien azterketa, Andaluzian lagundutako sexu-indarkeriaren biktimen kasuistika. |

# 2. FITXA: SEXU ERASOEN BIKTIMEI LAGUNTZA ERANTZUNA EMATEKO EREDUA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoen biktimei laguntza-erantzuna emateko eredua.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | CAVAS (Centro de Asistencia a Víctimas de Agresiones Sexuales).<br>Sexu-erasoen biktimei laguntzeko zentroa. | |
| **Harremanetarako datuak** | (www.violacion.org)<br>Alcalá 124, 1.a A<br>28009 Madril<br>Telefonoak: 91 574 01 10 eta 91 574 32 64<br>Faxa: 91 573 27 08<br>(cavasmadrid@yahoo.es) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Bortxatutako emakumeei laguntzeko elkarteen federazioaren (FAMUVI, Federación de Asociaciones de Asistencia a Mujeres Violadas) fundatzaileetako bat da CAVAS.<br>10 elkartek osatzen dute FAMUVI, eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko zentroak dituzte Espainiako hainbat autonomia-erkidegotan. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta, prebentzioa, sentsibilizazioa** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Sexu-erasoen biktimei laguntzeko zentroak oso-osoan esku hartzeko eredua eskaintzen du, hainbat esparrutan sexu-erasoei erantzuteko, zerbitzu hauen bidez: arreta zuzena emakumeei edo/eta haurrei, prestakuntza teknikoa, sentsibilizazioa eta prebentzioa.<br>Sexu-indarkeriaren alorreko profesional adituen lantaldea du, arazoari eremu anitzetatik heltzeko, alderdi psikologikoak, juridikoak eta sozialak aintzat hartuta. Hartara bermatzen du sexu-erasoen biktimei laguntza osoa emateko eredua. |

| | |
|---|---|
| **2. Helburuak** | 1. Sexu-eraso baten ostean, biktimari laguntza, babesa eta lagun egitea eskaintzea. |
| | 2. Sistemaren hutsuneak salatzea eta herri-agintariei aholkua eta prestakuntza ematea. |
| | 3. Sentsibilizatzea eta sexu-erasoak prebenitzea, hainbat esparru jorratuz. |
| | 4. Prestakuntza teknikoa ematea, sexu-erasoetan esku hartzen duten eragileen espezializazioa helburu hartuta. |
| | 5. Esku-hartzeetarako protokoloak egitea, hainbat esparru aintzat hartuta, biktimei laguntza hobea emateko. |
| **3. Xedea** | Sexu-indarkeriaren alderdi eta adierazpen guztien aurka egitea, prestakuntzaren, prebentzioaren, sentsibilizazioaren eta arreta espezializatuaren bitartez. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Sexu-erasoak pairatutako emakumeak (bai bertakoak, bai atzerrikoak) eta sexu-indarkeriaren biktima diren haurrak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | CAVASek Madrilen dihardu, FAMUVIko gainerako elkarteek Gijonen, Bartzelonan, Santanderren, Leonen, Salamancan, Valladoliden, Albaceten, Sevillan eta Valentzian. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Esku hartzeko eta sexu-indarkeriaren biktimei (emakumeei, gazteei, adingabeei) laguntza zuzena emateko programa.<br>Programa horren muina da berariazko ekintzak gauzatzea doan, sexu-erasoei hiru eremutan aurre egiteko:<br>1.1. Aholkularitza juridikoa:<br>• Akusazio partikular gisa jardutea.<br>• Frogak proposatzea.<br>• Epaiketara joaten laguntzea.<br>• Helegiteak.<br>• Prokuradoreak.<br>• Abokatu penalistak, sexu-indarkerian adituak.<br>1.2. Banakako eta familiako terapia:<br>• Ebaluazio psikologikoa.<br>• Aditu-txosten judizialak.<br>• Txosten psikologikoak.<br>• Epaiketa-prozedura guztian sexu-indarkerian adituak diren psikologoen laguntza.<br>1.3. Laguntza psikologikoa:<br>• Banakako esku-hartze psikologikoak, biktima oneratu arte (sei hilabetetik hiru urtera bitarteko iraupena izan dezaken esku-hartzea).<br>• Biktimen familientzako edo bikotekidearentzako laguntza psikologikoa, biktimen oneratzean eragiteko giltzarrizko elementu gisa.<br>2. Prestakuntza-programa, sexu-erasoen ondorengo laguntza-ibilbideetan esku hartzen duten profesionalentzat: segurtasun-indarrentzat, auzitegiko medikuentzat, larrialdietako medikuentzat, ginekologoentzat, eta gizarte- langileentzat.<br>3. Sentsibilizazio-hitzaldiak generoaren auzian eta, batez ere, sexu-indarkerian interesa duten kolektiboentzat. |

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 4. Sexu-erasoei buruzko agerkariak eta prebentzio-materialak argitaratzea. Argitalpen horien helburua da sexu-indarkeriari buruz ikertzea, erasoak prebenitzea eta gizartea sentsibilizatzea.<br>«Zure gorputzaren jabe zara» (http://www.observatorioviolencia.org)<br>5. Sexu-erasoen aurrean jarduteko berariazko protokoloak: polizia nazionalek, auzitegiko medikuek eta ospitaletako langileek jarraitu beharreko prozedurak. |

# 3. FITXA: SEXU ERASOETAN ESPEZIALIZATUTAKO ARRETA ETA PREBENTZIO EREDUA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoetan espezializatutako arreta- eta prebentzio-eredua.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Kataluniako Generalitatea. | |
| **Harremanetarako datuak** | (www.gencat.cat)<br>Herrizaingo, Erakunde-harreman eta Partaidetza Saila. Indarkeria matxistaren aurkako segurtasun-programa.<br>Harremanetarako helbidea: cguiu@gencat.cat<br>Pg. de Sant Joan, 43<br>08009 Bartzelona<br>93 551 20 03<br>675 785 723 | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Kataluniako Gobernuak indarkeria matxistaren aurkako borrokan dihardu zeharka, zenbait sail tartean direlarik: Gizarte Ekintza eta Herritartasuna (batez ere Emakumeen Kataluniako Erakundea), Osasuna, Justizia Administrazioa, eta Hezkuntza. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta eta prebentzioa,** polizia-jardueraren bidez. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Kataluniako Generalitateak, zenbait sailen bidez, emakumeek pairatzen dituzten indarkerien prebentzioa eta segurtasuna ditu helburu.<br>Horrenbestez, tratu txarrei eta sexu-erasoei arreta emateko bi prozedura ezberdin jarri ditu: bakoitzak bere ibilbideak ditu, eta protokolo bereziak daude, egoera bakoitzari modu zehatz batean heltzeko.<br>Halaber, indarkeriaren prebentziorako argitaratutako materialek eta programek sexu-erasoei buruzko berariazko atala dute.<br>Datu-bilketak eta inkestak baliagarriak dira sexu-erasoei buruzko ikuspegi kuantitatiboa eta kualitatiboa osatzeko, eta konparaziozko analisiek arazoaren bilakaeraren berri ematen dute. |

| | |
|---|---|
| **2. Helburuak** | 1. Esku hartzeko berariazko eredua egokitzea, sexu-erasoei hiru ardatz hauen bidez aurre egiteko: prestakuntza, ikerketa eta arreta. |
| | 2. Biktima izandako emakumeei buruzko datuak biltzea, inkestez baliatuta. |
| | 3. Sexu-indarkeriaren prebentziorako funtzioak eta ildo estrategikoak garatzea. |
| **3. Xedea** | Herrizaingo, Erakunde-harreman eta Partaidetza Sailak indarkeria matxistaren aurka antolatu duen segurtasun-programaren xedea da segurtasun-jarduera estrategikoak sortzea, arreta eta babesa emateko garaian esku-hartze hobea bermatzeko. Ildo estrategikoa da segurtasunezko politika publikoen esparruan; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriak larriki urratzen ditu oinarrizko Giza Eskubideak, eta, horrenbestez, baita herritarren eskubideak ere. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | — Indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeak.<br>— Gazteak.<br>— Herritarrak, oro har. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Katalunia. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Arreta emateko eta esku hartzeko programa.<br>Sistema poliziala ardatz hartuta egituratutako programa da. Mossos d´ Escuadra daude, batez ere, programaren gunean, ia konpetentzia guztiak haien eskuetan baitaude. Ekintzaren heterogeneotasunagatik, beharrezkotzat jo zuten sistema poliziala estandarizatzea, arretarako eredu bateratua diseinatzea, eta lurralde guztian bete beharreko bermeak ezartzea. Hori guztia gauzatu da, prozedura hauek elkarrekin sortuz:<br>• *Etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren prozedura* eguneratzea, bi lege organikoek ulertzen dutenaren arabera.<br>• *Emakumeen genitalen ebaketei arreta emateko eta horrelako ekintzak prebenitzeko* prozedura aitzindaria.<br>• *Sexu-erasoei arreta emateko prozedura:* protokolo batek behartzen ditu polizia-agente guztiak modu jakin batean lan egitera; polizia-agenteen berariazko prestakuntza bermatzen du eta lan-sistema bat sortzen du. Prozedura horrek egiten duena da bi lan-ildo horiek (ikerketa eta arreta) bateratzea, salaketak jartzen dituzten emakumeen bigarren biktimizazioa saihesteko.<br>2. Emakumeen genitalen ebaketei polizia-arreta ematea, eta horrelako ekintzen prebentzioa.<br>Indarkeria matxistaren aurkako segurtasun-programak ekintza estrategikoak norabidetzen, proposatzen, sustatzen, zuzentzen eta gauzatzen ditu, bai sailaren esparruan, bai sailen arteko lankidetzan. Jarduera horien ardatza da, praktika onen identifikaziotik abiatu eta esku hartzeko eredu estandarizatu bakar bat lortzea, Kataluniako edozein lurraldetan indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei eta neskatoei arreta eta babesa emateko. Esparru horretan kokatzen da emakumeen genitalen ebaketei polizia-arreta emateko eta horrelako ekintzak prebenitzeko protokoloa.<br>3. Indarkeria matxistari buruzko inkesta Katalunian.<br>(http://www10.gencat.cat/gencat/binaris/20101210_violencia_tcm33-135494.pdf)<br>2010eko martxoaren 18tik ekainaren 24ra indarkeria matxistari buruzko lehen inkesta egin zuen Sailak (EVMC, Encuesta de violencia machista en Catalunya). Katalunian bizi ziren hamalau bat mila emakumeri galderak egin zizkieten haien pertzepzioei eta esperientzia pertsonalei buruz, emakumeen aurkako indarkeria hizpide hartuta. Horren osagarri, mila eta bostehun bat gizonek osatutako lagina elkarrizketatu zuten, gizonen eta emakumeen pertzepzioak alderatzeko, indarkeria matxistaren auzian. Ikerlanak sexu-indarkeriari buruzko berariazko atal garrantzitsua dauka. |

<table>
<tr>
<td>Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak</td>
<td>
Esperientzia horretan lankidetzan dihardute, halaber, Bartzelonako Udalak eta Emakumeen Kataluniako Erakundeak. Helburua da salatu gabeko biktimizazioen berri izatea eta emakumeen pertzepzio subjektiboa ezagutzea, horrenbestez ondorioztatzeko indarkeria matxistaren biktimen kopurua zein den, denbora jakin batean, salaketa jarri duten edo ez kontuan hartu gabe; hartara, arazoaren benetako garrantziaren berri emango duten adierazleak lortuko dira.
4. Gazteen artean indarkeria matxista prebenitzeko komikiak.
Herrizaingo Sailak 30.000 komiki kaleratu ditu, gazteen artean indarkeria matxista prebenitzea helburu hartuta. Indarkeria matxistaren aurkako segurtasun-programak Eva Garcés marrazkilariak egindako komikia argitaratu du, ikastetxeetara prebentzio-mezua helarazteko, poliziaren (Mossos d'Esquadra) bitartez, gazteek ikas dezaten emakumeen aurkako abusuak, kontrola eta manipulazioa detektatzen.
Bestalde, gidaliburu didaktiko bat ere prestatu dute, irakasleei jarraibideak emateko, indarkeria matxistaren gaia tutoretza-orduetan edo beste jardueretan jorra dezaten.
Komikiak indarkeria matxistaren bost motak azaltzen ditu: bikote barruko indarkeria, emakumeen genitalen ebaketa, ezkontza behartuak, familia barruko indarkeria eta sexu-erasoak. Azpimarratzekoa da gazteria arrisku-taldea dela, eta ezaugarri hori aintzat hartuta jardun behar dela; gainera, prebentzio-politikez gain, bestelako jarduerak ere gauzatuko dira. Indarkeria matxistaren aurkako segurtasun-programaren lantaldeak idatzi du komikiaren gidoia, hedapen-lanaz arduratzen den taldearen bitartez. Talde horretan parte hartzen dute Generalitateko polizia-agenteek (Mossos d'Esquadra), indarkeria matxistaren aurkako segurtasun-programako kideek, eta Herrizaingo, Erakunde-harreman eta Partaidetza Saileko beste profesional batzuek. Istorio bakoitzaren amaieran atal garrantzitsu bat ageri da: «Importante!». Atal horretan gazteei jakinarazten zaizkie pertsonen eskubideak edo/eta erasoen edo abusuen aurrean hartu beharreko babes-neurriak.
Material horiek, hitzaldiak, baita indarkeria matxistaren aurkako segurtasun-programaren jarduera guztiak ere, Emakumeen Kataluniako Erakundeak indarkeria matxistaren aurkako esku-hartze koordinatua bideratzeko prestatutako esparru-protokoloaren barne daude. Beste prebentzio-jarduera batzuk ere egiten dituzte, esate baterako komikian ageri diren pertsonaiek aipatutako kanpaina: «Corte con los malos rollos».
</td>
</tr>
</table>

# 4. FITXA: SEXU ERASOEN AURREAN BASURTUKO OSPITALEAREN OSASUN ESPARRUAN JARDUTEKO PROTOKOLOA (BILBO)

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoen aurrean Basurtuko Ospitalearen osasun-esparruan jarduteko protokoloa (Bilbo).

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | BASURTUKO OSPITALEA | |
| **Harremanetarako datuak** | Webgunea: (http://www.hospitalbasurto.com)<br>Montevideo etorbidea 18<br>48013 Bilbo<br>Telefonoa: 94 400 60 00<br>Faxa: 94 400 62 84 | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Basurtuko Ospitaleko ginekologia-zerbitzua<br>Mikrobiologia zerbitzua<br>Basurtuko Ospitaleko infekzio-gaixotasunen zerbitzua<br>Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Basurtuko Ospitaleko zenbait zerbitzuen artean jarduera-protokolo bat adostu dute, sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta emateko osasun-arloko esku-hartzeak jasotzen dituena. Protokolo horrek bideratzen du jarduera orokor eta espezifiko batzuk bateratzea, zenbait suposizioren arabera, sexu-erasoak pairatu ostean hainbat bidetatik ospitalera iristen diren emakumeen beharrak eta egoerak aintzat hartuta. |

| | |
|---|---|
| **2. Helburuak** | 1. Sexu-erasoak eta sexu-abusuak kontzeptuak definitzea, osasun-esparruko jardue-ra-eremuan. |
| | 2. Sexu-erasoen eta sexu-abusuen kasuetan esku-hartzearen eraginkortasuna eta ka-litatea hobetzea. |
| | 3. Sexu-erasoen edo/eta sexu-abusuen aurrean jarduteko irizpide orokorrak ezartzea. |
| | 4. Esku hartzeko berariazko irizpideak ezartzea, faseen arabera: harrera, tratamen-dua eta jarraipena. |
| **3. Xedea** | Bigarren biktimizazioa minimizatzea; hau da, ahalik eta inpaktu psikiko gutxien paira-tu ditzala emakumeak erasoaren ostean, osasun-laguntza jasotzen duen bitartean. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Sexu-erasoak edo/eta sexu-abusuak pairatu ostean Basurtuko Ospitalera iristen diren biktimak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Bilbo. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Inplikatutako zerbitzuek idatzitako eta adostutako dokumentua, alderdi hauek jaso-tzen dituena:<br>1. Sexu-erasoen eta sexu-abusuen kontzeptuak mugatzea.<br>2. Emakumeak ospitale-eremura iristeko bide desberdinak.<br>3. Anamnesia eta azterketa klinikoa egiteko jarraibideak; sexu bidez kutsatzen di-ren eritasunak baztertzeko laginak hartzea; lege aldetik interesa duten laginak hartzea; analitikak eskatzea; lesio fisikoak eta psikikoak tratatzea, eta sexu-bidez kutsatzen diren eritasunentzako prebentzio-tratamendua ematea; koito ondorengo kontrazepzioa eta kasuaren jarraipena.<br>4. Esku hartzeko jarraibideak, arreta ematen duten profesionalek aurkituko dituzten egoerei egokituak.<br>5. Interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuak (Auzitegiko Medikuntzako Klinika eta Guardiako Epaitegia) aurkitzea eta harremanetan jartzea. |

# 5. FITXA: ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIO-PROTOKOLOA BILBON (OSAKIDETZAREN ETA UDALAREN ARTEAN)

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Erakunde arteko koordinazio-protokoloa Bilbon (Osakidetzaren eta Udalaren artean).

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Osakidetza, Bilboko Udala. | |
| **Harremanetarako datuak** | Bilboko Udalaren Berdintasun Saila.<br>(www.bilbao.net) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Osasun-esparrua (Bilboko eskualdea, Basurtuko Ospitalea, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea, Osasun eta Kontsumo Saileko Lurralde Ordezkaritza).<br>Bilboko Udala. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta eta prebentzioa** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Bilboko osasun-esparruko langileen eta genero-indarkerian esku hartzeko Bilboko Udalaren diziplinarteko taldearen arteko koordinazioa. |
| **2. Helburuak** | 1. Gizarte-arreta goiztiarra ematea osasun-zerbitzuetan identifikatutako eta salatu gabeko genero-indarkeria egoeran edo arazo larrietan dauden emakumeei, lesio fisikoak edo psikikoak pairatzeko arriskua murrizteko. |
| | 2. Osasun-esparruaren eta Udalaren artean koordinazio-jarraibideak ezartzea, Bilboko genero-indarkeriaren biktimen balioespena, bideratzea eta jarraipena egiteko, batez ere urgentziazko arreta behar izanez gero. |
| **3. Xedea** | Bigarren biktimizazioa minimizatzea, genero-indarkeriaren biktimekin esku hartzen duten esparruen arteko koordinazioaren bitartez. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Basurtuko Ospitalera iristen diren genero-indarkeria edo/eta sexu-erasoaen biktimak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Bilbo. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Inplikatutako zerbitzuek idatzitako eta adostutako dokumentua, kasu hauetan aplikatzeko prozedurak jasotzen dituena:<br>— Emakumeak sexu-erasoa salatu du.<br>— Emakumeak ez du sexu-erasoa salatu, eta gizarte-laguntza behar du.<br>— Emakumeak ez du sexu-erasoa salatu eta ez du gizarte-laguntzarik behar. |

# 6. FITXA: SEXU ETA ERREPRODUKZIO OSASUNAREN ALORREAN GAZTEEI ARRETA EMATEKO PROGRAMA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu- eta erreprodukzio-osasunaren alorrean gazteei arreta emateko programa.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Familia Plangintzarako Federazioa. | |
| **Harremanetarako datuak** | http://fpfe.org<br>Línea Sex-Joven telefonoa (608 10 23 13) Telefono bidezko arreta asteburutan. Larunbatetan eta igandetan 10:00etatik 22:00etara. | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Gobernuz kanpoko erakundeak, autonomia-erkidego jakin batean/batzuetan dihardutenak:<br>— Galizian: AGASEX. Asociación para a saúde sexual (http://www.agasex.org/)<br>— Gaztelan eta Leonen: APFCyL. Asociación de Planificación familiar de Castilla y León.<br>— Euskadin: Atseginez. (http://www.goxoki.com/)<br>— Katalunian eta Balearretan: Centre Jove d'anticoncepció y Sexualitat (http://www.centrejove.org)<br>— Madrilen: Centro Joven de Anticoncepción y Sexualidad (http://www.centrojoven.org)<br>— Gaztela-Mantxan: Centro Joven de Anticoncepción y Sexualidad Albacete (http://www.asexorate.org/)<br>— Extremaduran: AEPFyS. Asociación Extremeña de Planificación Familiar y Sexualidad.<br>— Andaluzian: Asociación Andaluza de Planificación familiar. Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Prebentzioa eta sentsibilizazioa** sexu- eta erreprodukzio-osasunaren, sexu-hezkuntzaren eta sexuari buruzko informazioaren alorrean. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Sexu-osasunaren alorrean gazteei arreta emateko programa 1990ean sortu zen, neska-mutilen sexu-osasuna hobetzea helburu hartuta. Gazteen ezaugarri bereziak kontuan hartzen ditu, programa eraginkorren bitartez neska-mutilen sexu-osasunean aktiboki esku hartzeko, sexualitatearen bizipen positiboa eta arriskurik gabea izan dezaten. |
| **2. Helburuak** | Gazteei garrantzizko informazioa eta sexu-hezkuntza zehatza ematea, neska-mutilen berariazko ezaugarriak oinarri hartuta. |
| **3. Xedea** | Orientazio-zerbitzu egokiak izatea, gazteen berezitasunen eta berariazko premien araberakoak; halaber, neska-mutilen anonimotasuna bermatzea, eta osasun-zerbitzu publikoetara joateko premiarik ez dezatela izan. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Gazteak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Estatuan, zentro bakoitzaren eremu geografikoa autonomia-erkidego jakin bat/batzuk izanik. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Gazte Informazio Guneak.<br>Informazio-zerbitzua lortzeko bitartekoak:<br>— *Internet*. Zentroen webguneek kontsultak egiteko aukera ematen diete gazteei, eta erantzun pertsonalizatua eta konfidentziala e-mail bidez helarazten zaie, ahalik eta azkarren.<br>— *Telefonoa*. Zentro bakoitzaren ordutegian, profesionalek berehala erantzuten die gazteen kontsultei.<br>— *Gazte Guneak bisitatzea*. Neska-mutilek Gazte Guneak bisitatzeko aukera dute (bakarrik edo norbaiten laguntzaz) aurrez aurreko arreta jasotzeko.<br>2. Sex-Joven telefonoa (608 10 23 13).<br>Sex-Joven telefonoa da sexuaren alorreko informazioa eta aholkularitza emateko baliabidea, asteburutan soilik funtzionatzen duena. 1997an sortu zen, ikusi baitzuten gazteek zailtasunak zituztela sexualitateaz arduratzen diren zerbitzuetara iristeko, osasun-zerbitzuak hain eskura ez dauden garaian. Sex-Joven telefonoaren helburua da asteburutan baliabide bat eskaintzea, sexualitateari buruzko edozein zalantza argitzeko. Gainera, kontsultak egiteko eta argitzeko bide zuzena eta erraza da telefonoa, batez ere anonimotasuna nahiago duten nerabeen eta gazteen kasuetan.<br>3. Sex-Joven gida.<br>Sexualitatearen eta kontrazepzioaren alorreko baliabideen gida gazteentzat: (http://www.fpfe.org/guiasexjoven/default.html)<br>4. Sexu-hezkuntzari buruzko hezkuntza-jarduerak.<br>Gazteentzako jarduera horien helburua da sexualitatearen balio positiboak sustatzea eta sexu-osasuna bultzatzea, zentzu zabalean hartuta.<br>5. Sexuaren eta erreprodukzioaren alorreko eskubideen kanpainarako bideoa.<br>Bideoak eskubide bakoitza azaltzen du, sexu eta adin desberdinetako pertsonen arteko elkarrizketen bidez, eta hainbat gai lantzen ditu: berdintasuna, sexu-erasoei eta sexu-indarkeriari buruzko informazioa, autonomia izateko eta erabakitzeko gaitasuna, eta rol maskulino sexistak zalantzan jartzea: (http://vimeo.com/17630636) |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Gazteek sexu- eta erreprodukzio-osasunaren alorrean dituzten berariazko premiei erantzuteko prebentzio-jarduerek dakarten informazioa eta sexu-hezkuntza baliagarriak dira gazteen jabekuntza sustatzeko, ezagutzaren eta sexu-informazioa erraz eskuratzearen bitartez. Gazteen sexu-osasuna sustatzeak dakar arriskutsuak diren sexu-portaerak edo/eta sexu-erasoak prebenitzea eta detektatzea.

Nerabeen premiei erantzuteko, zentruek zerbitzu hauek bermatzen dituzte:

- Sexu-aholkularitza.
- *Sexu-abusuak edo -erasoak izanez gero, detektatzea eta arreta ematea.*
- Kontrazepzioa (bai jarraitua, bai larrialdietakoa).
- Haurdunaldia eteteko nahia adieraziz gero, aholkularitza eta bideratzea.
- Sexu bidez kutsatzen diren infekzioei buruzko eta GIB/HIESari buruzko aholkularitza.
- GIB detektatzeko proba.
- Hezkuntza-jarduerak.
- Nerabeen haurdunaldietan arreta eman, zerbitzu espezializatuekin koordinatuta.

# 7. FITXA: SEXU ERASOEI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-kanpainak.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Elkarteak. | |
| **Harremanetarako datuak** | Bizkaiko Emakume Asanblada: (www.ambbea.org)<br>Arabako Emakumeen Asanblada: (www.feministas.org)<br>Errenteria Bilgune-Amalatz-Garaipen:<br>(http://asociaciongaraipen.blogspot.com/)<br>(http://www.bilgunefeminista.org/)<br>Emakumeen Munduko Martxa: (www.marchamundialdelasmujeres.org) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Errenteria Bilgune-Amalatz-Garaipen.<br>Emakumeen Munduko Martxa. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu-erasoei buruzko **sentsibilizazioa** eta ekintza horien gaitzespena, informazioa, prebentzioa. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-jardueren helburua da herritarren eta erakundeen interesa erakartzea. Horretarako, material deigarriak erabiltzen dira (kartelak, eranskailuak, gidaliburuak, txapak, elastikoak, liburuxkak edo ezpainzapiak) sexu-erasoen aurkako kontsignak hedatzeko, herritar guztiengana irits daitezen. |
| **2. Helburuak** | 1. Emakumeek bizitzaren hainbat esparrutan egunero pairatzen dituzten sexu-erasoen kontzientzia sortzea eta salaketak egitea. |
| | 2. Emakumeek beren burua babesteko eta segurtasuna sendotzeko neurriak hartzea bultzatzea. |
| | 3. Erakundeei eskatzea hirigintza- eta segurtasun-neurriak ezartzea, sexu-erasoen kopurua murrizteko. |
| | 4. Erantzukidetasunari eta berdintasunari buruz sentsibilizatzea, eta azpimarratzea emakumeek diskriminazio anitzak pairatzen dituztela sexu-aukeragatik, jatorri etnikoagatik, gutxitasunen bat izateagatik… |

| | |
|---|---|
| **3. Xedea** | Sexu-erasoak eta sexu-indarkeria gaitzestea, eta emakumeen egunerokoan segurtasuna bilatzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Herritarrak eta erakundeak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Udalerri-mailako kanpainak, batez ere, eta autonomia-erkidego mailakoak ere bai. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Elkarteen ekintzak:<br>1.1. Emakumeen Munduko Martxa.<br>Emakumeen Munduko Martxa mundu-mailako mugimendua da, ekintza feminista ardatz duena. Mugimendu horretan emakume-taldeak daude, emakumeen aurkako indarkeriaren eta pobreziaren kausak desagerrarazteko lanean diharduten erakundeak.<br>2005ean Emakumeen Munduko Gutuna prestatu zuten, emakumeen aurkako indarkeria eta pobrezia desagerrarazteko errebindikazioak adierazteko. Gutun horretan jarduera-protokolo bat ageri da, autonomia-erkidego mailan jarduteko: sexu-eraso baten ostean, elkarte feministek kale-agerraldi batera deituko dute udalerri bakoitzean, gertaeraren ondorengo 48 orduetan, ekintza hori gaitzesteko eta emakumeen aurkako indarkeria agerian jartzeko.<br>1.2. Bizkaiko Emakume Asanblada. Kanpainetan erabilitako kontsigna batzuk: «Ez da ezetz», «Bortxaketaren kontra, irentzea», «Erasorik ez erantzunik gabe», «Erasoaren aurrean, antolaketa», «Ez erasorik, ez babesik, gu bakarrik, beldur barik», «36 neurriko arropak leherrarazten gaitu».<br><br> |

<table>
<tr>
<td>Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak</td>
<td>
1.3. Errenteria Bilgune-Amalatz-Garaipen. Sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-kanpainak egiten dituzte. Kanpaina batzuk: «Erasoen aurrean, emakume, esan ezetz», «Erasoak erantzuna dakar beti».<br>
<br>
1.4. Arabako Emakumeen Asanblada: Mutil gazteak kontzientziatzeko kanpaina, gaueko festa-giroan neskekiko hartu-emanetan dituzten jokabideez ohar daitezen.<br>
Eranskailuak, gaueko jai-giroa helburu hartuta: «Jazarpena ez da neskatan egitea».
</td>
</tr>
</table>

# 8. FITXA: SEXU ERASOEI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK HERRIKO FESTETAN

| | | |
|---|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza | |
| | ☒ Berrikuntza | |
| | ☒ Berariazko sektoreak | |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-kanpainak herriko festetan.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Udalak, elkarteak eta erakunde autonomikoak. Aholkularitza. | |
| **Harremanetarako datuak** | Donostiako udala: (www.donostia.org)<br>Bilboko udala: (www.bilbao.net)<br>Getxoko udala: (www.getxo.net)<br>Barakaldoko udala: (www.barakaldo.org)<br>Galdakaoko udala: (www.galdakao.net)<br>Ordiziako udala: (www.ordiziakoudala.com)<br>Azpeitiko udala: (www.azpeitia.net)<br>Huescako udala: (www.huesca.es)<br>Sestaoko udala: (www.sestao.net)<br>Sestaoko Gazte Informazio Gunea: (cijsestao@infonegocio.com)<br>Neba Neba emakume-elkartea: (garpy@euskalnet.net)<br>Argitan. Barakaldoko Emakumeentzako Aholku Etxea: (argitan@nodo50.org)<br>Bizkaiko Emakume Asanblada: (www.ambbea.org)<br>Irungo Bilgune Feminista: (www.sindominio.net)<br>Errenteria Bilgune-Amalatz-Garaipen: (garaipenpv@yahoo.es)<br>Mugarik Gabe: (www.mugarikgabe.org)<br>Emakunde: (www.emakunde.euskadi.net)<br>Berdintasunerako Nafarroako Institutua: (www.navarra.es)<br>Sortzen Aholkularitza: (www.sortzen.org) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Sarea: Errenteria Bilgune-Amalatz-Garaipen<br>Sarea: Sestaoko Udala-Gazte Informazio Gunea-Neba Neba | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu-erasoei buruzko **sentsibilizazioa** eta ekintza horien gaitzespena, informazioa, prebentzioa. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Herriko festetan gertatzen diren sexu-erasoei buruzko sentsibilizazio-jardueren helburua da arreta erakartzea, festa-egunetan eraso gehiago izaten direla ohartarazteko. Horretarako, material deigarriak erabiltzen dira (kartelak, eranskailuak, gidaliburuak, txapak, elastikoak, liburuxkak edo ezpainzapiak) sexu-erasoen aurkako kontsignak hedatzeko eta neskentzako prebentzio-neurriak jakinarazteko, gazte guztiengana irits daitezen. |
| **2. Helburuak** | 1. Festa-giroan eta aisialdian gertatzen diren sexu-erasoen kontzientzia sortzea eta salaketak egitea. |
| | 2. Herriko festetan emakumeek beren burua babesteko eta segurtasuna sendotzeko neurriak hartzea bultzatzea. |
| | 3. Festa-egunetan sexu-eraso gutxiago gertatzea. |
| | 4. Erantzukidetasunari eta berdintasunari buruz sentsibilizatzea, eta azpimarratzea emakumeek diskriminazio anitzak pairatzen dituztela festa-egunetan, sexu-aukeragatik, jatorri etnikoagatik, gutxitasunen bat izateagatik… |
| **3. Xedea** | Sexu-erasoak eta sexu-indarkeria gaitzestea, eta festa-giroan emakumeen segurtasuna bilatzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Gazteak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Udalerri-mailako kanpainak, batez ere, eta estatu-mailakoak ere bai. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Udalen ekintzak:<br>1.1. *Donostiako udala.* «Sexismorik gabeko jaiak» kanpainak, festetan sexu-erasoei aurre egiteko eta herritarrak sentsibilizatzeko, ohar daitezen desberdintasunaren ondorioz emakumeek eta gizonek desberdin bizi dutela festa:<br>• *2008ko kanpaina:* «Eta?». Ostatuetan kartelak: «Jazarpenaren eta erasoaren aurka babestutako lokala». Liburuxka: «Festa-egunetan jairik ez duten emakumeak, eta zu? Elkar desio duten emakumeak, eta? Ez! dioten emakumeak, eta? Emakume alaiak, eta? Era askotako emakumeak eta emakume-mota asko, eta?» eta irrati-iragarkiak ere bai.<br>• *2009ko kanpaina: «Zure esku dago, argi utziozu… Ez da ezetz!».* Helburua da emakumeei helaraztea indarra eta norberaren buruan konfiantza duen emakumearen irudia, jazarpenei edo erasoei aurre egiteko gai dena, eta biktima zaurgarriaren irudia baztertzea. Horretarako Kill Bill filman Uma Thurman aktoreak antzezten duen pertsonaian oinarritutako kanpaina sortu dute. Emakume horrek ez du behar inork salba dezan. Kanpainan erabili dira elastiko horiak, pertsonai horrekin identifikatzeko helburuz, eta goiburu hau irakur daiteke: «Ez da ezetz». Kamiseta tutu baten barruan dator, pertsonaiak mendekurako erabiltzen duen katanaren zorroa dela irudikatuz. Eta, amaitzeko, liburuxka bat, emakumeentzako aholku baliagarriekin, erasoak saihesten laguntzeko edota eraso horiei hobeto aurre egiteko.<br>• *2010eko kanpaina. Autodefentsa feminista eta biziraupenerako tresneria.* Autodefentsa-ikastaroak antolatu dituzte festa-egunetan eta biziraupenerako tresneria banatu dute. |

**Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak**

1.2. *Bilboko udala:* «Bai, beti da bai. Ez beti da ez. Ukitu, baiezkoan baino ez». Kanpainaren helburua da «erasoen kontagailua zerora jaistea», eta Aste Nagusian sexu segurua eta baimendua bultzatzen laguntzea. Horretarako, kondoiak, txartelak eta pegatinak banatu dituzte doan Bilboko Konpartsen txosnetan eta Bilboko Merkataritza Elkarteko kide diren tabernetan, goiburu honekin: «Bai, beti da bai. Ez beti da ez. Ukitu, baiezkoan baino ez». Konpartsa feministek jarduera-protokoloa prestatu zuten, sexu-erasoak gertatuz gero jarraitu beharreko urratsak zehazturik, biktimak salaketa jartzen duen edo ez aintzat hartuta.

1.3. *Getxoko udala:* «Ondo pasa… eta ez zaitez pasa. Erasorik ez». Kanpainak egin dira San Inazio, Romo, Portu Zaharra eta Mesedeetako jaietan. Kartelak banatu dira, festetako lepo-zapien itxurakoak, txosnetan eta ostatuetan jartzeko. Liburuxkak egin dira, tatuajeekin, jaiak bakean gozatzeko tarte baten errebindikazioa agerian jartzeko, eta gazteei zuzendutako mezua sendotzeko. Halaber, Gazteria Zerbitzutik SMSak bidali dituzte, bat berariaz mutilentzat eta bestea neskentzat.

1.4. *Barakaldoko udala:* «Ez da ezetz. Errezetak, ideiak eta aholkuak, norberaren burua babesteko». Autodefentsa emozionalerako gidaliburua da, emakumeak helburu dituena. Informazio-stand batean banatu dituzte, eta stand horretan bertan indarkerian adituak diren emakumeak aritu dira harreman afektibo eta sexualei buruzko zalantzei eta kontsultei erantzuten.

1.5. *Galdakaoko udala:* «Nola esatea nahi duzu?» Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizazio-kanpaina da, festetan sexu-erasoak saihesteko eta eraso horiekiko tolerantzia murrizteko. Kanpainaren helburua da neskak, batez ere 14 urtetik 25era bitartekoak, ulertzea «nahi bezala» jokatzeko eta gozatzeko aukera dutela, «ezetz esaten badute, ezetz dela», eta garrantzitsua dela norberaren erabakia errespetaraztea, aurreiritzirik eta beldurrik gabe.

1.6. *Ordiziako udala:* «Bai baiezkoa da, eta ez, ezezkoa. Ez pasa eta ez pasatu! Jaietan ere: Sexu-erasorik ez!». Santa Ana festetarako kanpaina da, jaigiroetan emakumeen aurkako erasoei aurre egiteko gizarte-jarrera partekatua sustatzea eta jai seguruak ospatzeko eskubidea errebindikatzea helburu hartuta. Mezu hori ahalik eta gehien hedatzearren, elkarteei, ostatuei eta herritar guztiei dei egin diete, eranskailua jar dezaten.

1.7. *Azpeitiko udala:* «Ez da ezetz». 2010eko festen bezperan neskentzako prebentzio-gidaliburu bat banatu dute postontzietan.

1.8. *Huescako udala:* «Bereziki neskentzat/Bereziki mutilentzat: Jaiak gozatu». 2010eko San Lorentzo jaietarako kanpaina da, sexu-jazarpenak eta -erasoak prebenitzea helburutzat hartuta. Gazteen arreta erakartzea du xede, harreman afektibo eta sexualetan errespetua, erantzunkidetasuna eta autonomia gailendu daitezen.Udalak egin du kanpaina, zortzi auzo-elkarterekin eta jolas-elkarteekin lankidetzan, gazteak kontzientziatzeko, harreman afektibo eta sexual osasungarriak izan ditzatzen. 13-18 urteko gazteei zuzendutako kanpaina da; nerabe horiek ibili ohi diren inguruetara joan dira elkarteetako kideak, eta txapak eta panfletoak banatu dizkie neska-mutilei. Jaietako kanpainaren ostean, emakumeentzako autodefentsa ikastaroak antolatu dituzte.

2. Elkarteen ekintzak:

2.1. *Argitan Barakaldo.* «Festa eta gaua era gureak dira». Uda-partera begira antolatutako dibulgazio-jarduera, jaietan prebentzioa sustatzeko: erreferentzia-gunea, harremanetarako telefonoa, eranskailuak, kartelak, eta jai-batzordearekin harremanetan daude. Eraso baten aurrean egin daitekeena azaltzen dute; eta, horrenbestez, segurtasun eta kontzientzia handiagoa dakarte.

2.2. *Irungo Bilgune Feminista.* Udako kanpaina antolatzen du, emakumeek jaietan eta festen antolaketan parte hartzea sustatzeko, eta eraso sexisten aurka lan egiteko, jai-giro horietan ohikoagoak baitira sexu-erasoak. Proposatzen dute elementu sexistak desagerraraztea musikatik, hizkuntzatik, karteletatik eta publizitatetik. Azpimarratzen dute eraso sexistak desagertzeko garrantzi handikoa dela erantzuna lantzea, baita prebentzioa ere, eta puntu ilunak ezabatu behar direla.

**Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak**

Koloretako horma-irudia egiten dute herriko plaza bateko horma handi batean, hiriko puntu beltzak koloreztatzeko. Eta goiburu hau irakur daiteke: Cada mujer agredida, cada mujer asustada, una cicatriz en nuestra ciudad; iluntasunetik argitasunera (puntu beltzen iluntasunetik argitasunerako bidean, alegia).

2.3. *Errenteria Bilgune-Amalatz-Garaipen.* Jaietan kanpainak egiten dituzte, kartelak, eta jendaurreko salaketak txosnetan, baita erasotzaileen aurkako protestak ere. Emakume-txosnak eta erasoen aurkako batzordeak antolatzen dituzte. Kanpaina batzuk: «Erasoen aurrean, emakume, esan ezetz», «Erasoak erantzuna dakar beti». Halaber, Udalari eskatzen diote leku bat sortzea, gau guztian irekita egongo dena, festetan erasoren bat edo eraso egiteko ahaleginen bat izanez gero hara jotzeko aukera izateko, eta jaien egitarauan nolabait agerian jartzea.

2.4. *Mugarik gabe GGKEak* hiru urtez jarraian eranskailuak egin eta banatu ditu Durangoko jaietan, zenbait kontsigna hedatzeko.

3. Erakunde autonomikoen ekintzak

3.1. *Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.* «Ez zaitez pasa… ezta pasatzen utzi ere». Euskadiko udako festetan sexu-abusuen eta -erasoen prebentziorako kanpaina egin zuen 2000 urtean. Udalen bidez, 22.000 elastiko banatu zituzten gazteen artean, eta 13.000 kartel jarri zituzten, kanpainaren goiburua hedatzeko.

3.2. *Berdintasunerako Nafarroako Institutua. Eta jaietan… zer?* 2010eko kanpaina, Berdintasunerako Nafarroako Institutuak sustatua, jaietan berdintasuna izatearen alde agertu diren udalekin lankidetzan. Sanferminetan gauzatu zuten kanpaina, festetan tratu eta aukera berdinak izatea sustatzeko. Halaber, kanpainaren helburua da sexu-jazarpena eta -erasoak prebenitzea, begirunezko portaerak bultzatzea, eta «ez» esaten denean ezezko hori errespetatu behar dela onarraraztea, baita jaietan ere. Ekimen horrekin bat egin dezakete Nafarroako Foru Komunitateko Udalek, eta hala egin dute Iruñeak, Antsoainek, Tafallak eta Lizarrak.

4. Jaietarako prebentzio-materialaks:

4.1. *Sortzen Aholkularitza. «Ez da ezetz»*. Errezetak, ideiak eta aholkuak ongi pasatzeko eta zure burua babesteko. Prebentzio-gidaliburua da, neskak helburu dituena. Ideia, errezeta eta aholku baliagarrien bilduma da, aisialdian erasoak prebenitzeko eta arriskurik gabe ongi pasatzeko, bai herriko jaietan, bai asteburuetan, bai oporraldietan, bai gazte-topagunetan. Emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako aholkularitza-enpresa batek egina da, eta material hori hedatu nahi duten udalek edo bestelako erakundeek pertsonalizatzeko aukera dute. Zenbait udalerritan banatu dute gidaliburu hori, jai-esparruan jarritako stand baten bidez, hezitzaileen prebentzio-lanarekin osatuta. Esperientzia horretan parte hartu dute, besteak beste: Barakaldok, Durangok, Ondarroak, Azpeitiak eta Gernikak.



## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Festa-egunetan emakumeen aurkako indarkeriak eta sexu-erasoek gora egiten dute, bereziki gazteen artean, eta datu hori azpimarratzea oso baliagarria da, batez ere, salaketa horrek «intentsitate txikiko» erasoak agerian jartzen dituelako (hitzezko erasoak, eskukak, garraio publikoan eta aisialdiko espazioetan behin eta berriz ukitzea eta abar).

Erasoei aurre egitera ausartzen diren emakume gazte eta helduen sinesgarritasuna eta irizpideak zalantzan jartzen dira, eta inguruko gizarteak eta erasotzaileek gutxiesten dituzte erasoek eragindako kalteak, bai autoestiman, bai segurtasun-sentsazioan, bai eskubideen gozamenean. Horrenbestez, erantzun hori emateko eskubideaz sentsibilizatzeak eta festetan sexu-erasoen gorakadaz ohartarazteak agerian jartzen du gazteen aisialdiko giroan normalizatuta dagoen egoera.

## PRAKTIKA ONA TRANSFERITZEKO AHOLKUAK

Festetan sexu-erasoei buruzko informazioa emateaz eta gertaera horiek salatzeaz arduratzen diren kanpainak iraupen laburrekoak dira. Horregatik, aisialdiko edo/eta gaueko ohiko giroetara (asteburuko giroetara) transferitu eta orokortu beharko lirateke; hartara, kanpaina horien eraginak une jakin baten mugak gaindituko lituzke.

# 9. FITXA: INTERNET BIDEZKO SENTSIBILIZAZIOA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Internet bidezko sentsibilizazioa.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Bilboko udala, El Correo, Ianire Estébanez. | |
| **Harremanetarako datuak** | Bilboko udala: (www.geubiok.net)<br>El Correo: (http://info.elcorreo.com/mapas/violencia-genero)<br>Ianire Estébanez (http://minoviomecontrola.blogspot.com/) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☐ BAI | ☒ EZ |
| **Jarduera-esparrua**<br>Internet bidezko **sentsibilizazioa eta prebentzioa** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Webgune eta blog horien bidez, genero-indarkeriari eta sexu-erasoei buruzko informazioa eta kontsultarako materialak eskura daude, jardueren berri ematen da, eta komunikazio zuzena bideratzen da, hala nahi duten neska-mutilekin. |
| **2. Helburuak** | 1. Sarea erabiltzea neska-mutil internautengana iristeko, eta indarkeria sexistari eta sexu-erasoei buruzko mezu argiak helarazteko. |
| | 2. Lotura irisgarria sustatzea, sareko erabiltzaileen zalantzak eta kontsultak argitzeko. |
| **3. Xedea** | Konektatzea bai gazteekin, bai internet erabiltzen duten gainerako herritarrekin, komunikatzeko eta informazioa bilatzeko funtsezko tresnatzat hartuta. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Gazteak eta internautak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Interneteko sarea. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Webguneak —hainbat informazio, analisi eta datu eskaintzen dutenak— eta link batzuk, internautek baliabide garrantzitsuekin konektatzeko aukera izan dezaten, indarkeria sexista eta sexu-erasoak ulertzeko.<br>Alde batetik, materialak, txostenak, azterlanak… deskargatzeko aukera, eta bestetik, harremanetan jartzeko edo kontsultak egiteko posibilitatea, bi elementu erantsi dira, erabiltzaileak sartzea eragiten dutenak, bai zalantzak argitzeko, bai domeinuen arduradunekin hartu-emanak izateko. |

# 10. FITXA: AUTODEFENTSA FEMINISTARAKO TAILERRAK

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Autodefentsa feministarako tailerrak.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Harremanetarako datuak**<br>**EAEn autodefentsa feminista sustatzen duten erakundeak** | Donostiako udala: (www.donostia.org)<br>Basauriko udala: (www.basauri.net)<br>Bilboko udala: (www.bilbao.net)<br>Getxoko udala: (www.getxo.net)<br>Barakaldoko udala: (www.barakaldo.org)<br>Galdakaoko udala: (www.galdakao.net)<br>Sestaoko udala: (www.sestao.net)<br>Durangoko udala: (www.durango-udala.net)<br>Arrigorriagako udala: (www.arrigorriaga.org)<br>Basauriko emakume-elkartea:<br>Argitan. Barakaldoko Emakumeentzako Aholku Etxea: (argitan@nodo50.org)<br>Bizkaiko Emakume Asanblada.<br>Bilgune Feminista: (www.sindominio.net)<br>Errenteria Bilgune-Amalatz-Garaipen (garaipenpv@yahoo.es)<br>Medeak: (medeak.blogspot.com) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Tailer batzuk udalen eta elkarteen arteko lankidetzaren bitartez antolatzen eta gauzatzen dira. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu-erasoei buruzko **sentsibilizazioa eta prebentzioa.** | | |

## DESKRIBAPENA

| | | |
|---|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Autodefentsa da baliabide feminista, erasoak prebenitzeko eta haien kontra egiteko erabili ohi dena. Autodefentsa-ikastaroen bitartez, hausnarketa-espazio bat sortzen da, sexu-indarkeriaren etiologiari buruzkoa, eta ikuspegi horretatik planteatzen dira erabil daitezkeen baliabide guztiak, bai pertsonalak, bai kolektiboak.<br>Emakumeentzako autodefentsa-ikastaroak, oro har, funtsezko teknika fisiko eta psikologiko batzuetan oinarrituta daude, emakumeen jabekuntza eta erasoen prebentzioa helburu hartuta. | |
| **2. Helburuak** | 1. Hurbiltzeko eta hausnarketa egiteko espazioak sortzea, emakumeetatik abiatuta eta emakumeentzat, sexu-erasoak eta indarkeria desagerrarazteko behar diren baliabideak bilatzeko. | |
| | 2. Tailerretan parte hartzen duten emakumeei baliabide fisikoak, psikologikoak eta politikoak ematea. | |
| | 3. Sexu-erasoen inguruko mitoak aztertzea. | |
| | 4. Biktimen bakartzea eta erruduntzea prebenitzea. | |
| **3. Xedea** | Emakumeek pairatzen duten indarkeriari aurre egiteko baliabide teoriko, emozional eta fisiko nahikoak izan ditzatela. | |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Emakumeak. | |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Euskadiko udalerri batzuk. | |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Teknika fisikoen, hausnarketa teorikoen eta berariazko materialen bidez egituratutako tailerrak.<br>Taldeetan parte hartu duten emakumeen sareak.<br>Sare horien bidez antolatutako ekintzak. |

# 11. FITXA: HIRIGINTZA AZTERKETAKO MAPAK EGITEKO GIDALIBURU METODOLOGIKOA, GENERO IKUSPEGIA ETA HERRITARREN EGUNEROKO BIZITZA AINTZAT HARTUTA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Hirigintza-azterketako mapak egiteko gidaliburu metodologikoa, genero-ikuspegia eta herritarren eguneroko bizitza aintzat hartuta.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. | |
| **Harremanetarako datuak** | (http://www.slideshare.net) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Adibide gisa aurkeztutako mapak egin dituzten erakundeekin: Plazandreok, Basauriko Udala, Ondarroako Udala, Hernaniko Udala, Uribe Kostako Mankomunitatea. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu-erasoen **prebentzioa**, emakumeentzako segurtasun-baldintzak eta segurtasun-sentsazioa hobetzearen bitartez | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Emakumeentzat debekatutako lekuak adierazten dituen mapa bat izateak hirigintza hobetzeko politikak diseinatzeko aukera ematen du, emakumeak auzoetan eta hirietan askatasunez eta beldurrik gabe ibil daitezen. |
| **2. Helburuak** | 1. Esparru teorikoa jartzea, hirigintza-azterketa genero-ikuspegitik egiteko. |
| | 2. Emakumeei debekatutako hirien mapak egitearren partaidetzan oinarritutako metodologia eskaintzea. |
| | 3. EAEn egindako esperientzia arrakastatsu edo/eta berritzaile batzuk azaltzea. |
| **3. Xedea** | Hirietan emakumeen segurtasuna hobetzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Zeregin hori gauzatu dezaketen udalak edo/eta elkarteak. |

| | |
|---|---|
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Euskal Autonomia Erkidegoa. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Eskuliburu bat, hirigintza-diagnosia genero ikuspegitik egiteko, EAEn egindako mapen adibideak eta guzti. |

# 12. FITXA: BELDUR BARIK KANPAINA

| | | |
|---|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza | |
| | ☒ Berrikuntza | |
| | ☐ Berariazko sektoreak | |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Beldur Barik kanpaina.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Emakunde, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Eudel, Berdinsarea, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia. | |
| **Harremanetarako datuak** | (ttp://www.beldurbarik.org/)<br>(http://www.berdinsarea.net/) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Kanpainaren antolatzaile guztiak. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu-erasoei buruzko **sentsibilizazioa**, gazteen parte-hartze aktiboaren bidez. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Beldur Barik 2010 kanpainan lehiaketa bat antolatu zuten, zenbait motatako adierazpen artistikoen bidez indarkeria sexistaren aurkako salaketa egiteko. Horretaz gain, gidaliburu metodologiko bat kaleratu zuten, gazteen artean prebentzioa lantzeko materialak prestatzeko eta jarraibideak emateko. |
| **2. Helburuak** | 1. Sexu-erasoen kausei buruzko kontzientzia sortzea. |
| | 2. Gazteen artean normalizatuta dauden sexu-eraso sotilen adierazpenak agerian jartzea. |
| | 3. Mezu eta esperientzia alternatiboen hedapenean gazteen partaidetza aktiboari bide ematea. |
| | 4. Gazteen artean sareak sortzea, sexu-erasoen aurkako borrokan protagonista izan daitezen. |
| **3. Xedea** | Sexu-erasoei eta genero-desberdintasunei buruzko kontzientzia kritikoa sortzea gazteen artean. |

| | |
|---|---|
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Gazteak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Euskal Autonomia Erkidegoa. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | • Gidaliburu metodologikoa, unitate didaktikoak, baliabideen gida eta erabiltzeko jarraibideak dituena.<br>• Kanpaina bat, EAEko zenbait udalerritan egina.<br>• Material artistikoak egiteko lehiaketa.<br>• Hedatzeko hainbat material.<br>• Informazioa hedatzeko webguneak. |

# 13. FITXA: POLIZIA JARDUERAK KUDEATZEKO PROZESUA SEXU ASKATASUNAREN KONTRAKO DELITUETAN

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Polizia-jarduerak kudeatzeko prozesua sexu-askatasunaren kontrako delituetan.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza-Ertzaintza. | |
| **Harremanetarako datuak** | Ertzaintzaren Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Atala. | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza eta Ertzaintza. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Polizia-jarduerak kudeatzeko prozesua sexu-askatasunaren aurkako delituetan, Kalitatea Kudeatzeko Sistemari atxikitzen baitzaio. |
| **2. Helburuak** | Sexu-askatasunaren aurkako delituetan ikerketako praktikak homogeneizatzea. |
| | Sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima izan direnen tratamenduaren arloan konpromisoak hartzea. |
| | Prozesu horretan hartutako konpromisoak betetzen direla bermatzea. |
| **3. Xedea** | Sexu-askatasunaren aurkako delituen ikerketa eta delitu horien biktimen tratamendua hobetzea, biktimizazio berrien eragina gutxitze aldera. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Ertzaintzaren Herritarren Segurtasunerako eta Ekintzetarako Baliabideen Atalean eta Kirmen Gaietarako Atalean destinatutako ertzainak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Euskal Autonomia Erkidegoa. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | • Sexu-askatasunaren aurkako delituen ikerketen homogeneotasuna eta biktimen tratamendua ahalbidetzen dituzten jarduera-prozedurak.<br>• Sexu-askatasunaren aurkako delituen ikerketarako gutxieneko lanak egiteko eta biktimen tratamendurako jarduera-prozedurak. |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ertzaintzan, Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren barruan, prozesu berri bat garatzea. Horretarako, prozeduren eta jarraibide operatiboen bidez konpromisoak jarriko dira eta, halaber, etengabeko hobekuntza bilatu nahian, kontrol-plana eta sexu-askatasunaren aurkako biktimen gogobetetzeari buruzko inkesta izango dira.

## PRAKTIKA ONA TRANSFERITZEKO AHOLKUAK

Inguruko beste polizia batzuetan burututako jarduketen berri jakitea eta horiek egokitu daitezkeen aztertzea.

# 14. FITXA: JARDUTEKO PROTOKOLOA, ARRETA INTEGRALA ETA SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK SEXU ESPLOTAZIORAKO EMAKUMEEN ETA NESKATOEN SALEROSKETAREN ARLOAN EAEN

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Jarduteko protokoloa, arreta integrala eta sentsibilizazio-ekintzak sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren arloan EAEn.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Herrizaingo Saila. | |
| **Harremanetarako datuak** | 945 01 87 86 | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Elkarteak: Askabide, Aukera, Gizarterako, Munduko medikoak, HIESaren aurkako Batzordea.<br>Gobernuaren Arabako Ordezkaritzaordetza, Ertzaintza, Poliziaren Kidego Nazionala, Guardia Zibila, Justizia Zuzendaritza, Emakunde. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta, sentsibilizazioa** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Gobernu-erakundeen eta gobernuz kanpoko erakundeen arteko jarduera-programa sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima diren emakume eta neskatoentzat, erakunde arteko koordinazioa sustatzen baitu, baita inplikatutako teknikarien prestakuntza eta gaiari buruz EAEko biztanleen sentsibilizazioa ere. Gainera, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak arreta integralerako baliabide bat abian jarri du. |

| | |
|---|---|
| **2. Helburuak** | 1. Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeen eta neskatoen egoera hobeto ezagutzea, era horretan arreta integrala emango zaiela bermatzeko. |
| | 2. Erakundeen eta elkarteen koordinazioa hobetzea sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatoentzako arretaren arloan. |
| | 3. Hautemateko, identifikatzeko eta emakumeei arreta integrala emateko prozesuan esku-hartzen duten eragileek sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren arazoa hobeto ulertzea, horretarako zenbait prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera erabiliz. |
| **2. Helburuak** | 4. Arretarako langileek sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren errealitatea eta biktimen arteko laguntza-baliabideak hobeto ezagutzea ahalbidetzen duten materialak lantzea. |
| | 5. Sexu-esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren errealitateari eta biktimen egoerari buruz herritarrak sentsibilizatzea, horretarako komunikabideetan zenbait kanpaina eginez. |
| **3. Xedea** | Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak genero-indarkeriaren biktima direlako iritzia zabaltzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | — Erakundeak.<br>— Inplikatutako elkarteak.<br>— Herritarrak.<br>— Biktimak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | EAE. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | • Lan-taldea eratzea.<br>• Koordinazio-protokoloa lantzea.<br>• Sentsibilizazio-materiala lantzea: biktima izan daitezkeenontzako triptikoak eta gidak (10 hizkuntza) eta profesional eta herritarrentzako gidak (euskara-gaztelania).<br>• Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimei arreta integrala emateko baliabide bat abian jartzea.<br>• Kartelen eta irrati-iragarkien bidezko sentsibilizazio-kanpaina.<br>• Sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitateari buruzko prestakuntza-jardunaldia egitea. |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Ekimen berritzailea, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak gidatutakoa. Erakunde horrek koordinatzen ditu sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitatea hobeto ezagutzeko elkarteen eta erakunde arteko ahalegin guztiak, biktimentzako arreta, baita fenomenoa genero-indarkeriaren adierazpidetzat hartzea ere.

# 15. FITXA: GENERO INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO TELEFONO BIDEZKO 24 ORDUKO ARRETA ZERBITZUA, ARRETA BEREZIA SEXU ERASOEN BIKTIMENTZAT DELA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Genero-indarkeriaren biktimentzako telefono bidezko 24 orduko arreta zerbitzua, arreta berezia sexu-erasoen biktimentzat dela.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza – Eusko Jaurlaritza. | |
| **Harremanetarako datuak** | Telefonoa: 900 84 01 11 | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☐ BAI | ☒ EZ |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Telefono bidezko 24 orduko arreta urteko egun guztietan, sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeentzako arretan espezializatutako profesionalek egiten baitute, EAE osorako estaldura duela. |
| **2. Helburuak** | 1. Baliabidea erabiltzen duen emakumeari euspen emozionalerako berehalako zerbitzua eskaintzea. |
| | 2. Egin beharreko jarduerei buruzko orientabidea eskaintzea, hain zuzen, sexu-erasoa (behin eta/edo behin eta berriro gertatutakoa) jasaten den lehen momentutik eta erasoari eta izan daitezkeen ondorioei aurre egiteko prozesuan zehar. |
| | 3. Biktimari eta bere ingurunekoei beharrezko babes emozionala eta laguntza eskaintzea sexu-erasoari aurre egiten laguntzeko erabakiak har ditzaten. |
| | 4. Kanal gisa aritzea biktima/k egokiagoa/k den/diren baliabideetara bideratzeko, bertan aurrezko aurre tratamendua jaso dezaten. |
| | 5. Sexu-erasoekin loturiko tratamenduan edo beste jarduera batzuetan lan egiten duten profesionalei aholkularitza eta informazioa ematea. |

| | |
|---|---|
| **3. Xedea** | Berehalako arreta ematea sexu-erasoari modu aktiboan erantzuteko. Horretarako, indarkeria horrek biktimengan eragindako ondorioak txikiagotzea ahalbidetzen duten lehen laguntza psikologikoak eskainiko dira. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | • Sexu-erasoa/k jasaten duten/dituzten emakumeak.<br>• Eraso-mota hori jasan duten edo jasaten duten emakumeen hurbileko pertsonak.<br>• Elkarteen zerbitzuetako eta GKEen profesionalak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | EAE. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | • Sexu-erasoen kasuetarako berehalako arreta profesionala, EAE osorako estaldura duela.<br>• Informatzeko eta bideratzeko zerbitzua, biktimentzat, beren hurbileko pertsonentzat eta profesionalentzat. |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

- Arretaren berehalakotasuna: urteko edozein egunetan eta eguneko edozein ordutan.
- Genero-indarkeriaren arloko arreta profesional espezializatua, emakumeek eskainia.

# 16. FITXA: SEXU-ERASOEN AURKAKO KANPAINA: JOIN RAINN'S 24/7 CAMPAIGN

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoen aurkako kanpaina: Join RAINN's 24/7 Campaign.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | RAINN (Rape, Abuse & Incest National Network)<br>Bortxaketen, abusuen eta intzestuen aurkako sare nazionala. Amerikako Estatu Batuetan sexu-abusuen eta bortxaketen aurkako borrokan dihardüen erakundea. | |
| **Harremanetarako datuak** | (http://www.rainn.org/247) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☐ BAI | ☒ EZ |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu-erasoen biktimentzako **arreta**, internet bidez. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Kanpainak sustatzen du zerbitzu berri bat, sexu-erasoen biktimei internet bidez laguntzeko.<br>Sarearen bidezko komunikazio zuzena bideratzen du, eta leku anonimoa da. Biktimek laguntza eskuratzen dute, horrelako erasoen ondorioak pairatzen dituzten pertsonei arreta emateko trebatutako boluntarioen bitartez. |
| **2. Helburuak** | 1. Osasun-baliabideei, baliabide judizialei eta tokiko baliabideei buruzko informazioa helaraztea erasoren bat pairatu duten neska-mutil gazteei. Egunean 24 orduz, asteko 7 egunetan. |
| | 2. Kasuari buruzko kontsulta pribatu eta konfidentziala egiteko aukera. |
| | 3. Arreta ematea, bai biktimei, bai biktimaren familiakoei edo/eta lagunei. |
| **3. Xedea** | Internet bidez kontsultak egiteko espazio azkarra eta konfidentzia eskaintzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Neska-mutil gazteak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Amerikako Estatu Batuak. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | <br><br>Sexu-erasoen biktimei (batez ere biktima gazteei) laguntzeko zerbitzua sustatzeko kanpainan parte hartu du Christina Ricci aktoreak.<br>Kanpainaren aurkezpena ikusteko:<br>(http://www.entretodas.net/2008/04/27/campana-contra-las-agresiones-sexuales-rainn/)<br>*Technology Innovation Award* saria eman diote. |

# 17. FITXA: BORTXAKETEN EDO SEXU ERASOEN BIKTIMEI LAGUNTZEKO TELEFONOA

| | | |
|---|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza | |
| | ☐ Berrikuntza | |
| | ☐ Berariazko sektoreak | |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Bortxaketen edo sexu-erasoen biktimei laguntzeko telefonoa: 0 800 05 95 95.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Bortxaketaren aurkako kolektibo feminista *(Collectif Féministe contre le viol).* | |
| **Harremanetarako datuak** | E-maila: Emmanuelle PIET : (epiet@cg93.fr)<br>(www.cfcv.asso.fr)<br>(collectiffeministe.contreleviol@wanadoo.fr) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Frantziako 25 elkarte feministek osatutako kolektiboa. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Telefono-bidezko **arreta** sexu-erasoen biktimentzat | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Sexu-erasoen biktimei entzuteko eta eusteko telefonoa. Informazioa ere ematen zaie biktimei, zer baliabide dauden eta nora jo behar duten jakin dezaten. Familia barruko eta familiatik kanpoko indarkeriari arreta ematen diote.<br>Doako zerbitzua da, Frantziatik deituz gero. Astelehenetik ostiralera ematen dute arreta, 10:00etatik 19:00etara. |
| **2. Helburuak** | 1. Biktimari entzutea, eustea, eta solidaritatea helaraztea. |
| | 2. Aholkularitza eta informazioa ematea, bortxaketaren bat edo bestelako sexu-erasoren bat pairatu dutenei laguntzeko. |
| | 3. Eskubideei buruzko informazioa ematea, egungo legea aintzat hartuta. |
| | 4. Anonimotasuna bermatzea, biktimak hala eskatuz gero. |
| **3. Xedea** | Sexu-indarkeria oraindik orain edo aspaldi pairatu duten biktimei laguntzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Sexu-indarkeriaren biktimak. |

| | |
|---|---|
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Frantzia. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Bortxateta edo sexu-erasoak pairatu dituzten emakumeek osatutako taldeak.<br>Talde horietara jo dezakete interesa duten pertsona guztiek, haien sexua, adina, nazionalitatea, erlijioa edo/eta sexu-orientazioa edozein izanda ere. Helburua da biktimei ahotsa ematea, sexu-erasoak agerian jartzea, isilaldia urratzea, eta errudun senti ez daitezen bideratzea. Halaber, kolektiboaren webguneak testigantzak partekatzeko aukera ematen du: (www.cfcv.asso.fr.)<br>2. Harrera-programa. Elkarte feminista, sarean dagoena arreta emateko, lagun egiteko, taldeak sortzeko, eta prestakuntza eta hausnarketa bideratzeko.<br>3. Kolektiboak egindako materialak, biktimei laguntzea helburu hartuta:<br>• *L'aide aux femmes victimes de viol, Editions l'Esprit du Temps*. Bortxaketen biktima izan diren emakumeei laguntzea.<br>• *Une guide pour la thérapie des victimes, 1998-M.F.P.F*. Biktimen terapiarako gidaliburua.<br>• *Guide pour l'accompagnement des victimes, Editions M.F.P.F., 1998*. Biktimei lagun egiteko gidaliburua.<br>• *Les femmes victimes de viol*. Bortxaketen biktima izan diren emakumeak.<br>• *Recevoir des femmes confrontées à la violence sexiste*. Indarkeria sexistari aurre egiten dioten emakumeei harrera egitea. |

# 18. FITXA: SEXUAL ASSAULT REFERRAL CENTRES (SARC)

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexual Assault Referral Centres (SARC).

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Sexual Assault Referral Centres (SARC). | |
| **Harremanetarako datuak** | (Webgunea: homeoffice.gov.uk) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Erresuma Batuko Gobernua.<br>25 elkarte, Erresuma Batuko hainbat udalerritan dihardutenak. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu-erasoen biktimentzako **arreta**. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Kalitatezko eta ongi koordinatutako zerbitzu osoak: auzitegiko medikuak egindako azterketa, eta medikuen arreta, aholkularitza juridikoa eta laguntza psikologikoa bortxaketa edo sexu-erasoak pairatu eta bizirik atera direnentzat. |
| **2. Helburuak** | 1. Lesioak bilatzea eta laginak hartzea, poliziaren ikerketan edo ondorengo zuzemenetan froga bezala erabiltzeko. Sortutako osasun-premiak betetzea. |
| | 2. Biktimari aholkularitza juridikoa ematea epaiketa-prozesu guztian (poliziarekin hitz egin, auzitegia, kalte-ordainak, etxebizitza eta hezkuntza, beste mediku-zerbitzu batzuk eta abar). |
| | 3. Biktimari laguntzea esperientziak eragindako ondorioak ulertzen, sortutako aldaketak eta zailtasunak eramaten, eta erasoaren ondorengo bizitzara egokitzen. |
| **3. Xedea** | Biktimek beren bizitzen kontrola berreskura dezatela, eta bortxaketei eta sexu-erasoei buruzko mito eta estereotipo guztiei aktiboki aurre egin diezaietela. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Emakumeak eta gizonak, helduak naiz haurrak, bortxaketa edo sexu-erasoa pairatu dutenak (oraindik orain edo aspaldi) eta bikotekideak edo/eta familiakoak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Erresuma Batua. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Erreferentzia-materialak:<br>ACPO (2005): *Sexual Assault Referral Centres: Getting Started.* (http://www.homeoffice.gov.uk/crime/sexualoffences/expansion_sarc.html)<br>Welch, J. (2005): *Medical care following sexual assault: Guidelines for Sexual Assault Referral Centres.* (http://www.homeoffice.gov.uk/crime/sexualoffences/expansion_sarc.html)<br>2. Argitaratutako ikerketak:<br>Lovett, J., Regan, L. eta Kelly, L. (2004): *Sexual Assault Referral Centres: developing good practice and maximising potentials.* Home Office Research Study 285.<br>Regan, L., Lovett, J. eta Kelly, L. (2004): *Forensic nursing: an option for improving responses to reported rape and sexual assault.* Home Office Development and Practice Report 31.<br>Regan, L., Lovett, J. eta Kelly, L. (2005): *A Gap or a Chasm? Attrition in reported rape cases.* Home Office Research Study 293.<br>Wilken, J. eta Welch, J. (2003): Management of people who have been raped. *BMJ* 326: 458-9.<br>Welch, J. eta Gee, D. (2004): Care following rape: sexual health and Havens. *Int J STD & AIDS* 15: 499-500.<br>3. Argitalpenak:<br>Sexual Assault - *A Forensic Clinician's Practice Guide* by Dr. Catherine White. |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Etorkizunean gauzatzeko ekintzak:

- SARC bat jartzea Ingalaterrako eta Galesko polizia-eremu bakoitzean, berriki gertatutako sexu-erasoen biktima guztiei zerbitzua bermatzeko.
- SARC sarea handiagotzea eta garatzea, aholkularitza-talde profesional baten eskutik.
- Gobernuaren eta SARC zentroetako administratzaileen arteko lankidetza trinkoan jardun, zerbitzu estandarizatuak eta mamitsuak bermatzeko, SARC zentroek biktimei emandako laguntzan eta justizia penaleko prozesuan eragindako inpaktuaren etengabeko ebaluazioa egiteko, eta zerbitzu berriak gauzatzeko, biktimen premiei erantzutea helburu hartuta.
- Sexu-indarkeriaren biktima izan diren haurrentzako zerbitzuak sortzea, eta berariazko bi laguntza-proiektu gauzatzea: bat gazteentzat eta bestea gutxiengo etnikoentzat.
- Biktimei laguntzeko bide guztiak hobetzea: biktimentzako arreta psikologikoan espezializatutako zerbitzuetan inbertsio handiagoa egitea; epaiketa-prozesuan biktimei tratu hobea ematea; poliziari baliabideak jartzea, maila oneko ikerketa egiteko gai izan daitezen eta fiskaltzarekin koordinatuta lan egin dezaten, emaitzak hobetzeko; kasuan egindako aurrerabide guztiei buruzko informazioa helaraztea biktimei, eta epaitegiaren laguntza izan dezatela; esperientzia duten abokatuek soilik aurkez ditzatela salaketak auzitegiaren aurrean.

# 19. FITXA: SEXU ERASOEN ALORREKO AUZITEGIKO PRAKTIKA KLINIKOAREN GIDALIBURUA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Sexu-erasoen alorreko auzitegiko praktika klinikoaren gidaliburua.

(Sexual Assault-A Forensic Clinician's Practice Guide).

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Catherine White doktorea.<br>St. Mary's Sexual Assault Referral Centre erakundearen zuzendaria.<br>Ian F. Wall irakaslea.<br>The Faculty of Forensic & Legal Medicine. | |
| **Harremanetarako datuak** | E-mailak: (stmarys.sarc@cmft.nhs.uk(; (info@fflm.ac.uk) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | St. Mary's Sexual Assault Referral Centre<br>The Faculty of Forensic & Legal Medicine | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Arreta:** Sexu-erasoen arretan auzitegiko medikuntzaren praktika hobetzeko aholkuak | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Erreferentziazko gidaliburu zehatza, informazio praktikoa urratsez urrats ematen duena, bortxaketen eta sexu-erasoen biktimekin —bai pertsona helduekin, bai haurrekin— lanean diharduten auzitegiko medikuentzat. |
| **2. Helburuak** | 1. Auzitegiko medikuaren azterketaren prozedurei buruzko giltzarrizko xehetasunak jakinaraztea biktimari. |
| | 2. Kasu judiziala prestatzeko giltzarrizko xehetasunak jakinaraztea. |
| **3. Xedea** | Biktimentzako zerbitzu guztiek arreta-maila hoberena ematen dietela bermatzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Auzitegiko medikuak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Nazioartekoa. |

# 20. FITXA: BANAKA EDO TALDE TXIKITAN ERABILTZEKO GARRAIO ALTERNATIBAK EMAKUMEENTZAT: PINK LADIES (LONDON), PINK TAXI (PUEBLA), LÍNEA ROSA (BARTZELONA)

| | | |
|---|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza | |
| | ☒ Berrikuntza | |
| | ☐ Berariazko sektoreak | |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Banaka edo talde txikitan erabiltzeko garraio-alternatibak emakumeentzat: Pink Ladies (London), Pink Taxi (Puebla), Línea rosa (Bartzelona).

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Garraiobide horiek dauden hirietako udalek sustatutako ekimena. | |
| **Harremanetarako datuak** | «Línea Rosa» telefonoa (Bartzelona): 933 300 700 | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Gobierno de Reino Unido.<br>25 elkarte, Erresuma Batuko hainbat udalerritan dihardutenak. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Prebentzioa**, emakumeen segurtasuna hobetzea | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Emakumeek emakumeentzat eskainitako taxi-zerbitzua, garraiobideen alorreko segurtasun-arazoei erantzuteko. |
| **2. Helburuak** | 1. Emakumeen aurka taxi-gidariek eragindako lapurretak, sexu-erasoak edo/eta bortxaketak (legezkoak edo legez kanpokoak) saihestea. |
| | 2. Erakundeek aitortzea emakumeen aurkako lapurretak eta sexu-erasoak egiten dituztela. |
| **3. Xedea** | Lasaitasuna, erosotasuna eta segurtasuna ematea taxi-zerbitzua erabiltzen duten emakumeei. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Emakumeak eta 12 urtez beherako haurrak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Tokikoa. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. Positiboak:<br>• Satelite bidezko kokatzailea.<br>• Izuaren aurkako botoia, larrialdi-zentro bati konektatua, gidariaren eta bidaiarien segurtasuna sendotzeko.<br>• Zerbitzua ez da ordaintzen eskudirutan, baizik eta banku-txartelez. Bezeroak ez badauka eskudirurik, ez du kutxazain baten bila ibili behar; izan ere, arriskutsua izan daiteke horrela ibiltzea.<br>2. Genero-estereotipoa sendotzen dute:<br>• Unitate bakoitzak emakume-izena du.<br>• Zenbait bitxikeria dituzte: ispiluak, makillaje-kutxatilak.<br>• Arrosa-kolorez margotuta daude. |

# 21. FITXA: ERAKUNDE ARTEKO PROGRAMA: «GARRAIO PUBLIKOAN SEGURTASUNEZ BIDAIA DEZAGUN»

| | | |
|---|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza | |
| | ☒ Berrikuntza | |
| | ☐ Berariazko sektoreak | |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Erakunde arteko programa: «Garraio publikoan segurtasunez bidaia dezagun».

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Mexikoko Barruti Federaleko Emakumeen Institutua. | |
| **Harremanetarako datuak** | Webgunea: (www.inmujer.df.gob.mx) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Bidaiariak Garraiatzeko sarea-RTP.<br>Taldeak Garraiatzeko Sistema-STC. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Garraio publikoan sexu-erasoak **prebenitzea** eta STC garraioetan gertatutako sexu-erasoei berehalako arreta ematea. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Emakumeentzako berariazko espazioak eta garraioak metroan, metrobusean eta tren arinean; eta arreta-moduluak lurrazpiko garraioan, erasoak salatzeko. |
| **2. Helburuak** | 1. Emakumeen aurkako abusuak saihestea. |
| | 2. Emakume erabiltzaileen aurkako abusuak egiten dituztenei zigorra jartzea. |
| | 3. Emakumeek jakin dezatela salaketa jartzeko eskubidea dutela, eta sexu-abusurik ez pairatzeko eskubidea dutela; eta agintariek berma ditzatela eskubide horiek. |
| **3. Xedea** | Emakumeen osotasuna eta lasaitasuna bermatzea garraio publikoan, eta garraio segurua, erosoa eta eta merkea eskaintzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Garraio publikoa erabiltzen duten emakumeak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Mexiko hiria. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | • Metroan, duela hiru urte, egunean zortzi genero-delitu egiten ziren batez beste, eta orain, berriz, egunean hiru, STCk emandako datuen arabera. RTP unitateei dagokienez, 2007an zazpi kexa izan ziren, eta azken urtean batere ez.<br>• Haurdun dauden emakumeak, hirugarren adineko pertsonak eta gutxitasunen bat dutenak doan bidaia dezakete Atenea autobusetan.<br>• Atenea autobusak nabarmenak dira arrosa-kolorekoak direlako, eta borroka independentistan, Mexikoko Iraultzan edo gaur egun gailendu den emakumeren baten irudia dutelako. |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Programak ematen dituen zerbitzuak:

1. Arreta- eta salaketa-moduluak, metroan (Taldeko garraioa) gertatutako sexu-abusuak salatzeko. Arretak barne hartzen ditu zerbitzu hauek:

   - Krisialdiko lehen esku-hartzea.
   - Berehalako aholkularitza juridikoa.
   - Ustezko erasotzailea agintari juridikoen aurrera eramatea.
   - Biktima eramatea eskumena duten erakundeetara.
   - Biktimari lagun egitea.
   - Epailearen erabakiaren jarraipena.
   - Oinarrizko informazioa hedatzea.
   - Aholkularitza.

2. Atenea programa «Emakumeentzako berariazko autobus-zerbitzua» (RTP): 25 linea, 100 autobus, eta 25.000 erabiltzaile. Erasoak prebenitzen dira berariazko espazioak sortuz:

   - Metrobusean gizonak eta emakumeak bereizita bidaiatzen dute.
   - Tren arinean gizonak eta emakumeak bereizita bidaiatzen dute.
   - Metroan gizonak eta emakumeak bereizita bidaiatzen dute.

# 22. FITXA: «LAGUNARTEAN» PROIEKTUA. SEXU ETA ERREPRODUKZIO OSASUNAREN EREMUAN ETA INDARKERIAREN ALORREKO GAIETAN SUSTATZAILE NERABEEN PRESTAKUNTZARAKO GIDALIBURUA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

«Lagunartean» proiektua. Sexu- eta erreprodukzio-osasunaren eremuan eta indarkeriaren alorreko gaietan sustatzaile nerabeen prestakuntzarako gidaliburua.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | PATH, a catalyst for global health-CEPS, Centro de Estudios y Promoción Social (Nikaragua). | |
| **Harremanetarako datuak** | PATH: (http://www.path.org/)<br>CEPS: (http://www.cepsnicaragua.org/) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Jarduera-esparrua**<br>Sexu- eta erreprodukzio-osasunaren eremuan eta indarkeriaren alorrean gazteak **gaitzea**. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Hezkuntza-estrategia, 2008ko urritik 2009ko apirila bitartean ezarrita, 10-14 urteko neska-mutilekin eta haien laguntza-sareekin (amak, aitak, tutoreak) Sandino Hirian (Nikaragua), sexu- eta erreprodukzio-osasunaren alorreko prestakuntza helburu hartuta. |
| **2. Helburuak** | Generoaren eta giza eskubideen ikuspegia aintzat hartuta, nerabezarora iristen ari diren neska-mutilei laguntzea tradiziozko genero-arauak eraldatzen, sexu- eta erreprodukzio-osasuna hobetzeko. |
| **3. Xedea** | «Lagunartean» proiektuak nerabeak prestatzen ditu, sexu-osasunaren sustatzaile izan daitezen; halaber, nerabe horien gaitasunak sendotzen ditu eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzea bideratuko duen gizarte-aldaketan subjektu-rola har dezatela bultzatzen du.<br>Proiektuaren metodologia herri-hezkuntza da, aldez aurreko esperientzietan eta ezaupideetan oinarritua, eta hausnarketa kolektiboa bultzatzeko ludopedagogia-teknikak funtsezkoak dira.<br>Hezkuntza-ikuspegiaren oinarria da mito sexistak berrikustea, informazio zientifikoaz baliatuta, eta norberaren esperientziei buruzko hausnarketa eginez bizitzarako trebetasunak sustatzea. |

| | |
|---|---|
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Nerabeak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Nikaragua. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Sexu- eta erreprodukzio-osasunaren eta indarkeriaren alorreko gaietan sustatzaile nerabeak prestatzeko gidaliburua.<br>Eskuragarri dago webgune hauetan: (http://www.alianzaintercambios.org/documentos?idtipodoc=8&iddoc=172)<br>(http://www.alianzaintercambios.org/files/doc/1248455953_ManualEntreAmigos.pdf) |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

Proiektua berritzailea da nerabeak gaitzen dituelako sexu- eta erreprodukzio-hezkuntzaren alorrean, esperientzia pertsonalen eta esperientzia horiei buruzko hausnarketen bidez. Gainera, topaketak egin dituzte, gizonen eta emakumeen arteko harremanak jorratzeko, eta gurasoen eta nerabeen arteko harremanak lantzeko ere.

Proiektuak zazpi tailer eta lau topaketa ditu:

- 1. tailerra. Topaketa bat prestatzea, lagunekin informazioa partekatzeko.
- 2. tailerra. Generoa eta botere-harremanak.
- 3. tailerra. Nire gorputza eta beste pertsona batzuen gorputza.
- 4. tailerra. Ezkongai-harremanak eta adiskidetasuna.
- 5. tailerra. Indarkeria.
- 6. tailerra. Sexu bidez kutsatzen diren infekzioak, GIBa eta HIESa.
- 7. tailerra. Aitatasun eta amatasun arduratsua hizpide.
- I. topaketa: gizonen eta emakumeen arteko harremanak.
- II. topaketa: gizonen eta emakumeen arteko harremanak.

- III. topaketa: gurasoen eta nerabeen arteko harremanak.

- IV. topaketa: gurasoen eta nerabeen arteko harremanak.

## PRAKTIKA ONA TRANSFERITZEKO AHOLKUAK

Nerabezarora iristen ari diren neska-mutilak sexu- eta erreprodukzio-osasunaren sustatzaile izatea bultzatzeak dakar erreferentziazko taldea sortzea, neska-mutilengandik gertu dagoena, eta nesken eta mutilen arteko genero-arau tradizionalak eraldatzen laguntzen duena. Eta kontuan hartu behar da genero-arau tradizional horiek sexu-indarkeriaren adierazpenak eragiten dituztela.

# 23. FITXA: ETORKIZUN OPAROKO PRAKTIKAK UNIBERTSITATE CAMPUSETAN SEXU ERASOAK PREBENITZEKO, ETA UNIBERTSITATE ESPARRUAN SEXU INDARKERIA GAINDITZEKO NEURRIAK

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☒ Hobekuntza |
| | ☐ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Etorkizun oparoko praktikak unibertsitate-campusetan sexu-erasoak prebenitzeko, eta unibertsitate-esparruan sexu-indarkeria gainditzeko neurriak.

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Justizia Institutu Nazionala.<br>Gizarte-pedagogiako unibertsitatearteko aldizkaria. (Revista Interuniversitaria de Pedagogia Social). | |
| **Harremanetarako datuak** | (Webgunea: www.ojp.usdoj.gov/nij)<br>E-maila: (pedagogiasocialrevista@upo.es) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Justizia Saila (AEB).<br>Justizia Programen Bulegoa.<br>1015 «College» parte-hartzaile.<br>1001 campus-administratzaile parte-hartzaile.<br>Amerikako Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko unibertsitateak. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Unibertsitate-campusetan sexu-erasoak prebenitzeari buruzko praktika onen **ikerketa** | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Unibertsitateetan neurriak hartzea egungo sozializazio-eredua gainditzeko, oraindik ere sexuaren araberako balio desberdinak sustatzen baititu, eta haurtzarotik hasita neskentzako eta mutilentzako bide desberdinak sortzen baititu. |
| **2. Helburuak** | 1. Erasoak identifikatzea errazten duen giroa sortzea. |
| | 2. Salaketak bultzatzea. |
| | 3. Erasoak desagerrarazteko bidean aurrera egitea. |

| | |
|---|---|
| **3. Xedea** | Sexu-indarkeriaren aurrean «tolerantzia zero» duten giroak sortzea (sexu-indarkeriari buruz oro har, eta unibertsitateetan gertatzen den indarkeriari buruz, berariaz). Horrenbestez, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa jorratzen duen sozializaziorako lagungarria da, eta unibertsitate-erakundeen isiltasuna urratzen du. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | AEBetako eta Erresuma Batuko unibertsitate-ikasleak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | AEB eta Erresuma Batua. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 1. «Sexu-erasoak campusean: unibertsitateak zer egiten ari dira arlo horretan» txostena *(Sexual Assault on Campus: What Colleges and Universities Are Doing About It)*. Justizia Institutu Nazionala, 2005eko abendua.<br>• Sexu-erasoak prebenitzeko etorkizun oparoko praktikak dituzten unibertsitateak (8):<br>— Central Washington University, Ellensburg, Washington.<br>— Lafayette College, Easton, Pennsylvania.<br>— Lewis & Clark College, Portland, Oregon.<br>— Metropolitan Community College, Omaha, Nebraska.<br>— Oklahoma State University, Stillwater.<br>— University of California at Los Angeles.<br>— University of California at Santa Cruz.<br>— West Virginia State College, Institute, West Virginia.<br>2. «Unibertsitate-eremuko genero-indarkeria. Hori gainditzeko neurriak». Revista Interuniversitaria de Pedagogía Social, 16. zenbakia, 2009ko martxoa.<br>• Unibertsitate-eremuko sexu-indarkeria gainditzeko praktika onak dituzten unibertsitateak (18):<br>— California Institute of Technology.<br>— Columbia University.<br>— Drexler University.<br>— Duke University.<br>— Harvard University.<br>— Massachusetts Institute of Technology: «Stop our silence».<br>— Princeton University: «Campus-Wide education».<br>— Stanford University.<br>— University of the Sciences in Philadelphia.<br>— University of Cambridge.<br>— Dartmouth College: «Rape aggression defense».<br>— University of Manchester.<br>— University of Pennsylvania.<br>— University of Wisconsin.<br>— Erresuma Batuko unibertsitateak: University College London, University of Oxford, London School of Economics.<br>— Yale University: «Health educators» eta «Walden-anonymous and confidential peer counselling». |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

- Unibertsitateetan genero-indarkeriaren aurka dituzten neurrien eta baliabideen inbentarioa egin izana.

- Praktika onak aztertu izana, dimentsio hauek aintzat hartuta:

  — Emakumeen arteko solidaritatea.

  — Biktimari laguntzea.

  — Hezkuntza-komunitatearen inplikazioa.

1. «Sexu-erasoak campusean: unibertsitateak zer egiten ari dira arlo horretan» txostena «(Sexual Assault on Campus: What Colleges and Universities Are Doing About It)». Justizia Institutu Nazionala, 2005eko abendua.

- Campusean sexu-erasoak prebenitzeko programa, alderdi hauek kontuan hartuta:

  — Bortxaketari buruzko mitoen alorreko osoko hezkuntza.

  — Krimenen inguruabar komunak.

  — Prebentzio-estrategiak.

  — Bortxaketaren traumari erantzutea eta esperientzia gainditzea.

- Argi eta garbi zehaztutako politika sexu-erasoen aurrean:

  — Sexu-erasoen forma guztiak definitzen ditu.

  — Deskribatzen du nolako egoeretan gertatzen diren sexu-eraso gehienak.

  — Campusean eta komunitatean eskura dauden baliabideen zerrendak ematen ditu.

  — Salaketak jartzeko dauden bideen berri ematen du.

  — Sexu-erasoengatik jartzen diren zigorrak ematen ditu.

— Biktimaren esku dauden ekintzen berri ematen du.

— Campus guztian larrialdietarako telefonoak, argi urdinez argiztatuak.

2. «Unibertsitate-eremuko genero-indarkeria. Hori gainditzeko neurriak». *Revista Interuniversitaria de Pedagogía Social*, 16. zenbakia, 2009ko martxoa.

| | | |
|---|---|---|
| 1. Genero-indarkeriaren aurkako prebentzio-neurriak eta arreta. | | |
| 1.1. Genero-indarkeriazko egoerak identifikatzeko neurriak. | | |
| Unibertsitateetako webguneak. | California Institute of Technology, Massachusetts Institute of Technology, Duke University, University College London. | Genero-indarkeria zer den jakiteko eta indarkeria-motak identifikatzeko informazioa, eta detekzioa bideratuko duten adibideak. |
| Triptikoak edo gidaliburuak, informazioa hedatzeko. | Princeton University, Harvard University, University of Pennsylvania, University of Manchester, Dartmouth College, University of Cambridge. | Zer da genero-indarkeria, jazarpena, erasoa eta sexu-abusua; egoera zehatzei buruzko adibideak, identifikatzea errazagoa izan dadin; arazo horietakoren bat pairatuz gero eskura dauden zerbitzuei buruzko informazioa; erakunde gisa genero-indarkeriaren, jazarpenaren eta sexu-abusuaren aurka agertzea. |
| Hitzaldiak edo eztabaida-taldeak. | Columbia University. | Ikasleek jakin dezatela zer den genero-indarkeria, eta detektatzeko baliabideak ematea. |
| 1.2. Arreta- eta aholkularitza-zerbitzuak. | | |
| 1.2.1. Ikasle-elkarteek ematen duten aholkularitza. | | |
| Prestakuntza-ikastaroak genero-indarkeriaren prebentzioari buruz. | Campus- ide Education, Princeton University. | |
| Jazarpenari eta sexu-erasoari buruzko informazioa, eta eskura dauden zerbitzuei buruzko informazioa. | Health Educators, Yale University. | |
| Jazarpena edo sexu-abusuak pairatzen dituzten ikasleentzako aholkularitza. | Walden – anonymous and confidential Peer counseling, Yale University. | |
| Sentsibilizazioa, prebentzioa, eta unibertsitate-komunitate guztiari laguntza ematea, genero-indarkeriaren kontzientzia hartzeko, eta arazo hori desagerrarazteko ekintzak proposatzeko. | Stop our silence, Massachusetts institute of Technology Institute. | |

| | | |
|---|---|---|
| 1.2.2. Jazarpenei eta sexu-erasoei arreta emateko eta prebentzioa lantzeko bulegoak unibertsitateetan: sexu-erasoak eta -jazarpenak prebenitzeko eta arreta emateko programak koordinatzen dituzte. | | |
| Office of Sexual Assault Prevention and Response. | Harvard University. | Edozein sexu-abusu edo indarkeriazko harreman pairatu duten ikasleentzako informazioa eta laguntza; txostenak prestatzeko edo mediku-arreta jasotzeko laguntza; informazioa eta laguntza biktimaren familiakoentzat eta lagunentzat; hezkuntza-tailerrak sexu-indarkeriari buruz eta harekin zerikusia duten beste gai batzuei buruz. |
| Sexual violence advisory board. | Stanford University. | Ikasleek, irakasleek eta administrazioko eta zerbitzuetako langileek osatutako batzordea, unibertsitatean sexu-indarkeria prebenitzea eta arreta emateko neurriak koordinatzea helburu duena. |
| Ombuds office. | California Institute of Technology. | Unibertsitateko kideei campus barruko arazoak konpontzeko laguntza konfidentziala eta informala emateko sortua. |
| 1.2.3. Beste arreta-zerbitzu batzuk | | |
| Larrialdietarako telefonoa. | Yale University. | Sexu-erasoa pairatu duen pertsona bati aholkatzen dio nola jarri harremanetan poliziarekin, osasun-zerbitzuekin edota unibertsitateko ospitalearekin. |
| Aholku emateko telefonoak. | Yale University. | Sexu-jazarpena edo sexu-erasoa pairatuz gero egin behar denari buruzko informazioa ematen du. |
| Mediku-arreta emateko zentroak. | Harvard University. | |
| Mediku arreta emateko zentroak. | Massachusetts Institute of Technology. | Berariazko atala du sexu-erasoen biktimei arreta emateko. |
| Polizia-komisaldegia campusean. | Harvard University, Massachusetts Institute of Technology, California Institute of Technology. | Berariazko zerbitzuak ditu sexu-erasoei arreta emateko. |
| Tutoreak esleitu indarkeria edo abusuak salatzen dituzten ikasleei. | University of Cambridge. | Salaketa-prozesuetan aholku emateko unibertsitateak jartzen dituen baliabideei buruzko informazioa ematen dute. |
| Taldeko eta banakako terapia psikologikoa doan. | Dartmouth College. | Sexu-jazarpenen eta -erasoen biktimentzat. |
| 1.3. Salaketa jartzea errazteko eta isiltasuna urratzeko neurriak: helburu hori duten bulegoak, taldeak eta salaketa-foroak. | | |
| Unibertsitateko elkarteren edo erakunderen baten mendeko bulegoak. | Columbia University. | Abusuak salatzeko lekuak. |
| Taldeak. | Duke University. | Genero-indarkeriaren arazoari buruzko kontzientzia sortzea, eta zertan datzan azaltzea, eztabaida-taldeen bidez. Ikasleek osatu ohi dituzte talde gehienak, baina irakasleentzako eta administrazio eta zerbitzuetako langileentzako taldeak ere badaude. |

| | | |
|---|---|---|
| Interneteko foroak. | University College London, University of Manchester. | Esperientziak azaltzea, zalantzak argitzea edota genero-gaiei buruz eztabaida egitea. |
| 1.4. Aholku eskatzeko eskura dauden zerbitzuei eta lekuei buruzko informazioa. | | |
| Ikasleei unibertsitatean matrikulatzean ematen zaien gidaliburua. | University of Cambridge. | Adierazten dute unibertsitateak jazarpenaren aurka eta genero-indarkeria ororen aurka duen jarrera: «tolerantzia zero». |
| Genero indarkeriaz arduratzen diren unibertsitate-erakundeak helburu dituzten zentroak. | University of Pennsylvania, Drexler University, University of the Sciences in Philadelphia. | Helburua da emakumeen aurkako delituen kopurua murriztea, eta biktimentzako zerbitzuak hobetzea unibertsitatean, baita hezkuntza- eta prebentzio-programak aplikatzea ere. |
| 1.5. Emakumeen aurkako etsaikeriarik gabeko giroak, genero-indarkeriaren aurrean «tolerantzia zero», eta biktimei solidaritatea adierazten dieten inguruak sortzen laguntzen duten neurriak. | | |
| Genero-indarkeriari lotutako arazoak bideratzen dituzten bulegoak. | California Institute of Technology, University of Manchester. | Salaketak jasotzen dituzte, eta, aztertu ostean, bitartekotza-zerbitzuak abian jartzen dituzte, aldeei elkarrizketak egiten dizkiete, jar daitezkeen zigorren balioespena egiten dute, etab.<br>Genero-indarkeriari buruzko arazoak identifikatzen dituzte eta unibertsitateari politikak proposatzen dizkiote, ematen dituen zerbitzuak hobetu ditzan. |
| Laguntza-taldeak. | University of Wisconsin, Dartmouth College. | Genero-indarkeria desagerrarazteko ekintzak aztertzen dituzte, taldeetara jotzen duten emakumeen premiei erantzun eta informazioa ematen diete. |
| 1.6. Prebentzio- eta prestakuntza-jarduerak. | | |
| Emakumeen zentroak (Women's Center). | California Institute of Technology. | Jarduerak eta zerbitzuak; esate baterako, aholkularitza konfidentziala.<br>Hitzaldiak; indarkeria fisikoa naiz hitzezkoa saihesteko eta haren aurka egiteko tailerrak; laguntza-taldeak; eta kultura-ekitaldiak, adibidez filmak ematea edo tertuliak egitea, emakumeekin eta generoarekin zerikusia duten gaiak aztertzeko. |
| Autodefentsa-ikastaroak eta prebentzio-tailerrak. | University of Dartmouth. | Unibertsitateko polizia-sailak antolatuta.<br>Genero-indarkeriari lotutako gaiak lantzen dira; eta sexu-jazarpena, -abusua edo –erasoa pairatuz gero zer egin jakinarazten dute. |
| Filmak, liburuak eta gidaliburuak. | Princeton University, Yale University. | Genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko. |
| 1.7. Publikoki agertzea, unibertsitate-erakunde gisa, unibertsitate-eremuko genero-indarkeriaren eta jazarpen guztien aurka. | | |
| Genero-indarkeriaren aurkako errebindikazio-ekintzak. | Harvard University. | Egutegia, ekitaldi horiek zehaztuta. |
| Unibertsitateko politikak. | University of Pennsylvania, University College London, University of Manchester, University of Oxford, London School of Economics. | Indarkeria- eta jazarpen-mota guztiak arbuiatzea sustatzen dute, eta horrelako gertaerak zigortzea bideratzen dute. |

| | | |
|---|---|---|
| Adierazpenak webguneetan, ikasleei ematen dizkieten gidaliburuetan, edo beste bide batzuetan. | California institute of Technology,Duke University, Dartmouth College. | Unibertsitateak edo haren erakunderen batek genero--indarkeria gaitzesten du. |
| 1.8. Argitalpenak eta txostenak. | | |
| Argitalpenak eta txostenak, unibertsitatean gertatutako sexu-jazarpenei buruz. | Harvard University, Dartmouth Collage, Duke University. | |

# 24. FITXA: HANDBOOK OF INTERNATIONAL CENTERS FOR SURVIVORS OF SEXUAL ASSAULT AND HARASSMENT (NAZIOARTEKO ZENTROEN GIDALIBURUA SEXU ERASOETATIK ETA SEXU JAZARPENETATIK BIZIRIK ATERA DIRENENTZAT)

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Handbook of International Centers for Survivors of Sexual Assault and Harassment. (Nazioarteko zentroen gidaliburua sexu-erasoetatik eta sexu-jazarpenetatik bizirik atera direnentzat).

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Erakunde hauen arteko lankidetza:<br>• Minnesotako Unibertsitatea.<br>• Aurora zentroa (The Aurora Centre).<br>• Nazioarteko Programen Bulegoa (International Programmes Office). | |
| **Harremanetarako datuak** | Webgunea: (www.umn.edu); E-maila: (international@umn.edu) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Minnesotako Unibertsitatea<br>Aurora zentroa (The Aurora Centre)<br>Nazioarteko Programen Bulegoa (International Programmes Office) | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Prebentzioa:** ikasketa-bidaian beste herrialdeetara joaten diren neskei informazioa ematea sexu-erasoen biktimentzako herrialde hartan dituzten baliabideei eta ohiturei buruz | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Munduko herrialde bakoitzean sexu-erasoak edo/eta sexu-jazarpena pairatuz gero jaso daitezkeen arreta-baliabideen direktorioa. |
| **2. Helburuak** | 1. Aholkuak ematea, sexu-erasoren edo -jazarpenen bat gertatuz gero. |
| | 2. Nazioarteko arreta-baliabideen direktorioa ematea, biktima dagoen lekuan laguntza aurkitzeko. |

| | |
|---|---|
| **3. Xedea** | Unibertsitateko ikasle diren neskak prestatzea atzerrian ikasten ari direnean sexu--erasoei edo -jazarpenei aurre egiteko. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Minnesotako Unibertsitateko ikasleak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Nazioartekoa. |

# 25. FITXA: ESKUALDE-KANPAINA: «EMAKUMEAK HIRIAN BARRENA»

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Eskualde-kanpaina: «Emakumeak hirian barrena».

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Latinoamerikako Emakumea eta Habitat sarea. | |
| **Harremanetarako datuak** | http://www.redmujer.org.ar/ciudades.html<br>http://www.mujeresporlaciudad.org/ | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | «Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko hiriak, guztiontzako hiri seguruak» eskualde-programa UNIFEMek gauzatzen du (NBE Emakumeak erakundearen atala) AECIDen laguntzaz (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia).<br>Ekintzak gauzatzeko, inplikatutako herrialde bakoitzean eskualdeko lankideak ditu:<br>• Argentina: CISCSA. Hego Konoko zerbitzua Elkartrukatzeko Zentroa.<br>• Txile: HEGO-Txile. Osasun-ikasketetarako eta Hezkuntzako Korporazioa.<br>• Kolonbia: AVP eta CIASE-Colombia erakundearen ituna. Herriko etxebitzetarako Elkartearen eta Ikerketarako, Gizarte Ekintzetarako eta Ekonomiako Korporazioaren ituna.<br>• Perun: Flora Tristán Elkarte Feminista.<br>• El Salvador: Toki-garapeneko Elkarte Feminista.<br>• Guatemala: Guatemala Fundazioa.<br>• Brasilen: SOS CORPO.<br>• REPEM. Emakumeen arteko herri-hezkuntzako Sarea.<br>• CLADEM. Latinoamerikako Batzordea eta Emakumeen eskubideen aldeko Karibea . | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Indarkeria sexistaren **prebentzioa**, emakumeek egunero pairatzen dituzten erasoak agerian jarriz, eta herritarren partaidetzaren bitartez. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Ekimen berritzailea, hiri seguruagoak sustatzeko eta genero-harremanetan aldaketa kulturalak eragiteko. Kanpaina publikoa da, emakume-erakundeei tresna baliagarriak transferitzeko aukera ematen duena.<br>Kanpainaren helburua da emakumeek espazio publikoetan pairatzen duten indarkeria agerian jartzea, bi emakume-silueten bidez. Silueta horiek adierazten dituzte emakumeek kalean bizi dituzten egoerak. |
| **2. Helburuak** | 1. Emakumeek indarkeriarik gabeko hirietan bizitzeko dituzten eskubideen gauzatzea sustatu eta sendotu, pairatzen duten indarkeria publiko nahiz pribatua murriztuz. |
| | 2. Emakumeen jabekuntza bultzatu, hiria erabiltzeko eta gozatzeko eskubidean. |
| | 3. Herritarren arteko bizikidetza sendotu, esku-hartze parte-hartzailean oinarritutako esperientzien bidez, eta emakumeen ahotsa entzunarazi. |
| | 4. Emakumeek hirietan duten segurtasunari buruz gehiago jakin eta gai horri buruzko eztabaida publikoa sendotu. |
| | 5. Gobernuen herri-segurtasunerako politika publikoetan aintzat hartu genero-indarkeriaren prebentzioa eta desagerraraztea. |
| **3. Xedea** | Hirietan emakumeek bizi duten indarkeria agerian jartzea, eta pairatzen duten gizarte-indarkeriaren, hiri-indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren arteko erlazioak ikusaraztea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Emakumeak eta neskatoak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Programa gauzatzen ari da Latinoamerikako hiri batzuetan, eta laster hedatuko da beste leku batzuetara: Kairo (Egipto), New Delhi (India), Port Moresby (Papua Ginea Berria) eta Kigali (Ruanda). |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | Latinoamerikako hiri batzuetan egindako esperientziak emaitza positiboak izan dituzte: kanpainaren laguntzaz, emakumeen eta neskatoen aurkako hiriko indarkeriaren kontzientzia askoz ere handiagoa da, eta jendeak hobeto detektatzen ikasi du.<br>Kanpainaren emaitzak eta datuak:<br><br>(http://www.reddemujeresporunmundomejor.org)<br>Horiek horrela, udalerriek erabaki dute neurriak hartzea; esate baterako, kaleak hobeto argiztatzea, eta segurtasunerako udal-plan berriak diseinatzea, emakumeak eta neskatoak helburu hartuta.<br>Kanpainari buruzko informazioa eskura dago: (www.unifem.org.in/PDF/SafeCities_ProgrammeBrief_en.pd)<br>(http://www.redmujer.org.ar/articulos/art_32.pdf)<br>(http://www.reddemujeresporunmundomejor.org)<br>Kanpainari buruzko bideoa:<br>(http://www.youtube.com/watch?v=lgEkaNXWluA) |

<table>
<tr>
<td>Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak</td>
<td>
HIRI SEGURUAK proiektuari lotutako argitalpenak<br>
<br>
Segurtasun-politikan emakumeen kontrako indarkeria. Gaitasunen Eskuliburua.<br>
<br>
Tresnen kutxa. CISCSA.<br>
<br>
Lagunarteko hiria. María Ángeles Durán.<br>
<br>
Emakumeak hirian. Indarkeria eta eskubideak. Ana Falú (argitaratzailea).<br>
<br>
Elkarbizitzarako hiriak: emakumeen kontrako indarkeriarik gabe. Argitaratzaileak: Ana Falú eta Olga Segovia.<br>
<br>
Genero-ikuspegitik hiri seguruak sustatzeko tresnak.<br>
<br>
Emakumeen aurkako indarkeria kumunikabideetan.
</td>
</tr>
</table>

## 26. FITXA: SEIGARREN ZENTZUMENA, TELESAIL FEMINISTA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☒ Berariazko sektoreak |

### PRAKTIKA ONAREN IZENA

Seigarren zentzumena, telesail feminista.

### ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Puntos de Encuentro (Topa-guneak) Fundazioa. | |
| **Harremanetarako datuak** | (http://www.puntos.org.ni)<br>(http://sextosentidotv.com) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Topa-guneak Fundazioa. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Sentsibilizazioa eta prebentzioa**, ikus-entzunezkoen bitartez. | | |

### DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Seigarren zentzumena gazteentzako telesaila da. 80 ataletan kontatzen ditu nerabez eta gaztez osatutako talde baten bizipenak, benetako egoerei aurre eginez: ezkongai-harremanak, familiako gatazkak, haurtzarotik nerabezarora pasatzea, lehenengo maitea, lagunen presioa alkohola eta drogak kontsumitzeko, nahi gabeko haurdunaldiak, indarkeria sexista… |
| **2. Helburuak** | 1. Nerabeek eta gazteek beren bizipenei buruzko hausnarketa egitea sustatzea. |
| | 2. Norberaren bizitzaren kontrola arduraz eta informazio nahikoarekin har dezaten laguntzea. |
| **3. Xedea** | Gizarte-kontzientzia sortzea, kalitate handikoak eta gazteentzat erakargarriak diren ikus-entzunezko produktuen bitartez. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Nerabeak eta gazteak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Nikaraguan eta Amerikako Estatu Batuetan eman dute telesaila. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | 80 kapituluetako batzuek heltzen diote bikote gazteen indarkeriazko harremanen gaiari. 19., 20. eta 26. kapituluetan agertzen da protagonista baten bortxaketa, sortzen diren erreakzioak, eta salaketa jartzea.<br>Telesailaz gain, gidaliburu metodologikoa prestatu dute, edukiei buruzko hausnarketa lantzeko. |

# 27. FITXA: CHILD & WOMAN ABUSE STUDIES UNIT (CWASU) EMAKUMEEN ETA HAURREN AURKAKO ABUSUEN AZTERKETA-UNITATEA

| | |
|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza |
| | ☒ Berrikuntza |
| | ☐ Berariazko sektoreak |

## PRAKTIKA ONAREN IZENA

Child & Woman Abuse Studies Unit (CWASU). Emakumeen eta haurren aurkako abusuen azterketa-unitatea

## ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Child & Woman Abuse Studies Unit (CWASU).<br>London Metropolitan University. | |
| **Harremanetarako datuak** | Webguneak: (www.cwasu.org)–(www.londonmet.ac.uk); E-maila: (cwasu@londonmet.ac.uk) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | Erresuma Batuko, Australiako, Irlandako eta Eskoziako 48 elkarte, etxeko indarkeriaren eta bortxaketen aurka. | |
| **Jarduera-esparrua**<br>**Ikerketa,** prestakuntza eta proiektuen ebaluazioa. | | |

## DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Europako bikaintasunezko zentro independente bakarra da, nazioartean ospe handia duena ikerketaren, ebaluazioaren, prestakuntzaren, aholkularitzaren eta sare-lanaren alorrean, betiere ikuspegi feminista oinarri hartuta. |
| **2. Helburuak** | 1. Ikerketa feminista independenteak egitea, ezagutza baliagarriak sortzeko arduradun politikoek, profesionalek, jarraitzaileek, biktimek eta aktibistek erabil ditzaten. |
| | 2. Metodologia berritzaileak garatzea. |
| | 3. Ezagutza sortzeko eta aztertzeko bide berriak urratzea. |
| **3. Xedea** | Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiei eta haurren aurkako abusuei buruzko ikerketa osoa gauzatzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Indarkeria pairatzen duten emakumeak eta haurrak. |

| | |
|---|---|
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Erresuma Batua. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | • Graduondoko prestakuntza.<br>• Haurren eta emakumeen aurkako abusuei buruz Europan egindako lehenengo MA (Master Administration).<br>• Bederatzi ikasle doktoratu dira.<br>• Doktoretzako ikasleak Europatik, Latinoamerikatik eta Asiatik etortzen dira.<br>• Ikerketak:<br>— Baimenik gabeko sexuaren eta nerabeen haurdunaldien arteko erlazioari buruzko ikerketa.<br>— Bajak arakatzea bortxaketa salatutako kasuetan, Europako 11 herrialdetan. |

## 28. FITXA: «BI GELTOKI ARTEAN»

| | | |
|---|---|---|
| IRIZPIDEA: | ☐ Hobekuntza | |
| | ☒ Berrikuntza | |
| | ☐ Berariazko sektoreak | |

### PRAKTIKA ONAREN IZENA

«Bi geltoki artean» (21:30etatik aurrera eta abuztuaren 30etik apirilaren 30era 19:30etatik aurrera).

### ERAKUNDEAREN DATUAK

| | | |
|---|---|---|
| **Erakundearen izena** | Comité d'action femmes et séqurité urbaine (CAFSU). | |
| **Harremanetarako datuak** | C.P. 8<br>Succ. B, Montreal, (Quebec) H3B 3J5<br>Kanada<br>Telefonoa: 514 396 3521<br>Faxa: 514 280 3230<br>E-maila: (cafsu@qc.aira.com)<br>(http://habitat.aq.upm.es/dubai/00/bp668.html) | |
| **Lankidetzan/sarean?** | ☒ BAI | ☐ EZ |
| **Erakunde Lankideak/sarea** | La Société de transport de la Communauté urbaine de Montréal.<br>The Ville de Montréal's Femmes et Ville (Emakumeak hirian). | |
| **Jarduera-esparrua**<br>Emakumeen segurtasuna **prebenitzea** eta sustatzea, garraio publikoan gauzatutako emakumeen aldeko ekintza positiboen bidez. | | |

### DESKRIBAPENA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren deskribapen laburra** | Zerbitzu iraunkorra, emakumeei aukera ematen diena gauetan bi autobus-geltoki artean jaistea, norakotik gertuago egoteko. |
| **2. Helburuak** | 1. Garraio publikoaren alorrean, genero ikuspegia aintzat hartzea. |
| | 2. Emakumeen mugikortasuna, autonomia eta norberaren bizitzaren kontrola handiagotzea. |
| | 3. Garraio publikoa erabiltzen duten emakumeen segurtasun-maila handiagotzea. |
| | 4. Gizonak sentsibilizatzea, emakumeek gauean eta garraio publikoan duten segurtasun ezari buruz. |

| | |
|---|---|
| **3. Xedea** | Emakumeen segurtasun-sentsazioa eta benetako segurtasuna handiagotzea. |
| **Pertsona edo talde hartzaileak** | Emakumeak. |
| **Jarduera-eremu geografikoa** | Montreal, Kanada. |

## EKARPENAK

| | |
|---|---|
| **Emaitza zehatzak, praktika onaren ondorioz sortuak** | «Bi geltoki artean» zerbitzua 1999ko urrian jarri zuen abian Société de Transport de Laval (Montrealgo aldirietako herria) sozietateak, garraio kolektiboen bi enpresen artean izandako harremanen ondorioz.<br>Proiektu horrek bideratu zuen *STL* gehiago hurbiltzea garraio publikoko zerbitzuaren emakumezko erabiltzaileengana, eta inguruko emakume-taldeei ahotsa ematea, emakumeen berariazko premien berri izateko. |

## PRAKTIKA ONAREN ALDERDI GARRANTZITSUAK

2000 urtean Dubaik lagundutako Praktika Onen Lehiaketan esperientzia hori hautatu zuten eta BEST kategoria eman zioten.

Halaber, emakume-taldeen eta tokiko agintarien arteko elkartze estrategikoaren adibide da, batez ere Nazio Batuetako Erakundearen Habitat agendaren ezarpen-prozesuari begira.